

Katakrak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Angela Y. Davis

ABOLIZIOA

Politika, praktikak, promesak

Angela Y. Davis

ABOLIZIOA

Politika, praktikak, promesak

Itzulpena: Amaia Apalauza Olo

Jatorrizko izenburua (2024): *Abolition: Politics, Practices, Promises. Vol. 1*

Egilea: **Angela Y. Davis**

Jatorrizko lizentzia: *Abolition: Politics, Practices, Promises. Vol. 1* – © 2024 Angela Y. Davis

Itzulpena: **Amaia Apalauza Olo**

Zuzentzaileak: Kristin Addis, Garazi Arrula, Itziar Diez de Ultzurrun, Isa Etxeberria, Larraitz Garmendia, Mirentxu Larrañaga, Ainhoa Mendiluze, Amelia Pérez, Danele Sarriugarte, Garazi Ugalde eta Aroa Uharte

Barruko argazkia: Joxe Lacalle, Iruñeko kartzela 1994an

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: 2024ko urria

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du

ISBN: 978-84-10316-03-4

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 1850-2024

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA	17

1. ZATIA: KAPITALISMOA, DEMOKRAZIA ETA KARTZELA

BAT

Preso-trukea: eskubide zibilen alde iluna	27
---	----

BI

Kartzela: AEBko demokraziaren zeinu bat?	45
--	----

2. ZATIA: ESKLABOTZA ETA AEB-KO KARTZELA: LOTURA GENEALOGIKOAK

HIRU

Esklabotzaren kartzelatik kartzelaren esklabotzara: Frederick Douglass eta presoerentamendu-sistema	59
--	----

LAU

Presoerentamendu-sistematik segurtasun goreneko karteletara	87
--	----

3. ZATIA: KRIMENA ETA ZIGORRA ELKARRENGANDIK BEREIZTEN: EGITURA ABOLIZIONISTEN SORRERA

BOST

Arraza eta kriminalizazioa: estatubatuar beltzak eta zigorraren industria	105
--	-----

SEI

Krimenarekiko eta zigorrarekiko jarrerak aldatzen	121
---	-----

ZAZPI

Kartzela publikoa eta indarkeria pribatua: zenbait gogoeta emakumeen aurkako zigor ezkutuaz	151
--	-----

4. ZATIA: KARTZELA BIRPENTSATZEA: KARTZELA-INDUSTRIA KONPLEXUA IDENTIFIKATZEA

ZORTZI

Arrazakeria estalia: kartzela-industria konplexuari
buruzko gogoetak 167

BEDERATZI

Arraza, generoa eta kartzela-industria konplexua: Kalifornia
eta beste batzuk (Angela Davis eta Cassandra Shaylor) 175

5. ZATIA: EMAKUME ESPETXERATUAK: HERBEHEREAK, AMERIKETAKO ESTATU BATUAK ETA KUBA

HAMAR

Kartzelako emakumeak: arrazari buruzko ikerketa bat hiru
herrialdetan (Angela Davis eta Kum-Kum Bhavnani)..... 205

HAMAIIKA

Emakume espetxeratuak: eraldaketarako estrategiak
(Angela Davis eta Kum-Kum Bhavnani)..... 225

HAMABI

Emakumeen etorkizunaren alde borrokan: zenbait gogoeta
Herbehereetako giza eskubideez eta emakume-kartzelez
(Angela Davis eta Kum-Kum Bhavnani)..... 239





ARGITALETXEAREN OHARRA ESPETXEAK APURTU

A, ze ona den kafea
kartzelan ere badakite nola egin
Cicirinellaren errezetarekin,
zeldakideari amak eman zion.

Fabrizio De André, *Don Raffae*

Angela Davis itzal luzeko militante eta egile bat da. Langile mugimenduaren mundu osoko porrotak eta haren eboluzioak feminismo interseksionalean kokatu du. 1970eko hamarkadatik AEBko Alderdi Komunistako (CPUSA) kide eta lider nabarmena izan zen (presidentetzarako hautagaia birritan), klase borroka eta emakumearen askapena txirikordatu zituen bere lanik behinenean (*Emakumeak, arraza eta klasea*)¹ eta hark bestelako testu bilduma askotan ere (*Emakumeak, kultura eta politika*).² Baina, zatlantzarik gabe, pertsonaia ezagun eta ikono bilakatu bazen hiru gertaerengatik izan zen eta hiruren zentroan zegoen kartzela.

Lehena: Soledad Anaiak babestu zituen, Soledad kartzelako hiru preso ziren hilketa batean parte hartzeagatik errepresaliatu zituztenak. Bigarrena: Angela Davis Soledad Anaïen askapenaren kausan parte hartzen ari zen, baina gainera, Soledad Anaïek armak Davisi esker zeuzkatela akusatu zuten. Hirugarrena: beltzen askapenaren alde ari ziren beste kide batzuk ez bezala, Angela Davis nazioarteko langile mugimendu antolatueneko kide izan zen eta haren kontrako errepresio eta askatasunaren alde mundu osoko pertsonak inplikatu ziren. Nazioarteko

1 Angela Davis, *Emakumeak, arraza eta klasea*, Elkar, 2016 Donostia.

2 Angela Davis, *Emakumeak, kultura eta politika*, Katakarak, 2018 Iruñea.

kanpaina hartan Gyorgy Lukács egon zen Europako beste hiru-
rogei intelektualekin batera; Valentina Terexkova sobietar
emakumeen batzordeen izenean; Vietnamgo Gobernu Iraultzai-
leko eledun Ngueyen Thy Binh; Hego Afrikako ANCKo Florence
Mophoso eta Afrika osoko hamaika idazle, kazetari, irakasle eta
iraultzaile; Herbert Marcuse, Bettina eta Herbert Aptheker; Fania
Davis Jordan, Kendra Alexander eta Franklin Alexander.

Bizitza da handiena

Sokaren itzala. Txakurra eta bere adurra,
azidoa gure gorputzean,
izkutaketan jolasten zabortegi sozialean.
Espetxeak beraien jabeentzat!

Dut, At

Angela Davisen Askatasuna, etengabeko borroka bat. Fer-
guson, Palestina eta mugimendu baterako oinarriak³ izan zen etxe
honetan argitaratu genuen aurreneko liburua. Liburuak egune-
rokotasun tamalgarri bat du: arrazakeria, polizia, Palestinaren
suntsiketa koloniala eta kartzela. Baina, gainera, orduko argita-
letxearen oharrean jaso genuen bezala: segida bat dago 2016an
Iruñeko Arrotxapea auzoan Elhadji Ndiaye hil zuten polizia na-
zionalen eta handik hiru egunera Sestaoko komisarian ertzainek
hil zuten gaztearen artean. Segida bat zegoen bezala 2014ko
otsailean Cádizeko Puerto I kartzelan hilik agertu zen Harkaitz
Bellonen eta egun horietan guardia zibilek Ceutan igerian sartu
nahi zuten etorkinei egindako erasoaren eta heriotzen artean.
Emakumeak, kultura eta politikaren oharrean Xabier Rey iruin-
darraren heriotza aipatu genuen, Puerto III kartzelan. Sarritan,
zenbait kalte burujabetzari lotzen zaizkio, ordea, Eusko Jaurla-
ritza kartzelen kudeaketaz arduratzen hasi denetik Zaballakoan
lau lagun hil dira honezkero.

3 Angela Davis, *Askatasuna, etengabeko borroka bat. Ferguson, Palestina eta mugimendu baterako oinarriak*, Katakarak, 2016 Iruñea.

Abolizioaz gaur, abolizioaz hemen

... jakizu
egun batean
denok izango
garela
ASKE

Ericka Huggins, *Kartzelako poemak*

Angela Davisek, gaur gaurkoz, argitaratu duen azken liburua da hau eta azken ukituak ematen ari garen egunotan albiste izan da Frantziako Errepublikak errekor berria erdietsi duela irailaren batean: Justizia Ministerioaren datuen arabera 78.969 preso eta kartzelak beteta 2024ko irailaren 30ean. Inoizko kopururik altuena eta errekor batetik bestera. Preso horietako 3.609k lurrean jarritako lastairaren baten gainean egiten dute lo (urtebete lehenago 2.361 ziren). Berez, Frantzian 62.014 presorentzako tokia omen dago kartzeletan. Kartzeletako dentsitatea %127,3 da eta komisaldegietan gaua egiten dutenena %153,6. Aurreko Frantziako Gobernuaren asmoa zen 18.000 toki gehiago izatea kartzeletan 2027rako.

Espainiako Erreinuak 55.095 preso zeuden 2022an, bataz beste 40 urte dauzkate, gero eta gehiago dira atzerritarrak.

Azken hiru hamarkadetan Euskal Herriko kartzeletako populazioak, inguruko lurraldeetako enaren antza handia du: hamarretik zazpi-zortzi drogen menpekotasunarekin zerikusia duten lege hausteengatik daude barruan eta, disidentzia politikoaren kriminalizazioari lotutako presoen jaitsiera nabarmena izan da. Baionako kartzelak 70 toki dauzka eta 161 preso. Baina Hendaia atxikitze zentroan 351 atxilotu zituen 2024ko maiatzean Frantziako administrazioak: gora doan kopurua da, 2022an 261 ziren. Migratzaileek sistematikoki indarkeria jasatea salatzen dute. CIMADetik zentroa presondegi bat dela nabarmentzen dute.

Euskal kartzeletan behin eta berriro jazotzen diren suizidioen kontura, César Manzanos Salhaketako kide historikoak aipatzen du gazte pobreen eta migratzaileen aurkako indarkeria sistematikoa dela. Alegia, salbuespenekin baina, funtsean, kartzela ez dela gizartean ongi kokatutako natiboentzat existitzen eta, ordea, bazterrean bazaude, gaixotasun fisiko edo psikolo-

gikoak badituzu, zeharkako heriotza zigor bat dela kartzelen, epaitegien eta poliziaren sistema.

Angela Davisen lan mardul hau irakurri ostean, nabarmena da idazteke dugula Euskal Herriko kartzela sistemaren historia bat, azken bi mendeak jasoko dituen. Horretarako, oso inspiratzailea da AEBko kartzelen aurkako mugimendua eta borroka ezagutzea.

Iruñea
2024ko urria

Ginari



HITZAURREA

Kartzelari, kartzela-industria konplexuari eta haren aboli-zioari buruzko testu hauek gure gizarteko suntsipen-mekanismo jarraitu eta sistematikoen prozesuak ulertzeko esfortzu kolektibo eta –gaur egun sortzen ari diren mugimenduekin lotuta daudenez– behin-behineko baten emaitza dira. Kartzelak, nahiz eta beti argi egon ez dela gai segurtasun publikoa bermatzeko eta kartzelan dauden subjektuak errehabilitatzeko, beti egin du kartzelak irautearen alde.

Artikulu guztiok oraingoaren aldean oso desberdina zen garai historiko batean idatziak dira, baina espero dut zuekin partekatu nahi ditudan ikuspegiek balioaren bat izatea gaur egun ere. Zehatzago, espero dut idatzioak lagungarriak izatea gaur egungo mugimenduetako parte-hartzaile eta aktibista eta akademikoentzat, ohartu daitezen ezen, nahiz eta mugimendu erradikalen bidez lortu nahi ditugun aldaketen eta haien egiazko ondorioen artean lotura zuzenik ez egon, ondorio horiek desberdintasun handiak ekar ditzaketela, baita behar genituenik ere sekula jakinen ez genuen beste aldaketa batzuk ere. Bilduma honetako artikulu guzti-guztiekin lankidetzazko ikuspegi eta praktikak dakartzate, eta, egilea ni neu naizela agertzen bada ere gehienetan, ez dut inongo asmorik ideia guztion gaineko erantzukizuna soilik neure gain hartzeko. Orain, ideiotara itzuli naiz haien aurrerapauso (eta atzerapauso) historiko, intelektual eta praktikoak ulertzeko, eta espiritu horri helduz eskaintzen dizkiot irakurleria zabalago bati.

Azken urteetan –eta bereziki poliziak George Floyd, Breonna Taylor eta beste asko, gehiegi, hil ondoko altxamenduez

geroztik, 2020an-, bertatik bertara ikusi dugu nola loratu den kontzientzia kolektibo berri bat kartzela-instituzioen nonahikotasunaren eta osasun eta segurtasun publikoa ziurtatzeko beste modu batzuk imajinatzeko daukagun gaitasun mugatuaren gainean. Indar politiko atzerakoiak oraindik ere saiatzen dira kontzientzia berri horren arrastoa ezabatzen, baina, hala eta guztiz ere, gero eta aiseago onartzen dira estrategia abolizionistek –erreformisten kontrara– aldarrikatzen dituzten aukera politikoak; batzuetan, baita diskurtso publiko nagusian ere.

Horrek, jakina, ez du esan nahi kartzela- eta kontrol-egituren aboliziorantz goazenik, ezpada orain ezinezkoa dela publikoki eztabaidatzen jarraitzea immigranteen atxilotetzez, familiak kontrolatzeko sistemaz –eta orobat kontrolaz– eta kartzelaz –hots, zigor gorenaz– betiko adiskide zintzoaren eskutik, hots, «erreforma» delakoaren eskutik, ez bederen aintzat hartu gabe abolizioa etorkizun bizigarriagoetarako estrategia bat izan daitekeela.

Aldi berean, azken hamarkadetan abolizioa diskurtso gailenetik at egonagatik, horrek ez du esan nahi orain haren aitortza hutsarekin konformatzen garenik. Abolizioa gaur egungo kartzela-praktikei heltzeko estrategia bat izan daitekeela aitortzeak indarra ematen digu kartzela-sistema erradikalki kritikatzeko, zeren agerikoa baita desagertutzat jotzen diren instituzioekin loturiko ideologiek oraindik ere badutela eragina. Abolizioaren –eta feminismo abolizionistaren– une honek abiapuntu berriak sortzen laguntzen digu lau haizeetara hedatzen jarraitu dezagun ezen arrazakerian, heteropatriarkatuan eta klase-hierarkietan funtsaturiko sistema eta egitura errepresiboek iraganean katigatuta gauzkatela, kapitalismora lotzen gaituztela hainbat modutara eta etorkizun sozialistak kolektiboki irudikatzea eragozten digutela.

Bi liburuki hauetan (bigarrena ere bidean da) bildutako artikuluetarik asko orokorrean onargarritzat jotzen diren kontrol- eta zigor-moldeek esklabotzaren instituzioaren elementuekin dituzten lotura estuez pentsatzen hasteko lehen saiakerak dira. AEBko Hegoaldeko kartzela anitzetan –baina ez soilik Hegoaldekoetan–, oraindik ere nabaria da esklabotzaren eta presoen errentamendu-sistemaren arrastoa. Joan den mendearen amaieran, esklabotzaren eta kartzelaren arteko lotura

aztertzen ari ginela, ondorioztatu genuen antzua zela lotura hori aztertzen segitzea analogikoa balitz bezala –hau da, kartzela-estrategien eta esklabotzaren artean antzekotasunik balego bezala– eta emankorragoa litzatekeela bestelako marko batean aztertzea, hots, marko genealogiko batean. Izan ere, baliteke bi instituzioen artean antzekotasunak egotea, baina askoz emankorragoa da esklabotzaren eta kartzelen arteko lotura historikoak agerian uzten dituzten ideien, ideologiaren eta instituzioen historia aztertzea.

Testu hauetan, agerian utzi nahi dugu nola pentsa dezakegun kritikotasunez instituzio horiei buruz kontuan hartuta gure bizitzen aurrealdintza gisa eratuak direla berez. Kasu baterako, norbaitek esan lezake ezen demokrazia, diskurtso publikoan eskubide eta askatasun zibilen berme instituzionalizat hartzen den heinean, kartzelaren sortzezko baldintza ere badela eta, horrenbestez, kartzela instituzio demokratikoetan demokrati-koena balitz bezala ikusi beharko litzatekeela. Kartzela zigor gisa erabiltzeak eskubide eta askatasun demokratikoak ezeztatzea dakar, hots, filosofikoki, eskubide eta askatasun horien sortzezko ukazioa da.

Zergatik da lagungarria kartzelari buruz era horretako eztabaida kritikoak bultzatzea? Bada, kartzelaren iraunkortasunari buruz –izaera ahistorikoari buruz– nagusitu diren suposizioak hankaz gora jartzen laguntzen digutelako. Kontuan hartuta kartzelak estatu-zigorerrerako egitura gisa sortu direla historian zehar eta zerikusi handia dutela kapitalismoaren eta kapitalismoak demokrazia burgesean izan dituen oihartzun politikoen gorakadarekin –betiere ulertuta gora doan klase bati dagokiola demokrazia burgesa, ez gizarteko beste sektore batzuei–, orduan, espero izatekoa da historia aldatuz gero garrantzi historikoa galduko dutela. Mugimendu masiboek eta beste ekintza politiko erradikal mota batzuek ere lagundu dezakete prozesu horretan, baita –hala espero dugu– hura lastertu ere. Gure planetako kartzela-instituzioekiko konpromiso abolizionistaren karietara, onartu beharra daukagu aldarrikatzen segitu behar dugula aboli daitezela era guztietako kartzelak, immigranteentzako atxilotaketa-zentroak, kontrol-egiturak eta beste kartzela-instituzio batzuk. Izan ere, gure gizarteetan segurtasuna eta ziurtasuna bermatzeko bide berrietarako estrategiak imajinatu eta garatu

nahi ditugu, baina, abolitu nahi ditugun kartzela-instituzioez harago pentsatzen eta imajinatzen ez badugu, sekula ez dugu halakorik lortuko.

Kapitalismo arrazialak mundu guztian barna eredu ekonomiko esplotatzaileak inposatuaz batera, soldatapeko le-galtasun-moldeak sortu eta inposatu zituzten kondizio berberak eutsiko diete kartzela-egitura arrazistei. Alegia, guztiz kontrae-sankorra da kartzelaren (eta poliziaren) abolizioa aldarrikatzea eta, aldi berean, demokrazia kapitalista eta kapitalismoa bera batere aldatzen ez duten praktiketan parte hartzea. Kartze-la-zigorra deuseztatuko duten kondizio sozial, ekonomiko eta politikoak sortzeko mandatu bat da abolizioa. Iraultzarako man-datu bat.

Hain zuzen, abolizioa iraultzarako mandatu bat denez, artikulua hauetan orobat erakutsi nahi dut zergatik den generoa funtsezko kategoria analitiko bat, klasearekin eta arrazarekin gainjartzen eta gurutzatzen dena, kartzela-instituzioen lan ideo-logikoa sendotzen laguntzen duen heinean. Artikulu hauek lehen aldiz argitaratu zirenetik, generoaz teorizatzeko modu konplexuagoak garatu ditugu.⁴ Garrantzitsua da azpimarratzea trans mugimendu erradikal eta eragingarriari esker kontzien-teagoak garela nola sortzen eta birsortzen dituzten etengabe halako instituzioek ustez eztabaida kritikotik harago dauden arauak. Genero-sistema binarioari aurre eginez instituzioak eta ideologiak iraul daitezkeelako kontzientzia zabala sortu aurretik idatziak dira testu hauek.

LGTBQ mugimenduak abolizionismoaren lidergoa hartuta egin duen lan erradikal eta eraldatzaileak oihartzun zabala izan du, nahiz eta kontzientzia espezifikorik ez egon jakiteko nola lortu duen halako analisi sakonak eta eskaera indartsuak hain azkar egitea. Ez da kasualitatea ezen, 2020ko udako altxamendu masiboen aurretik, hain justu errebolten epizentroko azken kan-paina politikoetako batean kokatzea CeCe McDonald askatzeko borroka, Minneapolisen, Minnesotan. CeCe McDonald, emakume beltz transa bera, gizonen kartzela batean sartu zuten, gizon zuri baten aurrean bere burua defendatzeagatik: gizonak, pertsona

4 Ikus, adibidez, Angela Y. Davis, Gina Dent, Erica R. Meiners eta Beth E. Richie, *Abolition. Feminism. Now* (Chicago: Haymarket Books, 2022).

trans batekin espazio berean egon behar zuela onartu ez, eta indarrez eta indarkeriaz adierazi zuen bere mezua. Minneapolisko aktibisten eta AEBko eta AEBz haragoko aliatuen lan kolektiboari esker, hemeretzi hilabeteren buruan askatu zuten CeCe. Kanpaina berezi hura azpimarratu nahi izan dut zeren altxamendu hark asko zor baitie kanpaina hari eta mugimenduarekin loturiko beste kanpaina batzuei, nahiz eta hedabideetan modu sinplista batean agertu, George Floyden aurkako polizia-lintxamendua salatzeko erantzun espontaneo hutsa balitz bezala. Izan ere, 2020ko udako protesta masiboak hobeki ulertuko genituzke baldin eta ulertuko bagenu elkarren artean gurutzatzen diren mugimendu andana bateko aktibistek urte eta, are, hamarkada anitzetan eginiko antolaketa-lanaren gailurra direla.

Hutsune ugari ditu bilduma honek, baina, beharbada, hemen falta den gairik garrantzitsuen Free Palestina mugimenduak jokatu duen rol esanguratsu eta eraldatzailea da. Berezik deitoratzen dut Palestinak abolizioaren teorian eta praktikan duen zentraltasuna ordezkatzuta ez egotea idazlan hauetan, hain justu Israelek Gazaren aurka hasitako gerra eta haren okupazio militar etengabea munduaren arretagune nagusia direlarik oraintxe bertan. Liburuki honetako testu guztiok 2011n aktibista akademiko feminista indigena eta kolorekoen ordezkaritza batekin Palestinara egin nuen bidaiaren aurretik argitaratuak dira.⁵ Bisita hartan, askotan eztabaidatu genuen zenbait pertsona eta erakunderekin Israelgo gobernuaren kartzela-praktikez eta, bereziki, Zisjordaniako eguneroko bizitzako kartzela-egiturez, Zisjordanian eman baikenuen denbora gehiena. AEBko eta AEBz haragoko borroka antirrazisten eta Israelgo kolonien kolonialismoaren aurkako borroken artean lotura estuak zuelako publikoki nabarmentzen hasi ondoren, 2014an, protestak antolatu ziren poliziak Michael Brown hil zuelako, Fergusonen, Missourin. Palestinako erresistenteak harremanetan jarri ziren Fergusongo aktibistekin (baita palestinar-amerikarrekin ere), eta hala jakinarazi zieten, jende anitzek oraindik ere gogoan izanzen duen bezala, gas negar-eragileko kanoien marka berbera ari zire-

5 Rabab Abdulhadiik eta Barbara Ransbyk antolatu zuten ordezkaritza, eta kide hauek parte hartu zuten: Ayoka Chenzira, Gina Dent, G. Melissa Garcia, Anna Romina Guevarra, Beverly Guy-Sheftall, Premilla Nadasen, Chandra Talpade Mohanty eta Waziyatawin.

la erabiltzen Palestinan eta Fergusonen. Horrez gain, Palestinako erresistenteek aholku garrantzitsuak eman zizkieten Ferguson-
go kideei, gasaren eragin kaltegarria nola apaldu jakin zezaten. Harreman hari eta beste hainbati esker, Palestina frogarri bilakatu da Black Lives Matter-en garaian. Kidetasun horren erakusgarri, oraintxe bertan, hainbat eta hainbat beltz gazte parte hartzen ari dira egunero AEBko eta mundu guztiko elkartasun-protestetan, Nelson Mandelak 1997an esandakoa berretsiz: «Gure eskuak luzatzen ditugularik Palestinako herrirantz, ederki dakigu bat eginda dagoen gizateria baten parte garela».⁶

Liburu honetako idazlanak testuinguru batean ezartzen saiatzen ari naizelarik, nazioarteko konferentzia batean parte hartu dut, Brisbane-n (Australia), 2023ko azaroaren 8tik 10era, Sisters Inside erakunde abolizionistak antolaturik. 1999an sortu zen Sisters Inside, kartzelan dauden edo egon diren emakumeei hainbat zerbitzu emateko eta, aldi berean, kartzela desagertu dadila aldarrikatzeko, bai emakumeentzat, bai neskentzat, bai genero orotako pertsonentzat. Gaur egun hainbat bileratan, hainbat tokitan, hainbat herrialdetan gertatzen ari den bezala, konferentziak lehen lerroan ezarri zuen ezinbestekoa dela Gazako gerra amaitzeko eta Palestinako justiziaren aldeko borrokarekin elkartasuna agertzeko esfortzua egitea. Konferentziako saioetan, hitzaldi eta aurkezpen anitzetan nabarmendu da kolonien kolonialismoa, baita Australiako indigenen eta Torres itsasarteko uhartetarren borroken, Aotearoako maorien borroken eta Palestinako erresistentziaren borroken arteko lotura ere: kolonien kolonialismo bereziki errepresibo baten aurka dihardute palestinarrek, beren esparru geografikoa eta kontrol politikoa hedatzea baitute kolonoek helburu, XXI. mendean ongi sartuak garen honetan. Konferentziaren eszenatokian ongi ikusteko moduan eta lotura hori bistartzeko asmoz, elkarren ondo-ondoan egon dira aborigenen, maorien eta palestinarren banderak.

Liburu honen irakurleek jakin behar lukete abolizioari buruz hainbat eta hainbat testu garrantzitsu argitaratu direla azken bi hamarkadetan. Zorionekoa sentitzen naiz irakurri ditudan testu guztietatik ikasteko aukera izan dudalako. Bilduma

6 Nelson Mandela, «Address by President Nelson Mandela at the International Day of Solidarity with the Palestinian People», Pretoria, Hegoafrika, 1997ko abenduaren 4a.

hau eskaintzen dut, beraz, abolizioari buruzko literatura gero eta zabalago bat sortzen laguntzen duten ideien historian ekarpen txiki bat izanen delakoan.

Esan dezadan bere horretan utzi ditudala zenbait adierazpen zaharkitu, testuok idatzi nituen garaiaren ebidentzia gisa gera daitezten. Esate baterako, «amerikar natibo» erabili dut, nahiz gaur egun ohikoagoa den «indigena», hain zuzen ere nabarmentzeko haiek han zeudela «amerikar» identitatea munduko alderdi horretan milaka eta milaka urtean inposatu baino lehenago ere. «Latinx» erabili beharrean –zeina latinoamerikar jatorriko jendeak oraindik ere zalantzan jartzen baitu–, «latino» eta «latina» erabili ditut.⁷ Bestalde, garai hartan ez nekien nola adierazi genero-inklusibitatea modu zabalago batean, hau da, genero-identitateari sistema binario kontrolatzaileaz harago erreparatuta. Zorionez, sistema binarioa hasia da indarra galtzen. Gainera, ikasi dugu pertsonen identitateak ez direla giltzapetu behar zentzurik gabe deskribatzaile neutrotzat hartzen diren kontzeptuen barnean. Aldaketa guztiok agerian uzten dute erabiltzen dugun hizkuntzara ere hedatzen direla askatasunaren alde egiten ditugun borrokak. Hala, ikasia dugu ez ditugula pertsonak giltzapetu behar «esklabo» izendapenaren barnean eta haren ordeztu «pertsona esklabo» erabili behar dugula, eta logika bera aplikatzen dugu «preso», «gatibu» eta izendatzen dituzten errepresio-molde berak aditzera ematen saiatzen diren beste termino batzuetan. Beste batzuk aldaketa politiko eta ekonomikoen isla dira; esate baterako, «hirugarren mundu» esan beharrean Hego Globala esatea (partez, «bigarren mundua» sozialismotik bereizi delako, «lehen mundu» kapitalistaren aurkako mehatxu argitzat ikusirik).

Ezin dut zehatz-mehatz esan zer adierazi izanen nuen beste era batera baldin eta nire hizkuntza eguneratu banu (ezinezkoa litzaidake halakorik egitea testuinguru deskriptibo eta analitikoarekin eguneratu gabe, eta horrek testuak oso-osorik berridaztea eskatuko lidake), eta, horrez gain, aitortzen dut ez naizela gai hautemateko zer neurritaraino eta zer nonahikotasunez erantsi zaizkien metafora kapazitistak gure esateko moduei.

7 Ingelesezt, «Latinx» neologismoa erabiltzen da AEBko latinoamerikarren identitateari erreferentzia egiteko. (Itzultzailearen oharra).

Etengabeko lan intelektual kolektiboaren laguntzaz baino ez dugu lortuko denborarekin halako esapideak gure hiztegietatik ezabatzea. Eta berriz ere nabarmendu nahi dut oso pozgarria zaidala bertatik bertara bizi izana hainbeste urtetan eta hainbeste bizialditan buru-belarri lanean aritu diren hainbat aktibista, antolatzaile eta, jakina, aktibista akademikori esker gertaturiko aldaketak; ez pertsona horiei ematen zaien edo ez zaien oho-reagatik, baizik eta jakitun naizelako kolektiboki lagundu dutela munduan askatasuna lortzeko proiektua zabaltzen.

Angela Y. Davis
Brisbane, Australia
2023ko azaroa

1. ZATIA

KAPITALISMOA, DEMOKRAZIA ETA KARTZELA

BAT

PRESO-TRUKEA: ESKUBIDE ZIBILEN ALDE ILUNA⁸

Duela gutxi, «kartzela-industria konplexua» adierazpidearen esanahiaz pentsatzen niharduela, Derrick Bellen «The Space Traders» kontakizun laburrarekin egin nuen topo. Kontakizunaren hasieran kontatzen du nola urrutiko planeta batetik mila espazio-ontzi iristen diren AEBra, 2000ko urtarrilaren 1ean, baliabide materialen hornidura ikaragarri handi bat gorputz beltzen truke aldatzeko misioa betetzera:

Alimaleko itsasontzi haiek beren sotoetan zeramaten Ameriketako Estatu Batuek etsi-etsian behar zuten altxorra: urrea –kasik osotara porrot egindako gobernu federala, estatu-gobernua eta gobernu lokalak salbatzeko–, produktu kimiko bereziak –ingurumen gero eta toxikoagoa deskutsatzeko eta Mendealdeko esploratzaileak iritsi aurreko egoerara leheneratzeko– eta motorretarako erregai nuklearra –guztiz segurua, nazioko erregai fosilen hornidura ia agortua ordezkatzeko–. Bisitariek gauza bakarra nahi zuten trukean: Ameriketako Estatu Batuetan bizi ziren afro-amerikar guztiak atzera bueltan eramatea beren sorterriko izarrera.⁹

Haatik –eta hau funtsezkoa da nire asmoei begira–, zurrumurruek diotenez, AEBko negoziatzaileak tratu bat egiten saiatuko dira espazioko merkatariekin: prest daude kartzelan edo hirigune pobre harresituetan dauden pertsonak salerosteko, baldin eta besteak, beltz dirudunak, Lurrean geratzen badira. Esklabo-trafikatzaile modernoek, baina, inklusiorako legedi zorrotz bati heldurik, gainerako kategoria-bereizkuntza ia guz-

8 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *Not for Sale: In Defense of Public Goods*, arg. Anatole Anton, Milton Fisk, Nancy Holmstrom (Westview Press, 2000), 131-144.

9 Derrick A. Bell Jr., «The Space Traders», in *Faces at the Bottom of the Well: The Permanence of Racism* (New York: Basic Books, 1990), 159-160.

tiak saihestu (salbu adina eta desgaitasuna), eta jaiotza-agirian «beltz» gisa sailkaturiko gizabanako guztiak erbesteratu nahiko dituzte, haien estatus ekonomikoa eta prestigio sozial edo politikoa aintzat hartu gabe. 2000ko urtarrilaren 17an gauzatuko da trukea, Martin Luther Kingen egunean, eta, kontakizunak arraza-identitatearekin, interesekin eta memoria historikoarekin dituen loturen erakusgarri, bertan behera geratzen da halako ospakizun bat egitearen beharra:

Nazioak biziko zuen Martin Luther Kingen azken jaialdiko egunsentiak ikuskizun bikain bat argiztatu zuen. Gauean, espazioko merkatariek hondartzetara ekarrarazi zituzten beren ontzi bitxiak, bai eta urre- eta mineral-kargamentuak eta makineria deskargatu ere, sotoak huts-hutsik utzirik. Hondartzetan pilatuak ziren soldadugaiak, hoguei bat milioi gizon, emakume eta haur isil, baita haur jaioberriak ere. Eguzkia jaiki zelarik, espazioko merkatariek agindu zieten, lehenik, erantz zezatela azpiko arropa ez beste guztia; gero, jar zitezela ilaran; eta, azkenik, sar zitezela Miltonen «iluntasun ikusgarria» balira bezala goizeko argian aharrausika ari ziren sotoetan. Soldadugaiak, haien atzean kokaturik, ikaraz begiratzen zieten. AEBko guardiak hondartzen gaineko dunetan zeuden, armak prest. Ez zegoen ez ihesbiderik, ez alternatibarik. Burua makurturik eta besoak kate mehe batzuekin loturik, beren arbasoak behinola iritsi ziren era berean alde egin zuten beltzek Mundu Berritik.¹⁰

Bellek «arrazakeriaren iraunkortasuna» gai hartuta idatziriko parabolak –azpitu-tulu horixe zeraman bilduma batean argitaratu zen– arrazakeriaren egitura material, ideologiko eta fisikoen gaineko auzi garrantzitsu eta kezkarriak azaleratzen ditu, bereziki nazioak estrategia hari heltzeko agertzen duen prestasunari buruz: «[B]eltzen eskubide oinarritzkoenak sakrifika-tzeari esker, onura esanguratsuak metatu zituzten zuri guztiek».¹¹ Espero izatekoa zenez, eztabaida piztu zuen Bellen kontakizunak, batez ere AEBko «arraza-harremanen» aitzinamenduaren historiaren gaineko ideia liberalak kritikatzeko maite ez duten adituen artean: arrazakeriari buruz kontakizun ezkorregiak eta historikoki zaharkituak idaztea leporatzen diote Belli. Alta, bada modurik Bellek bere parabolan arrazakeriaz dakarren ikuspe-

10 Bell, «Space Traders», 194.

11 Derrick A. Bell Jr., «After We're Gone: Prudent Speculations on America in a Post-Racial Epoch», in *Critical Race Theory: The Cutting Edge*, arg. Richard Delgado eta Jean Stefancik (Philadelphia: Temple University Press, 1995), 3.

gia kritikotasunez aztertzeke eta aldi berean seriooki hartzeko nolako garrantzia ematen dion arrazakeriaren iraunkortasunari –edo, gutxienez, jarraipenari– eta legeak iraunkortasun horri eustean daukan rolari, zeren eta ideologia arrazistak instituzionalizatzeko tresna bat baita legea izatez.

Esan dezadan seriooki galdetu beharko genukeela, Michael Olivasek galdetzen duen bezalaxe, zer lotura dagoen Bellen kontakizunaren eta amerikar natiboen, latinoen eta koloreko beste herritar ez-beltz batzuen istorioen marko historikoen artean, haiek ere lasai aski izan bailitezke «espazioko merkatarien truke zitalaren hautagaiak».¹² Bellen kontakizunari erantzunez, Txerokiak Deuseztatzeko eta Txinatarrak Baztertzeke Legeak aipatzen ditu Olivasek, baita Bracero Programa eta Bizkarbustien Operazioa ere. Olivasek ondorioztatzen du jendea kanporatzeko patroio historiko errepikakor berberak aurki daitezkeela AEBn 1990eko hamarkadako immigrazio-politikan eta, paradoxikoki, espazioko merkatarien parabolaren oihartzuna dakarrela politika horrek sorturiko goerak. Honela dio Olivasek:

Espazioko merkatarien kronika ez da... fantastikoezia edo gertaezina, baizik eta justu kontrakoa: balizko egoera hori gertatu egin da gure nazioaren historian, behin baino gehiagotan gertatu ere. Beltzak esklabo egin soilik ez, kronikan atsekabe handiz kontaktzen den bezala, baizik eta, areago, beste arraza-talde batzuk konkistatu eta deuseztatu dituzte, lana kendu diete eta ez diete onartzen berek eraikitako gizartean parte hartzea, edo, bestela, kanporatu egin dituzte beren lan-indarra jada beharrezkoa ez zela iritzita.¹³

Bellen ideiak hedatu eta populazio latino, amerikar natiboa eta asiar-amerikarra ere kontuan hartuta, baita arraza-ordena zeharkatzen duten genero- eta klase-ardatzak ere, adibide esanguratsuak aurkituko ditugu gaur egungo garaian ere: gero eta jende gehiago kanporatua da gizarte zibiletik.

Hala eta guztiz ere, berariaz erreparatzen badiogu AEBko beltzen historiari, geure buruari galdetu beharra diogu ea ezin bestekoa den, AEBko beltzen aurkako arrazakeriaren jarraipena berresteko, erdiko klaseko afro-amerikar politikoki kontserbado-

12 Michael A. Olivas, «The Chronicles, My Grandfather's Stories, and Immigration Law: The Slave Traders Chronicle as Racial History», in Delgado eta Stefanic, *Critical Race Theory*, 11.

13 Olivas, «Chronicles, My Grandfather's Stories».

reak langile-klaseko herritar pobretuen aurkako arrazakeriaren sare berean sartzea. Alegia, nahiz eta Bellen kontakizunean afro-amerikar guztiek ezinbestean egin beharreko arraza-sakrifizioa lagungarria zaigun AEBko arrazakeriaren ezaugarri historiko konbentzionalak ulertzeko, harago begiratzen badugu eta erreparatzen badugu nor gelditzen diren salbuetsita lekualdatze masiboetatik eta presoak eta hiriguneetako pobreak deserriratzeko proposamenetatik, ohartuko gara zer erlazio dagoen gaur egun arrazaren eta kriminalizazioaren artean. Horrez gain, lanari eta lanerako gaitasunari buruzko pentsamolde estereotipatuenetako batzuk berresten ditu espazioko merkatarien planak. Kartzelako eta hirigune pobreetako eremu maskulinizatuek etekin potentzial gordinetarako esparruak eskaintzen dituzte; beren kasa, ordea, ez dira aski beren burua erreproduzitzeko. Beltzen artean, soilik adinekoei eta desgaituei uzten zaie Lurrean geratzen, beltzen ondasunak zaintzeko ardura duten 1.000 atxilotuekin batera –noizbait itzuliko balira ere–, ez baitira baliagarriak espazioko merkatarien xedeetarako. Populazio beltza banatzean, Bellen kontakizunak agerian uzten du zer lotura maltzurra dagoen kapitalismoaren eta justizia omen den arlo horren artean; izan ere, espazioko merkatarien logika bat dator, paradoxikoki, kartzela-praktikarekin, zeren eta onartutzat ematen baita langile-populazio ideala osatzen dutela jada presoek eta langabe eta azpienplegatuek (zeinak laster egonen baitira atxilotuak izateko moduan). Hori ez dator bat hedabideek preso alferrentziez ematen duten irudiarekin; hedabideen arabera, lo egiteko tokia eta otorduak doan jaso eta, itxura batean, badirudi nahiago dutela denbora guztian poliziaren kontrolpean egon, legezko ekonomietan enplegu onak eduki baino. Preso adintsuei edo gaixoei (hots, lan eraginkorrik egin ezin dutenei) errukizko askatasuna ematea, nahiz gogor borrokatutako zerbait izan, kartzela-aktibismoaren kontraesanik handienetako bat izanen da segur aski; izan ere, garaipena beti neurtu behar da aske geratutako presoak errentagarritzat hartzen ez dituen sistema baten aldean.

Hain zuzen, lekualdatzerako eta desagerpenerako esparru berri bat ekarri digu kartzela-industria konplexuak, eta, esparru horretan, zigor-industria errentagarri baterako lehengaitzat hartzen dira gizon-emakumeak, batik bat kolorekoak. Horrez

gain, beltz, latino, amerikar natibo eta asiar-amerikar pobreak andanaka espetxeratzearen ondorioz, ezkutuan geratzen da zer arrazakeria-egitura sortu diren klasearen arabera zenbait esparrutan, zeinetan ekonomia korporatiboa gure aurkako zigorra birdefinitzen ari baita, eta segurtasun publikoa balitz bezala saltzen.

Ez dut, jakina, «Space Traders» kritikatu kolorekoen komunitateak AEBko gizarte nagusitik at utzi dituzten ezaugarri historiko eta garaikideok kontuan ez hartzeagatik. Kontakizun horretaz interesatzen zaidana zera da, zientzia-fikziozko kontakizun sinesgarri bat dela: esklabotzari zuzenbide konstituzionalaren esparrua ukatuz, Bellek argi eta garbi adierazten du zer garrantzia duen sistema juridiko demokratiko batek arrazakeria sostengatzeko orduan. Bell lege-aditu aitzindaritzat jotzen dute arraza-teorialari kritikoek, eskubide zibilen diskurtsoari egiten dizkion kritikengatik;¹⁴ «Space Traders» kontakizunean, hain zuzen, aurrez aurre ipintzen digu era horretako proposamen bat herrialdeko lege bilakatzeko aukera ikaragarria. Ez du besterik gabe esaten legea doktrinatzat hartzen dela, ezpada legeak ideologiak dakartzala berekin, nahiz ideologia horiek kamuflatuta egon; esate baterako, arrazakeria –zeina eredutzat hartzen baitzen legea ezarri aurretik ere–, eta legeak gehiengoaren interesen aurka babes emateko orduan izandako porrota –are gaitasunik eza ere–.

Bellen lanaren espirituari helduz, labur-labur aztertu nahi dut zein kaltegarria den arrazakeria kontzeptualizatzea berdintasunaren printzipio juridikoen interpretazio estu baten arabera –eta legeak babesa dakarrelako suposizioan oinarrituz– kartzela-industria konplexuaren eta gaur egungo arrazakeriaren arteko lotura ulertzeko orduan; izan ere, arrazakeriaren iraunkortasuna ziurtatzera jotzen da, hain justu diskurtso nagusiek arrazakeria desagertua dela azpimarratzen duten garaian. Bellen parabolan, beltz guztiak nazioaren aldeko sakrifiziozko zerbitzu berezi horretara biltzeko, beharrezkotzat jotzen da zuzenketa

14 Ikus Derrick A. Bell Jr., «Serving Two Masters: Integration Ideals and Client Interests in School Desegregation Litigation» eta «*Brown v. Board of Education* and the Interest Convergence Dilemma», in *Critical Race Theory: The Key Writings that Formed the Movement*, arg. Kimberlé Crenshaw, Neil Gotanda, Gary Peller eta Kendall Thomas (New York: New Press, 1995).

konstituzional bat egitea, neurriak oinarri juridikoa izan dezan. Erreferendumean, baiezkoa gailentzen da: % 70 alde eta % 30 aurka.¹⁵ Aski litzateke hemen pausa bat egin eta geure buruari galdetzea, Lani Guinierren proposamenetatik harago joz,¹⁶ nolatan izan daitekeen hori demokrazia bat, zeren eta sakrifizioa egin behar dutenek ez baitute osatzen ezezkoa eman duen % 30 hori, eta «gizon bat / boto bat» aukera indibidualistak –zeina gaur egungo erregistro antifeministaren arabera garbi baitago ez dela nahikoa– ez baititu talde-interesak kontuan hartzen eta ezin baititu kontuan hartu. Baina nola ulertuko ditugu legeztatzeo beharrik ere ez duten arrazakeria-egiturak, edo klaseari, generoari eta botere sozialaren beste ardatz batzuei esker bere horretan irauten omen duen subjektu juridiko abstraktu bat baliatuz borrokatu ezin direnak? Arrazakeriari legearen eskutik soilik hel badakioke –eskubide zibilen aldeko mugimenduak segregazioaren garaiko legeak deuseztatu izana da horren adibide esanguratsuena–, eta onartzen badugu ezinezkoa dela berriz ere beltzen, latinoen eta orobat koloreko pertsonen aurkako legerik ezartzea, orduan, nahiko zentzuduna litzateke arraza-ordenaren gainbeherari buruz nagusitu den diskurtso liberala onartzea.

Bellen parabolan, afro-amerikar guztiak errekrutatzeo zuzenketa konstituzional bat egiteari buruzko fikziozko erreferendumak protestak eragiten ditu, eta komunitate beltzaren aldeko indarrak antolatzen dira. Errealitatean, baina, koloreko milioi bat gora lagun baino gehiago bortxaz lekualdatzeak –eta kartzela-sare gero eta handiago batean giltzapetuta egoiteak– ez du oposizio eta protesta zabalik eragin. Aktibismo falta hori azaltzeko, esan ote genezake ez dela berariaz eskatu arraza-bazterkeria izendatuko lukeen inongo lege-prozedura berezirik «segregazio berri»¹⁷ hori justifikatzeko? 1999ko martxoan, Justizia Estatistikaren Bulegoaren Kartzeletako presoak 1998ko lehen urte-erdian txostenak aditzera eman zuen 1,8 milioi pertsona baino gehiago zegoela herrialdeko kartzeletan gatibu.¹⁸

15 Bell, «Space Traders», 192.

16 Ikus Lani Guinier, *The Tyranny of the Majority: Fundamental Fairness in Representative Democracy* (New York: Free Press, 1994).

17 David Theo Goldbergi hartu diot termino hori. Ikus haren artikulua hau: «Wedded to Dixie: Dinesh D'Souza and the New Segregationism», in Goldberg, *Racial Subjects: Writing on Race in America* (New York: Routledge, 1997).

18 Darrell K. Gilliard (BJSko estatistikaria), «Prison and Jail Inmates at Midyear 1998»,

Giltzapetuen batezbestekoa 100.000tik 668koa da, hots, 1985eko batezbestekoa halako bi baino gehiago (100.000tik 313koa baitzen). AEBko 150 biztanletik bat preso dago. Datuok kezkarriak dira bere horretan, baina, kontuan hartzen badugu 1,8 milioi preso horien % 70 inguru koloreko pertsonak direla,¹⁹ geure buruari galdetu beharko genioke ea zer rol duen legeak, nahiz halakorik ez den aitortzen. Zigorra arrazializatzeaz eta zigorrak koloreko populazioan duen eragin suntsitzailea ikusezin egiteaz gainera, «kriminal» indibidualak sortzen ditu legeak, eta gizalegez erabaki daiteke errudunak ala errugabeak diren. Legearen subjektua herritar eskubidedun abstraktua da, eta, jakina, eskubide zibilen aldeko mugimenduak aurrerapauso handiak eman zituen legea desarrazializatzeko eta haren ustezko neutraltasuna areagotzeko. Nolanahi ere, arrazagatik baztertuak diren komunitateen asimilazio juridikoa gauzatu dadin, beharrezkoa da komunitateok gizabanako eskubidedunen multzo gisa kontzeptualizatzea; gizabanako horiek zeinek bere aldetik jo behar dute legera, zeren legeak haien erruduntasuna bakarrik hartzen baitu kontuan, eta ez berea. Gero eta zailagoa da identifikatzea zenbaterainoko eragin sakon eta ankerra daukan arrazakeriak komunitate horietan, izan legearen barnean, izan legetik kanpo. Inongo arraza-lege esplizituk ez du jasotzen populazio beltz eta latino zabalak mundu asketik giltzapetuen unibertsoa aldatu behar direnik. Hala, geure buruari galdetu behar genioke zer esanen ote zuen eskubide zibilen aldeko komunitateak duela 35 urte jakin izan balu 2000. urterako milioi bat gizon beltz eta gero eta emakume beltz gehiago egonen zirela kartzelan, Jerome Miller analista politikoak dakarren bezala.²⁰ Paradoxikoa bada ere, subjektu eskubidedun berdin gisa lortu duten estatus erlatiboki berri horrexek kentzen dizkie zigorraren eta etekinaren esparruko eskubide horiek, berdintasunak erantzukizun berdina

1999ko martxoa, NCJ 173414.

- 19 The Sentencing Project erakundearen arabera, 1996an, beltzak ziren estatu-presoen eta preso federalen % 49, eta hispanoak, berriz, % 17. Ikus «Facts About Prisons and Prisoners», 1999ko martxoa.
- 20 Justizia Sailaren 1999ko martxoko estatistikak aztertu zituen Jerome Miller Institutio eta Alternatiben Zentro Nazionalaren zuzendariak, eta ondorioztatu zuen milioi bat afro-amerikar heldu giltzapetuta egonen zirela 2000. urterako, hots, gutxi gorabehera hamar gizon beltzetik bat egonen zela kartzelan. Ikus «Number of Blacks in Jail Rising Toward One Million», *San Francisco Chronicle*, 1999ko martxoaren 8a.

dakarren heinean. Horrek laburbiltzen du, geroago azalduko du-dan bezala, kartzelaren jatorri historikoa.

«Racial Realism» artikuluan, Bellek honela aztertzen ditu eskubide zibilen aldeko estrategien mugak:

Amaitua den eskubide zibilen aldeko aro bateko beteranoa naizen aldetik, atsekabegarri zait azaldu behar izatea zer atera zen gaizki. Argi dago aztertu beharra dugula nolatan arraza-konponbideetan geneukan konfiantzak eragotzi zigun onartzea lege-eskubideek ezin zutela gauza handirik egin jokabide diskriminatzaile mota bat eteteaz harago, zeren jokabide hori modu sotilago baina ez gutxiago diskriminatzaile batean agertu baitzen gero. Kontua zera da, ea azterketa hori egitean berriz definitu behar ote ditugun beltzek mende luze batean bere egin dituzten arraza-berdintasunaren helburuak eta aukerak. Erantzunak baiezko biritila behar luke izan.²¹

Eskubide zibilen aldeko diskurtso nagusiak berdintasun eta arraza-daltonismo abstraktuari ematen dion garrantziak (arraza-teorialari kritikoek luze eta zabal aztertu dituzte printzipio horiek)²² nabarmen zaildu du herriak ulertzea nola gauzatzen eta sakonagotzen dituzten kartzelatze-praktikek segregazio sozialeko praktikak (eskubide zibilen paradigmatic harago joatea proposatzen du Bellek). Frogatu ezin denez herrialdeko kartzeletan pilaturiko koloreko pertsonak esplizituki arraza-kondizioen arabera identifikatzen dituzten legee jarraikiz zigortu eta kondenatu dituztenik, orduan, beltz, latino, amerikar natibo eta -gero eta gehiago- asiatar-amerikar presoek kopuru eskergak ezin aurkeztu dira arrazakeriaren frogak material gisa. Eskubide zibilen aldeko iraganeko estrategiek arrazakeriaren oinarri sozioekonomikoak kontuan hartzeko izan zituzten mugak are nabarmenagoak dira erreparatzen badugu nola babesten dituzten oinarriok gaur egun diskriminazio positiboaren aurkariak.

Baliteke kointzidentzia hutsa izatea hezkuntza eta enplegu publikoan diskriminazio positiboa abolitu zuen lehen estatuan egotea herrialdeko preso-populaziorik handiena.²³ 1996ko Eskubide Zibilen Aldeko Kaliforniako Ekimena (CCRI)

21 Bell, «After We're Gone», 307.

22 Ikus Neil Gotdandaren «A Critique of "Our Constitution Is Color-Blind"» artikulua eta beste aditu batzuen ekarpenak, hala nola Kimberlé Crenshaw, Gary Peller, Cheryl Harris eta Kendall Thomas, lan honetan: Crenshaw *et al.*, *Critical Race Theory*.

23 Gilliard, «Prison and Jail Inmates at Midyear 1998».

deritzon hauteskunde-araudiko hizkera espresuki diseinatu zen helburu hau lortzeko: diskriminazio positiboaren aurkako estrategia 1950eko eta 1960ko eskubide zibilen aldeko mugimenduarekin lotzea. Haren defendatzaileek ziotenez, arraza- eta genero-lehentasanak, kuotak eta bazterkeria amaituz gero, posible izanen zen –Martin Luther King doktorearen oratoria gogora ekarri– «gizarte daltonikoaren ametsa betetzea».²⁴ Alta, Kalifornian, bost aldiz aukera handiagoa dago gizon beltz bat kartzela bateko ziega batean kausitzeko, unibertsitate publiko bateko ikasgela batean baino.²⁵ Texasek ere, bigarren preso-populazio handiena izanik, abolitua du diskriminazio positiboa. Eta, hau idazten ari naizelarik, Ward Connerly Kaliforniako Unibertsitateko buru eta CCRIko presidente beltzak adierazi du Florida izanen dela, laugarren preso-populazio handiena izanik (New Yorkek du hirugarren handiena), diskriminazio positiboa bertan behera uzteko antzeko lege-proposamen bat onartuko duen hurrengo estatua. Kalifornian, Texasen eta Floridan diskriminazio positiboaren aurkako saiakerek eta preso-populazioek aldi berean gora egin izana ez litzateke halabeharrezko kontu bat baldin eta prest bageunde ulertzeko zer lotura historiko dagoen herritar batzuentzat eskubide demokratikoak aldarrikatzearen eta hori ziurtatzeko beste batzuei eskubideak ukatzearen artean. Diskriminazio positiboari buruz eztabaidatzean, beraz, aztertu beharko genuke nola huts egin dugun oro har –baita eskubide zibilak zabaltzeko zinezko interesa dutenek ere– kartzela-industria konplexuak ezkutuan (nahiz soilik lege aldetik) beren eskubideez gabetu dituen herritarrak kontuan hartzeko orduan.

CCRIren klausula nagusiak honelako hizkera darabil: «Estatuak ez du diskriminatuko eta ez dio lehentasunezko traturik emanen inongo gizabanako edo talderi arraza, sexua, kolorea, etnizitatea edo jatorri nazionala oinarrian duen inongo arrazoi-rengatik, ez enplegu publikoaren arloan, ez hezkuntza publikoan, ez kontratazio publikoan».²⁶ Alegia, diskriminazio positiboaren

24 CCRIren dokumentuetan agertu zen eslogan hori, haien webgunean ikus daitekeenez.

25 Lea McDermid, Kathleen Connolly, Dan Macallair eta Vincent Shiraldi, *From Classrooms to Cellblocks: How Prison Building Affects Higher Education and African American Enrollment in California* (Washington, D.C.: Justice Policy Institute, 1996ko urria).

26 Eskubide Zibilen Aldeko Kaliforniako Ekimena, estatu mailako zuzenketa konstituzional baten proposamena, ekimen bidezkoa (egileak eta bultzatzaile nagusiak: Glynn Custred eta Thomas Wood), 1996an onartua.

aurkako jarrera defendatzeko funtsezko suposizio bat da eskubide zibilak berdintasunez banatzen direla orain herritarren artean («inongo gizabanako edo talderi»), arraza kontuan hartu gabe. Agerikoa da legearen ikuspegitik ustez berdinak diren horien estatus sozial eta ekonomikoa baxuagoa dela, eta, hori zuritzeko, disfuntzionaltasun sozial eta kulturala azaltzeko marko bat erabili ohi dute diskriminazio positiboaren aurkakoei. Esate baterako, Nicolas Capaldik diskriminazio positiboaren aurkako argudio gisa aipatzen du –serioski hartu gabe diskriminazio horrek eraginik izan ote dezakeen afro-amerikarrena ez beste inongo taldetan– arau-multzo gisa ezin duela konpondu berez konpondu nahi lukeen arazoa, hau da, «afro-amerikarrek porrot egin dutela bizitza amerikarrean bete-betean parte hartzeari dagokionez»;²⁷

Zer esan nahi du bete-betean parte hartzeak? Gure gizartean bete-betean parte hartzeak esan nahi du gizabanako autonomo eta arduratsuak izatea, hots, lege-obeditzaileak, autosufizienteak, autodefinituak eta konstruktiboki aktiboak erakunde batean edo gehiagotan. Neurketa estatistiko ugari berresten dute ezen, langabeziaren, gizarte-laguntzen, kriminalitatearen, familia desagituratuaren eta beste arazo sozial batzuen esparruetan, afro-amerikarrak populazioaren barnean dagokien ehunekoaren «gainetik» daudela nabarmen. Estatistikek agerian uzten dute afro-amerikarrak, talde gisa bete-betean parte ez hartzeaz gainera, sozialki disfuntzionalak direla hein handi batean.²⁸

Hala, Capaldiren argudioaren logikari jarraituz, zenbait politikarik –hala nola Ward Connerlyk– ez dute aintzat hartu nahi disfuntzionaltasun horren ondorio dela kartzelan eta gizarte-laguntzetarako zerrendetan dauden koloreko beltzen kopurua «gainetik» egotea. Areago, logika horrek gaizki ulertzen du legearen egiturazko berdintasunaren eta haren azpian ezkutatzen diren ondorio aurreikusgarri eta arrazializatuen arteko lotura. Kasu honetan, eskubide zibilen printzipioen gaineko interpretazio estua baliatzen da, hain zuzen, lege-berdintasunaren eta kartzelako espazio-segregazioaren atzean desagertzen diren diskriminazio- eta bazterkeria-moduei garrantzia kentzeko. Hain justu, eskubide zibilei buruzko diskurtso nagusia –ohiko

27 Albert G. Mosley eta Nicholas Capaldi, *Affirmative Action: Social Justice or Unfair Preference*, (New York: Rowman and Littlefield, 1996), 65.

28 Mosley eta Capaldi, *Affirmative Action*, 65-66.

beltza/zuria banaketaren arabera – herritarren eraikuntza oso estu batean funtsatua denez, presoaren egoera aintzat ez hartzeaz gainera, orobat bazterrean uzten da antzeko estatusa eta, maiz, kartzelan espazio fisiko berbera partekatzen dutenen egoera ere, hala nola paperik gabeko immigranteena. Hala, Immigrazio eta Naturalizazio Zerbitzua atal garrantzitsua da kartzela-industria konplexuan: inon baino agente federal armatu gehiago daukate, atxilotuta zentrotan sare gero eta handiagoa, eta atxilotuta zentrotan atxilotuz gainezka daude. Presoaren eta immigrantearen estatus partekatuen ironia ez datza soilik haien arraza-kriminalizazioan; aitzitik, haien kriminalizazioaren moldeak agerian uzten du legearen funtsezko hutsegite bat: legeak ezin du haien indibidualtasunik atzeman, bere izenean ez bada. Immigrante eta preso (irakur bedi ez-zuri) paradigmaticoak talde kriminalizatuetakoa kideztat hartuak dira are legearen aurrean azaldu baino lehen ere. Eskubide indibidualen aldarrikapena zentzu negatiboan errespetatzen da soilik: ilegaltasunaren erantzukizuna hartzeko.

Presoek eskubide zibilen jabe ere izan behar luketela nozio aski berria da. 1871n, kartzela Ameriketako Estatu Batuetako zigor-molde nagusi gisa ezarri zenetik zenbait hamarkadatar, honako irizpen hau eman zuen Virginiako Auzitegi Gorenak presoek buruz: «[E]z dute soilik galduko beren askatasuna, baizik eta baita beren eskubide pertsonalak ere, salbu legeak gizalegez emandakoak». Bestela esanda, «oraingoz, estatuaren esklabo»²⁹ izanen ziren presoak. Nahiz eta erabaki judizial zenbaitek atzera bota izan duten Ruffinek Virginiako Commonwealthen aurka abiatutako kasuaren epaia –Commonwealthen arabera, presoek ez zuten eskubiderik, salbu estatuak espresuki ematen zizkienak–, AEBn eta AEBko justizia penala eredutzat hartzen duten herrialdeetan, eskubide demokratikoek ez dute esanahi handirik burdin hesien atzean daudenentzat.

Krimenengatik zigorturiko herritarrei eskubideak kentzeko, oinarri konstituzional bat baliatzen da. Herritar horien kopuru neurritz gainera bat koloreko herritarrek izatea ez zaio haien arraza-orientazioari zor, baizik eta gizabanakoen eta

29 *Ruffin v. Commonwealth*, 62 Va (21 Gratt.) 790, 796 (1871). Hemen aipatua: Leonard Orland, *Prisons: Houses of Darkness* (New York: Free Press, 1975), 81.

komunitatearen disfuntzioei. Kartzelaren arrazializazioaren mozorrotze ideologikorako eszenatoki historikoa Konstituzioko Hamahirugarren Zuzenketa onartzearekin batera taxutu zen: estatubatuar beltzen esklabotza abolitu arren, esklabo-estatusa gorde zuten «krimenengatik zuzenbidez zigortuak zirentzat».³⁰ «Herritar» batzuk «zuzenbidez zigortzeko» eta beste batzuk kasik zigorgabetzeko prozesuen barnean eta atzean dautzan egitura arrazistak ezin dira diskurtso *juridikoaren* interpretazio estu batez azaleratu. Ezinezkoa da argudiatzea herritar batzuk arrazarengatik akusatzen eta «zuzenbidez zigortzen» eta beste batzuk baino errazago espetxeratzten dituztela, nahiz batzuen eta besteen arteko aldea gero eta groteskoagoa izan.

Epaietako arraza-bereizgarriak justizia penalaren sistemaren ezaugarri izan dira beti, gutxienez Gerra Zibila amaitu zenetik. Hala eta guztiz ere, arrazakeriaren aurkako aktibistek gutxitan heldu diote auzi horri. Ezta Frederick Douglasssek ere, nahiz elokuentziaz mintzatu zen lintxamenduaren aurka, nahiz presoan errentamendu-sistema kritikatu zuen, nahiz errotik aldatu zituen AEBko Hegoaldeko kartzela-sistemak Gerra Zibilaren ondotik.³¹ Eskubide zibilen aldeko mugimenduen garaian, gutxitan aipatzen zen kartzelak herritartasun osoa kentzen ziela herritar beltzei. Are, eskubide zibilen aldeko mugimendua buru-belarri borrokatu zenean populazio beltzak ere boto-eskubidea izan zezan, presoek eskubide hori kentzea ez zen arazo larritzat hartzen. Era horretako hutsegiteek Bellek eskubide zibilen aldeko aktibisten porrotaz eta printzipio juridikoekiko mendekotasunaz esandakora garamatzate, eta garbi uzten dute gaur egun behar-beharrezkoa dela ikuspegi mugatu hori zailtzean jartzea.

Gaur egungo kartzela-aktibismoak ebidentzia ugari utzi dizkigu presoak eskubideez gabetzearen arazoaren neurriaz jabetu gaitezen. The Sentencing Project erakundeak eta Giza Eskubideen Behatokiak 1998an argitaratutako txosten baten

30 «Ameriketako Estatu Batuetan eta haien jurisdikzioko inongo lekutan ez da existituko ez esklabotzarik, ez nahi gabeko joputzarik, salbu krimenengatik zuzenbidez zigortuak diren presoek dagokienez» (Konstituzioko Hamahirugarren Zuzenketaren 1. atala, 1965eko abenduaren 6an berretsia).

31 Ikus Angela Y. Davis, «From the Prison of Slavery to the Slavery of Prison: Frederick Douglass and the Convict Lease System», in *The Angela Y. Davis Reader*, arg. Joy James (Malden, MA: Blackwell, 1998).

arabera, 3,9 milioi lagun daude beren eskubideez gabetuta, behin-behinean zein modu iraunkorrean, gaizkileak edo gaizkile ohiak izateagatik.³² Estatu-legeen ondorioz, 1,4 milioi gizon beltzek –gizon beltz heldu guztien % 13k– galdu dute bozkatzeko eskubidea. Alabamako eta Floridako estatuetan, gizon beltz guztien % 31ri kendu diete hauteskunde-prozesuan parte hartzeko eskubidea.³³ Ez da ustekabeko paradoxa bat kartzelako populazioa kartzela-industria konplexu gero eta hedatuago baten baldintzen pean handitzearekin batera ideologo kontserbadoreek eskubide zibilen printzipioak bereganatzea eta eskubideok eskuragarri eta erabilgarri izateari uztea bozkatzeko eskubidearen aldeko kanpaina masiboetan, nahiz eta, gauzak beste modu batera balira, horretarako erabiliko liratekeen.

Horrek auzi zabalagoak planteatzen ditu demokraziak kapitalismoaren baldintzen pean izan duen bilakaerari buruz. Zer zentzutan esan dezakegu herritarren (edo eskuragarri diren eskubideen) neurria beti egon dela lotuta zenbaiten eskubideen ukazioarekin? Kartzelen historiari buruzko azterketa labur bat lagungarria litzazuke hemen, bereziki kontuan hartuko bagenu zer ondorio dituen kartzela –zigor-molde nagusi gisa– eta industria-kapitalismoa –gizarte zibilean eskubide indibidualen gainean egiten diren diskurtsoak barne– aldi berean agertzeak. Ameriketako Estatu Batu gazteek demokrazia politikoko eredu bat ekarri zuten Mendebaldeko mundura, baina, horrez gain, baita zigor-eredu berri bat ere: jendea kartzeletan preso hartzea. Gorputz-zigorren alternatiba gisa, demokrazia burgesaren adierazpiderik gorena zen kartzela-zigorra; izan ere, subjektu eskubidedunaren estatusa ukatzen zien herritarrei, eta pobrezia kriminalizatzen zuen, populazioa zatikatzen, eta gizarte-ongizatearen erantzukizun moralaren zama gizabanakoarengan (irakur bedi gizonarengan) ezartzen, horrenbestez estatua zama horretatik libre utziz.

1831n AEBko hainbat kartzelatara eginiko bisiten hari-ra, zera onartu zuten Alexis de Tocquevillek eta Gustave de Beaumontek:

32 Jamie Fellner eta Mare Mauer, «Losing the Vote: The Impact of Felony Disenfranchisement Laws in the United States», The Sentencing Project eta Giza Eskubideen Behatokia, 1998ko urria, 2.

33 Fellner eta Mauer, «Losing the Vote», 8.

AEBko kartzela-sistema gogorra da. AEBko gizartea askatasunik handienaren eredu izanik ere, despotismorik handienaren ikuskizuna eskaintzen dute hango kartzeleak. Legearen pean dauden herritarrek legegaren babespean daude; gaiztoak bilakatzen direlarik uzten diote aske izateari.³⁴

Arestiko oharra zenbait egileren artean idatzitako *On the Penitentiary System in the United States and Its Application in France*³⁵ liburuan agertu zen, eta Tocquevillek *Democracy in America*-ko materiala biltzeko AEBko bidaia hartan egin zuen ikerketan oinarrituta dago. Esanguratsua da *Democracy in America* lanean ez aipatzea zer eztabaida zegoen kartzela demokraziaren beste aldetzat eta, are, prozesu demokratikoarekin lotura estu-estua duen instituzio bereziki «antidemokratikotzat» hartzeari buruz. Tocquevillek lan horretan kartzelari egin zion aipamen bakarra «The Unlimited Power of the Majority» kapituluari dago; zehazki, kriminalak erreformatzeko, dio berak, iritzi publikoa mobilizatu behar da. Hala, gehiengoaren boterea kritikatzeko du, kartzela berrien erreforma babesteagatik eta instituzio zaharrak abandonatzeagatik: «[G]ure garaietako espiritu bare eta jakintsuaren lekukoa zen kartzelako ziega batzuek Erdi Aroko barbarismoa zekarten gogora».³⁶

Tocqueville, baina, AEBko kartzela-sistemarekin aski harriturik, funtsezko figura bat izan zen Frantziako kartzelen erreformari buruzko eztabaida parlamentarioan. Berak aldarrikatzen zuen AEBko kartzelak –are makurrenak ere– Frantziakoak baino askoz hobeak zirela: «Gure kartzelak AEBkoak baino okerragoak dira, are osasunerako eta oreka mentalerako kaltegarritzat jo izan direnak baino okerragoak; hortaz, haiekin alderatzen saiatzea arrazoia bortxatzea da».³⁷ Eztabaida parlamentarioan, Pennsylvaniako sistemaren alde hitz egin zuen Tocquevillek –zeina kartzela-erreformista kuakeroek sortua bai-

34 Gustave de Beaumont eta Alexis de Tocqueville, *On the Penitentiary System in the United States and Its Application in France* (Carbondale and Edwardsville: Southern Illinois University Press, 1964 [jatorrizko argitalpena, 1833]), 78.

35 Antza, Tocquevillek ekarpen txikia egin zion testu horri; hala eta guztiz ere, Beaumontekiko lankidetzara islatu zuen. Ikus Thorsten Sellin 1964ko edizioan idatzitako aitzinsolasa.

36 Alexis de Tocqueville, *Democracy in America*, 1. lib. (New York: Vintage Books, 1954), 268. Baliteke Philadelphiako bi kartzelei erreferentzia egitea: Cherry Hilleko Ekialdeko Estatu Kartzela eta Walnut Kaleko Kartzela.

37 Seymour Drescher, arg. *Tocqueville and Beaumont on Social Reform* (New York: Harper Torchbooks, 1968), 73.

tzen-, guztiz aparte eta isiltasunean zegoelako, eta horrek, haren arabera, presoek elkarri kalte egitea eragotziko zuen, eta, ondorioz, preso indibidualak moralki erreformatzea lortuko zen.³⁸

Halako erreforma bat, dena den, gizarte zibilaren aurkako errepresio latz baten bitartez gauzatu zitekeen soilik. Elkartzeko eta adierazpen-askatasuna zeinu bereizgarritzat dituen gizarte demokratiko bat babesteko modu bakarra gaiztaginak bakardadera eta isiltasunera zokoratzea izanen litzateke, ez soilik pertsona horiek gizarte zibiletik kanpo utziz, baizik eta orobat harreman sozial oro ukatuz. Bestalde, Charles Dickensek –AEBko kartzelak bisitatu zituen beste europar bat– demokraziarekin guztiz bateraezintzat jo zuen Pennsylvaniako sistema. *American Notes* lanean, maiz aipatu ohi den pasarte batean, 1842an Ekialdeko Kartzelara eginiko bisita deskribatu zuen, eta ohar hau erantsi: «[H]emengo sistema konfinamendu bakartu hertsia, zorrotz eta etsigarri bat da. Krudela eta okerra deritzot, dituen ondorioengatik».

Ziur nago haren asmoa ona eta gizatiarra dela, eta erreformarako egokia; baina iruditzen zait Kartzela Diziplinaren sistema asmatu eta gauzatu zuten jaun onberek ez dakitela zertan ari diren. Uste dut oso gizon gutxi jabetzen dela zentzudunaren tortura eta samina dakarkien zigor ikaragarri honek hainbeste urte luzez hura sufritzen dutenei... Ezin ziurrago nago kartzela honetan badagoela pairamen sakon izugarri bat sufritzen dutenek baizik konprenitu ezin dutena eta ezein gizonek ez duela esku-biderik bere kidekoei sufriarazteko. Uste dut burmuinaren misterioak egunero eta mantso-mantso era horretan andeatzea puskaz makurragoa dela gorputzari eginiko edozein tortura baino; ... izan ere, haren zauriak ez dira azalean ikusten, eta oihu apur batzuk aterarazi besterik ez du egiten, gizakiaren belarriak entzun ezinezkoak; horregatik, are irmoago gaitzes-

38 «Aintzat har dezagun sistema honetan presoak aldentu egiten dela beste kriminal batzuen konpainian aurkitzen dituen plazer gaitzesgarri baina erakargarri horietatik, presoak bere damuarekin bakarrik uzten dela. Aintzat har dezagun ea sistema hau, azken batean, ez ote den gaur egungo sistema bezain errepresiboa. Aintzat har dezagun, halaber, ea presoak gizartearen alderdi gangrenatsutik banandu eta beraren alderdirik duinenarekin kontaktuan ezartzen duen sistema bat, ea atea beti itxaropenari eta duintasunari ireki eta delituari eta etsipenari ixten dion sistema bat, ea... halako sistema bat ez ote den izango infinituki moralizatzaileagoa gaur egun daukaguna baino. Beste hitz batzuetan esanda, galdetu diezaiogun geure buruari ea sistema zelularrak bere kasa –beste guztien artean– nahitaez ote dakarren ondorio handi bat, hots, eragozteko presoek elkar usteldu dezaten lehenago ere ustelduta zeuden baino gehiago, kartzelak sekula gizonik itzul ez dezan jaso zituen baino gaiztoago». Drescher, *Tocqueville and Beaumont*, 88-89.

ten dut, gizateria lokartuak iratzarri eta gerarazten ez duen zigor sekretu bat den heinean.³⁹

Tocquevillek uste zuen zigor horrek eraberritze moralak ekarriko zuela eta, hartara, presoak herritar hobeagoak izanen zirela; Dickens ustez, aldiz, «[z]igor hau sufritu dutenak NAHITAEZ itzuliko dira gizartera moralki hondaturik eta gaixorik».⁴⁰

Pennsylvaniako sistemak «heriotza zibila» txertatu zuen, Ingalaterrako kontzeptu bat, presoak (eta baita emakume ezkonduak ere, senarraren bitartez ez bazen ez baitzuten lege-estatusik) baztertzeko. Hala ere, gizarte zibiletik kanporatutako presoak fenix baten erara berragertuko zela espero zen, herritar-subjektu berri gisa esfortzu gogoetatsu bat eginda. Ostera, Dickensek iragarri zuen bezala, zorotasuna zen urteetako isolamendu eta isiluneen ondorioz posibleena. Presoaren «heriotza zibila» nozioak esklabotzaren oihartzuna dakar argi eta garbi, hori da asmoa; izan ere, esklaboak eta haien ondorengo askeak eskubide batzuez gabetzen zituzten, hala nola boto-eskubideaz. Esklaboei eta haien ondorengoei babes konstituzionala ukatzen zitzairen era berean, gizabanako gatibuek ere Konstituzioaren mugetatik at ikusi dute beren burua. Presoek noizean behin eskubideren bat bereganatu izan duten arren (esate baterako, eskubidea zuten auzitegi federaletan *habeas corpus* agindupean jarduteko eta, hartara, Konstituzioko Zortzigarren edo Hamalaugarren Zuzenketen harira demandak aurkezteko), Reagan-Bush garaiko Auzitegi Gorenak errotik moztu zizkien eskubide guztiok. Kalifornian eta beste estatu batzuetan, hedabideetan elkarriketatuak izateko eskubidea galdu dute presoek duela gutxi. Preso gehienak koloreko pertsonak direnez, historikoki arrazakeriaren jomugan egon diren komunitateak eta oraindik ere modu neurrigabeen bigarren mailako herritar gisa tratatuak diren kideen komunitateak bat eta bera dira: oso modu bortitzean murriztu zaie esparru juridiko eta publikoetan beren izenean hitz egiteko aukera.

Batetik, kartzelaren arrazializazioa gauza jakintzat ematen da. Esklabotza abolitu zenetik, beltz kopuru izugarri handiak espetxeratu dituzte; gauza ageria da hori. Gaur egun, estatu-presos

39 Charles Dickens, *The Works of Charles Dickens*, 27. lib., *American Notes* (New York: Peter Fenelon Collier and Son, 1900), 119-120.

40 Dickens, *Works of Charles Dickens*, 131.

eta preso federal guztien % 49 beltzak eta % 17 latinoak dira.⁴¹ Belztasunaren eta kriminalitatearen kategoriak eskutik helduta joan ohi dira kaleko jendearen zein adituen diskurtso hegemonikoetan. Populazio latino eta amerikar natibo zabalak dituzten eskualdeetan, kriminalitatea ere arrazializatzen da. Ez dituzte soilik Erdialdeko Amerikako eta Asiako immigrante papergabeak atxilotzen eta deportatzen, baizik eta baita AEBko herritar latinoak eta asiar-amerikarrak ere. Bestetik, diskurtso juridikoak arraza-kategoria neutroetan oinarritzen dira zigorraren prozesua azaltzeko –eskubide zibilen ondoko garaian, bereziki–. Alegia, koloreko pertsonen eskubideen deuseztapen historikoak bat egin du kriminalen trataera historikoarekin.

Kartzela-zigorraren gorakadaren eta industria-kapitalismoaren gorakadaren arteko lotura historikoari buruzko zertzelada hauen bidez, eta demokrazia burgesaren eskutik eskubide indibidualen gainean ildo berean areagotu diren diskurtsoak aherentzi gabe, agerian utzi nahi dut zein konplexua den argudio konbentzigarriak ematea kartzela-industria konplexuaren aurka eta orobat kartzelak komunitate arrazializatuarekin loturiko disfuntzio sozialtzat hartzen direnak konpontzeko modu gisa sistematikoki eta arrazakerian oinarrituta erabiltzearen aurka. Kartzela-sistemaren sorreraren analisi historiko batek kapitalismo goiztiarraren kritika bat beharrezkoa duen era berean, kartzela-industria konplexuaren analisi batek ere kapitalismo globalaren egitura eta balioen kritika erradikal baten eskutik joan behar du gaur egun, arrazakeriaren eta patriarkatuaren garrantzi estrategikoa ere kontuan hartuta. (Lehenagoko artikulua batean,⁴² zenbait estrategia teoriko proposatu nituen kartzela-industria konplexuaren ikuspegi maskulinista saihesteko, zeren gizonak baitira kartzelarako preso gehien-gehienak, eta, horretarako, botere-zirkuitu publiko zein pribatuaren kontinuum batean ezarri nuen emakumeen aurkako zigorra). Proposatu nahi izan dut zer indar erradikal daukan kartzela-industria konplexuaren aurka teorizatzeak eta antolatzeak. Gaur egungo kartzelen krisia eskubide zibilen interpretazio mugatuarekin kritikoa den testuin-

41 The Sentencing Project, «Facts about Prisons and Prisoners», 1999ko martxoa.

42 Angela Y. Davis, «Public Imprisonment and Private Violence: Reflections on The Hidden Punishment of Women», *New England Journal on Criminal and Civil Confinement* 24, 2. zk. (1998ko uda).

guru analitiko batean kokatuz eta demokrazia burgesak klase, arraza eta genero aldetik dakartzan ondorioak kontuan hartuz, korporazioen eta gobernu-erakundeen eguneroko transakzioetan berrirudikatu daiteke Derrick Bellen espazioko merkatarien parabola, alimaleko etekinak jasotzen baitituzte zigor-industriatik, bai eta orobat hainbeste jende kartzelara bultzatzen duten arazo sozialak konpontzeko beharrezko gizarte-baliabideak kontsumitu ere. Kartzela-industria konplexuaren aurkako lan hau lagungarria izan dakiguke kapitalismo berantiarraren aurkako herri-kritikak garatzeko eta hala adituak nola aktibistak potentzialki erradikalizatzeko.

BI

KARTZELA: AEB-KO DEMOKRAZIAREN ZEINU BAT?⁴³

Duela ez asko, familia-paper zaharren artean nembilela, nire anaia gazteak unibertsitateko lehen urtean idatzitako lan bat aurkitu nuen. Kartzelen abolizioa defendatzeaz gainera –neurri handi batean presoen eta preso ohien literaturan oinarrituz–, esaten zuen eraldaketa demokratiko iraultzailerako proiekturik ez zela gauzatuko presoen parte-hartzerik eta lidergorik gabe. Hasierako harriduraren ondotik, nostalgia aztoragarri batek hartu ninduen tarte batez: burutik kentzen saiatu nintzen kartzela-abolizionistak kondenatuta daudela, Sisifo bezala, etengabe orotariko pisuzko arrazoiak ematera –haietariko asko kartzela zigorraren teknologia gisa lehenbizikoz agertu zenean proposatuak–, esplikatzeko zergatik ez duten kartzelek funtzionatzen, zergatik diren «demokrazia» delakoaren anatema eta zergatik lekutu beharko lirатеkeen esparru sozialetik.

Orain ere besterik gabe errepikatzen ari ote gara argudio berak, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan aski onartuak izan arren Reagan-Bush aroan Legea eta Ordenaren diskurtsoa gainditu ez zutenak? Atticako 1971ko matxinadaren ondotik, kartzela-abolizioa eztabaidagai legitimo onargarritzat jotzen zen giro herrikoi, akademiko eta juridikoetan, eta ez soilik beltz gazte erradikalen komunitateetan. Neure buruari galdetu nion zergatik ematen zuen nire anaia gaztearen lan hark joandako garai bateko artefaktu bitxi bat, eta pentsatu nuen gaur egungo suposizio baten erakusgarri zela nire erreakzioa, hots, kartze-

43 Lehenbizikoz hitzaldi batean irakurria Kultura Ikasketen Sinposioan (Kaliforniako Unibertsitatea, Santa Cruz, 2007ko azaroaren 28a).

la-abolizioak ez duela historiarik eta fantasia utopiko ero eta ezinezkotzat edo behin betiko atzeratutako etorkizuneko proiektutzat hartu beharra dagoela.

Michael Tonry ikertzaile juridiko bikainak ohartarazpen hau eginez hasi zuen 2004an Norval Morrisen omenez idatzitako *The Future of Imprisonment* lana:

Duela ez asko, jende serioak pentsatzen zuen kartzela azkenetan zegoela. «Kartzela, gaizkileen tratamendu masiborako metodo gisa, ia amaituta dago», idatzi zuen Norval Morrisen mentore Hermann Mannheimek, 1943an. 1965an, Mannheimen omenaldi-liburu batean, Morrisek idatzi zuen kartzela behin-behinean sortu zela, ez zuela ongi funtzionatu, eta ez zuela etorkizunik, eta «ziurtasunez» iragarri zuen ezen kartzela, Mannheimek eta Morrisek ederki zekiten bezala, «mende hau amaitu baino lehen» desagertuko zela.⁴⁴

Nolanahi ere, Tonryk, ados egon arren Mannheimek hirurogei urte lehenago eta Morrisek berrogei lehenago egindako kritikekin, ondorioztatu zuen kartzela ezbairik gabe iatrogenikoa dela –hots, haren ustezko sendabideak are nahasmendu gehiago sortzen duela– baina hala ere baduela etorkizuna, bai bederen oraingo helduen bizitzan. Horrez gain, iradoki zuen heriotza- eta gorputz-zigorren alternatiba gizatiar gisa proposatu zela kartzela duela bi mende, baina gaizkileen bulkadak kontrolatzearen droga psikotropikoak erabili eta mundu askean zombien gisara txertatzeko aukeraren alternatiba gizatiartzat hartu behar zela gaur egun. Drogek, zioen Tonryk, kartzelak berak baino areago urratuko lukete gizakiaren autonomia.

Tonryk ez zuen abolizionismoa esplizituki alboratzen kartzela-aktibismoaren bazter ultrarradikaletara, baina, hala ere, ez zion bere buruari galdetzen zer egin ote litekeen kartzela desagerrarazteko, instituzioa bere barne-kontraesanen ondorioz soilik eror daitekeela onartzeaz harago. Hala, zenbait mandatu proposatu zituen kartzelak ongi funtziona dezan irauten duen bitartean.

Alde horretatik, berrehun urteko drama birsortu zuen Tonryk, Foucaultek ere ohartarazi gintuen bezala: kartzela da kartzelak sekula konponduko ez dituen –are larriagotzen dituen–

44 Michael Tonry, arg. *The Future of Imprisonment* (New York, Oxford University Press, 2004), v.

arazoen konponbide bakarra. Zenbat eta kartzela gehiago eta zenbat eta hobeagoak, orduan eta krisi gehiago sortu dira beti; krision konponbidea kartzela are hobeagoak izan dira beti, eta, horrenbestez, are krisi gehiago sortu dira.

Kaliforniako estatuko kartzela-sistema, krisien eraginez ordainketa-etendura federalaren mehatxupearan egonik ere, are gehiago handitzekotan dira, baldin eta gobernadoreak bere xedea betetzea lortzen badu. Schwarzenegger-ek, duela gutxi, emakume presoek kopuru handi samar bat askatzeko aukera oso erreal bat aurrez aurre paratu zitzaizolarik, horren ordez nahiago izan zuen emakumeen kartzela-sare berri bat proposatu, «generoa aintzat hartuko duena». Schwarzenegger-ek berrehun urteko dramari egin dion ekarpena amnesia historikoa areagotzea izan da: «errehabilitazio» terminoa gehitu dio kartzelak kontrolatzen dituen agentziaren izenari, hau da, gaur egun Kaliforniako Zentzategi eta Errehabilitazio Departamentua deritzo garai bateko Zentzategien Departamentuari. Itzuliak gara kartzela-sistemaren hastapenetara.

Ameriketako Estatu Batuetan, kartzela zigor-molde nagusi gisa finkatzeko proiektua XVIII. mendearen amaierako eta XIX.aren hasierako gobernu- eta gizarte-metamorfosi iraultzailearen ondoko garaiarekin lotuta egon da historikoki. Ameriketako Estatu Batu berrietako kartzelaren goraldia demokratizazioaren ebidentzia dramatikotzat jo zen, eta, aldi berean, baita demokrazia berriaren egituraren txertatuak zeuden arraza-, genero- eta klase-desberdintasun aitortu gabeen sintomatza ere. Kartzela zigor gisa erabiltzeak, batetik, esan nahi zuen askatasuna ukatuz frogatzen zela askatasuna arau sozialtzat hartzen hasia zela. Alegia, araua berresten zuen salbuespena zen askatasuna ukatzea. Bestetik, zenbaitek zioten bezala (Adam Hirschen hitzak hona ekarri), «askatasuna altxor preziatuegia zen delitu txikien (edo larrien) truke konfiskatzeko».⁴⁵ Hirschek, iraultza ondoko AEBko espetxeen zabalkunde azkarra aztertu zuelarik, ohararazi zuen zenbait erradikalek zigor guztien abolizioa eskatu zutela zigor berriari buruzko eztabaidetan: «[I]kuspeli hura nagusitu

45 Adam J. Hirsch, *The Rise of the Penitentiary: Prisons and Punishment in Early America* (New Haven eta Londres: Yale University Press, 1992), 53.

izan balitz, estatubatuarrak ez ziratekeen kartzela-sistemara le-
rratu izanen».⁴⁶

Tamalez, baina, ez zen ikuspegi hura nagusitu, eta, nahiz eta kartzelaren historia intelektualaren elementu garrantzitsua –nahiz gutxietsia– izan diren kartzela-abolizioaren aldeko argu-
dioak, kartzela-erreformaren aldeko aldarrikapenen itzalpean geratu dira ia beti, eta kartzela instituzio iraunkor eta hegemo-
niko sendoa bilakatu da AEBko demokrazian. Paradoxikoa bada ere, demokraziaren ebidentziatzat –eta, horrenbestez, beha-
rrezko salbuespentzat– eta kontraesan bateraezintzat jotzen da oraindik ere kartzela. Nik zera planteatu nahi dut, ea kartzelaren eta demokraziaren arteko harremana modu sakonagoan azter-
tzeak testuinguru emankorrago bat ekarriko ote ligukeen gaur egun kartzelaren hegemoniaren aurkako eta, horrenbestez, kar-
tzela-abolizioaren aldeko argudioak finkatzeko.

Gaiari heldu aurretik, gogoeta horren arrazoi behinenak azaldu nahi dizkizuet. Azken hamarkadan, erakunde eta mu-
gimendu batekin lanean aritu naiz, «Erresistentzia Kritikoa: kartzela-industria konplexuaz harago» lelopean. Neurri handi batean, mugimendu horri zor zaio «kartzela-industria komple-
xua» terminoaren sorrera, eta, orain, kanpaina indartsu bat abiarazia dugu kartzela-abolizioaren nozioa zabaltzeko. Na-
zioarteko konferentzia bat antolatzen ari gara, Erresistentzia Kritikoaren sorreraren hamargarren urteurrena ospatzeko.

Alegia, zenbait galdera planteatzea, hala nola zeri zor zaion kartzela-zigorraren erresilientzia miragarria; nolatan lor-
tu den kartzela-instituzioa demokraziaren ideiarekin berarekin lotzea, gutxienez AEBn; zer neurritaraino den kartzela arrazia-
lizazio-prozesu bat, hots, zer neurritaraino iradokitzen duen arraza-, genero- eta sexu-desberdintasunak demokrazia liberala-
ren bihotzean daudela; bada, era horretako galderak planteatzea abolizioaren aldeko kanpaina eraginkor batek XXI. mendean zer aukera dituen galdetzea ere bada.

Bestela esanda, ez da nahikoa orain –ez orain, ez inoiz ere– besterik gabe kartzelaren porrotaren ebidentziak mahai gai-
nean jartzea eta espero izatea ebidentzia eztabaiaezin horiek kartzelaren gainbehera ekarriko dutenik. Baliteke erabat natu-

46 Hirsch, *Rise of the Penitentiary*, 51.

ralizatua egotea, baina kartzelaren heriotza ez da inondik ere izanen heriotza natural bat.

Askotariko zigor-moldeak –baita kartzela ere– abolitzeko egin izan diren beste kanpaina batzuetan, oinarritzat hartu da zigor mota batzuk moralki eta politikoki bateraezinak direla ideal demokratiko liberalekin. Konstituzioko Zortzigarren Zuzenketan oinarriturik hainbat eta hainbat kasu amaitutzat jo badira ere –kontuan hartuta zuzenketa horrek «zigor krudel eta ezohikoak» (eta baita gehiegizko berme eta isunak ere) debekatzen dituela–, Auzitegi Gorenak oraindik ez du heriotza-zigorra abolitu, ezta beste kartzela-modu muturreko batzuk ere –muturrekoetan muturrekoenak–, hala nola presoek bakartze mugagabea eta debeku sententziala, azkenaldiko asmakariak biak ere AEBko kartzelatan, segurtasun goreneko kartzelatan. Askotan ohartarazi den bezala, «askatasun indibidualaren berme konstituzional gutxi aipatu izan dira Zortzigarren Zuzenketa bezainbeste aldiz, alfer-alferrik».⁴⁷

Zortzigarren Zuzenketari buruzko ikerketa batean, Colin Dayanek dio ezen, bitxia bada ere, zigor krudelen berrespen juridikoak zein haien debekua elkarren ondoan jartzen dituela Zortzigarren Zuzenketak, eta esklabotzaren historiara eta demokrazian oinarrituriko ordena sozial batean arraza-menderakuntza justifikatzeko esfortzu ideologikoetara garamatzala elkarketa bitxi horrek.

Ameriketako Estatu Batuetan gaur egun erabiltzen diren zigor-metodoak –heriotza-zigorra, luzarorako bakartzea, muturreko indarra eta tortura psikologikoa– barbaroak izanik gure estandarren ikuspegitik, baita mundu zibilizatu deritzonaren estandarren ikuspegitik ere, gizakiaz beherakotzat jotako talde baten estigmatizazio eta debeku juridikoaren historia kolonialera garamatza horrek.

Auzitegi Gorenak berriki Zortzigarren Zuzenketaren harira hartutako erabakiek, zeinak torturari buruzko memorandumenean oinarrian baitaude, toki berrietan eta itxura berrien pean dakarkigute esklabotzaren eta ezgaitze zibilaren genealogia.⁴⁸

47 James S. Campbell, «Revival of the Eighth Amendment: Development of Cruel Punishment Doctrine by the Supreme Court», *Stanford Law Review* 16, 4. zk. (1964ko uztaila): 996-1015.

48 Colin Dayan, *The Story of Cruel and Unusual* (Cambridge, MA: MIT Press, 2007), 7-8.

Dayan, Zortzigarren Zuzenketaren historia aztertu, eta ulertzen saiatzen da zer oinarri juridiko erabiltzen diren gaur egun AEBren terrorismoaren aurkako gerra globaleko presoenganako tratua justifikatzeko. Hala, herrialdeko kartzeletako praktika legitimoekin lotzen du tratu hori, zeinak aldi berean esklabotzaren praktiketan ainguratuta baitaude historikoki.

Esanguratsua da, landu nahi dudana gaiari dagokionez, kartzela-instituzioak funtsezko eginkizuna bete izana AEBk terrorismoaren aurka hasitako gerra globalean, zeina George W. Bushen maiz izendatu izan baitu «borroka ideologikoa demokraziaren defentsan». Kartzela-instituzioak terrorismoaren mehatxuaren aurkako ideologia neoliberal demokratikoen arabera antolatzen dira, eta horrek ederki laburbiltzen du AEBko demokraziaren historiaren hasiera: herritar batzuei eskubideak eta askatasunak emateko proiektua martxan jarriaz batera, beste batzuei ukatu egin zitzaizkien, nagusiki esklabo beltzei.

Horrek galdera bat dakar berekin: ez ote da kartzela filosofikoki ainguratuta dagoela demokraziaren ideia liberaletan, arraza-bazterkerian funtsatuta eta arraza-bazterkeriak jota dagoela, eta horren ondorioz ezin dugula hura birplanteatu –are gutxiago haren instituzioak deuseztatu– demokrazia birkontzeptualizatu gabe? Arretaz erreparatu behar diegu arrazakeriaren eta kapitalismoaren arteko interdependentzia konplexuei, haien mende baitaude AEBko demokraziaren instituzio bereziak.

Zigorrari eta demokraziari buruz gogoeta egitean, ezinbestekoa da Alex de Tocquevilleren *Democracy in America* liburuko ikerketa, Frantziako Gobernuaren enkarguz egina Gustave de Beaumont adiskidearekin batera, AEBko kartzela-sistema berria aztertu eta hura Frantzia aplikagarria ote zen ikusteko. Lan horrek «zigor demokratiko» deritzonaren aldaera berriaz deus ez dakarrela ikusirik, pentsa liteke Tocquevillek ez zuela interes berezirik agertu kartzelei dagokienez (nahiz AEBko kartzelarik handiena bisitatu eta Pennsylvaniako Ekialdeko Estatu Kartzela berriko preso ia guztiak elkarriketatu zituen).

Duela hamar urte, Tocqueville oroitzeko ospakizun batean, *Democracy in America*ko ibilbidea esploratzeko bira bat antolatu zuen C-SPANek, bederatzi hilabetea, eskola-autobusez. Tocquevilleren eta Beaumonten bidaia errepikatu, bikertzaileek bisitaturiko komunitateetan geldialdiak egin, eta

zenbait gairi buruz eztabaidatu zuten, hala nola «erlijioa eta politika, prentsaren eragina eta boterea, eta gobernuaren rol al-dakorra». Bidaiaaren helburua «demokraziak gaur egun zer esan nahi duen» jakitea zen.

Programa hark –C-SPAN 3 katean eman zuten, zeina oso erabilia baita institutuetan eta unibertsitateetan– bat egin zuen kartzela-krisiaren gaineko kontzientzia publiko berrituarekin. Kartzela jakin batzuei buruzko eztabaidak txertatu arren –Sing Sing eta Ekialdeko Estatu Kartzelari buruzkoak, adibidez–, ez zen inongo lotura organikorik ezarri demokraziari buruzko eztabaidarekin. Neure buruari galdetzen diot nolakoa izanen ote zen bira hura Tocquevillek bezainbeste kartzela bisitatu eta hark bezainbeste preso (eta kartzelaburu eta kartzelazain) elkarrizketatu izan balituzte.

Alde horretatik, C-SPANen bira bat zetorren kartzela demokraziaren itzalpean ezkutatze joera historikoarekin. Tocquevilleren eredua eta eredu hark izan zuen harrera kontuan harturik, kartzela-zigorra –nahiz berez eskubide eta askatasun indibidualak oinarritzat hartu eta aldi berean ukatzean datzan– demokraziaren bazterretatik harago alboratu zuten. Egiazki, demokrazia liberalak, bere existentzia frogatzeko, beharrezkoa zuen eskubide horiek ukatzea. Demokrazia liberalak beharrezkoa zuen sortzezko ukazio hori, eta hala behar du oraindik ere. Kartzela-zigorrak –hots, eskubideak eta askatasunak kentzean datzan zigorrak– eskubide eta askatasun indibidualak ustez errespetatzen dituen gizarte batean soilik du zentzua.

Gizon demokratiko liberalak badaki askea dela hain justu ez dagoelako kartzelan (hemen, berariaz egin nahi izan diot erreferentzia genero maskulinoari). Sortzezko ukazio hori, baina, behar-beharrezkoa da askatasunaren balioa agerian gera dadin. Estrukturalki, beraz, esklabotzaren antzekoa da. Badakit askea naizela ez naizelako esklabo bat. Badakit askea naizela ez naizelako preso bat.

Nola azaldu bestela kartzelarekiko lilura setati hori? XIX. mendean, helmuga turistiko garrantzitsuak ziren kartzelak (adibidez, 10.000 lagunek bisitatu zuten Ekialdeko Estatu Kartzela 1858an), eta kartzela historikoek oraindik ere pizten dute halako lilura bat turisten artean. 68.000 bisitaritik gora ibili ziren Ekialdeko Estatu Kartzelako ziega-moduluetan hara eta hona 2002an.

Interesgarria da ikustea ezen, Tocquevilleren *Democracy in America* buruz hainbeste literatura sekundario egonik, zein gutxitan aipatzen den apika AEBko kartzela-sistemarekin izan zuen konpromiso estuak eragina izan zuela demokraziaz egin zuen analisisan. Nola interpreta liteke kartzelaz deus ez esatea, kontuan izanik –Roger Boescheren susmoa geure eginda eta are harago joanda– beharbada kartzela zela Tocquevilleren despotismoaren eredua?

Gaur egun, Tocquevilleren bisitaren garaiko AEBko populazio osoa baino jende gehiago sartzen eta ateratzen da kartzelatik urte bateko epean. 1831n, 13 milioi biztanle inguru zituen AEBk. Gaur egun, urte batean 13,5 milioi pertsona igarotzen da atxiloketa-zentro eta kartzelatetik. Normalki entzuten dugun kopurua 2,2 milioikoa da, baina urteko edozein egunetan kartzelan edo atxiloketa-zentro batean dagoen jende kopuruari dagokio. 7 milioi lagun biziak kartzelazainen eta baldintza-peko eta zaintza-peko askatasunaren zaindarien ikuskaritzapean daude. 60 bilioi dolar urtean.⁴⁹

Jarraitu nezake estatistiken letania hau luzatzen, Justizia Estatistikaren Bulegoaren (BJS) datuetatik tiraka. BJSk kartzela-errola bat argitaratzen du urtero, «Prisons and Jails at Midyear» izenburupean; hala, 2006ko ekainaren 30ean jaso zuen azken errola, eta azpimarragarria da kartzelan edo atxiloketa-zentro batean zeudela gizon beltz guztien % 4,8 eta 25 urtetik 34ra arteko gizon beltzen % 11 (eta gizon hispanoen % 1,9 eta gizon zurien % 0,7).

BJS aipatu dut jakinik ere zenbaki handi horiek ez dutela kasik eraginik herritarrengan, nahiz eta badakiten AEBk beste edozein herrialdek baino jende gehiago daukala giltzapetuta, izan guztiz giltzapetuta, izan neurri batean. Ezin dut, ordea, saihestu, eta, zenbakiak abstraktuak diren arren (eta kartzela batik bat zenbakien bidez ezagutzen dugun arren), nahi nuke kartzelak komunitate beltzetan duen eragin kuantitatiboaz pentsa dezazuen.

Dagoneko aipatu dut kartzelak rol ideologiko klandestinoa izan duela eta baduela oraindik demokrazia liberean

49 John J. Gibbons eta Nicholas de B. Katzenbach, «Confronting Confinement: A Report of the Commission on Safety and Abuse in America's Prisons», Vera Institute of Justice, 2006ko ekaina, https://www.vera.org/downloads/publications/Confronting_Confinement.pdf.

eskubide eta askatasun indibidualak berresteko orduan. Orain, pausa bat egin nahi nuke bidean, eskubide eta askatasun horiek kartzelarantzko bidean nola eragiten duten erreparatzeko. Ameriketako Estatu Batuetan, bitxia gertatzen da zer lotura estua duen esklabotzak kartzelaren sorrera historikoarekin. Esklabotzaren garaian ere, Saidiya Hartmanek azaldu duen bezala, beltzak beren erruduntasunaren bitartez soilik onartzen ziren nortasun juridikoko gizabanako gisa. Alegia, zentzu esanguratsu batean, ezin esan zitekeen esklaboak jabetzak zirenik, zeren jabetzak ezin baitira delitu baten erruduntzat jo.

Kartzela-zigorraz amaitzen den ibilbide juridikoak eskubide jakin batzuk dituen subjektu juridikotzat hartzen du gizabanakoa; zehazki, eskubide hauek: akusatzaileari aurre egiteko eskubidea, prozedura justu bat izateko eskubidea, norberaren kideek osaturiko epaimahai batek epaitua izateko eskubidea, eta abar. Alegia, presoek beren eskubide eta askatasunak bizitzen dituzte hain zuzen ere eskubide eta askatasun horiek ukatzen zaizkienean –eta, ikusi dugunez, gaur egun beltz gehiago dago kartzeletan zuriak baino, eta latinoen kopurua ere esanguratsua da (Kalifornian, gehiengo dira)–.

Berez, kartzelaren mugen barnean ere errespetatu behar zaizkie eskubide horiek. Duela zenbait urte, Kaliforniako segurtasun goreneko gizon-kartzela bateko sailkapen-saioan egon nintzen. Preso bat IV. mailan sailkatu eta 180 gradu ko zentro batean sartu, ala III. mailan sailkatu eta 270eko batean sartu erabaki behar zuten.⁵⁰ Gehien azpimarratu zutena zera izan zen, preso hark eskubidea zeukala prozedura justu bat izateko. Bestela esanda, ezin zuten modu diskriminatzaile batean sailkatu edozein mailatan. Administrazioak prozedura justu baten arabera erabaki behar zuen ea gizon hura aski arriskutsua ote zen eta horrenbestez merezi ote zuen beti zaintza-dorrearen ikuslerroan zeuden ziegetako batean giltzapetzea.

50 180 gradu ko kartzeletan, jangela bat izaten dute bi logela-unitateko, eta presoak ez dira kanpora ateratzen jangelara joateko. Logela-unitate bakoitzeko hiru atalak hormigoizko hormaz bereizirik daude. 270 gradu koetan, berriz, jangela nagusi bat izaten da zenbait logela-unitaterentzat, eta presoek kanpora atera behar dute hara joateko. Ziegak 270 gradu ko eskema baten arabera antolatutak daude, erdian dagoen kontrol baten inguruan, eta logela-unitate bakoitzeko hiru atalak irekiak dira. 270ekoetan usu gertatzen zirenez kartzelazain zein presoek aurkako erasoak, 180koak seguruagotzat jo zituzten 1996an, nahiz berez sistema zaharragoa izan. (Itlutzzailearen oharra).

Sortu zenetik, instituzio demokratikoetan demokratikoe-na izan da beti kartzela: ukazio-prozesuaren bitartez adierazten du eskubide eta askatasun indibidualen zentraltasuna. Bizitza zibila ukatu, eta heriotza zibilaren estatusera baztertzan da preso. Claude Meillasoux eta Orlando Patterson ikertzaileei jarraituz, Colin (Joan) Dayanek eta beste aditu batzuek eskla-botzako heriotza sozialarekin alderatu dute kartzelako heriotza zibila, zehazki Ruffinek Commonwealthen aurka abiatutako kasu gogoangarriaz oroit: 1871n, «estatuaren esklabo» izendatu zuten presoak.

Zigortua den gaizkile batek... bere krimenaren ondorioz, bere askatasuna galtzeaz gainera, bere eskubide pertsonal guztiak galtzen ditu, salbu legeak gizabidez ematen dizkionak. Denbora horretan, estatuaren esklaboa izanen da. *Civiliter mortuus* da, eta haren ondasunak, baldin eta halakorik badu, gizon hil batenak balira bezala administratuko dira.

Presoen heriotza zibilaren estatusa aldatu egin da, eta jada ez dira hil biziduntzat hartzen, Dayanek izendatu zituen bezala; esan nahi baita, haien hondar-eskubideak zertxobait handitu dira. Hala eta guztiz ere, oraindik ere zenbait eskubidez gabetuta daude, eta horrek demokrazia liberalaren mugetatik harago kokatzen ditu presoak eta, jakina, baita preso ohiak ere.

Eskubide-gabetze horietako bat aztertu nahiko nuke, bozkatzeko eskubidearen galera, eta gaizkileei boto-eskubidea kentzeak AEBko demokrazia garaikidearen funtzionamenduan duen eraginaz pentsatu. Preso gehienek galtzen dute boto-eskubidea, aldi baterako edo betiko. Gaizkileei boto-eskubidea kentzea gakoetako bat izan zen 2000ko presidentetza-hauteskundeetan. Bitxia bada ere, 2004ko hauteskundeetan ez zen gai zentraltzat hartu, nahiz aldaketa gutxi eginak zituzten legean.

5,3 milioi herritarrek galdu dute botoa emateko eskubidea, izan behin-behinean, izan behin betiko. Gizon beltzen artean, zenbakiak askoz larriagoak dira: ia 2 milioi gizonek edo gizon beltz helduen % 13k galdu zuten. Zenbait estatutan, lau gizon beltzetik batek ezin du bozkarik eman.

Gaizkileei boto-eskubidea kentzeak historia luzea du; nolanahi ere, AEBn neurri hori ezartzen hasi zirelarik -1776an onartu zen gaizkile ohiei botoa ematea debekatzeko lehen legea, Virginian-, bozkatzea bera praktika ezohikoa zen, neurri handi

batean populazioaren gutxiengo oso txiki batek zeukalako bozkatzeko eskubidea (populazio osoaren % 6k baino gutxiagok, hain zuzen).⁵¹ Argi eta garbi, gutxi batzuentzako demokrazia bat zen: zuri, jabe eta gizon zirentzat.

Gerra Zibilaren ondoko garai historikoan –bestela esanda, Konstituzioko Hamalaugarren eta Hamabosgarren Zuzenketak onartu ondotik–, nabarmen ugaitu ziren gaizkileei boto-eskubidea kentzeko legeak. Izan ere, Hamahirugarren Zuzenketak bezalaxe –zeinak esklabotza juridikoki (soilik juridikoki) amaitzea ekarri baitzuen–, bi zuzenketa berriek salbuespentzat hartzen zituzten presoak; Hamalaugarren Zuzenketak ere –zeinak herritar guztiek legez babes bera izatea bermatzen baitzuen– bazekarren salbuespen bat: 2. atalean esaten zen estatuek boto-eskubidea ken ziezaieketela «altxamenduetan edo beste delitu batzuetan» parte hartutako pertsonen.⁵²

Elizabeth Hullek dioenez, Berreraikuntza Erradikala –Du Boisen periodizazioa erabiliz– eraitsi ondoko garaiko Hegoaldeko konbentzio konstituzionaletan, zenbait kriminalizazio-estrategia garatu ziren, hain justu esklabo ohiei eta haien ondorengoei boto-eskubidea kentzeko. Hegoaldeko estatu askotan onartu ziren espezifikoki beltzei egotzen zitzaizkien krimenak boto-eskubidea kentzearekin lotzeko legeak; zuriei egotzitakoetan, berriz, ez zen aurreikusten boto-eskubiderik kentzea. Zenbait estatutan, hala nola Mississippin, egoera paradoxikoak sortu ziren: hilketat akusaturiko presoek boto-eskubideari eusten zioten; mestizajeaz akusaturikoez, aldiz, bozkatzeko eskubidea galtzen zuten.⁵³

Ez dut denborarik gaizkileei boto-eskubidea kentzeko gaur egungo praktiken garapen historikoa luze eta zabal aztertzeko; hortaz, Jeff Manza eta Christopher Uggen soziologoek onorioak aipatuko ditut. Haien arabera, 1850etik 2002ra bitartean, beren karteletan koloreko pertsona ugari zituzten estatuetan aiseago onartu zituzten presoak boto-eskubideaz gabetzeko legeak; alegia, haien ondorioen arabera, «lotura zuzena dago arrazapolitikaren eta gaizkileei boto-eskubidea kentzearen artean.

51 Elizabeth A. Hull, *The Disenfranchisement of Ex-Felons* (Philadelphia: Temple University Press, 2006), 17.

52 Hull, *Disenfranchisement of Ex-Felons*, 18.

53 Hull, *Disenfranchisement of Ex-Felons*, 19.

Galdetzen dugularik nola iritsi garen AEBko praktika mundukoaren lerrotik hain urruti izatera, egokiro erantzun genezake arrazarengatik dela». ⁵⁴

Bukatzeko, gogoratu dezagun ziurtasun osoz esan daitekeela Bushek presidente izatea lortu zuela hain zuzen ere gizabanako beltz «aske» asko eta askori heriotza zibilaren estatusa eman zitzaielako. Zuetako askok jakinen duzue zer gertatu zen Floridako hauteskundeetan, nola boto-eskubidea ukatu zieten ez bakarrik preso ohiei, baizik eta baita ustezko gaizkileei ere.

Nolakoa izanen litzateke mundua gaur egun, zer espektatiba izanen lituzke demokraziak, 2000ko hauteskundeetan preso ohiek bozkatu ahal izan balute? Nire anaia gaztearen unibertsitateko lanaren esanahiaz pentsatzen dudanean, nola aurreikusi zuen eraldaketa demokratiko iraultzaile baterako beharrezkoa zela presoek ere parte hartzea, haren aura anakronikoa galtzen da. John Conyers kongresukideak adierazi bezala, soilik Floridako estatuan 600.000 gaizkile ohiri hauteskundeetan parte hartzea ukatzeak «baliteke herrialde honen historia aldatu izana, literalki». ⁵⁵

54 Jeff Manza eta Christopher Uggen, *Locked Out: Felon Disenfranchisement and American Democracy* (New York: Oxford University Press, 2006), 68.

55 Hull, *Disenfranchisement of Ex-Felons*, ix.

2. ZATIA

**ESKLABOTZA ETA
AEB-KO KARTZELA:
LOTURA
GENEALOGIKOAK**

HIRU

ESKLABOTZAREN KARTZELATIK KARTZELAREN ESKLABOTZARA: FREDERICK DOUGLASS ETA PRESOEN ERRENTAMENDU-SISTEMA⁵⁶

Frederick Douglasssek 1846an idatzi zuenez, «AEBko esklabotza gizon batek beste baten gorputz-arimen gainean jabetza-eskubidea izateko baliatzen eta inposatzen duen boterearen onarpena da». Bere ibilbide abolizionistan, hainbat idazlan eta hitzaldiren bidez frogatu zuen zein kontraesankorra den esklaboa juridikoki definitzea «jabetza-zati bat, merkaturatu daitekeen salgai bat» balitz bezala.⁵⁷ Esklaboa jabetzat hartzen duen definizio horretan oinarritu zen, adibidez, esklaboek egiten zituzten lapurretak esklabotzari buru egiteko eguneroko praktikak direla azaltzeko. Esklaboa «ezin da deusen jabe izan, ezin du deus eduki, deus eskuratu: besterena izan behar du. Esklaboak bere lanaren fruitua jatea edo bere eskuz landutako arropak janztea lapurretatzat hartua da».⁵⁸ Orobat, «bere lanaren fruituekin iruzur egiteko antolatua den gizarte batean jaio zen... Berari, jakina, irudituko zitzaion zartailuaren baldintza gogorren pean erauzi ziotenaren zati bat ezkutuan –beste auke-rarik ezean– bereganatzea ez zela lapurreta».⁵⁹ Douglasssek berak, esklabotzatik ihes egin zuenean, legez beraren nagusiaren jabetzapekoa zen ondasun bat lapurtu zuen, hots, esklabo iheslari

56 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *Frederick Douglass: A Critical Reader*, arg. Bill E. Lawson eta Frank M. Kirkland (Blackwell, 1999), 339-362.

57 Frederick Douglass, «An Appeal to the British People», sarrera-hitzaldia, Finsbury Chapel, Moorfields, Ingalaterra, 1846ko maiatzaren 12a, in Philip Foner, arg., *Life and Writings of Frederick Douglass*, 1. lib. (New York: International Publishers, 1950), 155.

58 «Frederick Douglass Discusses Slavery», in Herbert Aptheker, *Documentary History of the Negro People* (New York: Citadel Press, 1969), 310.

59 Frederick Douglass, «The Condition of the Freedman», *Harper's Weekly*, 1883ko abenduaren 8a, in Philip Foner, arg., *Life and Writings of Frederick Douglass*, 4. lib. (New York: International Publishers, 1955), 406.

bat izaki, kriminaltzat jo zuten estatu-legeak eta lege federalak: bere gorphutzarekin ihes egindako lapurtzat.

Bere bizitzan zehar behin baino gehiagotan, esklabotzaren ondoriotzat hartu zuen Douglasssek populazio beltzaren kriminalizazioa. 1877an, Rutherford Hayes presidenteak Columbiako distrituko poliziaburu izendatu zuen Douglass (beltzen zein zurien kritikak kritika), eta, berak zioenez, horri esker harreman zuzena izan zuen kriminal gisa estigmatizaturiko beltzekin.⁶⁰ Dena den, nahiz eta etengabe ezeztatzen zuen esklabo ohiek krimenak egiteko joera berezkoa zutela zioen uste orokortua, onartzen zuen «beste edozein klasetan baino askoz lapur txiki gehiago»⁶¹ zegoela haien artean, eta esklabotzak utzitako arrastoari egozten zion «lapurretarako jaidura» hura. Douglassen historiaren filosofiaren zutabe nagusietako bat izan zen uste izatea ezen, denborarekin, populazio beltza esklabotzaren arotik gero eta gehiago urrundu ahala, jaidura kriminal horiek gutxituko zirela:

Tristea da pentsatzea zenbat lagun atera ziren esklabotzatik eta zuzenean erori kartzeletan eta preso kateatuen sisteman, haien krimenik larriena txerri bat edo oinetako pare bat ebastea izanik; dena den, kontso-lagarria da pentsatzea hori ez dela gertatzen askatasunaren kariaz, baizik eta esklabotzaren kariaz, eta gaizkia desagertuko dela pertsona horiek jaio ziren sistematik at geratu ahala.⁶²

Mende bat baino gehiago iragan da Douglasssek adierazi zuenetik ziur zegoela denborarekin eta aurrerabide ekonomikoari eta iluminazio espiritualari esker errotik aldatuko zela populazio beltza eta horrenbestez ez zela gehiago klase kriminaltzat hartua izanen, baina, gaur egun, Douglasssek sekula imajinatuko ez lukeen era konplexu eta kaltegarri batez lotzen da ideologikoki belztasuna kriminalitatearekin. Gizon eta emakume beltz presoan neurritz gaineke kopuru eta portzentajeek adierazten dute populazio beltzak aukera handiak dituela *a priori* espetxeratua eta zelatatua izateko. 1997an, 1,8 milioi pertsona zeuden he-

60 Columbiako distrituaren emantzipazioaren 24. urteurrenean, zera esan zuen: «Begiratu nola iristen diren kriminal beltz hauek zuen polizia-zentzategietara; ikusi eta aztertu haien aurpegiak, haien formak eta haien ezaugarriak, neuk ere distritu honetako poliziaburua izan naizen urteetan aztertu ditudan bezala, eta ikusiko duzue ezaugarri horietan guztietan idatzita daudela haien aurrekariak». Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 435.

61 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 434.

62 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 406.

rialdeko kartzela eta atxiloketa-zentroetan, eta beltzak ziren haien erdiak, gutxi gorabehera. Gizon beltz gazte guztien ia heren bat kartzelan edo justizia penalaren zaintzapean zegoen.⁶³ Eta, nahiz eta emakumeek kartzelako populazio osoaren ehuneko txikia osatzen duten estatistikoki (% 7,4), emakume beltz presoen gorakadaren indizea gizon beltzena baino handiagoa da.⁶⁴ XIX. mendeko azken bi hamarkadetan, kartzela-sistemak bere autoritatea ezarri zuen komunitate beltzak zigortzeko eta kontrolatzeko instituzio nagusi gisa; XX. mendearen amaieran, baina, komunitate beltzen gaineko kartzela-erregulazioa krisi bilakatu da.

Kontuan hartzen badugu arraza funtsezkoa izan dela kartzela-industria konplexua sortzeko orduan eta horrez gain kartzelako populazioa hazi egin dela, ezagutza garrantzitsuak ater daitezke Douglasssek komunitate beltzen kriminalizazioaz eta krimenaren arrazializazioaz eman zituen datu historikoen azterketatik. Lan honetan, bereziki nabarmendu nahi dut Douglasssek ez zuela deus ere aipatu Gerra Zibilaren osteko Hegoaldeko preso-en errentamendu-sistemaz; izan ere, sinbolikoki, beltz andana bat transferitu zituzten esklabotzaren kartzelatik kartzelaren esklabotzara. Transferentzia horren karietara, AEBko gizartean belztasuna eta kriminalitatea parekatzeko joera hauspotzen hasi ziren esklabotzaren ondorio ideologiko eta instituzionalak.

1865ean Konstituzioko Hamahirugarren Zuzenketa onartu zutelarik –hots, ekonomia esklabista legez abolitu zutelarik–, peoitza⁶⁵ Konstituzioaren aurkakoa zela ebatzeko xedapen unibertsal bat gehitu zuten: «Ameriketako Estatu Batuetan eta haien jurisdikzioko inongo lekutan ez da existituko ez esklabotzarik, ez nahi gabeko joputzarik, salbu krimenengatik zuzenbidez zigortuak diren presoek dagokienez, behar bezala kondenatuko baitira» (neuk nabarmendua). Salbuespen horren arabera, joputza penala konstituzionala izanen litzateke 1865etik gaur egunera. Badirudi Douglassi eta beste lider abolizionista batzuei ez zitzaizela bururatu pertsona beltzek esklabo izaten segi zezaketela

63 Marc Mauer, *Young Black Men and the Criminal Justice System: Five Years Later* (Washington, D.C.: The Sentencing Project, 1995).

64 Mauer and Huling, *Young Black Men*, 12.

65 Peoitza (*peonage*): preso-en lanean oinarrituriko sistema, kontratatzaile batek presoak errentan hartzean datzana. (Itzultzailearen oharra).

Hegoaldeko justizia-sistemaren babesean (eta hori aurrekari bat izan zitekeela Hegoaldetik kanpoko kartzeletan). Ulergarria da, jakina, hutsune legal hori oharkabean pasatu izana hasieran, emantzipazioa halako bozkarioz hartu zelarik; nolana ere, Hegoaldeko estatuetan Kode Beltzak presaka onartu zituztelarik –zeinetan delitutzat hartzen baitziren zenbait jokabide, hala nola eskale ibiltzea, lan-kontratuak ez betetzea, lanera huts egitea, su-armak edukitzea eta keinu edo egintza iraingarriak egitea–,⁶⁶ kritikotasunez kontuan hartu beharko zuketzen zein arriskutsua izan zitekeen Hamahirugarren Zuzenketaren hutsune legal hori. Aurreko aroko Esklabotza Kodeak ordezkatzear gain, beltzek AEBko herritar gisa estatus juridiko berria izatea onartzen eta ezeztatzen zuten Kode Beltzek. Krimen jakin batzuk arrazializatzeak esan nahi zuen ezen, zenbait estatu-legetan, krimen batzuegatik soilik beltzak zigortu zitezkeela «behar bezala». Mississippiko Kode Beltzetan, adibidez (Gerra Zibila amaitu eta berehala onartu ziren), eskaletzat hartzen ziren «lapurrak, iheslariak [lan batetik ihes egindakoak, antza], mozkorrak, jokabide edo adierazpen axolagabeak zituztenak, lana edo familia zaintzen ez zutenak, dirua modu arduragabean ibiltzen zutenak eta... gainerako pertsona nagi eta desordenatu guztiak».⁶⁷ Hala, beltzen krimen gisa jaso zen eskale ibiltzea, eta kartzelarekin eta lan behartuekin zigortu zitekeen.

Kontuan harturik Douglasssek garrantzia eman ziola esklabotzaren instituzioari eta hari egozten ziola hainbeste beltz «aske» kriminaltzat jotzea, harrigarria da presoerrentamendu-sistemaren hedapena eta harekin loturiko peoitzaren sistema berariaz ez kritikatzeko. Bere garaiko intelektual publiko beltz nagusia izanik, badirudi halako jarrera isil bat hartu zuela presoerrentamenduari, peoitzari eta kartzela-sistemari dagokienez, denak ere esklabotzaren ondorengo instituzionalak, argi eta garbi. 1888ra arte, Douglasssek ez zuen peoitzaren esplizituki salatuko. Hala, Philip Foner-ek dioenez, bidaia bat egin zuelarik Hego Carolinara, «ohartu zen zein gutxi zekien bere jendeak Hegoaldean

66 John Hope Franklin, *From Slavery to Freedom* (New York: Vintage, 1969), 303.

67 Milfred Fierce, *Slavery Revisited: Blacks and the Southern Convict Lease System, 1865–1933* (New York: Brooklyn College, CUNY, Africana Studies Research Center, 1994), 85–86.

bizi zuen benetako egoeraz».⁶⁸ Columbiako distrituan emantzipazioaren 26. urteurrenean eman zuen hitzaldi batean, Douglasssek esan zuen «esklaboen kartzela bateko ateen gontz karrankarien soinua» zekarkiotela gogora Hegoaldeko errentatzaile eta errentarien legeek, eta beltzak «estu lotuta atxikitzen zituztela soka gogor, anker eta hilgarri batean eta soilik heriotzak aska zitza-keela hartatik».⁶⁹ Hala ere, hori esan zuenerako, zenbait estatutan bi hamarkada baino gehiago zeramaten indarrean errentamendu-nekazaritzak, peoitzak eta presoen errentamenduak. 1877tik aurrera, Hayes-Tilden Konpromisoari esker, Hegoalde guztian hedatu eta finkatu ziren halako sistemak. Hain justu Frederick Douglassen ahotsa behar-beharrezkoa zelarik esklabotzaren aldaera berri haren goraldia eragozteko –zuzen-zuzenean eragin baitzien milaka eta, sinbolikoki, milioika beltzi–, badirudi Alderdi Errepublikanoari zion leialtasun politikoak eta ilustrazioaren printzipioetan zuen fedea eragotzi egin ziotela ikustea zer rol ari zen hartzen gobernu federala presoen errentamendua eta peoitza aurrera eramateko. Izan ere, armada federala Hegoaldek- irtetekotan zela (huraxe baitzen Hayes-Tilden Konpromisoko erabakietako bat), Rutherford Hayes presidenteak Columbiako distrituko poliziaburu izendatu zuen Frederick Douglas.

Milfred Fierceren arabera, berak egin baitzuen preso- en errentamendu-sistemaren lehen ikerketa zehatzetako bat Ikasketa Afro-amerikarren arloan, deus gutxi dakigu zer iritzi zuten Douglassék eta garai hartako beste lider beltz batzuek preso- en errentamendu-sistemaren gainean.⁷⁰ Geroago, Booker T. Washingtonek behin edo beste hitz egin zuen preso- en errentamendu-sistemaren aurka, eta zorpeko peoitza- ren sisteman harrapatutako jendeari laguntzeko zenbait ahalegin txertatu zituen bere hezkuntza industrialeko proiektuan. Nolanahi ere, sekula ez zuen garatu preso- en errentamendua abolitzeko es- trategia espliziturik. 1901ean, W. E. B. Du Boisek «The Spawn of Slavery: The Convict Lease System of the South» artikulua argi- taratu zuen, gaur egun ezezaguna den agerkari misiolari batean, eta, analisi erradikal bat proposatzen zuen arren, ez zen sobe-

68 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 109.

69 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 110, *op. cit.*

70 Fierce, *Slavery Revisited*, 230.

ra irakurria edo eztabaidatua izan.⁷¹ Du Boisek argudiatu zuen kriminalitatea ez zela soilik «baldintza sozial makurren sintoma bat», baizik eta presoan errentamendua finkatzeak «kriminalitatea eta esklabotza hertsiki lotzen zituela [beltzen] burmuinean».⁷² 1907an, Mary Church Terrellek «Peonage in the United States: The Convict Lease System and the Chain Gang» artikulua argitaratu zuen, *The Nineteenth Century* aldizkarian.⁷³

Fiercek esplikatu zuenez, errentamendu-sistemarekin loturiko basakerien gaineko ezagutza eskasari zor zaio Frederick Douglassen eta beste liderren isiltasun erlatiboa. Nolanahi ere, zaila da sinesten Douglasssek ez jakitea zertan zen errentamendu-sistema emantzipazioaz geroztik edo nola hedatu zen Berreraikuntza Erradikalaren amaieran. Bere hitzaldi eta idazlanetan iradoki arren ez zuela gai garrantzitsutzat hartzen eta ez zuela tokirik merezi ez bere agendan, ez askapen beltzarenean, behin eta berriz kriminalitate beltzaren presuntzioa edo abstraktuki bada ere preso kateatuak aipatzeak pentsarazten dit Douglasssek nahitaez jakin beharra zuela zer basakeria egiten ziren justiziaren izenean. Horregatik, iruditzen zait Fierceren adierazpen hauek zehatzagoak direla:

[G]ainera, lider beltzek aise irentsi zuten «kriminalek» merezi zutena jasotzen zutela zioen nozioa, eta, presoan errentamendua krudela izan arren, ez zitzairen iruditzen presoan aldeko gurutzada bat garrantzitsua goa zenik lintxamenduaren aurka borrokatzea, bozkatzeko murrizketei buru egitea edo arraza-intolerantziako ekintza ugarien aurka protesta egitea baino. Analisi hori onartu zutenek ez zuten behar bezala aintzat hartu zenbat preso bahitu zituzten, zenbat atxiki zituzten beren zigorrak bukatuta ere edo zenbat espetxeratu zituzten errugabeak izan arren: sekula ez da jakinen zenbat izan ziren guztira.⁷⁴

Orobat, ez zuten kontuan hartu haur beltzak ez zeudela presoan errentamendu-sistematik salbuetsita. David Oshinskyk, *Worse Than Slavery* liburuaren egileak, Mary Gay izeneko sei urteko neskato baten indultu-eskaera ekarri zuen hizpidera: hogeita

71 W. E. B. Du Bois. «The Spawn of Slavery: The Convict Lease System of the South», *Missionary Review of The World* 24, 10. zk., (New Series, 1901eko urria).

72 Fierce, *Slavery Revisited*, 240.

73 Mary Church Terrell, «Peonage in the United States: The Convict Lease System and the Chain Gang», in *The Nineteenth Century*, 62, 1907ko abuztua.

74 Fierce, *Slavery Revisited*, 229.

hamar eguneko zigorra ezarri zioten, «gehi epaitegiko gastuak», kapela bat lapurtzeagatik.⁷⁵

Presoen errentamendu-sistemaren ondorioak, oro har, gizabanako beltzen bizitzetan eragin zuen lazgarrikeriaz harago-koak dira. Hona Oshinskyren hitzak:

1860ko hamarkadaren bukaeran Mississippin sortu eta 1920koaren bukaeran Alabaman amaitu zen arte, berdintasun juridikoa murrizteko, arraza-estereotipoak indartzeko, industria-garapena areagotzeko, langile askeak beldurtzeko eta legea arbuiaitzeari bide emateko balio izan zuen presoen errentamenduak. Gizon gutxi batzuk aberats milioi-dun bihurtzea eta milaka bizitza arrunt birrintzea ekarri zuen.⁷⁶

Kartzelako Lanari Buruzko Batzorde Nazionala 1911n bildu zenerako, Hegoaldeko estatu batzuek jada abolitua zuten presoen lana, eta kanpaina abolizionistak lortua zuen zilegitasuna, erreforma penalaren aldeko mugimenduaren zabalkundeari esker. Kartzelako Lanari Buruzko Batzorde Nazionaleko idazkari nagusiak *Penal Servitude* izenburua ezarri zion batzordearen ondorioei buruz idatzitako liburu bati, eta honako ohar hau gehitu zuen hasieran:

Estatuak presoaren lanaren gaineko jabetza-eskubidea dauka. Ameriketako Estatu Batuetako Konstituzioko Hamahirugarren Zuzenketak ezartzen du ez dela existituko ez esklabotzarik, ez nahi gabeko joputzarik, baina inferentziaz onartzen du halakoak baliatzea lege-prozedura justu baten ondotik krimen bat zigortzeko. Estatuak bere onurarako eman dezake errentan edo atxiki dezake jabetza-eskubide hori, estatuetako konstituzio eta legeetan ezarritakoari jarraituz.⁷⁷

Badirudi Hamahirugarren Zuzenketa onartu zutenean oharkabean pasatu zitzaizela haren hutsune legala; dena den, atzera begiratuz gero aise ikusten da nola «esklabotza» eta «nahi gabeko joputza» «kriminaletara» mugatzeak esklabo ohien kriminalizazioa areagotzea ekar lezakeen.

Gerra Zibilaren ondotik idatzi eta eskaini zituen testu eta hitzaldietan, Frederick Douglasssek adierazi zuen beltz asko eta asko ohartu zirela zuriei ez zietela kartzela-zigorrik ezar-

75 David Oshinsky, «Worse Than Slavery»: Parchman Farm and the Ordeal of Jim Crow Justice (New York: The Free Press, 1996), 47.

76 Oshinsky, *Worse Than Slavery*, 56.

77 E. Stagg Whitin, *Penal Servitude* (New York: Kartzelako Lanaren Gaineko Batzorde Nazionala, 1912), 1.

tzen berei leporatutako krimen berberengatik. Sakonago aztertu izan balu nola egozten zitzairen beltzei kriminalitatea, ohartu izanen zen bazela lotura bat errentamendu-sistemaren eta beltzen lana kontrolatzen zuten beste instituzio batzuen artean. Hamahirugarren Zuzenketak esklabotzaren garaiko erabateko kontroletik askatu zuen, itxuraz, beltzen lan-indarra; egiaz, baina, kontrol ia erabatekorako modu berriak garatu ziren: apartzeria, errentamendu-nekazaritza, bonu-sistema, eta presoerrentamendu-sistema, hots, esklabotza desagertu ez izanaren ebidentziarik dramatikoena. Alabaman eta Louisianan Gerra Zibilaren aurretik hasi baziren ere errentamendu-sistema erabiltzen, Hegoaldeko beste estatu batzuek esklaboek emantzipazioaz geroztik ekin zioten sistema hori eskala aski handian erabiltzeari. Gerra Zibilaren ondotik, presoek % 90etik gora beltzak ziren. Alabaman, kartzela-populazioa hirukoiztu egin zen 1874tik 1877ra bitartean, eta beltzei zegokien gorakadaren zatirik handiena.⁷⁸

1877an armada federala erretiratu zelarik, Berreraikuntza Erradikala ez zen bat-batean eten. Nolanahi ere, lehen beltza izanik Senatuaren berrespena behar zuen kargu federal bat eskuratzen, Douglasssek ez zuen bere posizioa baliatu Alderdi Errepublikanoari tinko aurre egiteko; Alderdi Errepublikanoa, izan ere, Hegoaldeko beltzen lanaren gaineko kontrola berrezartzeko prozesu zapaltzailearen konplizea zen. Philip Foner-ek dioenez, «[i]nbestiduraren egunerako, argi zegoen Hayesek Hegoaldeko azken soldadu federalak erretiratzeko egindako akordioak zentzurik gabe uzten zuela koloreko pertsonen eskubideak defendatzeko egina zuen promesa. Une erabakigarri hartan, Douglasssek ez zion Hayesen politikari aurre egin».⁷⁹ Hala eta guztiz ere, Douglassentzat, eskubide politikoetarako atea zen askatasuna, hau da, aurrerabide politikoa lehenesten zuen, askatasun ekonomikoaren gainetik. «[E]sklabotza ez da abolitua izanen harik eta gizon beltzak boto-eskubidea lortzen ez duen arte»,⁸⁰ esan zuen Douglasssek, eta esaldi hori, esklabo ohien etorkizuneko aurrerabide saihetsezina azpimarratzen zuen

78 Fierce, *Slavery Revisited*, 88.

79 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 101, *op. cit.*

80 Frederick Douglass, «The Need for Continuing Anti-Slavery Work», AEBko Esklabotzaren Aurkako Sozietatearen Urteko 32. Batzarrean emandako hitzaldia, 1865eko maiatzaren 9a, in Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 166.

historia-filosofia ilustratu batekin uztartuta, Alderdi Errepublikanoaren aldeko sostengu zorrotz –nahiz ez beti akritiko– bat bilakatu zen. Konstituzioko Hamabosgarren Zuzenketaren eta orobat hura betearazteko beharrezkoak ziren legeen aldeko kanpainen, boto-eskubidea afro-amerikarren aurrerabiderako zimendua zela esan zuen Douglasssek, nahiz eta eskubide politiko horiek esplizituki genero maskulinoarekin lotuta egon eta beltz guztiak jomugan jartzen zituen kriminalizazio-prozesuaren ondorioz debekatuta egon. Edonola ere, behin Berreraikuntza Erradikalak behea jo eta boto-eskubidea ukatzearen aldeko mugimendua sendoturik, beste argudio batzuk baliatu zituen Douglasssek, eta argi geratu zen zein hegeldarra zen ilustrazioan eta aurrerabide historikoan zeukan fede irmoa.

Exoduster⁸¹ mugimenduaren aurkako 1879ko artikulua baita, Douglasssek adierazi zuen beltzak zirela aurrerabiderako itxaropen bakarra Hegoaldean. Argudiatu zuen esklabo beltzen lanari zor zitzaiola «Hegoaldeko oparotasuna, edertasuna eta zibilizazioa». Esklabotzaren ondotik ere, beltzekiko mendekotasun handia zeukan Hegoaldeak: «[Negroak] erabakiko du Hegoaldearen etorkizuna».⁸² Horrez gain, zera zioen:

Exodoak zerbait umiliagarria jakinarazi die Hegoaldeko gizonei: Hegoaldeko oparotasuna eta zibilizazioa negro mespretxatu eta gorrotatuei zor zaiela. Eta negroi –beste inori baino gehiagori– dagokiela esatea zein izanen den estatu konfederatuen etorkizuna, estatuon muga zabalen barnean soilik haiek koka daitezkeela bizitza basatiaren eta zibilizatuaren botere aurkarien artean, berei lana ematearen edo ukatzearen arabera bedeinkatu edo suntsituko dela beren herrialde ederra.⁸³

81 Exoduster: 1879tik 1881era bitartean AEBko hegoaldeko estatuetatik Kansasera migratu zuten herritar afro-amerikarrak izendatzeko erabiltzen da. «1879ko exodoa» deritzo mugimendu horri, eta hortik eratorria da *Exoduster* izendapena. (Itzultzailearen oharra).

82 Douglass artikulua hura aurkeztera gonbidatu zuten, Richard T. Greener-ekin batera (Harvardeko lehen graduatu beltza izan zen Greener). Berak, ordea, ez zuen gai korapilatsu hari buruzko eztabaida irekian parte hartu nahi izan, eta, orduan, hitzaldia ez joatea eta artikulua idatziz bidaltzea erabaki zuen, beste norbaitek irakur zezan. Greener Hego Carolinako Unibertsitateko irakaslea izan zen Berreraikuntzaren garaian; orain, Howarden ziharduen, eta lan bikaina egin zuen emigranteentzako laguntza antolatzen. Ikus William S. McFeely, *Frederick Douglass* (New York: W. W. Norton, 1991), 301; Douglass, «The Negro Exodus from the Gulf States», AEBko Gizarte Zientzien Elkartearen Batzarrean emandako hitzaldia, Saratoga Springs, 1879ko irailaren 12a, *Journal of Social Science*, XI, 1880ko maiatza, 1-21. Hemen berrinprimatua: Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 327.

83 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 325.

Douglassek zioen langile beltzek lortua zutela langile zurien estatusa –hots, aske zirela beren lana Hegoaldeko enplegatzaleei saldu edo ukatzeko–, eta horrek agerian uzten du nola huts egin zuen nabarmen Hegoaldeko lan-indar beltzaren benetakako egoerari heltzean:

Negroak... badu lana, Hegoaldeak nahi du lan hori, eta eskuratu beharra dauka, edo hil. Askea denez, hura erabil dezake, edo ukatu; hura erabili bera dagoen tokian, edo beste tokiren batera eraman, berak nahi duen bezala. Bere lanak egin zuen esklabo, eta bere lanak egingen du, berak nahi badu, aske, aberats eta independente. Lanak balio handiagoa du berarentzat suak, ezpatek, hautestontziek edo baionetek duten baino. Hegoaldearen bihotza ukitzen du bere sakelaren bidez.⁸⁴

Paradoxikoa bada ere, Douglassen hitzok ia bere horretan iragarri zuten Booker T. Washingtonen harako ohartarazpena: «[A]stindu zuen ontziak zaudeten tokian».⁸⁵ Lan-indar beltza, izatekotan, formalki izanzen zen askea, hots, esklabotzaren sistema ekonomikoa Konstituzioaren aurkakotzat hartua izan zelako. Errentamendu-nekazaritza, apartzeria, peoitza eta soldata bonu-sistemaren bidez ordaintzea –eta, beltz asko eta askoren kasuan, presoena lana– esklabo ohien askatasun ekonomikoaren aurkakoak ziren. Presoen errentamendu-sistemak, nahiz eta zuzen-zuzenean jende kopuru ez oso handi bati eragin, garrantzi sinbolikoa zeukan, agerian uzten baitzuen langile beltz guztien patu izan zitezkeela hala kartzela nola joputza penala. Presoen errentamendua emantzipazioaren ondoren lan-indar beltza kontrolatzeko neurri totalitario bat izan zen, eta balio izan zuen beltzei sinbolikoki gogorarazteko esklabotza ez zela guztiz desagertu.⁸⁶ Gehienbat gizonak biltzen ziren esparruetan, emakume beltzak ere hartzen zituzten, lanean paratzen zituzten, eta preso zein kartzelazainek abusu fisiko zein sexualak egiten zizkie-

84 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 327.

85 Zeukatenarekin konformatu zitezela esan nahi zuen Booker T. Washingtonek, hots, lan egin zezatela gogor Hegoaldean, eta hartara lortuko zutela askapena. (Itzultzailearen oharra).

86 «Egiazki, lan-indar beltza kontrolatzea izan zen presoena errentamendua berrogeita hamar urtez ezartzeko eta mantentzeko ahalegin esanguratsu guztien atzean zegoen arrazoi behinena. Era berean, agerikoa da zein antzekoak ziren presoena bizitzako miseria izugarriak eta esklabotzaren garaiko zapalkuntza. Azkenik, presoena errentamenduaren izaera arrazialak erregimen esklabistarekiko loturak indartu zituen». Matthew J. Mancini, *One Dies, Get Another: Convict Leasing in the American South, 1866–1928* (Columbia, S.C.: University of South Carolina Press, 1996), 20.

ten, eta hori ere bazen haientzako mezu bat, hots, esklabotza bera baino etorkizun makurragoa izan zezaketela. D. E. Tobias-ek, mendearen amaieran presoen errentamenduaren aurkako kanpainari lehentasuna eman zioten intelektual beltz bakane-tako batek, adierazi zuen presoan esparruetan «immoralitate» handia zegoela, kartzelen politikagatik, eta emakumeak biluzik jipoitzen zituztela zartailuz gizon presoan aurrean.⁸⁷ Kontuan izanik posible zela beltzak atxilotzea eta espetxeratzea (ez ba-karrik kargu larriengatik, baizik eta baita arinengatik ere, nahiz zuriak sekula ez zituzten espetxera sartuko halakoengatik) eta haien lana errentan hartzea baldintza zapaltzaileen pean –maiz esklabotzatik harago joanez–, ezin esan daiteke lan-indar beltza askea zenik.

Geroago, W. E. B. Du Boisek *Black Reconstruction* lanean adierazi zuen bezala, beltzen presentziaren aurrekaririk ez ze-goenez Hegoaldeko kartzeletan eta gerra garaian preso zuriak askatu zituztenez armada konfederatuekin bat egin zezaten, Gerra Zibila piztu zenean Hegoaldeko kartzela-sistemen eginki-zuna birkontzeptualizatu zen. Hona Du Boisen hitzak: «Sistema penala baliatu zen negroak lanean atxikitzeke eta beldurtzeko metodo gisa. Ondorioz, kartzelen eta atxiloketa-zentroen eskaria handitu zen, ohikoaz harago, krimenek ere gora egin zutelako».⁸⁸ Presoen errentamendu-sistema abiatu zutelarik, kartzela-siste-ma abolitzeko lege-proiektu bat aurkeztu zuen biltzar legegileko kide beltz batek.⁸⁹

Douglassek Exoduster mugimenduaren aurka erabili zuen argudioaren oinarria, beraz, «lan askearen» gaineko ikusmolde oso abstraktu bat zen, inongo loturarik ez zuena Hegoaldeko bel-tzen egoera ekonomikoarekin, eta, testuinguru horretan, botoak esklabo ohiei askatasun osoa eta berdintasuna ekarriko zielako nozio okerra ordezteko balio izan zuen. Dena den, onartu behar da Douglassek ez zuela argudio hori *per se* erabili emigrazioaren aurka; aitzitik, Exoduster mugimendu antolatua eta haren finantzaketa federalaren aurka jardun zuen. Hegoaldeko egoera larriaren harira, zera iradoki zuen: «[L]ibertoen emigrazio bo-

87 D. E. Tobias. «A Negro on the Position of the Negro in America», in *The Nineteenth Century* 46, 274. zk., 1899ko abendua, 960-961.

88 W. E. B. Du Bois, *Black Reconstruction* (New York: Russell and Russell, 1963), 506.

89 Du Bois, *Black Reconstruction*, 506.

luntario, espontaneo eta beregaina onuragarria izan daiteke edo ez. Hori haiek bakarrik konpondu beharreko auzi bat da».⁹⁰ Emigrazioa kontu pribatua eta indibiduala izanez gero, Douglasssek ez zeukan eragozpenik. Alta, askapenerako estrategia publiko eta politiko gisa haizatu zelarik, guztiz aurka agertu zen. Emigrazioaren aldeko argudioak laburbiltzean, emigranteek berek Senatuan emandako lekukotasuna aipatu zuen; haien hitzetan, «krimen batzuekin, gizon zuriak aske uzten dira, eta gizon beltzak, berriez, gogor zigortzen dira», eta «legea krimenaren aterpea da, errugabetasunarena baino gehiago; itzulia da esklabista zaharraren zartailua, eta hasiak gara preso kateatuen ikuskizun gizagabe eta higuingarria ikusten».⁹¹ Douglasssek ez zuen lekukotasun hura ezbaian jarri –egiaz, sinetsita zegoen, eta hala sinetsiko zuen aurrerantzean ere, justizia penaltaren sistema arrazakeriaren gordeleku bilakatua zela bere bertsiorik gordinenean–; hala eta guztiz ere, nahiago izan zuen esan lan-indar beltza «askea» zela eta emigrazioa baino promes askoz handiago bat behar zela.

Dena den, nahiz eta –Douglassen iritziz– Hegoaldeko justizia penaltaren sistema berregituratuaren erdigunean zegoen arrazakeria biolentoa nahikoa argudio ez izan Hegoaldeko exodo-estrategia politikoa azaltzeko, handik aurrera eman zituen hitzaldietan eta idatzi zituen lanetan oso aintzat hartu zuen nola arrazializatzen zen krimena eta nola kriminalizatzen arraza. *North American Review* aldizkarirako 1881ean idatzitako artikuluan batean, zalantzan jarri zituen arraza-aurreiritzien elementu esentzialistak: «[K]oloreko gizona estatubatuar gizartearen Jean Valjean-a da. Galeretatik ihes egin duenez, haren aurka doaz susmo guztiak».⁹² Douglasssek uste zuen esklabotzaren baldintza sozialei eta esklabotzaren ondoko garaiko arrazakeriari zor zitzaiela beltzak kriminalizatzea, eta, hori dela eta, zalantzan jarri zituen kriminalizazio-susmo horiek, baina, aldi berean, *impasse* analitiko batean geratu zen. Esklabotzak kriminalak sortu bazituen, orduan, onartu beharra zegoen beltzak kriminalak zirela.

90 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 332.

91 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 330.

92 Frederick Douglass, «The Color Line», *North American Review* 132, 1881eko ekaina, berrinprimatua in Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 344.

Nolanahi ere, lekukorik egon gabe errua inori egoztearen aurka agertu zen:

Krimen bat egiten bada eta ziurra ez bada nork egin duen, segur aski koloreko gizon susmagarri bat ikusi izanen du norbaitek auzunean. Koloreko gizon armagabe bati tiro egiten badiote eta segituan hiltzen bada, epaitegi batek, bere espirituaren eraginpean, ez du zalantzarik eginen gizon hila kriminaltzat eta hiltzailea errugabetzat jotzeko.⁹³

Gorago esan dugun bezala, Douglasssek askotan aipatzen zuen beltzak krimen txikiengatik zigortzen zituztela kriminal porrokatuak balira bezala, «haien krimenik larriena txerri bat edo oinetako pare bat ebastea izanik». Hala, 1876an, zoritxarreko «Txerriaren Legea» onartu zuen Mississippiko biltzar legegileak: behi bat edo txerri bat lapurtzea krimen larritzat jo, eta bost urtera arteko kartzela-zigorrak ezartzen hasi ziren. Lege hari zor zaio, partez, estatu horretan kartzela-populazioa hainbeste hazi izana.⁹⁴ 1875ean, antzeko lege bat onartu zuten Arkansasko biltzar legegile demokratan, baita bi dolarreko ondasun bat ebas-teagatik urte batetik bost urtera bitarteko zigorra ezartzen hasi ere.⁹⁵ Mississippiko «Txerriaren Legea» onartu eta aste batzuk geroago, enpresa pribatuek presoan lana errentan hartzea legeztatu zuen biltzar legegileak. Lege horren arabera, beraz, gatibuek «kartzelatik kanpo lan egiteko aukera izanen zuten, trenbideak eta dikeak eraikitzen, edo lan edo enplegu pribatueta». ⁹⁶ David Oshinskyk ohartarazten duen bezala, «Hegoalde guztian, milaka esklabo ohi atxilotu, epaitu eta espetxeratu zituzten iraganean soilik beren nagusiek ebatziak zituzten egintzengatik... [Nagusia- ren aurkako] delituak estatuaren aurkako delitu bihurtu ziren». ⁹⁷ 1875ean, Tennesseeko gobernadore John Brownek adierazi zuen txerri bat ebasten zuen gizon beltz bat hiltzaile zuri batekin bate- ra espetxeratzea injustizia latza zela... gizon zuriarentzat. ⁹⁸

93 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 345.

94 Fierce, *Slavery Revisited*, 128–29n16. Matthew Mancini dioenez, «Txerriaren Legea» dela kausa hazi zen presoan kopurua neurri batean hain azkar; 1877an, aldiz, kartzela-populazioa jaisten hasi zen, eta, 1888an, lege hori indargabetu zutelarik, berriz gora egin zuen berehala. Mancini, *One Dies, Get Another*, 135–136.

95 Mancini, *One Dies, Get Another*, 120.

96 Mississippiko Legeak, 1876, c. 110, 1. atala, 3, 194–195. Hemen aipatua: Oshinsky, *Worse Than Slavery*, 41.

97 Oshinsky, *Worse Than Slavery*, 28.

98 Fierce, *Slavery Revisited*, 89.

Beltzek zuriak baino aukera gehiago zituztenez krimen txikiengatik espetxeratuak izateko, Floridan eta beste estatu batzuetan krimen ankerrak eginak zituzten gizon zuriekin batera espetxeratu zituzten lapurretaz akusaturiko hainbat eta hainbat beltz. Floridako trementina-esparruetako lan behartuei buruzko kontakizun baten egileak zioen bezala, posible zen «negro bat kartzelan sartzea ia edozein aitzakiarengatik, baina zaila zen, ordea, zuri bat espetxeratzea, ez bazen krimen oso anker bat egina zuelako».⁹⁹

Douglassek ederki zekien zenbateraino zegoen krimena arrazializatuta, zer-nolako joera zegoen Hegoaldean «krimena koloreari egozteko».¹⁰⁰ Ohikoa zuen elokuentziaz, zera esan zuen: «[S]arritan, begiak bendatuta baleuzka bezala aurkezten da justizia... Baina burdinazko maskara batek, nahiz lodia izan, sekula ezinen du AEBko justizia itsutu epaitua gizon beltz bat bada».¹⁰¹ Errua komunitate beltzei egozteaz gainera –delitugilearen arraza gorabehera–, Douglassek azaldu zuen gizon zuriak zigorra saihesten ahalegintzen zirela beren burua beltz mozorrotuta:

Gure herrialdeko zenbait tokitan, gizon zuri batek krimen anker bat egin nahi duenean, kortxo erreka erabiltzen du, zuhurtasunez erabili ere, aurpegia belztu eta negro baten itxuran irteteko. Behin balentria egin da, xaboi pixka batez eta uraz suntsitzen du bere identitatea, eta garbi eta aratz agertzen da justiziaren begietara. Segituan, negroren bat susmagarritzat hartu, eta gaiztakeriaren biktimaren aurrean jarriko dute, identifika dezan, eta horretan ez da arazo handirik sortzen, zeren eta zuri askoren begietan antzekoak baitira negro guztiak, eta, akusatuen aulkian eskuburdinaz lotuta dagoen gizon atxilotua beltza denez, zalantzarik gabe bera izanen da kriminala.¹⁰²

99 J. C. Powellen *American Siberia*, hemen aipatua: Oshinsky, *Worse Than Slavery*, 71.

100 Frederick Douglass, «Address to the People of the United States», Koloreko Gizonen Batzarrean aurkeztua, Louisville, Kentucky, 1883ko irailaren 24a, in Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 379.

101 Frederick Douglass, «The United States Cannot Remain Half-Slave and Half-Free», Columbiako distrituaren emantzipazioaren 21. urteurrenko hitzaldia, 1883ko apirila, in Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 357. Handik hilabete batzuetara, Koloreko Gizonen Batzarrean, zera esan zuen: «Herrialde honetan krimena koloreari egozteko balio duen xedapen orokorra baliatuz, gizon zuriek beren aurpegiak *koloreztatzen* dituzte delituak egiteko, eta, gero, kolore gorrotatua garbitzen dute zigorra saihesteko». Ikus «Address to the People of the United States», Louisville, Kentucky, 1883ko apirilaren 24a, in Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 379.

102 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 359.

Douglassek 1883an esan zituen hitzok, Columbiako distrituaren emantzipazioaren 21. urteurrenaren ospakizunean. Handik hiru urtera, ekitaldi berean, orduan esandakoak gogora ekarri eta adibide eguneratu bat ekarri zuen, aurpegia belztuta krimen bat egiten ari zela hila zuten Tennesseeko gizon zuri batena:

Duela egun gutxi batzuk, J. H. Justice delako gizon bat, Tennesseeko Granger Countyko herritar entzutetsua bera, lapurreta amarrutsu bat antolatzen saiatu zen, mozorrotuta, bere delitua negro baten itxurapean egiteko. Dena ongi zihoan, harik eta bala batek lurrera bota eta aurpegia xaboi pixka batez eta urez garbitu zioten arte, orduan ohartu baitziren ez zela negroa baizik eta herritar zuri ohoragarri bat.¹⁰³

Cheryl Harrisek dio zurtasunaz jabetzeko interes bat sortu zela esklabotzaren egoeraren ondorioz: «[I]dentitate zuria jabetzan edukitzeak zurien autoidentitatea eta askatasuna berresten zuen, eta beltzena, aldiz, ezeztatzen».¹⁰⁴ Douglassen esanek adierazten dute zurtasunaz jabetzeko interes hori aise alderantzikatu zela beltzei prozedura justu baterako eskubideak ukatzeko estrategien bidez. Hain zuzen, Douglassek aipaturiko kasuen antzekoak sortu ziren 1990eko hamarkadan ere: esate baterako, Charles Stuarten kasua, zeinak emaztea hil baitzuen Bostonen eta, gero, saiatu baitzen errua hiltzaile beltz anonimo bati egotzen; eta Susan Smithena, zeinak seme-alabak hil –Unio- nen, Hego Carolinan–, eta deklaratu baitzuen auto-lapur beltz batek bahitu zituela.

Frederick Douglassen bizitzako azken aldian, Jim Crow legeen bidez segregazioa finkatu zen Hegoaldean. Kartzeletan eta presoan lan-esparruetan, belztasunari egotzitako kriminalitateak bereizkeriaren ideologiak hauspotu zituen, denak ere puztuak eta esajeratuak mundu «askekoekin» alderatuta. Mundu «aske» horretan, eskola-sistemak, garraio-sistemak, ospitaleak eta auzuneak segregazio-lege zorrotzen pean zeuden. Estatu batzuetan, ohiko praktika zen preso zuriak kartzeletan giltzapetzea eta beltzak, aldiz, lan-esparruetara bidaltzea.¹⁰⁵ Kartzelek

103 Frederick Douglass, «Southern Barbarism», Columbiako distrituaren emantzipazioaren 24. urteurreneko hitzaldia, Washington, 1886, in Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 434.

104 Cheryl Harris, «Whiteness As Property», Kimberlé Crenshaw et al., arg., *Critical Race Theory: The Key Writings That Formed the Movement* (New York: The New Press, 1995), 285.

105 Oshinsky, *Worse Than Slavery*, 41.

eta lan-esparruek arraza-bereizketarako lerroak ezarriaz batera, lapurretak txikiez akusatuta espetxeraturiko preso beltzak preso zurientzako arriskutzat hartzen ziren maiz, are hilketa akusatutako preso zurientzako ere. 1880ko hamarkadan, Kartzela Elkarte Nazionalaren (NPA) bileretan barra-barra egiten zen presoek errentamenduaren defentsa arrazista, are argudiatuz esparruak beltz askeen bizi-baldintzak baino koska bat gorago zeudela eta kartzelak «libertatea, likorea eta haragikeria» ukatzen ziela, ez besterik. Preso zuriek, aldiz, askoz oinazealdi gogorragoa jasan behar zuten, beltzen artean bizi behar zutelako batik bat.¹⁰⁶ Aldarrikatzen zen ezen legeak «atsekabe lazgarri bat ezartzen ziela kaukasoarrei eta afrikarrek ez zutela atsekaberik sentitu ere egiten... Kontua da, eta beti izanen da, badagoela arrazen arteko arbuio psikologiko bat haietariko batentzat izugarria dena baina bestearentzat hala ez dena».¹⁰⁷ NPAREN bileren aurretik, konparazio izugarri hanpatuak egiten zituzten; esate baterako, preso zuriak preso beltzekin batera espetxeratzeak gogora zekarrela «hiltzaileak “gorpu ustelekin” lotzeko “tortura zaharra”, bizirik zegoen hiltzailea hiltzea zekarrena».¹⁰⁸

Frederick Douglasssek joputza penalaz agertu zuen mesfidantzaren argitan, arrazari buruzko diskurtso gailenei eman zien erantzunak aztertuko bagenitu –kontuan hartuz diskurtso haietan beltzasunaren nahitaezko adiskide ideologikotzat jotzen zela kriminalitatea–, hobeki ulertuko genuke zer dela-eta nagusitu den halako isiltasun bat joputza penalaren inguruan gaur egungo giro intelektual beltzetan. Douglass nahiko zintzoa izan zen lintxamenduen auzian, eta hitzaldi eta artikulua ugaritan heldu behar izan zion arrazakeriaren ideologia kriminalizatzaileari. Baina zergatik mintzatu zen hain ozen lintxamenduaren aurka, eta isilik geratu, ordea, presoek errentamenduari dagokionez? Lintxamendua legearen irismenetik kanpo zegoen. Hots, haren aurka egin zitekeen ilegala zela argudiatuz, itxuraz kaotikoa eta gaitzesgarria zelako. Kontua ez zen, Douglasssek formulatu zuen bezala, ea lintxamenduaren biktimak errudunak ala errugabeak ziren, baizik eta kendu egiten zitzaizela legeak egituratutako

106 Mancini, *One Dies, Get Another*, 92.

107 Mancini, *One Dies, Get Another*, 93. Mancinik NPAREN 1886ko bilerak dakartzat hizpidera.

108 Fierce, *Slavery Revisited*, 89.

esparru batean beren akusatzaileei aurre egiteko eskubidea. Presoen errentamenduari heldzeak ilustrazioaren printzipio nagusietako batzuei uko egitea ekarri izanen zion Douglassi; izan ere, askapen beltzaz zeukan ikuspegia tinko ainguratuta zegoen legeak justizia zekarrelako promesean, eta horrek eragozten zion onartzea erakunde juridikoek zerikusi handia zutela esklabotza-sistema mikrokosmikoko haren iraupenean.

Hona hemen linterxamenduaren deskribapen bat, haren «Why is the Negro Lynched?» artikuluko ezagunetik ekarria:

[Jendetzaren botereak] barre egiten die prozesu juridikoei, auzitegi eta epaimahaiei, eta bete-bete harrapatuak diren hiltzaileak nahieran ibiltzen dira, legearen edo iritziz publikoaren kontrol eta eragozpene-tik at. Jendetza krimenez akusaturiko negroeiei jazartzen zaienean –izan errugabeak, izan errudunak–, kartzelako hormek eta burdin barre-ek ez dute babesik ziurtatzen. Kartzelako ateak eraisten dira deus ere egiten ez duten kartzelazainen aurrean, eta akusatuak, justizia-azuztegi-tako epaiketen zain dauden bitartean, arrastaka atera eta zintzilikatu egiten dituzte, tirokatu, sastakatu edo erre, hil arte, jendetzaitsu eta arduraga-beak aukeratzen duenaren arabera.¹⁰⁹

Douglasssek, dena den, ez zuen onartzen berak segurtasuntzat hartzen zituen burdin barrak terrorezko arma bat zirela, jendetzaren boterea bera bezalakoa. Oshinskyk dioenez, «[M]odu zital batean, emantzipazioak lehen baino ahulago utzi du populazio beltza. Orain, bi tokitatik datozkio mehatxuak: jendetza zuriaren boteretik eta epaitegi zurietatik. Ku Klux Klana bezala, justizia penalaren sistema amarru bat bilakatu da negroentzat».¹¹⁰

Beharbada, legean zeukan konfiantzak itsutu zuen Douglass eta horregatik ez zuen ikusi nola bilakarazten ziren beltzak soilik esklabotzarako gai, hain zuzen ere legearen bitartez. Horra presoen errentamendu-sistemaren esanahi sinbolikoa. 1911rako, Kartzela Elkarte Nazionalak argi eta garbi onartu zituen kartzela-sistemaren eta esklabotzaren arteko loturak:

Presoaren estatusa joputza penalaren estatus berbera da, hots, esklabotza-sistema zaharraren azken hondarra da. Ohiturazko zuzenbideak zigortzen du, legediak arautzen, eta Ameriketako Estatu Batuetako Kons-

109 Frederick Douglass, «Why is the Negro Lynched?», in Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 492.

110 Oshinsky, *Worse Than Slavery*, 29.

tituzioan ere inplizituki onartua dago, eta, horrenbestez, eztaba daezina eta ukaezina izaten jarraitzen du: oinarritzko instituzio bat da, beharrezkotzat jotzen dena gure gizarte-egituraren egonkortasunak bere horretan segi dezan.¹¹¹

Douglassek 1894an hizpidera ekarri zuelarik «esklabotzak bere burua modu batera edo bestera betikotu» nahi zuela,¹¹² errentamendu-nekazaritzaren sistema eta langile beltzei erosketa-bonu bidez (eta ez diruz) ordaintzeko praktika zeuzkan gogoan, esklabotza betikotzen zuten heinean. «Hegoaldeko lurjabeek albait baldintza gogorrenetan nahi dute negroen lana. Lehen, deusen truke eskuratzen zuten. Orain, ia deusen truke nahi dute».¹¹³ Interesgarria da nola proposatzen duen lurjabeek hiru estrategia erabiltzen dituztela, nahiz bi bakarrik aipatu: errentamendu-nekazaritza eta bonu bidezko ordainketa. Bali-teke hasieran presoer errentamendua eta/edo peoitza ere sartu izana, baina, hobeki pentsatu, eta erabaki izanen zuen sistema horiek ez aipatzea, haietan estatuaren esku-hartze zuzena edo zigor inplizitua zegoelako.

Presoen errentamendua eta hari loturiko legeak, beren lan-kontratua betetzen ez zuten pertsonak auzipetzeko aukera ematen zuten heinean, Douglassek esplizituki aipaturiko sistemak baino hurbilago zeuden esklabotzatik. Aldi berean, sistema juridiko eta ekonomiko guztiok –errentamendua, peoitza, nekazaritza-errentamendua, apartzeria eta bonu bidezko ordainketa– elkarren osagarri ziren, eta lan-indar beltza kontrolatzeko teknikak esklabotzaren uztarpean zeuden. Sistema horien subjektu gehienak beltzak zirela eta, Milfred Fiercek zera dio: «[H]aientzat, *antebellum* garaiko *de jure* esklabotza eta *postbellum* garaiko *de facto* esklabotza bereiztea oinaztura anitz eta euri gutxi baizik ez zen ia-ia».¹¹⁴ Horrez gain, zera dio Fiercek:

Hegoaldeko beltzak ataka penal zailean harrapatuta geratu ziren: Hegoaldeko estatuetako kartzela-populazioaren kopuru eta ehunekoak gehiegizkoak ziren. Biktimentzat, haietariko asko esklabo ohiak izanik, egoera larri hartan egoteak esklabotzara itzultzea esan nahi zuen, ez gutxiagorik. Beltz haiei, esklabo ohiak izanik eta presoer errentamen-

111 Whitin, *Penal Servitude*, 1-2 (neuk nabarmendua).

112 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 516.

113 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 516.

114 Fiercek, *Slavery Revisited*, 43.

du-sistemaren biktima bihurturik, denboraren tunelean zeudela iruditu izanen zitzairen –bereziki kargu faltsuen ondorioz zigortu eta espetxeratu-
tuei, edo berek errurik ez zuten delituengatik espetxeratuei–.¹¹⁵

Fiercek dio –bere ikerketaren izenburuak adierazten duen bezala, *Slavery Revisited*– errentamendu-sistemaren baldintzak esklabotzaren baldintzen baliokideak zirela –hau da, plantazioen jabeek eta industrialariei aukera ematen zitzaizela gehienbat beltzak ziren presoek multzoak errentan hartzeko– eta, haien lana ziurtatzeko, esklabotzaren garaiko hertsadura-metodo berberak erabiltzen zituztela.

Douglassek, segur aski, legezkoa zelako eta justizia penalaren sistemaren babesean garatu zelako ez zion heldu presoek errentamendu-sistemaren auziari, baina, xeheago aztertu izan balu, ohartu izanen zen estatuaren autoritatea ez zela zuzenean gauzatzen errentamendu-sistemaren bidez, baizik eta estatua bitartekari gisa baliatzen zela presoek lana pribatizatzeko. Esklabotza abolitu aurretik, Alabamak aurrekari bat ezarri zuen presoek lana pribatizatzeko, eta horrek areago indartzen du esklabotzaren eta errentamenduaren arteko lotura historikoa. Lehen espetxea Alabaman eraiki zuten, 1840an, eta, 1845era-ko guztiz zorpetua zegoenez, espetxe osoa errentan hartu zuen J. G. Graham delako batek, sei urterako. Grahamek, beraz, espetxearen buru bilakaturik, presoek lanaren etekin guztiak eskuratu zituen.¹¹⁶

Hegoaldeko estatu guztietan presoek errentamendu-sistema ezarri zutelarik, plantazioen jabeek eta kapitalisten esku geratu zen preso batik bat beltzen lana, esklabotzaren moldeen araberrako baldintzetan, are, neurri handi batean, esklabotza-sistema baino okerragoko baldintzetan. Matthew Mancini *One Dies, Get Another* lanaren egileak errentamendu-sistema aztertu zuelarik, analisi konplexuago bat proposatu zuen sistema horrek esklabotzarekin daukan ageriko lotura azaltzeko. Mancinik era konbentzigarri batean dio ezen, antzekotasun eta jarraipen-zantzu ukaezinak direla eta, desberdintasunek eta jarraipen-zantzurik ezek eskaintzen dutela presoek errentamenduaren gaineko ikuspegirik interesgarriena. Haren arabera,

115 Foner, *Life and Writings*, 4. lib., 78.

116 Mancini, *One Dies, Get Another*, 99-100.

esplotazio ekonomikoaren indizea –terminologia marxistan lan ordaindegubearen balio gisa definitua (eta, horrenbestez, baita etekinaren indize gisa ere)– handiagoa zen errentamendu-sisteman esklabotzan baino. Esklaboen jabeek, subjektu langileak mantentzeaz gainera, esklaboen komunitate osoa mantendu behar zuten, baita haurrak eta lanik egin ezin zuten adineko pertsonak ere.¹¹⁷ Errentariak, ordea, preso indibidualen ardurar besterik ez zeukaten: haietariko bakoitzak lan-unitate bat osatzen zuen. Gainera, preso multzoen lana erosten zuten errentariak, ez banakoena. Honela dio Mancinik:

Banako presoak, berez, ez zen inbertsio esanguratsu bat, eta hura hiltzea edo aske uztea, beraz, ez zen galera bat. Hortaz, lan-iturritzat hartzen zirenean, esklaboek «soldata» erantsi bat jasotzen zuten, eta presoek, aldiz, banako lansari bat; kapitalaren barnean, esklaboak esanguratsuak ziren banaka hartuta, eta presoak, aldiz, kolektiboki. Ariketa metafisiko bat baino gehiago, bereizketa garrantzitsua da hori, zeren presoez abusatzeak pizgarri ekonomiko bat baitzekarren. Bi faktore ekonomiko horiek –presoek iraupen-«soldata» edo iraupenetik beherakoa jasotzea eta kapital erantsiaren estatusa edukitzea– elkar indartzen zuten, eta, definizio ekonomikoaren ikuspuntutik, errentamendua esklabotza baino «okerragoa» zela esan nahi zuen.¹¹⁸

Gizon-emakume beltzen kopuru txiki baina esanguratsu bat kondenatua zegoen esklabotza izan zitekeenaren amesgaiztorik txarrenak bizitzera, hots, esklaboak erostearen kostua genozidioaren baldintzak justifikatzeko bezain baxua balitz izan zitekeena bizitzera; baldintza horien artean zegoen, adibidez, esklaboen jabeek ez mantentzea lan egiteko gai ez zen gizon, emakume edo haurrik. Baldintza horietan (zeinak ez baitziren guztiz ezezagunak esklabotzaren garaian), errentagarria zatekeen orobat esklaboek literalki hil arte lan egitea, zeren eta esklabo berriak erostearen kostuak ez baitzukeen eraginik izaneten etekinetan. Hain zuzen ere horregatik erabaki zuen Mancinik *One Dies, Get Another* izenburua paratzea presoan errentamenduaz egin zuen ikerketari. Ezin dugu espekulatu besterik egin nola jokatu izanen zuen Frederick Douglasssek presoan errentamendu-sistemarekin baldin eta gainetik kendu izan balu lege-kontu

117 Mancini, *One Dies, Get Another*, 22.

118 Mancini, *One Dies, Get Another*, 23.

formaletan zeukan fedea eta xeheago aztertu izan balu esklabo-tza birkartzelatze sinboliko eta maltzur bat balitz bezala. Orobat, espekulatu besterik ezin dugu egin zer eragin izanen zuen askapen beltzaren etorkizuneko agendetan eta intelektual beltzen eta AEBko kartzela-sistemaren aurkako mugimendu sozialen arteko harremanetan Douglasssek errentamendu-sistemaren aurka konpromisoa hartu izan balu.

Dena den, Frederick Douglasssek bere ahalmen komunikatiboak erabili ez bazituen ere presoen errentamendua aztertzeke, haren ondorengo hiru intelektualek egoki ikusi zuten gaiari buruz idaztea.¹¹⁹ D. E. Tobiasek, ikertzaile autodidakta eta zentzu gramsciarrean intelektual organikoa bera, artikulua bat idatzi zuen 1899an, neurri handi batean errentamenduaz ziharduena. 1901ean, W. E. B. Du Boisek artikulua ilun samar bat idatzi zuen presoen errentamenduaz, eta, 1907an, Mary Church Terrellek ere heldu zion gaiari, Tobiasek artikulua argitaratutako aldizkari berean.

«A Negro on the Position of the Negro in America» artikuluan, D. E. Tobiasek honela deskribatu zuen bere burua: hogeita bederatzi urteko gizon beltz bat, esklaboen semea, AEBko kartzela-sistema aztertzen ari zena.¹²⁰ Zoritzarrez, badirudi lan hori besterik ez zuela argitaratu Tobiasek. Interesgarria da nola kokatu zuen presoen errentamenduaren aurkako kanpaina beltzen askapenerako agendaren lehen lerroan. Ildo horretan, Frederick Douglasssek hasi eta gerora Du Boisek Washingtonekiko eztabaidan baliatutako tradizio filosofikoaren aurka agertu zen: tradizio haren arabera, beltzen eskubide politikoak *sine qua non* baldintzak ziren askapen beltzerako. Tobiasek ez zuen boto-eskubidearen garrantzia ukatzen, baina esaten zuen, hain zuzen, presoen errentamenduak bere horretan zirauen bitartean beltzek ez zutela sekula izanen boto-eskubiderik. Horrez gain, iradoki zuen hainbeste beltz kartzelan egotea pertsona horiek herritar gisa zeuzkaten eskubideez betiko gabetzearen parekoa zela. «Boto-

119 Milfred Fierceren *Slavery Revisited* lanari esker izan nuen hiru artikulua horien erreferentzien berri.

120 Fierceek zera dio: «Ez dakigu askorik Tobiasi buruz, soilik haren gurasoak esklabo ohi analfabetoak zirela eta Hego Carolinan jaio zela 1870. urtearen inguruan. Bere buruaz zioen "afrikar arraza fazatiaren kide" zela, eta azaldu zuen Hegoaldean eta Iparraldean hezia izan zela eta bere eskuekin lan eginez ordaindu zuela bere heziketa». Ikus *Slavery Revisited*, 243.

emaila beltz bat kartzelan sartzen denez geroztik, betiko galduko du boto-eskubidea, eta soilik arrazoi horrengatik hartu dituzte zuriak preso milaka beltz, haiei botoa kentzeko».¹²¹ Kartzela era-biltzea populazio beltzaren botere politiko potentziala higitzeko estrategia esplizitu gisa, Tobiasen ikuspuntuaren arabera, Frederick Douglassen «esklabotzak bere burua betikotu nahia» dakar gogora. Honela idatzi zuen Tobiasek:

Hegoaldearen xede bakarra, nazioarekin gerran sartu zenean, arraza beltza ondasun gisa atxikitzea zen, eta, behin hori galdu ondoren, esklaboen jabe ohiek morrontzan atxiki nahi izan zituzten negroak, beren zerbitzurako. Hortaz, laster batean antolatutako negroak preso bihurtzeko plan burutsu bikaina, eta berehala atxilotu eta zigortu zituzten dozenaka eta milaka esklabo ohi, orotariko delitu ahulengatik, bai eta giza haragiaren eskaintzailerik onenaren esku utzi ere. Esklabotza modu berri haren kariaz, ehunka eta milaka gizon-emakume beltzek sekula ez dute jakin emantzipatuta zeudela.¹²²

Tobiasek adierazi zuen ezen Hegoaldeko agintariek, preso-en errentamendu-sistemaren instituzioa justifikatu nahian, gogora ekarri ohi zutela Gerra Zibilean suntsitu zirela Hegoaldeko kartzela-egitura gehienak eta horrenbestez errentamendu-plana aurkeztu zutela «behin-behineko esperimendu gisa, delitugile beltzen populazio zabala zaintzeko beste baliabide batzuk aurkitu arte».¹²³ Hala ere, hiru hamarkada baino gehiago igaro ondoren, Hegoaldeko justizia penalarren funtsezko osagai bat da gaur egun errentamendu-sistema.

W. E. B. Du Boisek, bestalde, esklabotzaren oinordekotza estruktural bat balitz bezala aztertu zuen errentamendu-sistema 1901eko artikulua batean: «The Spawn of Slavery: The Convict-Lease System in the South». Haren arabera, krimenez akusaturiko beltzak lanaren inposizio pribatuaren bidez zigortzen ziren, «zi-gorraren teoria esklabista baliatuz: mina eta intimidazioa».¹²⁴ Du Boisek honela definitu zuen errentamendu-sistema: «[K]rimenez eta hutsegiteez akusaturiko herritarren esklabotza esku pribatuetan».¹²⁵ Lan beltza kontrolatzeko metodo hura, Du

121 Tobias, «Negro on the Position of the Negro», 960, *op. cit.*

122 Tobias, «Negro on the Position of the Negro», 959, *op. cit.*

123 Tobias, «Negro on the Position of the Negro», 960, *op. cit.*

124 Du Bois, «Spawn of Slavery», 743, *op. cit.*

125 Du Bois, «Spawn of Slavery», 738, *op. cit.*

Boisek dioenez, emantzipazioaren ondoko kaosean sortu zen, kriminalitate beltza juridikoki eratzearekin batera, zigorrak esklabo-jabeen eskumen pribatua izateari utzi eta legeak esklabo beltzak beren nagusien jabetza gisa onartu zituenean. «Ondorioz, estatuarentzat, negroen artean ez zegoen intereseko inongo deliturik. Jurisprudentzia penalarren sistema, beraz, zuriekin lotzen zen ia eksklusiboki».¹²⁶ Esklabo Ohien Bulegoa saiatu zen harreman legaletan bitartekari jarduteko metodo berritzaileak asmatzen, baina estrategia haiek kale egin, eta estatu-epaitegiek beren aginpidea berrezarri zuten:

Ohiko estatu-epaitegiek, pixkanaka boterea berreskuratu ahala, esklabo ohien estatus berria finkatu behar izan zuten beren erabakien bidez. Naturala bezain tamalgarria izan zen, beharbada, kaos haren erdian epaitegiek erabaki judizialen bidez egin nahi izatea biltzar legegileek lehen lege espezifikoaren bidez egin nahi izan zutena, hots, esklaboak jopu bihurtzea. Ondorioz, heziketarik gabeko klase axolagabe baten bekatu txikiak epai gogorrek emateko aitzakia bihurtu ziren. Epaitegiak eta kartzelak axolagabez eta ezjakinez bete ziren, beren askatasun berria nabarmendu nahi zuten pertsonaz, eta baita, maizegi, zapalkuntzaren biktima errugabez ere. Negroen lekukotzak deuserako edo deus gutxirako balio zuen epaitegian; lekuko zurien akusazioak, aldiz, erabakigarriak izan ohi ziren. Horren ondorioz, Hegoaldeko estatuetako populazio itxuraz kriminala nabarmen hazi zen bat-batean; hainbeste hazi zen, estatuak ez baitzuen ez haientzako tokirik, ez haiek zaintzeko modurik, ezta hala nahi izan balu ere. Eta estatuak ez zuen nahi izan. Hegoalde guztian onartu ziren, berehala onartu ere, funtzionarioei presoena lana eskaintzailerik onenari errentan emateko aginpidea ematen zieten legeak. Errentariak hartzen zuen, beraz, presoena gaineko ardura: nahi zuen bezala lan eginaraz ziezaiekeen, estatuaren kontrol nominalaren pean. Alegia, esklabotza eta esklabo-merkataritza berri bat ezarri zen.¹²⁷

Aipu luze hori ekarri dut modu argigarrian laburtzen duelako presoena errentamendu-sistema palanka erabakigarria izan zela bitan banaturiko justizia penal batetik –zigor pribatizatua beltzentzat eta zigor publikoa zurientzat– beste sistema batera igarotzeko, sistema bat beltzen zigorrean ardaztua eta bitartekari-lanak egiten zituena haiek lan pribatizatuaren bidez zigortzeko. Bestela esanda, «krimenaren banatzaile bilakatu zen

126 Du Bois, «Spawn of Slavery», 738, *op. cit.*

127 Du Bois, «Spawn of Slavery», 740, *op. cit.*

estatua, krimenetik etekina ateratzeko eta presoek truke urteror diru-sarrera garbi bat eskuratzeko».¹²⁸ Aurrerago, Du Boisek zera idatzi zuen *Black Reconstruction* lanean: «Mundu modernoko inongo tokitan ez da egon Hegoaldeko esklabotzaren garaikoa bezalako krimen-trafiko ireki eta kontzienterik degradazio sozial deliberatua eta etekin pribatua lortzeko».¹²⁹ Du Boisek presoek errentamendu-sistemaz egin zuen analisisa Douglassen ikuspegiaren aurkakoa da inplizituki, lan-indar beltza «askea» baitzen haren aburuz. Du Boisek zuhurki ohartarazi zuen lan-indar beltz delakoa preso beltzen lanarekin lotuta zegoela oso modu zehatzean; izan ere, beltzek enplegua bilatu ohi zuten industria anitzetan –adibidez, adreilugintzan, meatzaritzan eta errepideen eraikuntzan–, soldatak nabarmen baxuagoak ziren, estatuko hileko 3 dolarren truke errentan har baitzitzakeen presoak.¹³⁰ Gainera, Du Boisek azaldu zuen ezen, arraza-aurreintzirik gabeko justizia penal bat ezartzeko, errotik aldatu behar zela presoek errentamenduan gorpuzturiko lanaren teoria. Presoen lana, onura pribaturako edo estatuaren onurarako estrategia bat izan beharrean, presoak zentzatzeko eta erreformatzeko baliabide gisa erabili beharko litzateke. Irabazi-asmoa abolituz gero, esan nahi izan zuen antza Du Boisek, arrazakeriarako pizgarri indartsu bat desagertuko litzateke sistemaren erdigunetik.

Zoritzarrez, Du Boisen garaikideek ez zuten kontuan hartu hark presoek errentamendu-sistemaren gainean eginiko analisi argigarri eta erradikala. Itzalpean geratu zen nolabait; segur aski, misiolarien proiektuei buruzko idazlanak argitaratu ohi zituen agerkari protestante batean argitaratu zelako, *The Missionary Review of the World* aldizkarian. Alegia, baliteke teologoak eta misiolariak izatea irakurle gehienak. Gaur egun, pentsatzekoa da erlijio-ikasketetako ikasleek eta presoek errentamendua aztertzen ari diren ikertzaileek soilik irakurriko dutela. Nolanahi ere, Du Boisek presoek errentamendua eta peoitza hizpide hartu zituen bere *Black Reconstruction* lan ikaragarri handian.

Douglass hil eta hamabi urte geroago, Mary Church Terrell zera azpimarratu zuen: «[H]arrigarria da herrialde honetan zer jende gutxi dautan, are inteligenteen artean ere, ideia lau-

128 Du Bois, «Spawn of Slavery», 741.

129 Du Bois, *Black Reconstruction*, 698.

130 Du Bois, *Black Reconstruction*, 744-745.

so bat baino zertxobait gehiago presoen errentamendu-sistemak esan nahi duenari buruz».¹³¹ *The Nineteenth Century* aldizkari prestigiotsuan argitaratu zioten presoen errentamenduaz idatzi zuen artikulua, eta, zaila den arren dokumentatzea zer-nolako harrera izan zuen, Mildred Fiercek zera idatzi zuen hari buruz: «[E]ragina izan zuen beltz eta zuri anitzengan».¹³² Terrell, aurreko belaunaldian Douglass bezalaxe, lintxamenduaren aurkako gurutzadaren figura nagusietako bat izan zen. Alta, lintxamenduaren aurka idatzi zuen pasio berberaz idatzi zuen presoen errentamendu-sistemaren aurka ere: bere salaketa ezinago krudelak zehatz-mehatz dokumentatu zituen Hegoaldeko lege-autoritateen adierazpenetatik eta txosten ofizialetatik ateratako erreferentziekin. Honela idatzi zuen Terrellek:

Ez da gehiegizkoa esatea ezen, Hegoaldeko zenbait estatutan, preso-errentamendu-sistema gizagabeagoa dela zenbait eskualdetan duela berrogeita hamar urte esklaboek jasan behar izan zuten gatibutza baino. Izan ere, erregimen zaharrean, jabeari interesatzen zitzaion bere esklaboak egoki jantztea, lo egiteko tokia izatea eta elikatzea, ez gupidaz eta gizatasunez, baizik eta esklabo bat hiltzeak dolarrak eta zentimoak galtzea esan nahi zuelako berez; gaur egun, aldiz, preso bat hiltzeak ez dakarkie inongo galerarik ez errentariari, ez estatuari.¹³³

Terrellen artikuluan hainbat aldiz aipatzen da nola txertatzen ziren emakumeak preso-errentamendu-sisteman beren generoa kontuan hartu gabe: gizonekin batera egiten zuten lan eta lo. Georgiako estatuan kokatu zuen bere lana, Alton Byrd koronelak urte batzuk lehenago argitaraturiko txosten bat sakonki aztertuta. Georgiako preso-esparruetako baldintzen ikertzaile berezi izendatu zuten Byrd, eta, pasarte batean, emakume beltz gazte bat deskribatu zuen:

Lizzie Boatwright, hemeretzi urteko neska beltz bat, Thomasetik (Georgia) igorri zuten, lapurretatik. Emakume-arropak jantzten zituen, eta orpoz orpo lan egiten zuen gizon presoekin, zaindari baten zaintza-pean, zelai batean zanga bat irekitzen. Txikia zen, eta atsegina tratuan, eta oinazealdi, laztura eta sufrimendu amaigabea izan behar zuen haren bizitzak esparru hartan. Kontatu zidan bi aldiz jipoitu zuela zartailuz zaindari zuri basa hark, McRay hil arte egurtu zuen zaindari berak (esparruko

131 Mary Church Terrell, «Peonage in the United States», 303.

132 Fierce, *Slavery Revisited*, 231.

133 Terrell, «Peonage in the United States», 306.

preso beltz zahar bat zen McRay): zartailuz jipoitzeko zeuzkan legezko eskubideak prostituitu zituen ankerkeriarik higuigarri eta nazkagarriena praktikatzeko. Neska hura eta beste emakume bat biluztu eta gupidarik gabe jipoitu zituen gizon presoan aurrean, errepede ondoan geratzeagatik beren oin minberatuetan trapu bat lotzeko.¹³⁴

Terrellek, lan-esparrietako emakumez jardun zuenean, batik bat emakume zuriak hartu zituen kontuan, segur aski iruditzen zitzaiolako emakume zurien aurkako tratu basak sumin handiagoa piztuko zuela emakume beltzen aurkakoak baino. Informazio-iturririk aitortu ez zuen arren, aurreko urtean hedaturiko albiste batzuez idatzi zuen: «[M]ila neska zuri... gizon-arropaz jantziak eta koloreko gizonekin orpoz orpo lanean, denak ere esklabotzan harrapatuak, neskak ere bezalaxe... [Floridako] pinudietako sakontasunik beltzenetan, inongo gizon zuri zibilizatuk –salbu trementina-esparrietako nagusiek– sekula ikusi gabeko txaboletan bizi direlarik, esaten da neskak joputzan zahartu direla».¹³⁵ Terrellek ohar hau eginez amaitu zuen atal hori: «[P]eioitza ez da soilik Hegoaldeko estatuetan barreiatzen oldarkortasunez eta hainbat modutan; aitzitik, lehenago koloreko pertsonei bakarrik kalte egiten zien arren, gaur egun gizon-emakume zuriei ere erasaten die».¹³⁶ Alde horretatik, Terrellek segur aski jaso izanzen zuen kartzela-erreformaren aldeko diskurtsoaren eragina, zeinak peoitzaren eta presoan errentamenduaren krudelkeria parekatzen baitzituen, ustez gero eta herritar zuri gehiagori eragiten ziela kontuan hartuta. Esate baterako, 1907an *Cosmopolitan Magazine* aldizkarian argitaraturiko artikulu batean, Richard Barryk nabarmendu zuen Floridako enplegatzaileak ikertu zituztela «berealdiko akatsa» egin zutelako: «[E]sklabotzaren kontuan, gizon beltzaz harago joan ziren. Arraza-bereizkuntza zaindu balute, zigorra saihestu izanzen zuten, hamarkada batez saihestu zuten bezala. Baina, asegaizak izaki, eta beltz nahikoa aurkitu ez zuten beren gurari anbiziotsuak betetzeko, eskua luzatu, eta gizon zuriak atxiki zituzten».¹³⁷

134 Terrell, «Peonage in the United States», 317, *op. cit.*

135 Terrell, «Peonage in the United States», 311, *op. cit.*

136 Terrell, «Peonage in the United States», 313, *op. cit.*

137 Richard Barry, «Slavery in the South To-Day», *Cosmopolitan Magazine*, 1907ko martxoa. Hemen berrargitaratua: Donald P. DeNevi eta Doris A. Holmes, arg., *Racism at the Turn of the Century: Documentary Perspectives, 1870–1910* (San Rafael, Kalifornia: Leswing Press, 1973), 131, *op. cit.*

Ondorioz, presoen errentamendua abolitzeko mugimenduak kriminalitate beltzaren nozioei indarra ematen hasi ziren, baita errentamendu-sistemaren basakeria azpimarratzen ere. Mugimendu abolizionista hura eugenesiari eta arrazakeria zientifikoari buruzko diskurtsoen eragin gero eta handiagoarekin batera garatu zen. Lider beltzek uko egin zieten berezko kriminalitatearen teoria esentzialistei, eta, horretarako, kriminalitate beltza sortu zeneko baldintza historikoak nabarmendu zituzten; hala eta guztiz ere, ez zuten sakon aztertu zer rol estruktural zeukan kartzelen eta presoen lan-esparruen sare gero eta zabalagoak ideologia horiek eraiki eta defendatzeko orduan. Ikuspuntu filosofikotik, kriminalitate-presuntzioaren aldeko engaiamendua zekarren horrek; ez, ordea, kriminalitatearen gaineko ideologia hori konkretuki egituratzen zuten instituzioen aldekoa. Douglass isil-isilik geratu zen presoen errentamenduaren auzia zela eta; Terrellek, berriz, ez zuen jakin nola txertatu errentamenduaz zuen ikuspegia lintxamenduaren aurkako lanean, eta, horrenbestez, ez zen gai izan aro garaikidean ere kriminalitate beltzaren gaineko nozioak betikotzen diharduen justizia penaltaren sistema modu eraginkor batean zalantzan jartzeko. Gauza bera esan genezake Du Boisi buruz ere. Bereziiki garrantzitsua da hori, lintxamenduari buruzko herri-memoria historikoa kontuan hartzen badugu, oraindik ere afro-amerikar identitatearen funtsezko osagai bat den heinean. Lintxamenduaren aurkako kanpainari heldu zioten indar eta seriotasun berarekin –eta harekin lotuta– heldu izan baliote presoen errentamenduari eta haren ondorioz hainbeste beltz kartzela eta atxiloteta-zentroetan bizitzera behartu izanari emantzipazioaren ondoko garaian, orduan, kartzela-abolizioaren aldeko aldarri erradikala ez litza-teke hain sinesgaitza gertatuko gaur egun.

Jakina, ez da bidezkoa Douglassi egotzea mende batean baino gehiagoan inork ez aintzat hartu izana kartzela-sistemak funtsezko rola izan zuela belztasunaren eta kriminalitatearen artean parekotasun ideologikoak eraikitze eta mantentzeko orduan. Eta, era berean, ez da bidezkoa haren bizkar uztea «zentzu komunari jarraituz» kartzelak ezinbestekoak direla onartu izanaren ardura. Nolanahi ere –eta hau da nire ondorioa Douglasssek presoen errentamendu-sistemaz deus ez esan izana aztertu ondoren–, Douglass zilegitasun osoz kritikatzan duten

ikertzaileek –Ilustrazioaren printzipioei irmoki heldu zielako eta bere egin zuelako estatu burgesa arraza-garapena bermatzeko funtsezkoa izan zela aldarrikatzen zuen historiaren filosofia-orobat onartu beharko lukete filosofia horrek asko zaildu zuela kartzela-sistema ulertzea, bai eta sistema horrek arrazakeria-ren egiturak mantentzen eta sakonagotzen zituela ulertzea ere. Areago, ulertzen badugu zer erreparo izan zituen Douglasssek argi eta garbi agertzeko bere garaiko kartzela-sistemaren aurka, aiseago ulertuko dugu zer zailtasun dituzten gaur egun aktibistek kartzela-industria konplexuaren aurkako mugimenduak antolatzeke.

LAU

PRESOEN ERRENTAMENDU-SISTEMATIK SEGURTASUN GORENEKO KARTZELETARA¹³⁸

Albert Wright, 50 urteko gizon afro-amerikar bat, berrogei urteko zigorra betetzen ari da Illinois Mendebaldeko Zentzategian. 2.000 gizoneko kartzela bat da, eta beltzak dira presoek % 66 inguru. Han zegoela, mezu suhar bat idatzi zuen Wrightek *Emerge* hilabetekari beltzaren irakurleentzat: «[E]gunero jasaten dugun tratu gizagabearen aurka borrokatzeko laguntza eskatzen dugunean, gutxitan ematen digute erantzun on bat. Gutxik jakinen duzue nolako tratua jasaten dugun. Kartzela-kudeatzaileek kontatzen dizuetenak ez du zerikusirik egiarekin». Wrightek oso garbi utzi zuen ez zuela laguntza ekonomikorik edo ondasun materialik eskatzen: «Zuen herriari gertatzen ari zaionaz benetako interesa agertzeaz ari naiz. Gu herria gara oraindik. Kontua da kartzelan gaudela».¹³⁹ Gaur egun estatu-kartzelen eta kartzela pribatuen sare politikoan harrapatuta dauden beste ehunka mila gizon beltz bezalaxe, Wrighten gizatasuna –eta haren mezuaeren atzean zeuden gazte preso guztiena– ez da aintzat hartzen sistema penalean: gizabanakoa errehabilitatzeko eta birgizarteratzeko helburuak alde batera utzi, eta gero eta zigor eta ordain gogorragoak lehenesten dira. Kriminalitatearen gaineko diskurtso arrazista ezbaian jartzen ez denez, «mundu askeko» komunitateek ezinbestekoak ez balira bezala tratatzen dituzte gizon-gorputz beltzak, eta ia osotara baztertu ere egiten dituzte kriminaltzat hartuak diren horiek. Albert Wright, jakina,

138 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *States of Confinement: Policing, Detention, and Prisons*, arg. Joy James (New York: St. Martin's Press, 2000), 60-74.

139 Albert Wright Jr., «Young Inmates Need Help, From Inside and Out», *Emerge*, 1997ko urria, 80.

arranguratzen zen erdiko klaseko komunitate beltzak ere urrunduta zeudelako presoan ataka zailetik, eta, testua *Emergera* bidali zuenean, komunitate horiek kritikatu eta aldi berean laguntza eskatu zien.

Oraingo justizia penalararen sisteman, gizon beltzak dira Jerome Miller kartzela-erreformaren defendatzaileak «bilatu eta suntsitu» misioa¹⁴⁰ deritzonaren xede nagusia, eta, gogoratu dezagun, emakume beltzak, koloreko emakume eta gizonak, eta pobre zuriak ere badaude sistema horren jopuntuan. Hala, gizon afro-amerikarrak dira kartzela eta atxiloketa-zentroetan dauden presoan ia erdiak, nahiz AEBko populazioaren % 7 baino gutxiago izan.¹⁴¹

Ez dut iradoki nahi kartzelan dauden pertsona gehienek inongo deliturik egin ez dutenik. Izan ere, ikerketek behin eta berriaz erakutsi dute jende gehienak izan duela legeak debekaturiko jokabideren bat bere bizitzan noizbait. Haatik, ekintza horien ehuneko txiki bat besterik ez da aztertzeko justizia penalararen sistemaren testuinguruan.¹⁴² Kontuan hartuta 1990eko hamarkadaren bukaeran gizon beltz gazte guztien ia heren bat dagoela kartzelan edo zuzenean zentzategi-sistema baten kontrolpean, ez da guztiz zentzugabea esatea pertsona batek aukera handiagoa duela atxiloketa-zentro batera edo kartzelara joateko gizon beltza izanik, krimen bat eginik baino. Baliteke kartzelan dauden gizon beltz gazte gehienek legea urratu izana, baina haien arrazak eta generoak jartzen ditu justizia penalararen sistemarekin harremanetan, haien erruduntasunak edo errugabetasunak baino gehiago.

Hala eta guztiz ere, kartzelan dauden gizon beltzen kopuru ikaragarriek ez lukete ezkutatu behar emakume beltzen populazioa ari dela lasterren handitzen kartzelako populazio guztien artean, gehienetan drogarekin loturiko delituen kausaz.¹⁴³ Fenomeno hori azaltzeko, kontuan hartu behar da poliziak

140 Ikus Jerome G. Miller, *Search and Destroy: African American Males in the Criminal Justice System* (Cambridge: Cambridge University Press, 1996).

141 Steve Donziger, arg., *The Real War on Crime: The Report of the National Criminal Justice Commission* (New York: Harper Perennial, 1996), 102.

142 Edgardo Rotman, *Beyond Punishment: A New View on the Rehabilitation of Criminal Offenders* (New York: Greenwood Press, 1990), 115.

143 John Irwin eta James Austinen arabera, «emakume afro-amerikarren zaintza penala da gehien igo dena: 1989tik 1994ra bitartean, % 78 igo da». Ikus John Irwin eta James

gero eta gehiago zelatatzen dituela emakume beltz pobreak, gizon beltz pobreak ere zelatatzen dituen antzeko arrazoiengatik, baita zuzenean generoarekin loturiko arrazoiengatik ere. Gizar-te-laguntza deuseztatzeak, adibidez, eta ama ezkongabe beltzak deabrutzeak –kriminalitatearen eta pobreziaren eragiletzat jotzen baitira– arazoa handiagotzen dute, eta, ondorioz, emakume beltz pobre anitz espetxeratzen dituzte. Gainera, droga-kontsumoaren berariazko kriminalizazioak zera dakar, *crack*-adikzioa duten emakume dohakabeek arriskua dutela atxilotuak eta espetxeratuak izateko, eta erdiko klaseko emakumeak, aldiz, nahiz eta legezko drogak kontsumitu –Valium-a edo Prozac-a–, aske direla beren drogazaletasuna asetzeko.

Hala, kartzelan gero eta gizon-emakume beltz gehiago egotea nekez azaldu daiteke krimenak gora egin dutela esanez besterik gabe, ez baitira batere ohikoak beltzen artean. Steven Donziger giza eskubideetan espezializaturiko abokatuak dioen bezala, «zuriak baino askoz afro-amerikar gehiago dago gure kartzeletan, eta diferentzia hori ezin da azaldu afro-amerikarrek krimen gehiago egiten dituztela esanda: arraza-diskriminazioak ere badu zerikusia, zeren afro-amerikarrak zigortzen baitira justizia penaltaren sistemaren instantzia ia guztietan».¹⁴⁴ Hala ere, gero eta beltz eta koloreko gehiago baliatzen da, oro har, AEBko sistema penala hedatzeko giza lehengai nagusi gisa. Uste dut AEBko zigorraren historia bereziki arrazializatu eta sexistak ekarri duela, neurri batean, sistema penala kartzela-industria konplexu bat bilakatu izana estrukturalki eta ideologikoki: konplexu horretan, gero eta jende gehiago giltzapetzen, gizagabetzen eta esplotatzen da, haietariko gehienak pobreak eta beltzak.

Ez da kointzidentzia hutsa errehabilitazioak, kartzelaren helburu historikoa izanik, atzera egin izana teoriarik eta praktikan, AEBko kartzeletan gero eta gizon beltz gehiago sartu ahala. Gaur egun, esaten da kartzelak gainezkatzen dituzten «kriminalak» errehabilitazioaren irismenetik oso urruti daudela –«deusek ez du funtzionatzen»–, baina nozio horrek zerikusi handiagoa du beste kontu batekin: gaur egun, «beltz» eta «gizon» terminoen uztarketa «kriminal» izatearen sinonimo bilakatu da herri-iru-

Austin, *It's About Time: The Imprisonment Binge*, 2. arg. (Belmont, CA: Wadsworth Publishing, 1997), 4.

144 Donziger, *Real War on Crime*, 99.

diterian. Ez dut esan nahi errehabilitazio-ereduaren bilakaera historiko konplexua kontuan hartu behar ez denik, esparru moral eta erlijioso batetik esparru medikalizatu batera igaro baita eredu, ezta berrerortzearen kategoria problematikoa kontuan hartu behar ez denik ere, oso aintzat hartzen baita errehabilitazioaren arrakasta neurtzean.¹⁴⁵ Nolanahi ere, errehabilitazioari buruzko narratibak arraza-suposizioen eraginpean eratu dira, eta hortik abiatuta taxutu dira, batetik, esparru moral eta erlijiosoa, eta, bestetik, esparru medikoa. Lotura horien guztien azterketa batek lagunduko luke argitzen nolatan bihurtu den gaur egun kartzela gizon beltz gazteen patu saihetsezina, eta orobat lagunduko luke ulertzen zergatik hasi den igotzen azkenaldian, sekula ez bezala, emakume presoen proportzioa, zeina oso txikia baitzen orain arte: emakume beltzen gorputzak kriminalizazio-prozesu batean sartuak dira, gero eta gehiago, gizon beltzenak bezalaxe.

Kontuan harturik azkenaldian segurtasun goreneko kartzelak sortu direla eta AEBko kartzelak zigorrean oinarrituak direla gero eta gehiago (1990ean, kartzelatik desagertzen hasi ziren hezkuntza- eta aisia-programak eta errehabilitazio-proiektuekin loturiko beste batzuk), garrantzitsua da gogoraraztea ezen, hasieran, alternatiba gisa proposatu zirela kartzelak, zigormolde nagusiak berekin zekarren gorputz-oinazearen alternatiba erradikal gisa. Kartzela-sistema –kartzela historikoki zigorrerako esparru bat izan dela (eta ez epaiketaren edo zigorraren zain dauden pertsonak atxikitzeke esparru bat) ulerturik– gizabanakoa moralki erreformatzeko plan baten modura diseinatu zen, bai arkitektonikoki, bai teorikoki. Hala, ilustrazioaren garaiko suposizio nagusia bereganatuz, arrazoia ezarri zen gizaki guztien erdigunean. Horrez gain, modernitatearen ikuspegiarekin bat eginez, aurrerabidea saihetsezintzat hartu zen. Dena

145 Richard Hawkinsek eta Geoffrey Alpertek zera diote: «Gaur egun ez dago berrerortzearen definizio uniformerik. Normalki, delitu bat berriz egitea esan nahi du, baina, egiaz, delituak egiten harrapaturikoei egiten die soilik erreferentzia. Delitu asko harrapatu gabe geratzen direnez (haletariko batzuk gaizkile ohiek eginak), praktikan, tratamendutik aske geratutako pertsonen porrot-indizearen *estimazio kontserbadore* bat da berrerortze-neurri ofizial oro. Berrerortzearen definizioen aztertzaile batek hamahiru "porrot"-indize identifikatu ditu; esate baterako, poliziarekin izandako kontaktu bat grabatzea edo berriz espetxeratzea». Ikus Richard Hawkins eta Geoffrey P. Alpert, *American Prison Systems: Punishment and Justice* (Englewood Cliffs, NJ: Prentice-Hall, 1989), 198-199.

den, David Goldberg filosofoak adierazi duen bezala, «gizateria arrazionaltasunaren arabera definitzeak argi eta garbi dakar, modernitatean azpimarratzen den bezala, gaitasun arrazionala hartzea arraza-taldeen funtsezko *differentiatzat*».¹⁴⁶ Areago, modernitateko gizateria arrazionala ez zen soilik eraiki arrazan oinarrituta, baizik eta baita generoan ere.

Argudiatu izan da «*penitentiary*» [kartzela] terminoaren sorrerak lotura duela Ingalaterran prostituta «penitenteak» espetxeratzeko abiatutako plan batekin,¹⁴⁷ baina, edozein modutan, kartzela kriminalak erreformatzeko instituzio gisa ezarri zelarik, gizon zuriengan ezarri zen xede nagusia, neurri handi batean. Ameriketako Estatu Batuetan, esanguratsua da hori, esklabotza-ren mendearen erdialdera sortu baitzen kartzela, emakumeen eskubideen harira protesta gogorrek egin ziren garaian.

Modernitateak arrazoiaren antitesira makurrarazi zituen arraza guztietako emakumeak eta koloreko gizonak, hots, izaerara, senera eta zentzumenetara; azken batean, arrazoiaren ustezko unibertsaltasunak ezkutuan utzi zituen gorputzen gaineko arraza- eta genero-suposizio sendoak, zeinak arrazoi unibertsalaren oinarrian baitzeuden. XIX. mendearen zati handi batean, emakume zuriak ez zeukaten estatus juridiko beregainik, eta etxe-esparruan zigortzen ziren batik bat. Alabek beren aiten gorputz-zigorra jasaten zuten; emazteek, beren senarrena. «Kriminalizat» hartu eta justizia penaltaren sistemaren esku uzten ziren emakume zuriak «eroritzat» jotzen ziren, eta, horrenbestez, errehabilitazio moralaren irismenetik kanpo geratzen ziren.

Esklabotza abolitu bitartean, gizon eta emakume beltz gehienak esklabo-jabeen mende egon ziren. Esklabo-jabeek beren zigor-erregimenak garatu zituzten, gorputz-oinaze gogorra eragiteko eta, aldi berean, *gorputza* lanerako ondasun bat eta, horrenbestez, ondasun errentagarri bat zela aldarrikatzeko. Adibide bat ematearren, emakume haurdunak zulatze-lanetan ari zirelarik, ahuspez jartzen zituzten, beren haur jaiogabea babes-teko –haur jaiogabeak ere esklabo-lanaren errotarako lehengai ziren–, jipoitzen zituzten bitartean.¹⁴⁸ Testuinguru hartan,

146 David Theo Goldberg, *Racist Culture: Philosophy and the Politics of Meaning* (Malden, MA: Blackwell, 1993), 23.

147 Hawkins eta Alpert, *American Prison Systems*, 30.

148 Angela Y. Davis, *Women, Race and Class* (New York: Random House, 1981), 9.

zigorrek ez zuen inongo zerikusirik erreforma moralaren helburuarekin. Langile esklaboak beren altueraren eta indarraren arabera balioztatzen ziren batik bat; hortaz, gizon esklaboek balio handiagoa izan ohi zuten, normalki, emakume esklaboek baino, eta baliteke horren ondorio izatea gizonen gorputzak lehenestea lanerako eta zigorrerako. Ez dut esan nahi emakumeek esklabotzan sufrituriko lastura gutxietsi behar denik; izan ere, besteak beste, zigor sexualizatuak jasaten zituzten, hala nola bortxaketa, eta baita generoarekin loturikoak ere, haien lan erreproduktiboa kontrolatzeko eta mantentzeko.

Gerra Zibilaren ondoko garaian, legez kanpoko lintxamenduek eta Kode Beltz legeztatuek beltzen gorputzetan kokatu zuten zigorraren locusa. Era horretan, arrazaren eta generoaren kariatara, kartzela errehabilitazioarekin parekatzen zuen esparru moraletik kanpo geratzen ziren gizon eta emakume beltzak. Gizon beltzei indibidualtasuna eta maskulinitatea ukatzen zitzaaien, gainerako kriminalei ez bezala. Emakume beltzei, berriz, feminitatea ukatzen zitzaaien, eta hain zuzen ere feminitateak salbatu ohi zituen emakume zuri asko kartzelatik.

Ingalaterrako eta AEBko kartzelen sorrerak, kontuan harturik haien defendatzailek sutsuenak ere gorputz-zigor gogorren aurka zeudela guztiz, eragin apala izan zuen esklaboen aurkako zigor-erregimenetan. Emakume zuriak zigortzeko moduetan ere ez zuen ekarri aldaketa esanguratsurik. Alegia, kartzelak gizon zuriak zigortzeko modu berri eta ez hain krudel gisa sailkatu ziren, inplizituki arrazaren eta generoaren arabera-ko banaketa eginez.

Gehien zabaldu zen kartzela-diseinua panoptikoa izan zen, presoak aldi eta alde oroz behatzeko sistema bat, Jeremy Bentham filosofo utilitaristak proposatua. Egiaz, kartzela gutxi eraiki ziren panoptikoaren arau zorrotzak betez, baina eragin diskurtsibo handia izan zuen, eta hertsiki lotu zen kartzela-errehabilitazioaren proiektuarekin. 1787tik 1791ra bitartean, zenbait gutun argitaratu zituen Benthamek, eta xeheki deskribatu zuen jendalde handiak zelatzeko eta kontrolatzeko beharra zuten kartzelen eta beste instituzio batzuen diseinu

[Euskaraz: *Emakumeak, arraza eta klasea* (Eskafandra bilduma, Elkar, 2016, itz.: Danele Sarriugarte)].

arkitektonikoa. Benthamen panoptikoak nonahiko kontrola eta diziplinaren inposizioa ziurtatzen zituen, beraren ustez horixe behar baitzuten kriminalek, lan produktiboaren ohiturak barneratzeko. Benthamen planaren arabera –zeinak espero baitzuen kontratu bat lortzea gobernuarekin, kartzela bat eraiki eta kudeatzeko–, presoak bakarkako ziegetan kokatuko ziren, harmaila zirkularretan, denak ere zenbait solairutako zaintza-dorre bati begira. Pertsiana veneziarrak erabiltzea proposatu zuen Benthamek, argi- eta iluntasun-joko nahiko konplexu batekin batera, hartara presoek zaintza-dorreko kartzelazaina ikus ez zezaten; bestalde, ziegen antolaerari esker, presoek ez zuten elkar ikusiko. Kartzelazainak, aldiz, bere kokapen pribilegiatuari esker, preso guztiak ikusiko zituen. Dena den, eta hau zen Benthamen panoptiko erraldoiaren alderdirik esanguratsuena, presoek ez zuten inoiz jakinen norantz kokatua zen kartzelazainaren begirada, eta, hortaz, beti jokatu beharko zuten une oro behatuak balira bezala.

Benthamen panoptikoa ezartzeko saiakerarik irmoena AEBko Stateville Kartzelan egin zuten, Jolietetik hurbil, Illinoisen. Ofizialki, 1925eko martxoaren 9an inauguratu zuten. 1905ean hasitako erreformaren aldeko mugimenduari esker gauzatu zen; orduan, agerian gelditu zen Illinoisko estatuak «baldintza anker eta gizagabeetan» zeukala Jolieteko kartzela zaharra, zeina 1860an eraikia baitzen.¹⁴⁹ Batzorde legegile batek, Europatik itzuli zelarik atzerriko kartzela-plangintza aztertu ondoren, adierazi zuen zur eta lur zeudela Benthamen panoptikoarekin. Stateville panoptiko baten erara eraikitzen hasi ziren, partez, baina, azken fasean zirelarik, Illinoisko estatuak bertan behera utzi zuen plan zirkularra, eta ziega errektangularrak eginez amaitu zuen kartzela. Lehen hogeita bost urteetan, Statevilleko presoek populazio gehiena zuria zen; 1950eko hamarkadaren erdialderako, baina, beltzak ziren preso gehienak.¹⁵⁰

Michel Foucault teorialariak geroago adierazi zuen bezala, panoptikoko presoak «ikusgai dago, baina berak ez du ikusten; informazioaren objektua da, sekula ez komunikazioaren subjek-

149 Ikus James B. Jacobs, *Stateville: The Penitentiary in Mass Society* (Chicago: University of Chicago Press, 1977), 15-16.

150 Jacobs, *Stateville*, 58.

tua... Eta ikusezintasun hori ordenaren berme da».¹⁵¹ Gainera, jende-multzoa –masa trinko bat, orotariko truke eta indibidualtasunek bat egiten duten tokia, efektu kolektibo bat– abolitzen da eta bakarkako indibidualtasun sorta batek hartzen du haren tokia. Zaindariaren ikuspuntutik, zenbatu eta ikuskatu daitekeen ugaritasun-multzo batek ordezkatzan du jende-multzoa; gati-buen ikuspuntutik, aldiz, bakartasun bahitu eta behatu batek.¹⁵²

Panoptikoaren bidezko indibidualizazio-prozesuan, onartzen zen presoak izaki arrazional bat zela gutxienez potentzialki, eta haren kriminalitateak potentzial horren desbideratze bat uzten zuen agerian, besterik gabe. Horrez gain, arkitektura eta erregimen hartan, panoptikoki erreformatu beharreko gizabanakoak bazituen gaitasun mental eta moral batzuk kartzelako esperientziaren bidez kontrolatu eta eralda zitezkeenak. Emakume zuriak, teorian, prozesutik salbuetsita zeuden; izan ere, Britainia Handian eta Ameriketako Estatu Batuetan, XIX. mendearen bukaeran, «emakume eroriaren» ideologia gain-determinatzaileak errehabilitazio moralerako aukerarik gabe uzten zituen emakume kriminalak. Gizon eta emakume beltzak, bestalde, moralitasunaren esparrutik at uzten ziren ideologikoki, eta, emakume zuriei ez bezala, beltzei ez zitzaien onartu ere egiten sekula subjektu epistemologikoak eta agente moralak izan zirenik. Alegia, ezin zuten inondik ere espero graziazko egoerarik, sekula ez baitzuten halakorik izan.

Esklaboei ez zitzaien ematen gizabanakoen estatus sozialik. Indibidualtasunen bat ematekotan, gorputz-indibidualtasun bat emanen zieten, haien merkatu-balioaren, lan-potentzialtasunaren eta jasoa zuten zigorraren arabera definitua. Ondorioz, askotan, ez ziren izaten kultura nagusiko ohiko genero-bereizkuntzaren subjektu ere. Plantazioetako emakumeen kuotak, adibidez, gizonak egiten zituzten lan berberak egin arren, al-tueraren eta pisuaren arabera ezartzen ziren, ez generoaren arabera. Emakumeak ere jipoitzen zituzten zartailuz eta azotez, hots, esklabotzako zigor-armarik gogorrenak erabiliz.

Gerra Zibilaren ondotik, beltzak Hegoaldeko sistema penaletan sartu ahala –eta sistema penala joputza penaleko

151 Michel Foucault, *Discipline and Punish: The Birth of the Prison*, itz. Alan Sheridan (New York: Vintage, 1979), 200.

152 Foucault, *Discipline and Punish*, 201.

sistema bat bilakatu ahala-, esklabotzarekin loturiko zigorra sistema penalean txertatu zen. Matthew Mancinik ohartarazi duen bezala, «zartailuz astintzea zigor-molde nagusia zen esklabotzan; eta azotea, katearekin batera, joputzaren ikurrik behinena bilakatu zen esklabo eta presoentzat».¹⁵³ Beltz asko Hegoaldeko estatuetako Kode Beltzetan bildutako legeen pean hartu zituzten preso, eta lege horiek, Esklabotza Kodeen berrartikulazioak zirenez gero, zigorra arrazializatu eta hertsiki lotu ohi zuten aurreko esklabotza-erregimenekin. Presoen errentamendu-sistema eta konderrietako preso kateatuen sistema hedatu izanak adierazten zuen gerra aurreko justizia penalaren sistemak lan-indar beltza kontrolatzeko tresna modura definitu zuela neurri handi batean Hegoaldeko justizia penala, beltzak jomugatzat harturik, zuriak baino gehiago. Hona hemen Manciniren hitzak:

Esklabotzaren askotariko legatu ahulgarrietako bat zen uste izatea beltzek modu jakin batean soilik lan egin zezaketela, hots, iraganeiko esperientziak erakutsia zien moduan: katean, etengabeko ikuskaritzapean eta zartailu-zigorraren pean. Horiek ziren esklabotzaren baldintzak, eta esklaboak beltzak ziren; hortaz, Hegoaldeko zuriak ia unibertsalki ondorioztatu zuten beltzek ez zutela lanik egingen ikuskaritza eta zigorgorren pean ez bazen.¹⁵⁴

Presoen errentamendu-sistema aztertu duten ikertzaileek diotenez, alderdi garrantzitsu anitzetan, esklabotza bera baino puskaz makurragoa zen presoen errentamendua; Manciniren lanak *One Dies, Get Another* [Bata hiltzean, beste bat eskuratu] zuen izenburua, eta David Oshinskyk Parchmaneko kartzelari buruz eginikoak, berriz, *Worse Than Slavery* [Esklabotza baino okerragoa]. Esklabo-jabeek halabeharrez kezkatu behar zuten gizabanako esklaboez, beren balio indibidualarengatik; presoez, ordea, ez ziren kezkatzen: presoak errentan hartzen zituzten masiboki, hil arte lan egin zezaten, literalki, presoen multzoaren errentagarritasunari kalte egin gabe. Garai hartako deskribapenen arabera, errentan hartuta edo kateatuta lan egiten zuten presoen bizi-baldintzak askoz kaskarragoak ziren esklabo beltzenak baino. Mississippiko Yazoo Deltako plantazioetako 1880ko kroniketan ikusten denez, presoek lurrean jan eta lo egiten

153 Foucault, *Discipline and Punish*, 201.

154 Matthew Mancini, *One Dies, Get Another: Convict Leasing in the American South, 1866-1928* (Columbia: University of South Carolina Press, 1996), 25.

zuten, maindirerik edo koltxoirik gabe, eta, askotan, arroparik gabe. Zigorra jasotzen zuten «aitzur-lana mantso egiteagatik» (hamar zigorrada), «modu tamalgarrian landatzeagatik» (bost zigorrada) eta «kotoiarekin arinki ibiltzeagatik» (bost zigorrada). Ihes egiten saiatu ziren batzuk zartailuz jipoitu zituzten, «odola zangoetatik behera isuri arte»; beste batzuei metalezko ezproi bat josi zieten oinetan. Presoak akiduraz, pneumoniaz, malariatz, izozketaz, tuberkulosiz, intsolazioz, disenteriaz, tiro-zauriz eta «kateak pozoituta» (kateak eta gergiluak haragi biluziarekin eten-gabe igurztearen ondorioz) hiltzen ziren.¹⁵⁵

AEBko kartzeletan, Pennsylvaniako eta Auburngo sistemen arabera garatu zirenez gero, jarduera errehabilitatzaile bat zen lana; hala, ahalik eta etekin handienak eskuratzeko diseinatu zen Hegoaldeko preso gehienbat beltzen lana. Errehabilitazioak ez zuen inongo edo ia inongo zerikusirik han garaturiko zigor-industriarekin. Alegia, AEBko kartzela berriei eta Benthamen panoptikoaren ikusmoldearekin loturiko zigorraren teoria ez zetorren inondik ere bat beltz askatu berriei ematen zitzaizkien zigor motekin.

Gaur egun, kartzela-industria konplexu sortu berriak, pribatizaziorako joera gero eta handiagoak akuilaturik, gogora dakartza Gerra Zibilaren ondotik gizon beltz «askeen» lan-hornidura berrian oinarriturik zigor-industria errentagarri bat sortzeko lehen ahaleginak. Steven Donziger-ek, Nils Christien norvegiar kriminologoaren lanetik tiraka, zera dio:

[J]ustizia penalaren sistemaren zerbitzura dauden enpresek lehengai kantitate nahikoa behar dute epe luzeko hazkundea ziurtatzeko... Justizia penalaren arloan, presoak dira lehengaia, eta industriak behar duen guztia egingen du etengabeko hornidura ziurtatzeko. Presoen hornidura handitzeko, estatubatuar presoen kopuru nahikoa segurtatu behar dute justizia penaleko politikek, aintzat hartu gabe ea krimenek gora egiten duten edo jendea espetxeratzea beharrezkoa den..¹⁵⁶

Gizon beltz askatu berriak eta emakume beltzen kopuru handi bat lehengai-hornidura amaigabea ziren Hegoaldeko zigor-industria sortu berrirako, bai eta Hegoaldeko estatuetan hain beharrezkoa zuten lan-indarra ere, Gerra Zibilaren eragin

155 David Oshinsky, *Worse Than Slavery: Parchman Farm and the Ordeal of Jim Crow Justice* (New York: Free Press, 1996), 45.

156 Donziger, *Real War on Crime*, 87.

suntsitzailearen ondotik suspertzen saiatzen ari ziren garaian; eta, era berean, gaur egun ere, gizon beltz langabeak, eta gero eta emakume beltz gehiago, lehengai-hornidura agorrezina dira kartzela-industria konplexurako.

Justizia Estatistikaren Bulegoaren 1997ko datuen arabera, estatu-presoen eta preso federalen gehiengoa afro-amerikarra da: 735.200 preso beltz daude guztira, zuriak baino 10.000 gehiago. Gero eta preso beltz gehiago dagoenez, Hegoaldeko presoen errentamendu-sistemaren eta preso kateatuen garaiko preso beltz eta zurien proportzioetara gerturatzen ari da kartzelako populazioaren arraza-banaketa. Giza lehengai hori lanerako erabili zein kartzela-industria konplexuan zuzenean parte hartzen duten korporazioek hornituriko merkantzien kontsumitzaile behartu gisa erabili, garbi dago gizon beltzen gorputzak ez direla ezinbestekotzat jotzen «mundu askean». Horrez gain, kartzelaren munduko etekin-iturri nagusia ere badira. Alegia, presoen errentamendu-sistemaren aldaera berri konplexuak sortu dira.

Presoen errentamendu-sistemaren pribatizazioak ere badu antzekotasunik gaur egungo egoerarekin; esate baterako, Corrections Corporation of America eta Wackenhut enpresek etekinen truke kudeatzen dituzte kartzelak. 1990eko hamarkadaren amaieran, Ameriketako Estatu Batuetan (eta, zenbaitetan, baita handik kanpo ere) jarduten duten hamazazpi kartzela-enpresa pribatuak ehun atxiloketa-zentro eta kartzela inguru eraiki dituzte, 50.000 presorentzat. Kartzela pribatuak kartzela publikoak baino lau aldiz lasterrago ugaritu dira. Kartzela pribatuaren fenomenoaz aztertu dutenen arabera, gaur egun halako hiru zentro pribatu egonen dira mendea bukatzerako, eta bilioi bat dolarretik gorako diru-sarrerak izanen dituzte.¹⁵⁷ Presoen errentamendu-sistema oroitarazten duten akordio bidez, estatu- eta konderri-gobernuek zein gobernu federalek preso bakoitzeko kuota bat ordaintzen diete enpresa pribatuei; horrenbestez, presoak ahalik eta denbora gehien atxikitzea eta beren zentroak beteta edukitzea komeni zaie enpresa horiei.

Texasko estatuan, gobernuaren jabetzakoak diren eta kudeaketa pribatua duten hogeita hamalau kartzeletan, esta-

157 Kristin Bloomer, «Private Punishment», *San Francisco Chronicle*, 1997ko maiatzaren 10a, A3.

tutik kanpoko 5.500 preso daude giltzapetuta. Instalazio horiek urtean 80 milioi dolar inguru ematen diote Texas.¹⁵⁸ Capital Corrections Resources, Inc. enpresak Brazoriako Atxiloketa Zentroa kudeatzen du, gobernuaren jabetzakoa, Houstondik (Texas) berrogei miliatara. 1997ko abuztuan, zeresana eman zuen Brazoriak: herrialdeko telebistan zabaldutako bideo-grabazio batean, polizia-txakurrak ageri ziren hango presoek hozkaka, kartzelazainek iztartean ostikatu eta basaki zapaltzen zituzten bitartean. Lurrean arrastaka ibiltzera behartu, eta deskarga elektrikoak eragiten zizkieten pistola paralizatzaileekin, eta, bien bitartean, preso beltz bati «mutiko, arrastaka lasterrago!» oihukatzen zioten kartzelazainek.¹⁵⁹ Bideo hura hedatu ondoren, atxiloketa-zentroan atxikita zeuden 415 presoak askatu zituen Missouriko estatuak. Bideoarekin batera zabaldu ziren albisteetan ez zen ia aipatu ere egin kartzelazainen jokabidearen kutsu ezberriak gabe arrazista, baina, haatik, Brazoriako bideoa herrialdeko telebistan zabaldu zelarik, argi eta garbi ikusi zen gizon beltzak zirela kartzelazainen erasoen jomuga nagusia.

Brazoriako hogeita hamabi minutuko bideo hura 1996ko irailean grabatu zuten; kartzelako agintarien arabera, atxiloketa-zentroko polizia «zer ez zuten egin behar» irakasteko. Txakur batek hozkaturiko presoetako baten demandari esker, argitara ekarri ziren kartzela pribatuen horma eta ateen atzean gertatzen diren abusuen frogak garrantzitsuak; preso hark 100.000 dolar eskatu zizkion Brazoriako konderriari, eragindako kalteengatik. Brazoriako kartzelazainen ekintzek –hango presoek arabera, bideoan agertzen zen baino latzagoak ziren– argi frogatzen zuten zer tratatu ematen zitzaizkien herrialdeko preso askori, baina ez hori bakarrik, baizik eta baita zer jarrera orokortu ziren ere atxiloketa-zentro eta kartzeletan giltzapeturiko pertsonen aurka; uste zabalduta da gaitibu egozteagatik merezia dutela era horretako gorputz-zigor gogorra. Associated Press Newsen arabera, Missouriko presoak Brazoriatik beren jatorrizko estatura igorri zituztelarik, zera kontatu zuten Kansas City Star egunkarian: «Brazoriako Konderriko Atxi-

158 Sue Anne Pressley, «Texas County Sued by Missouri Over Alleged Abuse of Inmates», *Washington Post*, 1997ko abuztuaren 26a, A2.

159 Madeline Baro, «Video Prompts Prison Probe», *Philadelphia Daily News*, 1997ko abuztuaren 20a.

loketa Zentroko kartzelazainek akuiluak eta larderiazko beste tresna batzuk erabiltzen zituzten presoak ikaratzeko eta “maite dut Texas” esatera behartzeko». Louis Watkins presoak, bestalde, honako hau kontatu zuen ziegen aurkako 1996ko irailaren 18ko erasoaren harira: «Bideoan ikusi zenutena egun hartan gertaturikoaren zati bat besterik ez zen izan. Nik sekula ez dut horrelakorik ikusi filmetan».¹⁶⁰

Interesgarria da Watkinsek kartzela-esperientziari buruzko zinema-errepresentazioekin alderatu izana atxiloketa-zentroko erasoan ikusitakoa. Nire aburuz, kartzela-esperientzia nagusiki gizon beltzen esperientzia bat da jendearen iruditerian. Espetxeetan, gizon zein emakume zuri, latino, natibo eta afro-amerikarrei ematen dizkiete zigor basak, baina preso tipikotzat –eta basakeria horren jomugatzat– gizon beltza jotzen da orokorrean. Alde horretatik, presoen eskubide zibilen eta giza eskubideen urraketa larriek zerikusi handia dute «kriminala» edo «presoa» oro har gizon beltzen gorputzekin parekatzearekin.

Gaur egun, segurtasun goreneko estatu-kartzelen eta kartzela federalen xedea sistema penalarren barruko diziplina-arazoei aurre egitea izanik, panoptikoaren gaineko ikusmolde historikoan oinarritzen da haien eraikuntza eta zabalkundea. Berriro ere, gizon beltzak dira, alde handiz, segurtasun goreneko kartzela eta kontrol-unitateetako gehiengoa. Era horretako lehen kartzela espetxe-agintari federalak «arriskutsutzat» jotako presoak Mariongo (Illinois) kartzelara igortzen hasi zirenean sortu zen. 1983an, kartzela osoa «itxi» zuten, hau da, presoak beren ziegetan giltzapetuta atxikitzen zituzten egunean hogeita hiru orduz.¹⁶¹ Gaur egun, badira segurtasun goreneko berrogeita hamazazpi kartzela gutxienez, estatukoak zein federalak, hogeita hamasei estatutan banaturik.¹⁶² 1997an, kartzela horiek txosten batean deskribatu zituen Giza Eskubideen Behatokiak, eta hotzikara ematen du nolako antza duten Benthamen panoptikoarekin. Desberdintasun bakarra zera da, gizabanakoen errehabilitazioari egindako erreferentziak desagertu direla:

160 Carl Manning, «Missouri Prisoners Say Beatings Worse Than Shown on Videotape», Associated Press, 1997ko abuztuaren 27a, 7:40 PM EDT.

161 Giza Eskubideen Behatokia, *Cold Storage: Super-Maximum Security Confinement in Indiana* (New York: Giza Eskubideen Behatokia, 1997ko urria), 13.

162 Giza Eskubideen Behatokia, *Cold Storage*.

Presoak segurtasun goreneko ziegetan giltzapeturik, konfinamendu bakartua esaten zaion horretan... [B]este presoekin batera egiten dituzten jarduerak debekatzen dizkiete; presoek ezin dituzte beste presoak ikusi beren ziegatik; beste presoekin komunikatzea debekatzen edo zailtzen diete (esate baterako, ziegatik ziegara oihu eginez komunikatzea); bisitak eta telefono-deiak mugatzen dizkiete. Segurtasun goreneko zentroen belaunaldi berrian, punta-puntako teknologia erabiltzen da presoek jo-kabidea eta mugimenduak monitorizatzeko eta kontrolatzeko; esate baterako, bideo-pantailak eta urrutitik kontrolatutako ate elektronikoak. Halako kartzeletan, teknologia moderno sofistikatua baliatzen da kontrol sozialerako, goitik beheraino, eta sekula baino eraginkortasun handiagoz bakartzen, erregulatzen eta zelatatzen dute.¹⁶³

Segurtasun goreneko kartzela horietako batzuetan, burdin barren atzean egon beharrean altzairuzko ate sendoz itxitaiko ziegetan egoten dira presoak –iraganean errentamendu-presoa kokatzeko erabiltzen ziren tren-bagoiak oroitaraziz–, presoek deus ere ikus ez dezaten. Ateko zirriztu batetik ematen diete janaria, janaria ematen dieten kartzelazainak ikusi ere egin gabe. Jerome Miller-ek dioenez, «[k]artzela-populazio orokorreko gizon beltzen ehuneko neurrigabea gainditzeko du segurtasun goreneko kartzeletako gizon beltzen ehuneko askoz handiagoak».¹⁶⁴ Miller-ek William Chambliss ikertzailearen lan bati egiten dio erreferentzia: haren arabera, 1993ko egun batean, Baltimoreko (Maryland) segurtasun goreneko kartzelan giltzapetuta zeuden presoek % 98 afro-amerikarrak ziren.¹⁶⁵

Segurtasun goreneko kartzelen arriskua ez datza soilik giltzapetutako presoek jasaten duten tratatu anker sistematikoan, baizik eta baita presoak tratatzeko arauak ezartzeko moduan ere. Neurri handi batean, gizon beltzen bizkar areagotzen dute arau horiek errehabilitaziorako estrategietatik urruntzeko joera. Are gehiago: kartzelek, zenbat eta errepresiboagoak izan eta errepresioa «mundu asketik» zenbat eta urrutiago –eta, ondorioz, onartuago– egon, orduan eta joera atzerakoiagoak sustatzen dituzte eskolatik kartzelara igarotzeko aukerarik handiena duten populazioentzako hezkuntza-erakundeetan:

163 Giza Eskubideen Behatokia, *Cold Storage*, 14. Hemen aipatua: Craig Haney, «Infamous Punishment: The Psychological Consequences of Isolation», *National Prison Project Journal* 8, 2. zk. (ACLU) (1993ko udaberria): 3.

164 Miller, *Search and Destroy*, 227.

165 Miller, *Search and Destroy*, 227.

eskolak baino gehiago, kartzelak dirudite, gero eta gehiago, hezkuntza-erakundeok. Komunitate beltz pobreetan, adibidez, eskolek segurtasunerako eta diziplinarako baliatzen dituzte berrez hezkuntza-krisietarako izan beharko lirakekeen baliabideak. Ikasleak unibertsitaterako edo instituturako prestatu ordez, kartzelarako prestatzeko eskola bihurtzen hasiak dira: haur beltzak zigorrerako eta lan beharturako lehengai bilakatzen dira.

Gaur egungo gizon beltzak kartzela-industria konplexurako giza lehengai izateak agerian jartzen du nola antzeratzen eta laburbiltzen dituen Ameriketako Estatu Batuetako kartzela-sistemak XIX. mendeko esklabotzaren eta presoerrentamendu-sistemaren ezaugarririk gaitzesgarrienak. Gorago esana dudan bezala, testuinguru gero eta pribatizatuago batean, kartzelako lanaren esplotazio neurrigabea presoerrentamenduaren bertsio modernoa da. Ez dira gizon beltzak esplotazio horren arriskupean diren bakarrik, baina, Ameriketako Estatu Batuetako kartzelatan dauden gizon beltzen kopuru eskergak ikusirik, haiek dira gizarte honetako kolektiborik mehatxatuena –alde handiz– kartzela-sistemaren bitartez zertzen ari den esklabotza berrian.

Neurri handi batean, Ameriketako Estatu Batuetako kartzela-sistemaren historian ehundutako arrazakeriaren emaitza da halako loturak ikustea XIX. mendearen amaierako kartzela-praktiken eta duela mende bat indarrean ziren hainbat sistema eta praktikaren artean. Segurtasun goreneko kartzela dateke, beraz, fenomeno horren azken agerraldia. Populazio espeteratu «problematikoak» –batik bat gizon beltzek osatuak, beste behin ere– azpiratzea eta kontrolatzea da haren funtzio nagusia; hartara, espaziorik urrun eta ikusezinenean giltzapeturik, ez dira gehiago gizakitzat hartzen. Segurtasun goreneko kartzelako kudeatzaile eta enplegatuek populazio desagertu¹⁶⁶ horien gainean darabilten autoritate erabatekoak –eta baita kartzelen negozioan diharduten eta/edo kartzelako lanetik etekina ateratzen duten korporazio pribatuen axolagabekeriak ere– gogora dakar nolako inpunitatez eta ohikeriaz gutxiesten zuten esklabo-jabeek, ikuskatzaileek eta, geroago, presoerrenta-

166 Terry Kuper-en proposamenari jarraituz darabilt termino hori: hark dioenez, kartzela-sistemaren bitartez populazio osoak «desagertzen» ari dira AEBko gizartetik.

mendu-sistemako ugazabek sistematikoki jazartzen zituzten gorputz beltzen gizatasuna.

Ildo horretan, arrazakeria gure gizarteko maila guztiguztietan betikotzen –eta elikatzen– dute segurtasun goreneko kartzelek. Egia esan, kartzela-sistema osoan gertatzen da hori; herritarren iruditerian populazio horiek etsai publiko gisa ikusiak izanik, populazio osoak baztertzen dira etengabe. Hain zuzen, arrazakeriaren eta kartzelaren arteko harreman hori dela-eta jardun behar dute elkarrekin aktibista antirrazistek eta kartzelaren aurkako aktibistek; izan ere, XXI. mendearen bezperetan gaudelarik, bereizezinak dira bi mugimenduok.

3. ZATIA

**KRIMENA ETA
ZIGORRA
ELKARRENGANDIK
BEREIZTEN: EGITURA
ABOLIZIONISTEN
SORRERA**

BOST

ARRAZA ETA KRIMINALIZAZIOA: ESTATUBATUAR BELTZAK ETA ZIGORRAREN INDUSTRIA¹⁶⁷

Eskubide zibilen osteko garai honetan, arrazagatiko oztopoak maiztasun aurreikusgarri batez desagertzen ari dira, antza, goi mailako esparru ekonomiko eta politikoetatik, eta, ondorioz, gero eta baztertuago geratzen den gai bat da arraza. Gaur egungo diskurtso politiko nagusian, arraza ez da egiturazko fenomeno orokortzat hartzen –horrek diskriminazio positiboa eta halako estrategiak aplikatzen jarraitzea eskatzen baitu–, baizik eta jarrera diskriminatzaile jakin batzuen multzotzat, eta jarrera horiei garrantzi berbera aitortzen zaie arraza guztietan. Hala, lidergo beltzari sinesgarritasuna kentzen zaio maiz; zalantzan jartzen da arraza auzi politiko publikoa denik, eta «beltz arrazista» epitetoa ezarri eta aplikatu izan zaie lider beltzei, hala nola Louis Farrakhani eta Khalid Abdul Muhammadi. Garai batean, publikoki oso modu zorrotz eta irekian eztabaidatzen zen zer rol izan behar zuen estatuak «arraza-» eta arrazakeria-kontuetan; gaur egun, aldiz, ez da zuzenean aipatzen arrazaren arabera egitura-tutako botere-harremanek bere horretan dirautela, ezta, areago, halakoak errotuta daudela ere. Arraza ostrazismora baztertu denez gaur egungo eztabaida politiko sutsuenetako batzuetan, gero eta zailagoa da hautesmatea nola baldintzatzen dituen arrazak eztabaida horiek, bereziki hizkuntza kodetua deskodetzeko gai ez direnentzat –edo halakorik egin nahi ez dutenentzat–. Horrek esan nahi du argudio arrazista ezkututik aise iragan daitezke-

167 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *In The House that Race Built: Original Essays by Toni Morrison, Angela Y. Davis, Cornel West, and Others on Black Americans and Politics in America Today*, arg. Wahneema L. Lubiano (New York: Vintage, 1997), 264-279. Lehenbizikoz hitzaldi batean irakurria Princetongo Unibertsitatean, 1994ko apirilean.

la arraza-mugetatik eta iritzi politikoetatik harago. Behinola kontserbadoretzat, liberaltzat eta, batzuetan, are erradikaltzat jotzen ziren jarrera politiko batzuk bereizgarritasuna galtzen ari dira, arrazakeria kamuflatu horrek erakarrita.

Clinton presidenteak Milioi Bat Gizonen Martxaren eguna aukeratu zuen –Islamaren Nazioko ministro Louis Farrakhanen deialdiarekin bat eginez– «arrazari buruzko elkarriketa nazional» baterako deia egiteko, Lani Guinier-en hitzak paradoxikoki bere eginez (Clintonen eskubide zibilen arloko fiskal nagusiaren laguntzaile kargutik kendua zuen Guinier, arrazari dagokionez testu zorrotzegiak idazteagatik).¹⁶⁸ Guinier-en ideiak aise geratu ziren bazterrean, «arrazakeria amaitzea» arrazari buruzko aipamen guztiak desagerraraztearekin lotzen zuen ekuazio ideologikoa baitzen nagusi garai hartan. Iritzi kontserbadoreen arabera, arrazaren auzia konpontzeko prozesua –hots, arraza-daltonismorantz egitea– eragozten du arraza-kontzientziak; Clinton, aldiz, biok batzen saiatu zen, arraza-kontzientzia arraza-daltonismorantz joateko tresna gisa proposatuz: «Jende gehiegi saiatzen da gaur egun bereizketa ereiten, hala zuriak nola beltzak, hala eskuindarrak nola ezkertiarak, hala kalean nola irratiko uhinetan, nor bere xedeetarako. Jende horri esaten diot: “Aski da. Denok bat izan behar dugu”».

Clintonen, beraz, aitortzen zuen bazegoela «arrazakeriaren historia beldurgarri bat tinko irauten» zuena; nolanahi ere, «arraza-bereizketaren» arrazoiak aletzean, zera azpimarratu zuen: «[H]aien oinarrian, zera dago, oraindik ez dugula ikasi zintzotasunez hitz egiten, arretaz entzuten eta elkarrekin lan egiten arrazaren mugez gaindi». Arraza, nabarmendu zuen, ez da gobernuari dagokion kontu bat, baizik eta jendearen bihotzari dagokiona. Jakina, zentzugabea litzateke ukatzea zenbateraino eta zenbat modutan hondatzen duen arrazakeriak psike nazionala, baina, arraza bihotzaren kontuetara mugatuz gero, askoz zailagoa da gaur egungo arrazakeriaren erro estruktural sakonak identifikatzea.

Arazakeriaren izaera estrukturala alde batera uzten denean kriminalitateari eta presoen populazio gero eta handiagoari buruzko eztabaidetan, kontingentziazat hartzen da atxiloketa-

168 Ikus, adibidez, *Austin-American Statesman*, 1995eko urriaren 17a.

zentro eta kartzeletako arraza-desoreka; onenean, «pobreziaren kulturaren» ondoriotzat, eta, txarrean, kriminalitatearen us-tezko monopolio beltzaren frogatzat. Alegia, justizia penala-ren sisteman dagoen beltz kopuru eskerga normalizatzen da, eta ez estatuari ez herritarrei ez zaie eskatzen arraza-desoreka horren esanahiaz hitz egiteko eta zerbait egiteko. Hala, hautetsi errepublikanoek zein demokratek galdegin eta onartu dituzte hiru aldiz harrapaturiko «kriminalalei» biziarteko kartzela-zigorrrak ezartze-ko legeak, horrek dakartzan arraza-ondorioak aintzat hartu gabe. Lege horien ustezko «arraza-daltonismoan» oinarrituz, subjektu arrazial manipulatu, esplotatu eta hondatu gisa eraikitzen dira beltzak ezkutuan; horrenbestez, irmo ukatzen da arrazakeriak bere horretan dirauela estrukturalki –nahiz moduak aldatu di-ren– instituzio sozial eta ekonomikoetan eta orobat herrialdeko kulturaren.

«Arrazak» eta haren konplexutasun ideologiko mehatxa-garriak, beraz, kriminalitatearen fartsaren pean beldur zaharrak aktibatzen ditu jendartean, eta berriak sortzen. Gaur egun, esparru matematiko reifikatu batean eztabaidatzen da krimi-nalitateari buruz; Malthusen nozio bat dakar gogora estrategia horrek, hots, populazioa geometrikoki eta elikagai-iturriak arit-metikoki handitzen dira, eta, ondorioz, saihetsezina da pobrezia, bai eta hura ezabatzeko baliabideak ere: gerra, gaixotasunak, gosea eta hondamendi naturalak. Egia esan, populazioaren kontrolari buruzko ikuspegi neomalthustarraren arabera, jen-dearen bizitzetan oinaze eta sufrimendu handia eragiten duten premiazko gizarte-arazoak konpontzen saiatu beharrean, sufri-tzen duten bizitzak ezabatzen dira, eta horrek guztiak berebiziko oihartzuna dakar kriminalitatea «naziotik» erauzteari buruz-ko eztabaida publikora. Eztabaida horretan, kartzela gehiago eskatzen dituztenen argudioak ere txertatzen dira, baita esta-tistikak modu fetitxista eta iruzurtian erabiltzen dituztenenak ere –Malthusek duela bi mende baino gehiago bezalaxe–. Hona hemen, esate baterako, James Wootenek *Heritage Foundation Sta-te Backgrounder*-en egindako iruzkinak:

Gaur egun gaizkile biolentotzat jotzen diren 800.000 estatu-presoen eta preso federalen % 55ek beren zigorraren % 85 beteko balute, eta aintzat hartuz gero gaizkile biolento horiek urtean 10 krimen biolento eginen lituzketela kalean baleude, orduan, zigorrak osorik aplikatuz gero,

4.000.000 delitu saiestuko genituzke urtero; alegia, salatzen diren indarkeriazko 6.000.000 krimenen bi heren baino gehiago.¹⁶⁹

H. Methvin editore nagusiak zera idatzi zuen *Reader's Digesten*: «Estatu-kartzeletako eta kartzela federaletako populazioa bikoizten badugu -1 milioitik 1,5 milioira bitartean iristeraino- eta gure hiri eta konderrietako atxiloketa-zentroetako populazioa oraingo 400.000ko kopuruan uzten badugu, AEBko 30 urteko olatu kriminala geraraziko dugu».¹⁷⁰ Arraza-neutraltasunaren mozorropean aurkezturiko kopuru horien atzean dauden benetako pertsonak -haietariko gehien-gehienak, alde handiz, gizon-emakume beltz eta latinoak- egin dituzten edo ustez eginen dituzten krimenekin trukatzeko modukotzat hartzen dira, modu fetitxista batean. Sekula ez da behar bezala neurtu nolako eragina duen kartzelak haien bizitzetan. Sekula ez da ezbaian jarri zigorraren industriak nolako papera jokatzen duen ezinbestean krimenen erreprodukzioan. Ikusezin gertatzen da giza populazio ezkutu eta espetxeratu gero eta ugariago bateranzko joera arriskutsu eta, jakina, faxista. Axola duena krimena deuseztatzea da, eta, krimena begi-bistatik kentzeko, orobat begi-bistatik kenduko ditugu egintza kriminalak egotzeko aukera gehien duten pertsonak, betiere arrazan oinarrituriko zentzu komun nagusiari jarraituz. Ez du axola estrategia horri serioski eta sistematikoki helduz gero gizon beltz gazte gehienek eta emakume beltz gazte gero eta gehiagok beren bizitzaren zati handi bat eman behar badute hormen eta burdin barren atzean, zertarako eta estatuko etsaiari oldarkortasunez aurre egiten diola gogorarazteko.¹⁷¹

Halako argudioei erantzuteko, ez nuke maila bereko abstrakzio matematikoetara eta fetitxismora jo nahi, baina uste dut lagungarria dela kontuan hartzea zenbat lagun dauden gaur egun espetxeratuta edo zenbat dauden zuzenean justizia penalaren sistemaren pean zelatatuta. AEBko estatukartzeletan eta kartzela federaletan, 1 milioi lagun inguru daude gaur egun, kontatu gabe hiri eta konderrietako atxiloketa-zentroetako

169 Charles S. Clark, «Prison Overcrowding», *Congressional Quarterly Researcher* 4, 5. zk. (1994ko otsailaren 4a): 97-119.

170 Clark, «Prison Overcrowding».

171 Marc Mauer, *Young Black Men and the Criminal Justice System: A Growing National Problem* (Washington, DC: Sentencing Project, 1990).

500.000 presoak, zaintzapean aske dauden 600.000ak, baldintzapean aske dauden 3 milioiak edo adingabeen zentroetan dauden 60.000 gazteak. Alegia, gaur egun, kartzelan, zaintzapean aske edo baldintzapean aske daude 5,1 milioi lagunetik gora. Zaintzapean edo baldintzapean aske dauden horietako asko giltzapetuta leudeke duela gutxi kriminalitateari buruz onartu den lege-proiektuaren arabera. The Sentencing Project erakundeak jakinarazi duenez, kriminalitateari buruzko lege-proiektua onartu aurretik ere, beltzek zuriek baino 7,8 aldiz aukera gehiago zuten espetxeratuak izateko.¹⁷² Erakunde horren azken txostenak¹⁷³ dio 20tik 29 urtera arteko gizon beltz gazteen % 32,2 eta gizon latino gazteen % 12,3 daudela kartzelan, zaintzapean aske edo baldintzapean aske. Gizon zuri gazteen artean, aldiz, % 6,7 daude egoera horretan. Guztira, 827.440 gizon afro-amerikar gazte daude justizia penalararen sistemaren ikuskaritzapean, eta horrek 6 bilioi dolarreko kostua dakar urtean. 1995eko txostenaren indarguneetako bat, aurrekoarekin alderatuta, zera da, onartzen duela arrazaz gainera generoak ere baduela eragina justizia penalararen sisteman eta sistemara arrastaturiko emakume afro-amerikarren kopurua txikixeagoa izateak ez duela esan nahi kontuan hartu behar ez dugunik generoa eta arraza elkarrekin doazela atxilotze- eta kartzelatze-praktiketan. Are gehiago, emakumeek justizia penalararen sistemarekin duten kontaktua askoz gehiago handitu da gizonena baino:

Justizia penaleko kontrol-indizeak % 78 areagotu ziren emakume beltzen kasuan, hots, gizon beltz eta emakume zurien ehunekoa halako bi, eta gizon zuriena halako bederatzirekin... Nahiz eta gutxi ikertu den justizia penalararen sisteman dauden koloreko emakumeek, dauzkagun datu eta azterketek iradokitzen dute arraza eta sexua uztartzearen ondoriozkoak direla gure datuetan agertzen diren joerak. Adibidez, kartzelan dauden beltz eta hispanoen kopurua abiada larrian ari da handitzen, baina are abiada larriagoan doa emakumeena. 1980tik 1992ra bitartean, % 276 handitu zen kartzelan zeuden emakumeen populazioa; gizonena, aldiz, % 163. Koloreko gizonak ez bezala, justizia penalararen sistemarekin gero eta kontaktua handiagoa duten bi taldeetan daude koloreko emakumeak.¹⁷⁴

172 Alexander Cockburn, *Philadelphia Inquirer*, 1994ko abuztuaren 29a.

173 Marc Mauer eta Tracy Huling, *Young Black Americans and the Criminal Justice System: Five Years Later* (Washington, DC: Sentencing Project, 1995).

174 Mauer eta Huling, *Young Black Americans*, 18.

Estimatzen da 2000. urterako 4 milioi lagun baino gehiago egonen direla espetxean; haietarik asko beltzak izanen dira, alde handiz, eta horrek guztiak 40 bilioitik gorako kostua izanen du urtero.¹⁷⁵ Diru kopuru horrek gogora dakar nola xahutzen ziren –eta nola xahutzen diren oraindik ere– herrialdearen baliabideak gastu militarretarako aurrekontuetan. Kontrolik gabeko zigor-industria hori kriminalizazio-industria izugarri eraginkorra da; izan ere, haren arabera, kartzela-populazioaren arraza-desoreka ez da arrazakeria estrukturalaren froga bat, baizik eta beltzei egotzen zaien kriminalitatearen ondorio bat. Bestela esanda, hain zuzen ere arrazakeriaren logika ezkutuari esker funtzionatzen du hain ongi kriminalizazio-prozesuak. Logika arrazista arras errotua dago nazioaren egitura material eta psikikoetan. Denoi hagitx ohikoa zaigun zerbait da. Logikak, izan ere, bere horretan iraun dezake, baita «arrazaren» zuzeneko aipamenak ezabatzen direnean ere.

Are, logika arrazista horrek gehien hunkitzen dituen komunitateetan ere ikasi dute nola izan konfiantza logika horretan, bereziki arrazaren aipamen irekiak beharrezkoak ez direnean. Alegia, komunitate beltz pobreetan –zeinak birrinduta geratu baitira gazteen indarkeria-molde berrien eraginez– ez dago behetikako mugimendu erradikal zabalik, eta, hortaz, aukera ideologikoak izugarri eskasak dira. Askotan, amorru eta etsipen kolektiboa adierazteko modu bakarra zera da, poliziari eskatzea garbitu dezala komunitatea cracketik eta Uzietatik, eta droga hartzen eta saltzen eta armak erabiltzen dituzten pertsonetatik. Paradoxikoa bada ere, Carol Moseley-Braunek, gure nazioaren historiako lehen emakume senatari beltzak, sutsuki defendatu zuen kriminalitatearen aurkako lege-proiektua Senatuan; 1993ko azaroan onartu zen, eta horrek bidea ireki zuen 1994ko abuztuaren 25ean Ordezkarien Ganberan orobat onartua izateko. Edo baliteke hain paradoxikoa ez izatea. Baliteke hain zuzen ere Senatuan Carol Moseley-Braun bat eta Auzitegi Gorenean Clarence Thomas bat daudelako hedatu izana askoz gehiago beltzen aurkako logika arrazistaren onarpen inplizitu hori beltzen artean (beste talde batzuen aurkako arrazakeria ez aipatzearren), horregatik eta orobat herrialde honen historian

175 Ikus Cockburn.

inoiz baino askoz heterogeneotasun handiagoa dagoelako komunitate beltzetan, klase-desberdintasunak eta beste faktore batzuk tarteko. Wahneema Lubianok estatuaren menderakuntzaren konplexutasunez eginiko ikerketei esker –nola jarduten duen menderakuntza horren helburu diren subjektibitateen barranean eta haien bitartez–, hobeki uler dezakegu dilema hori.¹⁷⁶

Cornel Westen azken lanaren izenburua gure eginez, arrazak axola du.¹⁷⁷ Are gehiago, ohiturik gauden baino askoz modu mehatxagarri eta aldi berean hautemangaitzagoan axola du. Arraza-ezaugarriek taxutzen dituzte, inoiz baino gehiago, AEBko gizartearen egitura ideologiko eta materialak. Eta, gaur egun kriminalitateaz, gizarte-laguntzaz eta immigrazioaz egiten diren diskurtsoek agerian uzten duten bezala, arrazak, generoak eta klaseak izugarri axola dute politika publikoen atergabeko lanke-tan eta politika horiek jendearen bizitzan duten eraginean.

Eta nola axola du arrazak? Beldurra beti izan da arrazakeriaren berezko osagai bat. Beltzenganako beldurraren erreproduktzio ideologikoa –izan arrazoi ekonomikoetan, izan sexualetan oinarrituta– agudo ari da krimenarekiko beldurrerantz lerratzen, hartan oinarritua izateraino. Testuinguru horretan, galdetu beharko genuke ea krimenarekiko beldurrak –ideologikoki sortua den beldur gero eta handiago horrek– balio ote duen arrazakeria ikusezinagoa eta aldi berean latzagoa izan dadin, eta, baiezkotan, nola lortzen den hori. Galdera horri erantzuteko modu bat izan liteke kontuan hartzea nola lortzen den krimenarekiko beldurraren bitartez beltzek berek pentsatzea beltzak etsai dituztela. Konferentzia honetan gauden beltzen artean, zenbatek kendu dugu gainetik gizon beltz gaztea kriminal gisa irudikatzen duen botere ideologikoa, edo, gutxienez, zenbatek egin diogu aurre seriozki botere horri? Ez dago «hiru kolpe eta kanpora»¹⁷⁸ lege-proiektuen aurka egin duen beltz askorik –eta

176 Ikus Wahneema Lubiano, «Black Ladies, Welfare Queens, and State Minstrels: Ideological War by Narrative Means», in *Race-ing Justice, En-gendering Power: Essays on Anita Hill, Clarence Thomas, and the Construction of Social Reality*, arg. Toni Morrison (New York: Pantheon, 1992), 323-363.

177 Cornel West, *Race Matters* (Boston: Beacon Press, 1993).

178 «Three strikes, you're out»: beisbolearen erabiltzen den esapide bat da, bateatzaileak hiru kolpe huts egin dituela adierazteko, eta *three-strikes law* edo AEBko «hiru kolpeen» lege federalaren testuinguruan erabiltzen da: haren arabera, aurretik bi kondena larri izanik hirugarren delitu larri bat egiten dutenei biziarteko kartzela aplikatzen zaie. 1952an jarri zuten indarrean lehenbikoz. (Itzultzailearen oharra).

dagoeneko berrogei estatutan proposatu eta/edo onartu dira-, eta horrek agerian uzten du nolako efektu txundigarria duen ideologia horrek.

Kalifornia da «hiru kolpe eta kanpora» lege-proiektua onartu duten estatuetakoa bat. Lege-proiektua onartu eta berehala, «bi kolpe eta kanpora» lege-proiektua aldarrikatzen hasi zen Pete Wilson gobernadorea. Hiru, esan zuen, gehiegi da. Hemendik gutxira, «kolpe bat eta kanpora» eskatzen hasiko dira. Erregresio matematiko horri segika, espero izatekoa da kriminalitatearen aurkari porrokatuenek noizbait argudiatzea ezen, olatu kriminala gerarazteko, ezin gera gaitezkeela norbaitek krimen bat noiz eginen. Honako lelo hau erabiliko dute: «Harrapa ditzagun lehen kolpea baino lehenago!». Eta, zenbait gizatalde kriminalizatuta daudenez jada, beste batzuek esanen dute: «Badakigu nor diren benetako kriminalak; harrapa ditzagun beren kriminalitatea gauzatzeko aukera izan dezaten baino lehen».

Krimenarekiko beldurrak iritsi duen estatusak badu halako antzekotasun bihurri bat komunismoak 1950eko eta 1960ko hamarkadetan pertzepzio sozialak berregituratu zituelarik gizartean piztu zen beldurrarekin. «Kriminalaren» figura –kriminalaren figura arrazializatua– baliatzen da «AEBko gizartearen» etsairik mehatxagarriena irudikatzeko. Kasik edozer gauza onartzen da segurtasun publikoaren izenean: tortura, basakeria, funts publikoen xahutze izugarri handiak. Arrazakeriak beti erraz egin du bidea arrazakeria barneratua duten egitura sozialetatik kolektiboen eta gizabanakoen psikeetara, hain zuzen ere beldur sakonak astintzen dituelako. Molde zaharreko arrazakeria esplizitua gero eta gutxiago onartzen da gizartean –azken berrogei urteetan antolatu diren mugimendu antirrazistei esker, hain zuzen-, baina horrek ez du esan nahi arrazakeria AEBko gizartetik desagertu denik. Izan ere, arrazakeria errotuago dago orain egitura sozioekonomikoetan, eta koloreko pertsona espetxeratuen populazio eskerga dugu horren ebidentzia dramatikoa: arrazakeriak sistematikoki egituratzen ditu harreman ekonomikoak. Aldi berean, egiturazko arrazakeria hori nekez hartzen da «arrazakeriatzat». Arrazakeria ireki eta esplizituzat hartu izan dugun horren orde, arrazakeria ezkutu eta kamuflatu bat sortu da, eta jendearen eguneroko bizitzetan daukan eragina eskubide zibilen

aldeko borrokaren garaiko arrazakeria-modu esplizituak bezain orokortua eta sistematikoa da.

Europako herrialde sozialisten gainbeheraren ondorioz nazioarteko politikan izandako aldaketek zabaldu zuten krimenarekiko beldur arrazializatua handitzeko esparru ideologikoa. Komunismoa jada ez da nazioak bere identitatearen kontra irudikatzen duen etsairik handiena. Esparru hori kriminalitatearen, drogaren, immigrazioaren eta gizarte-laguntzen gaineko eraikuntza ideologikoei betetzen dute orain. Jakina, barreneko etsaia puskaz arriskutsuagoa da kanpoko etsaia baino, eta barreneko etsai beltza da denetan arriskutsuena.

Bada joera bat kartzela era guztietako gizatzarrak sartze-ko toki abstraktu bat balitz bezala ikusteko, eta, hori dela eta, kartzela toki perfektua da arrazakeria elikatze-ko eta aldi berean ezkutatze-ko. Kartzelen gaineko pertzepzio publikoaren izaera abstraktuaren ondorioz, ez da konpromisorik hartzen preso kopuru eskerga horien jatorrizko komunitateak hondatzen dituzten egiazko arazoe-kin. Horra kartzelak egiten duen lan ideologikoa: gainetik kentzen digu kapitalismo berantiarren eta kapitalismo transnazionalaren arazoe-kin serioski konprometitzeko ardura. Horrez gain, beltzak berezko kriminalak balira bezala ikusteak oztopo ideologikoak ezartzen ditu XX. mendearen amaierako egiturazko arrazakeriaren eta kapitalaren globalizazioaren arte-ko loturak hautemateko.

Korporazio kapitalisten boterea, beraz, erruz hedatu da koloreko jendearen eta pobreen bizitzetan, eta, hedapen horrekin batera, kontzientzia antikapitalistak behera egin du orokorrean. Kapitala aise mugitzen da herrialde-mugez gain-di, azkenaldiko merkataritza-itunek (NAFTA, GATT) ematen dioten legitimazioari esker, eta korporazioek, beraz, AEBn negozioak itxi eta lan-indar merkea eskaintzen duten herrialdeetara eramaten dituzte beren ekoizpen-jarduerak. AEBko sindikatuetatik ihes egiten dutenez –soldata eta sari handiagoak ez ordaintzearen–, egoera zinez nahasian uzten dituzte hainbat komunitate: langabeziara bidaltzen dituzte hainbat eta hainbat lagun, droga-trafikoaren eskuetan geratzen dira haietariko asko, komunitateen oinarri ekonomikoa suntsitzen da, hezkuntza-sistema eta gizarte-ongizatea hondatzen, eta hala bilakatzen dira komunitateotan bizi diren herritar-
rak kartzelarako hautagai

perfektu. Aldi berean, eskari ekonomiko bat bultzatzen dute kartzelen inguruan, ekonomiaren pizgarri, eta lanpostuak sortzen dira kartzela-industrian, hain zuzen ere prozesuan kriminalizatzen diren populazioetako pertsonentzat. Horra bere burua etengabe erreproduzitzen duen ziklo ikaragarri bat.

Paradoxikoa bada ere, kartzelak berak lan-indar merkearen iturri bihurtzen ari dira; hori erakargarria da kapitalismo korporatiboarentzat –eskala nahiko txikian bada ere–, hirugarren munduko lan-indar sindikatu gabea erakargarria den era bertsuan. Michael Lamar Powell preso egon zen Capshawn (Alabama), eta haren adierazpen honek modu dramatikoan islatzen du joera berri hori:

Ezin dut grebarik egin, ezin naiz sindikatu. Ez dut jasotzen Bidezko Lan Arauen Legearen arabera langileek jasotzen duten ordainik. Onartzen dut gauetako eta asteburuetako txandetan lan egitea. Esaten didatena egiten dut, edozer gauza. Nahi dutenean kontratatzen eta kaleratzen naute, eta gutxieneko soldata ere ez dut jasotzen: hilean dolar bat irabazten dut. Ezin dut kexarik eta erreklamaziorik egin, salbu diziiplina arbitrarioa edo errepresalia ezkuturen bat izateko arriskua dagoenean.

Ez kezkatu NAFTAz eta zuen enpleguak Mexikora eta hirugarren munduko beste herrialde batzuetara eramateaz. Hamarkada hau bukatzerako, zuen enpleguen % 5 izanen dut gutxienez.

Kartzelako lana nauzue. Amerikar Langile Berria nauzue.¹⁷⁹

Historian zehar –esklabotzaren garaitik gaur egunera– arrazakeriaren legitimazioaren pean superesplotatua izan den populazio arrazializatuaren multzotik aterako da «amerikar langile berri» hori. Aldi berean, presoek lanarekin batera, orkatiletako kateen parafernalia zaharra baliatzen dute zenbait estatutan, presoek lana sinbolikoki lotuz esklaboek lanarekin. Gutxienez hiru estatutan berrezarri dute preso kateatuen sistema: Alabaman, Floridan eta Arizonan. Gainera, Michael Powellek hain modu garrantzean azaldu duen bezala, beste alderdi bat gehitu zaio prozesu honek berezkoa duen arrazakeriari, kartzelako lanaren superesplotazioa kapitalaren globalizazioarekin estrukturalki lotzen duena.

Kalifornian –AEBko kartzela-sistema handiena eta munduko handienetako bat–, 1990ean presoek lanari buruz-

179 Angela Y. Davis, «Modern Slavery American Style» (artikulu argitaragabea), 1995.

ko ekimen bat onartu zutenez geroztik, hirugarren munduko herrialdeek eskaintzen dituzten aukeren pare-parekoak sortu zaizkie lan-indar merkea nahi duten enpresei. 1994ko ekainerako, zenbait enpresa hasiak ziren Kaliforniako bederatziz kartzelatako lana baliatzen. Enpresa Elkartearen Programaren babespean, gaur egun kartzela-esparruetan egiten diren lanen artean daude telefono-mezularitza informatizatua, hortzetako aparatuen muntaketa, datu informatikoak sisteman sartzea, plastikozko piezen fabrikazioa, osagai elektronikoen fabrikazioa (Kalifornia Erdialdeko Emakume Zentroan, Chowchillan), segurtasun-beiren fabrikazioa, txerri-hazkuntza, haritzeko altzarien fabrikazioa, eta altzairu herdoilgaitzezko tanke eta ekipamenduen ekoizpena. Kaliforniako Kartzela Zentroaren Departamentuaren sustapen-liburuxkan, honela deskribatzen da programa: «[N]egozioaren ikuspuntutik zentzua duen elkarte publiko-pribatu berritzailea».¹⁸⁰ Liburuxka horretan, zera dio Tower Communications enpresaren jabeak:

Funtzionamendua eraginkorra da kostu aldetik, fidagarria eta arazorik gabea... Tower Communicationsek arrakasta handiz jarri du martxan mezu-laritza-zentro bat Kaliforniako estatu-kartzelako preso-entzatez. Enpresaria bazara eta zure negozioa hedatu nahi baduzu, lan-indar eskia-gatik birlokalizatzea pentsatzen ari bazara edo enpresa berri bat sortzekotan bazara, kontuan hartu preso-entzatez lana erabiltzearen abantailak.

Enplegatalearentzako abantailen artean, honako hauek aipatzen dira liburuxkan:

zerga-pizgarriak (federalak zein estatu mailakoak); prestaziorik eza (erretiro-pentsioa, opor ordainduak, gaixoaldi-bajak, zerbitzu medikoak); epe luzeko errentamendu-akordioak, merkatu-balioaz oso azpitik dauden kostuekin; deskontuak langileen kalte-ordainetan; lan-indar iraunkor eta kualifikatua; guardiako lantaldea (auto-matxurarik ez, haurrak zaintzeko arazorik ez); prestakuntza duten gaizkile ohiak kontratatuz kostuak gutxitzeko aukera; segurtasun publikoaren laguntzaile bihurtzea.

Era horretako adierazpenetan badago preso-entzatez lan-indarra-entzatez errentagarritasunari buruzko arraza-suposizio garrantzitsu eta hala ere ikusezin bat. Preso-entzatez lanaren superesplotazioa onargarria den ala ez arrazakeriaren eta kartzela-praktiken

180 Eskerrak eman nahi dizkiet Julie Browni, berak eskuratu baitzuen liburuxka Kaliforniako Kartzela Zentroaren Departamentuan, preso-entzatez lanaren rolaz ikertzen ziharduela.

koiuntura historikoan oinarritua dago neurri handi batean. Dagoeneko neurritz gainekoa den preso beltzen lan-indarra gero eta beltzagoa izanen da arraza aldetik desorekatuak diren kartzela-praktikek bere horretan jarraitzen badute.

AEBko zigor-industriako egiturazko arrazakeria konplexu baina aitortu gabearekin loturik, kontuan hartu behar da ezen zigor-industriak, populazio beltzaren sektore gero eta handiagoak bahitzen dituen heinean, kapital kantitate handia erakartzen duela. Ideologikoki, dagoeneko esana dudan bezala, krimenarekiko beldur arrazializatua hasia da komunismoarekiko beldurraren tokia hartzen. Hori bat dator kapitalaren egiturazko joera batekin: lehenago industria militarra bideratzen zena zigor-industriara bideratzen da orain. Hazkunde militarra dakar horrek gogora, hain erraz iradokitzen baita milioika eta milioika dolarreko kostua duten kartzelak eraikitzea: komunismoa eraisteko mobilizazio ekonomikoa kriminalitatea eraisteko mobilizazio ekonomikoa da gaur egun. Atxiloketa-zentroak eta kartzelak materialki eraikitzen dira, beraz, kriminalitatea ideologikoki eraikitzea osatzeko eta sendotzeko. Zenbat eta atxiloketa-zentro eta kartzela gehiago eraiki, orduan eta beldur handiagoa kriminalitateari; eta, kriminalitateari zenbat eta beldur handiagoa, orduan eta indartsuagoa izanen da atxiloketa-zentro eta kartzelen aldeko aldarria, *ad infinitum*.

Legea betearazteko industriak antzekotasun nabarmenak ditu industria militarrekin (era berean, kriminalitatearen aurkako kanpainak oihartzun antikomunista ere badakar). Industria militarren eta zigor-industriaren arteko lotura horretaz dihardu, hain zuzen, *Wall Street Journal* aldizkarian argitaraturiko artikulu batek: «Making Crime Pay: The Cold War of the '90s».

Defentsaren negozioaren sektore batzuk ere ari dira onura ateratzen, arlo militarreko murrizketak orekatzeko negozio-lerro logiko berri baten xerka. Westinghouse Electric Corp., Minnesota Mining and Manufacturing Co., GDE Systems (General Dynamics zenaren adar bat) eta Alliant Techsystems Inc., adibidez, krimenen aurkako ekipamendua sustatzen ari dira, eta adar bereziak sortuak dituzte Ameriketako Estatu Batuetako defentsa-teknologia berrizatzeko.

Artikulu horretan azaltzen denez, konferentzia bat antolatu zen, Justizia Institutu Nazionalaren babespean (Justizia Departamentuaren ikerketa-adarra da), «Legea Betearazteko

Teknologia XXI. mendean» gaiari buruzkoa. Konferentziako hizlari garrantzitsuenetako bat Defentsako idazkaria izan zen, zeinak hizpide izan baitzuen «defentsa-industriaren eginkizuna, bereziki erabilera bikoitzerako eta eraldaketarako» gaia:

Puri-purian diren gaiak: kriminalitatearen aurkako borrokan indarkeria maila gutxitu dezaketen defentsa-industriaren teknologiak. Sandia National Laboratories, adibidez, apar trinko batekin esperimentatzen ari da; susmagarriei bota, eta tarte batez itsuturik eta gorturik geratzen dira burbuila arnasgarrien azpian. Stinger Corporation «pistola adimendunak» lantzen ari da; pistolaren jabeak bakarrik egin dezake tiro pistola horrekin, eta iheska doazen ibilgailuen aurrean hesi-zerrenda zabalgarri puntadun bat hedatzeko balio du. Westinghouse «auto adimenduna» sustatzen ari da; hala, miniordenagailu batzuk polizia-departamentuko zerbitzari handiekin konektaturik, azkarrago fitxatuko dituzte presoak eta azkarrago trukatu ahal izanen dute informazioa.¹⁸¹

Beste behin ere, arrazak isileko justifikazio bat eskaintzen du legea betearazteko teknologia hedatzeko, eta, ondorioz, atxiloketa eta kartzela-praktika arrazistak areagotzen dira. Ziztu bizian doan zigor-industria horrek, isil-isilik baina indar handiz hazten ari baita arrazakeriaren laguntzaz, atxiloketa-zentro eta kartzela gehiago eraikitzeke eskari ekonomikoa sortzen du; horrenbestez, gero eta kriminalizazio-praktika gehiago hauspotzen da, eta horrek krimenarekiko beldurra areagotzea dakar era berean.

Kartzela eta atxiloketa-zentroetako preso-pilaketaren krisiaz diharduten eztabaida gehienetan, gizonen instituzioak hartzen dira kontuan. Bien bitartean, emakumeen instituzioak eta emakumeentzako kartzela-esparruak proportzio berean ari dira ugaritzen, are gizonenak baino erritmo biziagoan, harri-garria bada ere. Arraza faktore absentea izaten da nabarmen krimenari eta zigorrari buruzko eztabaidetan, baina badirudi generoak ez duela merezi absentsiarik ere. Historikoki, emakumeak espetxeratu izan dira emakumeak kriminalizatzeko, baina haien afera gizonena baino puskaz konplexuagoa da. Emakumeak kriminalizatzeko prozesuak zerikusi handiagoa du emakume-talde jakin batzuk zentzaezin eta hipersexual gisa sailkatzearekin, familia nuklearra paradigmatzat hartzeari uko

181 Paulette Thomas, «Making Crime Pay», *Wall Street Journal*, 1994ko maiatzaren 12a.

egiten dioten emakumeak diren heinean. Gizarte-laguntzari buruzko gaur egungo diskurtso liberal-kontserbadoreak familia gurasobakarretako ama beltzak kriminalizatzen ditu: haur-hezitzaile txar, gizongabe eta drogazale gisa irudikatzen direnez, pobrezia-aren kulturaren eramailetzat hartuak dira. Emakume drogazaleak kriminalizatzen dira droga hartzen dutelako eta horren ondorioz ezin direlako ama onak izan. Zenbait estatutan, emakume haurdunak espetxeratzen dituzte cracka hartzeagatik, fetuari kalte egin diezaioketela argudiatuz.

AEBko Justizia Departamentuaren arabera, emakumeek askoz aukera gehiago dituzte droga-kontuengatik espetxeratuak izateko.¹⁸² Nolanahi ere, emakumeek beren droga-arazoentzako tratamendua jaso nahi badute, haien aukera bakarra, non eta ezin duten droga-programa bat ordaindu, atxilotuak izatea eta justizia penalaren sistemaren bidez droga-programa batera zigortuak izatea da. Joycelyn Elders AEBko Kirurgialari Nagusiak aipatu zuen garrantzitsua zela drogen despenalizazioaz eztabaidatzea, Clintonen administrazioa berehala aldentu zen haren adierazpenetatik. Drogak despenalizatuz gero, askoz emakume gutxiago joanen lirateke kartzelara; izan ere, drogarekin eta bereziki crackarekin loturiko kartzela-zigorren gorakada harrigarriari zor zaio neurri handi batean estatu-kartzeletan eta kartzela federaletan dauden emakume beltzen kopurua % 278 igo izana. The Sentencing Project erakundearen 1995eko txostenaren arabera, % 828koa izan da igoera.¹⁸³

Drogen despenalizazioa gaur egungo kartzela-praktikak goitik behera aldatzeko estrategia posible gisa hartzeari uko egiteak are gehiago berresten du kartzelaren botere ideologikoa. Michel Foucaultek, kartzelaren historiari eta harekin loturiko zigor-teknologiei buruz egin zuen ikerketa ezagunean, azpimarratu zuen kartzelaren proiektu historikoaren muin-muinean badagoela kontraesan handi bat: «Mende eta erdian, kartzelaren konponbide gisa eskaini da beti kartzela: ... zentzategien proiektua da hura gauzatzeko ezintasuna gainditzeko meto-

182 Lawrence A. Greenfield eta Stephanie Minor-Harper, *Women in Prison* (Washington, DC: AEBko Justizia Departamentua, Justizia Programen Bulegoa, Estatistika Agentzia, 1991).

183 Mauer eta Huling, *Young Black Americans*, 19.

do bakarra».¹⁸⁴ Lehenago azaltzen saiatu naizen bezala, AEBko testuinguru historikoan, arrazakeria funtsezkoa da kontraesan horri eusteko. Izan ere, Foucaulten teoria, kartzelak kartzelaren beraren iraupena justifikatzen duela dioena, oraindik eta sinesgarriagoa gertatzen da arrazaren garrantzia ere kontuan hartzen badugu. Bestalde, nire ustez, kaleitsu bikoitz batera darama Foucaulten teoriak –haren teoriak azaleratzen duen kaleitsu diskurtsibora eta teoriaren beraren kaleitsura–, baina, parametro horietatik harago, iradoki nahi nuke posible litzatekeela arraza-kontzientziaz estrategia erradikalak diseinatzea kriminalizazioaren eta kartzela-praktiken nagusikeria bertan behera uzteko.

Kum-Kum Bhavnani Santa Barbara Kaliforniako Unibertsitateko soziologoarekin lankidetzan duela gutxi parte hartu dudan ikerketa-proiektu batean, San Frantzisko Konderriko Kartzelako hogeita hamabost emakume elkarrizketatu ondoren, argi eta garbi ondorioztatu dugu arrazak eta generoak oso modu konplexuan laguntzen dutela konpondu nahi dituen arazo horiek berak erreproduzitzen dituen zigor-industria sortzen. El-karrizketa horietan, emakumeek kartzelaz dituzten ideietan eta kartzelaren ordeztutako irudikatzen dituzten alternatibetan erreparatu dugu. Hala, luze eta zabal kritikatu zituzten kartzela-sistema eta eskaintzen diren «alternatiba» guztiak –kontuan hartuta haien azken aukera berriz kartzelara itzultzea dela beti–, eta, hori ikusirik, sakon hausnartu dugu zein garrantzitsua den estrategia abolizionista erradikala berreskuratzea, birteorizatzea eta berraktibatzea, zeina kartzela-erreformaren aldeko 1960ko eta 1970eko hamarkadetakoko mugimenduetan proposatu baitzen lehenbizikoz.

Gaur egun, emakumeen espetxeratzeaz teorizatzen ari gara, emakumeentzako atxiloteta-zentro eta kartzelak abiapuntu gisa harturik –baina betiere ondorioak soilik abiapuntu horretara mugatu gabe– estrategia abolizionista erradikal bat formulatzeko. Gure helburua emakume presoen ahotsa eta agenzia oroz gain kontuan hartzen dituzten kartzela-alternatibak eskaintzea da. Emakumeek kartzela-alternatiben gaineko

184 Michel Foucault, *Discipline and Punish: The Birth of the Prison*, itz. Alan Sheridan (New York: Vintage, 1979), 395.

gaur egungo eztabaidetan parte hartzeko bideak ireki nahi ditugu, bitartekari eta interprete gisa daukagun eginkizuna eta eztabaidetan hartzen dugun jarrera politikoa ukatu gabe. Horrez gain, «zigor alternatiboen» zaparradatik edo gaur egun estatuko eta tokian tokiko sistema penalek «tarteko zigor» izenpean proposatzen eta/edo martxan jartzen dituzten ekimenetatik bereizi nahi genituzke gure alternatiben proposamenak.

Epe luzeko proiektu honek hiru alderdi biltzen ditu: ikerketa akademikoa, politika publikoa eta komunitatearen antolaketa. Beste hitz batzuetan esanda, proiektua ongi atera dadin, zubiak eraiki behar dira lan akademikoaren, legearen arloko eta beste arlo politiko batzuetako esku-hartzeen, eta behetikako kanpainen artean, eta denon artean aldarrikatu behar dugu, esate baterako, despenalizatu daitezela drogak eta prostituzioa, eta orobat eten dadila atxiloketa-zentro eta kartzelen gaur egungo ugaritzea.

Korporazio lekualdatuen, langabeen, etxegabeen eta osasun-arlotik hasi eta hezkuntzarainoko zerbitzu publikoen kolapsoaren garai honetan, arazo sozialei heltzeko tresna gisa instituzionalizatu eta normalizatu diren atxiloketa-zentroak eta kartzelak abolitzea lagungarri eta esperantzagarri gerta daiteke gaur egungo legea-eta-ordenaren diskurtsoa eteteko, hain baitago iruditeria kolektiboan txertatua diskurtso hori arrazakeriaren eragin sakon eta ezkutuen eraginez. XX. mendearen bukaerako «abolizionismo» horrek, zeinak XIX. mendearen oihartzunak baitakartza, baliagarri izan behar du kartzela-praktika testuinguru historiko batean birkokatzeke. Konstituzioko Hamahirugarren Zuzenketa onartu zelarik, pertsona guztien esklabotza abolitu zen, salbu presoena; hein batean, beraz, esklaboak herritarren multzotik kanporatzeko sistemak bere horretan iraun du AEB-ko kartzela-sisteman. Soilik hiru estatutan eman dezakete botoa presoek, eta 4 milioi herritar inguruk ukatua dute boto-eskubidea, kartzelan daudelako edo egonak direlako. Era guztietako kartzelak abolitzeko estrategia erradikal bat planteatzea, kapitalismo berantiarreko arazo sozialei heltzeko, ez da abolizio abstraktu baterako estrategia bat; aitzitik, kapitalismo berantiarren garai honetan estatuak daukan rol gero eta zapaltzaileagoa birpentsarazteko eta erresistentziarako esparru bat eraikitzeke diseinaturiko estrategia bat da.

SEI

KRIMENAREKIKO ETA ZIGORRAREKIKO JARRERAK ALDATZEN¹⁸⁵

Historian zehar, klaseari, generoari, arrazari eta nazioari buruz gailendu izan diren ideien arabera itxuratu dira krimenarekiko eta zigorrarekiko jarrerak. Oro har, ideia horiek ez dakarte kriminalitatearen definizio juridiko zorrotzik; aitzitik, diskurtso politikoen, baldintza ekonomikoen, zirkunstantzia ideologikoen eta ideiak jendartean hedatzen dituzten komunikabideen eraginpean sortuak dira. XX. mendearen amaieran, hedabideek kriminalitateaz zabaltu dituzten errepresentazioek beldurrezko jarrera akritiko bat sustatu dute arraza- eta klase-irizpideen arabera kriminalitatearen erantzule nagusitzat hartzen diren komunitateekiko, eta, ondorioz, lepo zuriko gobernu- eta polizia-krimen korporatiboetatik eta emakumeen aurkako etxeko indarkeriatik at kokatu dute arretagune nagusia. Kartzelaren historiak agerian uzten du ezen kartzela-instituzioa, zigor-modu nagusia izanik ere, ez dela gai izan kriminalitatearen arazoa konpontzeko eta, areago, indarkeriarako, giza eskubideen aurkako erasoetarako eta arrazakeria betikotzeko esparru bilakatu dela. Hala eta guztiz ere, hainbeste zabaltu da herrialde industrializatuetan –AEBn, bereziki–, ezen kartzela-industria konplexu bat sortu baita gaur egun. Erakunde transnazonaletan, sistema penalen aurkako jarrerak azaleratu dira, baita kartzela eta heriotza-zigorra abolitzearen aldeko ikuspegiak ere.

185 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *Encyclopedia of Violence, Peace, and Conflict*, arg. Lester Kurtz (San Diego: Academic Press, 1999), 1. lib., 473-486.

I. Krimenaren errepresentazioak

XX. mendearen amaieran, hautetsi ofizialen diskurtsoan gero eta gehiagotan aipatzen da «krimenaren arazoa»; papereko eta sareko albistegietan, garrantzia ematen zaie krimenari buruzko erreportajei, eta fikziozko krimenaren literatura-, telebista- eta zinema-errepresentazioek gero eta ospe handiagoa dute: hots, ingurune soziala krimenez blai dago gaur egun. Genero berriak sortu dira, hala nola Court TV, sona handiko epaiketak ikuskizun mediatiko global bihurtzeko (esate baterako, O. J. Simpsonen epaiketa). Jendeak krimenarekiko jarrerak garatzea –eta bereziki krimenarekin beldurtzea eta liluratzea– gehiago zor zaie halako errepresentazio-praktikei, krimenaren biktima izateko egiazko arriskuari baino.

Krimena, zentzu komunaren arabera hautematen den moduan, soilik zeharka dago lotua bere definizio juridikoarekin. Izan ere, ekintza mota ugari biltzen ditu definizio horrek, eta, horrenbestez, zaila da haien artean ezaugarri amankomunik identifikatzea: urrutiago joan gabe, legeak galarazi eta epaitegietan zigortu daitezkeen ekintzat hartzen dira «ekintza kriminalak». Garai historiko batean krimentzat hartzen dena jokabide neutralizat eta justizia penalaren sistemarentzako interesik gabekotzat hartua izan daiteke beste batean. Maiz, kode penalak desberdinak izaten dira herrialde batetik bestera –are estatu batetik bestera ere, AEBren barnean–. Horrez gain, nahiz inkesta ugaritan azaleratu biztanle gehien-gehienek izan dutela noizbait legeak debekaturiko jokabideren bat, ekintza horien ehuneko txiki bati heltzen diote soilik justizia penaleko sistemek. Zenbait herrialdetan, ezkontidearen aurkako indarkeria –historikoki onartu izan den jokabide bat– duela gutxi onartu da krimen zigorgarri gisa. Indarkeriazko krimen gehienak era horretakoak edo biktimen ahaideek eta ezagunek eginak badira ere, krimenarekiko beldurrik orokortuena ez dator halako ekintza ohikoetatik, baizik eta ezezagun baten eraso sufritzeko aukeraren mamuetatik. Historikoki, ezezagun anonimo hori irudikatu denean, klaseak eta/edo arrazak eragina izan dute beti.

Gobernuak krimenaren aurkako politikan metafora militarrek erabiltzeak nabarmen lagundu du krimenaren gainean diskurtso jakin bat zilegiztatzen, kriminala mendean hartu beharreko etsaitzat jotzen duena. Ameriketako Estatu Batuetan,

«krimenaren aurkako gerra» –Richard Nixon presidente ohiak zioen bezala– komunismoaren aurkako gerrarekin batera –eta, zentzu askotan, haren eranskin bat balitz bezala– garatu zen. Komunismoa nazioaren segurtasunaren aurkako kanpo-mehatxu modura irudikatzen zen; krimena, berriz, barne-mehatxu modura. 1960ko hamarkadan, AEBko eskubide zibilen aldeko mugimenduak eta Vietnamgo gerraren aurkako eta ikasleen eskubideen aldeko mugimendu sozialek munduan barna taimainak ikusgaitasuna lortu zutelarik, krimenaren aurkako kanpainak desadostasun politikoari aurre egiteko estrategiekin nahasi ziren. Nixonen presidentetza-garaiaz geroztik, legea-eta-ordenarekin loturiko auziak behin eta berriz errepikatzen dira AEBko hauteskunde-kanpainetan, eta, ondorioz, krimena eta zigor gogorragoen aldeko aldarria gero eta gehiago politizatzen dira. Eta antzeko ereduak aurkitu daitezke Ipar Amerika guztian eta Europako, Afrikako, Hego Amerikako eta Asiako hainbat herrialdetan ere. Txinan, 1996ko droga-delituen aurkako «Kolpe gogorra» kanpainarekin lotuta daude urte horretan estatuak onarturiko 4.000 zigor baino gehiago. Japonian, bestalde, ofizialki, «krimenaren aurka gogor» jokatzeari saihestu dute orain arte, eta, azken urteetan, kartzela-indizeek behera egin dute (AEBkoak baino hamarren bat txikiagoak izateraino). Nelson Mandela presidenteak adierazia du krimena «kontrolarik at» dagoela Hegoafrikan; 1996an, baina, azpimarratu zuen bere gobernuaren «krimenari aurre egiteko epe laburreko taktikak» ez luketela estali behar krimenaren aurkako epe luzeko estrategiarik eraginkorrena, hots, pobrezia deuseztatzeko plangintza. Gainera, Mandelaren agintaldian abolitu zen heriotza-zigorra Hegoafrikan.

Kriminologo eta historialariek azpimarratu izan duten bezala, ia beti krimen mota jakin batzuetan zentratu dira funtzionarioen ustez krimenaren aurkako gerrak abian jartzea eskatzen duten «olatu kriminalak»; normalki, kalean eginiko krimen anonimoak, biolentoak eta –XX. mendearen bukaeran– drogarekin lotuak izaten dira. Lepo zuriko delinkuentzia, delinkuentzia korporatiboa, polizia-krimena eta gobernu-krimena gutxitan hartu dira kontuan olatu kriminalak gogora ekartzean edo delinkuentziaren gorakaden eta beherakaden berri ematen duten estatistikak egitean. Stuart Hall britainiar soziologo eta kul-

tura-kritikariak aditzera eman du krimenaren estatistikak ideologiaren arabera egiten direla nabarmen; hala, informazio iheskorra ematen zaie hedabideei eta, oro har, publikoari, eta, horretarako, zenbakizko datuen eta ekintza eztabaida ezinez bidez aurkezten da informazio konplexu, nahasi eta, maiz, kontraesankorra. Egiaz, estatistikak ez du beti islatzen eginiko krimenen benetako neurria.

AEBko krimenaren aurkako kanpainen historiak lotura hertsia du FBIren estatistika kriminalekin. FBIren txosten kriminal uniformeei (UCR) ahulgune larriak dituzte (haietariko batzuk berehala hauteman ziren, UCRAk argitaratzen hasi orduko, 1930ean), baina, hala ere, eta salatutako krimenak poliziaren interpretazioen arabera neurtzen diren arren, datu horiek iturri nagusi gisa erabiltzen dira oraindik ere, eta haien gainean oinarritzen dira herritarrek krimenari buruz dituzten pertzepzioak. FBIra igortzen den polizia-informazioa herritarren salaketetan oinarritua da, eta badira susmagarriak identifikatu gabeko krimenak zein ikertu gabe uzten direnak ere. Estatistika kriminaletan ez da jasotzen askotan arrazarekin, klasearekin, generoarekin eta sexualitatearekin lotutako faktoreek baldintzatzen dutela zer krimen salatzaren diren, ezta legea betearazten duten funtzionarioek krimen-salaketei nola erantzuten dieten ere.

II. Klasea, generoa, arraza eta krimena

Krimena kategoria juridiko gisa definitzen denean, legeak galarazitako jokabideetat hartua da, eta gobernuaren zigorra jaso dezake. Pobrezia eta krimena maiz nahasi izan dira jendearen iruditerian –baita politika publikoan ere–, eta, ondorioz, herritar pobreak neurritz gain zigortu izan dira historian zehar. Eskaletasunaren legeen eraginez, pobrezia kriminalitatearen sinonimotzat hartzeko joera indartu da. 1798an, *Essay on the Principle of Population* argitaratu zuen Thomas Malthusek: lan horretan, Ingalaterrako Pobrearen Legea –zeinak parrokiei behar-tsuei gizarte-laguntza ematea xedatzen baitzuen– berrikusteko esfortzu politikoak babestu zituen, argudiatutako estatuaren karitateak pobrezia hauspotzen zuela eta estatuak beren berezko patuaren mende utzi behar lituzkeela pobreak. Ingalaterrako 1834ko Pobrearen Legeak Malthusen ideia gorpuztu zuen, eta, Karl Marxen arabera, langileak beren pobrezia erantzule direla al-

darrikatzen duen ikuspegia ere islatu zuen. Horrez gain, Marxek ohartarazi zuen bezala, lege hori onartu zenetik nabarmen areagotu zen pobrezia ez zoritxartzat baizik eta zigortu beharreko krimentzat hartzen zuen jarrera. Pobreak lan-etxeetan edo pobre-etxeetan giltzapetzea eta haiei lan behartuak eta ordaindu gabeak eginaraztea aurreikusten zuen pobreen lege berriak.

Kartzela zigor gisa eta ez atxiloketa gisa planteatu zuen lehen eredia Londresko Brideswelleko lan-etxea izan zen. 1555ean zabaldu zen Brideswelleko etxea, eta hartan oinarrituta etorri zen gero 1576ko Legea, zeinak ekarri baitzuen beste konde-rri batzuetan lan-etxeak edo *brideswell* etxeak sortzea. Europan, 1596an zabaldu zen Amsterdamgo Rasphuis etxea, gaiztagintzat hartuak ziren eskale eta gazteak giltzapetzeko eta lan behartuetara derrigortzeko. Ameriketako Estatu Batuetan, pobreen etxeak garatu ziren XIX. mendearen hasieran. Pobreen etxeen eta atxiloketa-zentroen artean ez zegoen ia alderik, ez funtzioari dagokionez, ez jendearen pertzepzioari dagokionez: jende pobrea eta kriminalak gizartearen egonkortasunaren aurkako elementu arriskutsu gisa ikusten ziren, hots, giltzapetu beharrekoak ziren.

A. Patriarkatua eta kriminalitatea

Egitura eta ideologia patriarkalek ere kriminalitateari bu-ruzko usteak sortu ohi dituzte, batez ere emakumeen «tokia» definitzen duten arau sozialak urratu dituzten emakumeekin lotuta. Joana Arc-ekoa, Europako Erdi Aroko sorgin-ehiza eta Salemgo (Massachusetts) 1972ko sorginen hilketa izan litezke kriminalitatearen ekoizpen patriarkalaren adibiderik ezagunenak. XIV. mendetik XVII. mendera bitartean sorginkeriaz akusaturiko milaka pertsonen artean, emakumeak ziren % 80-90. Areago, adulterioa leporatutako emakumeen aurkako gorputz-zigor go-gorren hainbat frogazaleratu dituzte historialari feministek; gizon adulteroen jokabidea, aldiz, normalizatua zegoen, besterik gabe. Medikuntza profesionalizatua hedatu ahala, Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako emakume sendalariak maiz kriminalizatzen eta zigortzen ziren.

Nesken jarduera kriminala eta immorala –hau da, sexua-la- uztartzean, «krimenaren» eta jokabide «ez-femeninoaren» arteko mugak laxatu ziren. XIX. mendearen bukaeran, Lan-casterko erreformatorioan sartu zuten neska bat, AEBko lehen

erreformatorioan, haren aitak masturbatzeaz akusaturik; antza, gainera, legen genitala arintzeko egiten zuen hazka neskato hark, besterik gabe. Emakume helduek ere antzeko tratua jasaten zuten. Legezko salaketak egin beharrean, ongintza-etxeetan, lan-etxeetan edo eroetxeetan giltzapetzen zituzten emakume desbideratu asko. XVII. eta XVIII. mendeetako gizarte-jarrera nagusietan islatzen zen sineskizun bat zen emakume gehienak ez zirela gai legea nahita urratzeko eta ezinezkoa zela biziotsutzat eta kriminaltzat hartuak ziren emakumeak erreformatzea, baina posible zatekeela emakumeok pobreziak eta zorotasunak jota egotea eta hori bazela nahikoa arrazoï haiek espetxeratzeko. XX. mendean, sexu-praktika lesbikoetarako joera zuten edo halakoetan jarduten zuten emakumeak zentro psikiatrikoetan sartzen zituzten oraindik ere hainbat herrialdetan. Egipton, 1981ean, «estatuaren aurkako krimenak» leporatuta atxilotu zuten Nawal El Saadawi idazle eta mediku feminista, genitalen mutilazioaren aurka publikoki mintzatu zen lehen afrikar emakumea.

B. Arraza eta kriminalizazioa Ameriketako Estatu Batuetan

Bereziki Ameriketako Estatu Batuetan, arrazak funtsezko eginkizuna izan du kriminalitate-presuntzioak eraikitzeko orduan. Esklabotza abolitu ondoren, estatu esklabista ohiek lege berriak onartu zituzten, Esklabotza Kodeak berrikusita, beltz askeen jokabidea arautzeko asmoz, esklabotzaren garaian bezalatsu. Kode Beltz berriek zenbait ekintza galarazi zituzten –eskale ibiltzea, lanean huts egitea, lan-kontratuak ez betetzea, su-armak edukitzea, eta keinu edo egintza iraingarriak egitea–, eta soil-soilik egileak beltzak zirenean kriminalizatzen ziren. Esklabotza eta nahi gabeko joputza abolitzen zituen Hamahirugarren Zuzenketaren argitan («salbu krimen baten ondoriozko zigorra bada eta dagokiona behar bezala kondenatua izan bada»), estatu-legeek definituriko krimenetako batzuenatik beltzak soilik izan zitezkeen «behar bezala kondenatuak» eta, horrenbestez, nahi gabeko joputzara zigortuak. Hala, presoan errentamendu-sistema sortu berriaren xede nagusi bilakatu ziren beltzak; neurri handi batean, esklabotzaren haragitatzat bat zen presoan errentamendu-sistema. Mississippiko Kode Beltzetan, adibidez, eskaletzat jotzen ziren «lapurreten egileak, [lanpostutik, antza] ihesi joandakoak, mozkorrak, jokabide lizunak zituztenak edo

C. Drogaren aurkako gerrak

Arraza-bereizkuntzak legez kanpoko drogen kontsumoaren eta justizia penalaren sistemaren esku-hartzeen arteko harremana baldintzatzen du drogaren aurkako gaur egungo kanpainetan. Bereizkuntza horren testuinguru orokorra ulertzeko, kontuan hartu behar da nola iragartzen dituzten industria farmazeutiko multinazionalak legezko zenbait droga –batik bat efektu psikotropikoak dituztenak, hala nola Prozac-a–, nahas-mendu emozionalen aurkako panazea balira bezala eskaintzen baitira; gobernu eta korporazioen onespeneraren zirkuitutik kanpo hartzen diren drogak, aldiz, kriminalizat hartuak dira. Drogaren kontsumoa eta legez kanpoko drogen salerosketa koloreko jendearekin lotzen denez batik bat, Ameriketako Estatu Batuetako, Kanadako eta Europako beltz, latino eta immigranteen komunitateak neurritz gain jazarriak dira arrazoi horrengatik. «Drogaren aurkako gerrak» –zeinek, «krimenaren aurkako gerra» ugariek bezalaxe, maniobra militarrek baitakartzate gogora– funtsezkoak izan dira populazio horiek kriminalizatzeko. Herbehereetako Justizia Ministerioa, adibidez, 1980ko hamarkadara bitartean herrialdeko kartzela-populazioa ez handitzea –eta, zenbait urtetan, txikitzea– lortu arren, hasia da kartzela-esparru gehiago eraikitzen, droga-trafikoari erantzuteko. Droga-trafikoaz akusatura kartzela-zigorra betetzen dutenen artean, asko eta asko dira Herbehereek Kariben eta Asian izan zituzten kolonietatik eratorritako immigranteen lehen –edo bigarren– belaunaldikoak, baita drogaren ekonomian inplikaturiko latinoamerikarrak ere. Ameriketako Estatu Batuetan, drogaren aurkako gerrari zor zaio espetxeratuen kopurua ugaritu izana. 1996an, AEBko kartzela federaletako presoan % 61 droga-delituez akusatura zeuden; 1980an, % 23. Estatuko kartzela-sistemetan, berriz, hiru emakumetik bat droga-delituengatik espetxeratu zuten 1991n.

Ameriketako Estatu Batuetan, alde handia dago *crack*arekin eta kokaina-hautsarekin loturiko kasuak epaitzeko orduan: askoz kartzela-zigor handiagoak ezartzen zaizkie *crack*-kontsumitzaileei, kokaina-kontsumitzaileei baino. Bereizkuntza hori biziki arrazializatua da: *crack*-kasu gehien-gehienak akusatu beltzei dagozkie –AEBko Epaien Batzordeak 1992an argitaraturiko txostenaren arabera, beltzak ziren *crack*arekin loturiko delitu federalengatik epaituriko akusatuen % 91,3–, eta kokaina-hau-

tsarekin loturiko kasu gehien-gehienak, aldiz, akusatu zuriei. Ondorioz, delitu berberengatik koloreko askoz jende gehiago kriminalizatzen eta espetxeratzen da zuriak baino, eta zuriak askoz barkaberatasun handiagoarekin tratatuak dira beti.

D. Emakumeen aurkako indarkeria

Etxeko indarkeriaren xede izan diren emakumeen trataera historikoari erreparatuz gero ere, beste bereizkuntza bat egin liteke krimenaren eta justizia penalaren sistemaren erantzunaren artean. Mugimendu feministak sortu aurretik, ezkontideari eraso egitea –eta, aurreko garaietan, ginezidioa– ez zen zuzenbide penalaren arloan sartzen. Alegia, eremu publikoko eraso biolentoak kriminalizatzen ziren; etxeko eremuko gizonen indarkeria, aldiz, pribatizatuta zegoen, eta, hortaz, estatuaren esku-hartzetik babestuta. Eremu publikoaren eta pribatuaren arteko harreman dikotomiko historikoak generoa ezarri du kriminalitatearen gaineko ikuspegi ideologikoaren kontraesan ugarien eta zigorraren inplementazio praktikoaren erdigunean. Bereziki larria da –herrialde anitzetako mugimendu feministek gaur egun salatzen duten bezala– zer zigor mota eta zein luzeak ezartzen zaizkien tratatu txarrak sufritu dituzten emakumeei tratatu txar horiek eman dizkieten gizonak hiltzeagatik. Justizia penalaren historiaren zati handi batean, gizonak inpunitate osoz hil dituzte beren emazteak, bai eta haiei eraso egin ere; beren burua defendatzen duten emakumeak, aldiz, erasotzailetzat eta hiltzailetzat jo izan dira. Gaur egun, mugimendu feministak estatu eta nazio mailako gobernuak eskatzen ari zaizkie onar dezatela «tratatu txarrak jasan dituen emakumearen sindromea» legezko defentsa bidegarri gisa.

III. Zigorra eta kartzela: berrikuspen historiko bat

Nahiz eta herrialde batzuetan oraindik ere nagusi diren heriotzarik ez dakarten gorputz-zigorrak, kartzela da, gainera, zigor-moduen artean gehien erabilia. Zigorraren espektroa osatzeko, isunak eta, zenbaitetan (AEBn, esate baterako), heriotza-zigorra erabiltzen dira (heriotza-zigorra da estatuak gorputzen aurka egiten duen erasorik biolentoena). Nolanahi ere, kartzelaren nagusitasuna gertakari historiko berri samarra da, eta kartzela bera oso helburu desberdinak lortzeko teorizatu izan da garaiazen arabera. Kartzelaren erreformaren aldeko

mugimenduek kartzelak existitzen direnetik kritikatu dute kartzelarekin loturiko basakeria.

Nazio Batuek 1957an onarturiko Presoen Traturako Gutxieneko Arau Estandarrak nazioartean tortura eta bizi-baldintza laidogarriak –besteak beste– gutxitzeko kartzela-erreforma antolatzen eta defendatzen emandako hamarkaden emaitza dira. Testuinguru horretan, paradoxikoa da kartzela-instituzioa ilustrazio garaiko gorputz-zigorren krudelkeriaren aurka sortu izana berez. Michel Foucaultek, *Surveiller et Punir: Naissance de la prison* ikerlanaren hasieran, 1757an Parisen izandako exekuzio baten deskribapen grafikoa egin zuen. Epaitegiak tortura beldurgarri sail bat sufritzera kondenatu zuen hiltzaile dohakabea, hil aurretik. Hala, kurrika goriak erabili zituzten haren gorputz-adarretako haragia erretzeko, eta, beruna, olio irakina, erretxina kiskalgarria eta beste substantzia batzuk urtu, eta zaurietan isuri zioten. Azkenik, handik atera eta laurdenkatu egin zuten, gorputza erre, eta lau haizeetara jaurti zituzten errautsak.

Exekuzio lazgarri horrek agerian uzten du zer neurritaraino zen gorputza torturaren xede eta nola aldi hartan heriotza izan zuen akabera –nahiz eta ez zen beti hala izaten–. Beste gorputz-zigor mota batzuen artean, zepoa eta pikota, zartailua, burdin markak eta anputazioak aipa daitezke. Kartzelaren sorrera historikoaren aurretik, era horretako zigorrak diseinatzeko ziren ahalik eta arrastorik sakonena uzteko, ez hainbeste zigortuari, baizik eta ikusleei. Zigorra, funtsean, jendaurreko ikuskizun bat zen.

Emakumeak etxeko esparruan zigortzen zirelarik, agintariek etxe barrenera eramaten zituzten batzuetan tortura-tresnak. Britainia Handian, XVII. mendean, gizon batek esaten bazuen bere emaztea liskarzalea zela eta ez zuela gizonen menderakuntza onartzen, emakume hitzontzien brida edo maskara ezartzen zitzaion emazteari: buruan koroa bat kate batez loturik, burdin zati bat sartzen zitzaion ahoan. Maiz, jendaurreko desfile batean ezartzen zieten maskara hori emakumeei; hala ere, zenbaitetan, tramankulua etxeko horma batera kaketu, eta hantxe uzten zuten emakume zigortua, senarrak hura askatzea erabaki arte.

Zigorra gorputzean oinaze fisikoa eragiteko modu gisa kontzeptualizatzea kapitalismoaren aurreko garaiekin lotzen den arren, badira salbuespen deigarriak. Estatubatuar beltzen

aurkako legez kanpoko lintxamendua –zeina XX. mende betean ere baliatu baitzen, nahiz eta zuzenean legez onartu ez– onetsia zen Hegoaldeko estatuetako egitura politikoetan behinik behin. Lintxamenduak, AEBren aro kolonialeko eta Europako Erdi Aroko komunitate-ikuskizunak bezalaxe, inauteri-kutsuko ekitaldi publikoak izaten ziren maiz.

Hona hemen kartzela sortu aurreko beste zigor mota batzuk: erbesteratzea, galeretako lan behartuak, lekualdatzea eta akusatuaren ondasunez jabetzea. Ingalaterrako jende andana zigortuz eta lekualdatuz ekin zioten Australia kolonizatzeari. Ingeles presoen lekualdatzeari esker egin zuen aurrera Georgiako iparramerikar koloniak ere. XVIII. mendearen hasieran, emakumezkoa zen lekualdatutako zortzi presotik bat, eta, maiz, prostituziora behartzen zituzten.

Europar, kartzela ez zen zigor mota nagusia izan XVIII. mendera arte; AEBn, berriz, XIX. mendera arte. Bestalde, Europako kartzela-sistemak arau kolonialaren osagai garrantzitsuak izan ziren Asian eta Afrikan. Indian, adibidez, Ingalaterrako kartzela-sistema ezarri zuten XVIII. mendearen bigarren erdialdean, eta hala eraiki zituzten Kalkutako eta Madrasko eskualdeetako atxiloketa-zentroak. Europar, kartzelaren aurkako mugimenduan islatu ziren ilustrazioarekin loturiko joera intelektual berriak, erreformaren aldeko protestanteen aktibismoa eta kapitalismo industrialaren gorakadarekin loturiko aldaketa estrukturalak. 1764an, *Dei delitti i delle pene* lana argitaratu zuen Cesare Beccariak, Milanen, filosofoen –bereiziki Voltaireren, Rousseuren eta Montesquieuren– berdintasun-nozioen eraginpean. Beccariak aldarrikatu zuen zigorra sekula ezin dela izan kontu pribatu bat, ezta kontu arbitrarioki biolento bat ere; aitzitik, publikoa, berehalakoa eta albait barkaberena izan behar du. Hala, garai hartako kartzelaren ezaugarri bereizgarri bat identifikatu zuen: akusatua erruduna ala errugabea den erabaki aurretik inposatzen da kartzela. Denborarekin, kartzela epai baten –eta ez atxiloketa baten– ondorio izatera igaro zelarik, zigor-modu gisa nagusitu zen, hots, gizabanakoa beste modu batera baloratzen hasi ziren. Ilustrazioaren aurretik, gizabanakoa eskubide eta askatasun formalen eramaile gisa ikusten hasi aurretik, kartzelaren bitartez eskubideak eta askatasunak ukatzea ez zen ikusten zigor bat balitz bezala. Denboraren abstrakzio bat

eginez, lan-denbora merkantzien balioa kalkulatzeko oinarritzat hartzearen oihartzuna dakarkigu kartzela zigortzat hartzeak. Zigorren arloko teorialari marxistek adierazi dute «merkantzia» kontzeptua sortu zen garai historiko berean hasi zirela kartzela erabiltzen zigor-molde paradigmatico gisa.

Georg Rusche eta Otto Kirchheimer politika penaltaren eta lan-merkatuaren ezaugarrien artean lotura bat ezartzen ahalagindu ziren *Punishment and Social Structure* lanean –lkerketa Sozialerako Institutuak argitaratu zuen lehenbizikoz, 1939an–, batik bat garapen kapitalistaren zenbait fasetan nagusituriko ezaugarriak kontuan hartuta. Haien ereduak arrunt kritikatu izan da, ekonomismoagatik eta erredukzionismoagatik; kriminologo marxistengan eta zigorren arloko historialariengan, aldiz, eragin handia izan du, eta haietariko batzuek diote Ruschek eta Kirchheimer-ek ideologiaren rola gutxietsi zutela. Kritikari feministek –esate baterako, Adrian Howe *Punish and Critique: Toward a Feminist Analysis of Penalty* lanaren egileak– ohartarazi dute zigorren arloko ekonomia politiko gehienak arras maskulinistak direla eta ez dituztela kontuan hartzen ez kartzelako emakumeak, ezta feministek kategoriatik marxista tradizionalen aurka emandako argudioak ere.

Kartzela-sistema sortu berrietan kartzelara zigorturiko preso gehienak gizonak ziren, eta horrek agerian uzten du eskubide legal, politiko eta ekonomikoen egiturak genero-aurreiritzi sakonak dituela. Emakumeei, neurri handi batean ukatua zutela-gizabanako eskubidedunaren estatus publikoa, ezin zitzaizkion kartzela-zigorrik ezarri eskubide horiek kenduta. Berezik emakume ezkonduak gertatzen zitzaizkion hori, ez baitzeukaten inongo aitortza juridikorik. Ingalaterrako ohiturazko zuzenbidean, ezkontzeak «heriotza zibil» estatusa zekarren; horren erakusgarri da emakumeek gizonen abizena bereganatzea. Ondorioz, etxeko betebeharren aurka altxatzeagatik zigortzen zituzten, eta ez hainbeste beren erantzukizun publiko eskasetan huts egiteagatik. Emakumeak etxeko ekonomiara zokoratuz –hots, erabilera-balioa nagusitzen zen eremura baztertuz–, merkantzien esparru sortu berrian –hots, truke-balioaren arabera definituriko eremuan– rol esanguratsu bat izateko aukera ukatzen zitzaizkion. Hori hala izan zedin, soldatan islatzen zen lan-indarraren truke-balioa, eta lan-indar hori gizonezkoa eta arraza zurikoa zen

normalki. Hala, emakumeen aurkako gorputz-zigorrek luzaroan iraun zuten, are gizonentzat –gizon zurientzat– zaharkituta geratu ondoren ere. Tamalez, gaur egun etxeko indarkeria bere horretan mantentzea generoaren araberrako zigor historikoen lekuko da.

A. Kartzela

Paradoxikoki, zenbait ikertzailek adierazi duten bezala, Ingalaterran 1758an «prostituta penitenteak» aterpetzeko zirriborraturiko planen harira erabili zen lehenbizikoz «*penitentiary*» [kartzela] hitza. 1877an, *The State of the Prisons* lana argitaratu zuen John Howardek, Ingalaterran kartzela-erreforma defendatu zuen protestante nagusiak. Lan hartan, autogogoeta eta autoerreforma erlijiosorako aukera modura kontzeptualizatu zuen kartzela. 1787tik 1791ra bitartean, kartzela-eredu panoptikoa-ri buruzko gutunak argitaratu zituen Jeremy Bentham filosofo utilitaristak. Haren ustez, panoptikoa lagungarria izanzen zen kriminalek lan produktiborako ohiturak barneratzeko beharrezkoa zuten zaintza eta diziiplina erabatekoa ziurtatzeko. Presoak bakarkako ziegetan kokatzean zetzan haren eredia, harmaila zirkularretan, denak ere zenbait solairuko zaintza-dorre bati begira. Pertsiana eta argi- eta iluntasun-joko nahiko konplexu baten bidez, presoek ez zuten kartzelazaina ikusiko –eta presoek ere ez zuten elkar ikusiko–; kartzelazainak, aldiz, bere kokapen pribilegiatuari esker, preso guztiak ikusiko zituen. Dena den, eta hau zen Benthamen panoptiko erraldoiaren alderdirik esanguratsuen, presoek ez zuten inoiz jakinen norantz kokatua zen kartzelazainaren begirada, eta, hortaz, beti jokatu beharko zuten une oro behatuak balira bezala. Howarden ideiak 1799ko Kartze-len Legean txertatu ziren, kartzela modernorako bidea zabalduz hala. Benthamen ideiek eragina izan zuten Ingalaterrako lehen kartzela nazionalaren garapenean (Millbanken kokatua zegoen, eta 1816an ireki zuten), baina Ameriketako Estatu Batuetan hezurmamitu zuten kartzela panoptiko bat sortzeko lehen esfortzu serioa: 1826an ireki zuten Mendebaldeko Estatu Kartzela, Pittsburghen, panoptikoaren eredu arkitektonikoaren arabera egina.

AEBko lehen estatu-kartzela Pennsylvaniako Walnut Kaleko Kartzela izan zen; zehazki, 1790ean atxiloketa-zentro iza-teari utzi, eta zigor- eta penitentzia- eta erreforma-epaiak aldi berean jasotzen zituzten presoentzako instituzio bilakatu zen

kartzelaren zati bat. Walnut Kaleko Kartzelako erregimen gogorra –bakarkako ziegetan bizi, jan, lan egin eta Biblia irakurtzen zuten (baldin eta alfabetatuta bazeuden), guztiz bakarturik, eta uste izatekoa da gogoeta egiten zutela eta damutu egiten zirela– Pennsylvaniako sistema izenez egin zen ezaguna, eta garai hartako bi kartzela-eredu nagusietako bat izan zen. Beste ereduak Auburnen garatu zen, New Yorken, eta, Pennsylvaniako sistemaren aurkaritzat hartzen zen arren, bi ereduaren oinarri filosofikoen artean ez zegoen alde handirik. Pennsylvaniako ereduak Cherry Hilleko Ekialdeko Estatu Kartzela ekarri zuen azkenean berekin (1821ean onartu zituzten lehen planoak), eta guztizko bakar-tzea, isiltasuna eta bakardadea lehenesten zituen; Auburngoak, berriz, bakarkako ziegak eta talde-lan isila. Auburngo ereduak lan-praktika eraginkorragoak sustatzen zituen, harexek erdie-tsi zuen azkenean hegemonia.

B. Emakumeen kartzelak

Emakume presoek proportzioa erlatiboki txikia izatea ait-zakia gisa erabiltzen da maiz legegile, ikertzaile eta aktibistek eskaintzen dieten arreta urria justifikatzeko. Herrialde gehie-netan, % 5en ingurukoa izaten da emakume presoek kopurua. Ikuspuntu ideologikotik, emakume presoek kopuru txikiak direla eta, uste zabaldua da emakume presoak askoz ere desego-kiagoak eta mehatxagarriagoak direla gizarterako gizon presoak baino, nahiz gizonak gehiago izan.

Historikoki, askoz emakume gehiago egon dira zentro psikiatrikoetan kartzeletan baino. Horrek zera iradokitzen du, atxiloketa-zentroak eta kartzelak gizonak kontrolatzeko institu-zio menderatzaileak izan direla eta zentro psikiatrikoak, berriz, emakumeak kontrolatzeko asmo bertsuarekin erabili direla. Hau da, gizon desbideratuak kriminaltzat hartu izan dira; emakume desbideratuak, aldiz, erotzat. Kartzela sortu aurretik eta, beraz, zigorraren nozioa «kondena betetzearekin» lotu aurretik, eska-leak, lapurrak eta eroak kontrolatzeko erabiltzen ziren esparru giltzapetuak, hots, desbideratze-kategoriak nahasten ziren. Kriminalitatearen eta hura kontrolatzeko instituzioei buruz-ko diskurtsoan «kriminala» eta «eroa» bereizten hasiz geroztik, batik bat gizonen erreparatu zitzaizen, emakume desbideratuak eroen kategoriara bazterturik.

AEBn, kuakero erreformistak –bereziki Kartzela Publikoe-tako Kalteak Arintzeko Filadelfiako Elkartea, zeina 1787an sortu baitzen– funtsezkoak izan ziren gorputz-zigorren ordeztatzeko ezartzearen aldeko kanpainetan. Elizabeth Fryk Ingalaterran finkaturiko tradizioari segituz, emakumeentzako kartzela bereizien aldeko gurutza handiak antolatu zituzten kuakeroek. Fryk 1827ko lan batean azaldu zituen emakumeen kartzelen erreformarako printzipioak, *Observations in Visiting, Superintendence and Government of Female Prisoners*, eta AEBko hainbat emakume bat egin zuten haiekin; esate baterako, Josephine Shaw Lowellek eta Abby Hopper Gibbonsek. Emakume presoenganako jarrerak desberdinak ziren gizon presoenganakoen aldean; egintzat ematen zen gizonek galduak zituztela emakumeek normalki eskatu ezin zituzten eskubide eta askatasunak. Nahiz eta emakume bakan batzuk ere bazeuden kartzelan preso, gizonezkoen generoa esleitzen zitzaion instituzioari, eta, ondorioz, gizonen zigorra penitentziarekin eta erreformarekin lotzen zen. Eskubide eta askatasunak galdu eta gero, gizon presoek erredentzioa eskuratu eta eskubide eta askatasun horiek berreskuratzeko zitzaketen, autogogoetaren, ikasketa erlijiosoen eta lanaren bidez. Emakumeek, aldiz, halakoen jabetzarik onartzen ez zitzaenez, ez zeukaten erredentzio-prozesu horretan parte hartzerik.

Iritzi nagusien arabera, emakume presoak erremedio-rik gabeko emakume eroriak ziren, salbaziorako aukerarik gabeak. Gizon kriminalak kontratu soziala urratua zuten gizabanako publikotzat hartuak ziren, besterik gabe; emakume kriminalak, aldiz, emakumetasunaren oinarritzako printzipio moralak hautsiak zituztela esaten zen. Egiaz, Elizabeth Fryren il-dotik emakumeak erredentziorako gai zirela aldarrikatzen zuten erreformistek ez zieten aurre egin emakumeei buruzko suposizio ideologiko horiei. Emakume eroriak salbaezinak zirelako ideien aurka, emakumeentzako instalazio beregainak eta zigorraren gaineko ikuspegi feminino espezifiko bat eskatu zituzten. Haien ikuspegiaren arabera, kartzelen diseinu arkitektonikoan beharrezkoa zen ziegen ordeztatzeko eta «gelak» ipintzea, kartzelako bizitza etxe-giroz blaitzeko. Eredu hark, beraz, emakume kriminalizatuak etxearekin loturiko eginkizunetan –emazte- eta ama-eginkizunetan– berriro txertatzea helburu zuen erregimen bat ekarri zuen. Bestalde, erreformistek aldarrikatzen zuten

emakume kartzelazainak jarritz gero sexu-tentaldiak gutxituko zirela, haien ustez horixe baitzegoen emakumeen kriminalitatearen muinean.

AEBko emakumeen kartzelen erreformaren aldeko mugimendua emakumeen eskubideen aldeko mugimendu sozial zabalago baten testuinguruan hezurramitu zen. Emakumeen boto-eskubidearen aldeko mugimenduan bezalaxe, emakumetasunari buruzko diskurtso gailena onartzen zen, hots, klase- eta arraza-aurreiritzien arabera, erdiko klaseko emakume zuri ezaugarri sozialak lehenesten zituen. Espetxean zeuden emakume zuri gehienak langile-klaseko komunitateetakoak izaki, emakumeen kartzelen erreformaren aldeko mugimenduarekin loturiko etxekotze-estrategiaren ondorioz –nahiz berez emakume presoak trebatzen ziren emazte eta ama ustez hobeak izan zitezkeen–, neskame gisa sailkatzen ziren emakumeak. Kartzela-erregimen etxekotuen ondorio hori are nabariagoa izan zen koloreko emakumeen kolektiboan.

Ia guztiz zabaldua dago emakume presoak emakumeentzako instalazio beregainetan espetxeratzea, baina, hala eta guztiz ere, herrialde askotan –baita AEBko atxiloteta-zentro lokaletan ere–, gizonekin batera paratzen dituzte. 1970eko hamarkadaren erdialdeko kasu hagitz ezagun batean, kartzelazain gizon bat hiltzea leporatu zioten Joanne Littleri, hark bera preso zegoen gizon-kartzela bateko ziegan bortxatu ondoren. Indian, adibidez, eskas dira emakumeentzako egoitza beregainak, eta kartzela zentraletako emakume-ataletako preso gehienak gizonak dira.

C. Zigorren gainezko eztabaida: disuasioa, zigorra, errehabilitazioa

Kartzelaren eta harekin loturiko zigorraren aldeko jarren historian, anitz eztabaidatu da kartzelaren egiazko helburuaz. Eragozten al du «mundu askean» bizi direnek krimenak egitea eta krimen horien ondorioz kartzelara joatea? Krimen bat eginez kontratu soziala (edo etxeko kontratua) hautsi duten gizabana-koak errehabilitatzea al da haren helburu behinena? Ala besterik gabe ziurtatu nahi da jokabide kriminalak dituzten pertsonak jasotzen dutela merezi duten zigorra? Kriminologian, penologian eta zigorraren filosofian, atergabe eztabaidatu da kartzela helburu horietakoren batean edo batzuetan oinarrituz justifikatzeko argu-

dioez. Auzi akademikook eragin zuzena izan dute legeen diseinuan, batik bat zigor-praktikei eta kartzelaren baldintzei buruzkoetan. Errehabilitaziorako estrategien bidez, adibidez, hezkuntza- eta prestakuntza-programak eska daitezke, baita erretribuziozko kartzelak eskaintzen dituen baino bizi-baldintza gizatiarragoak ere. Nolanahi ere, zenbait kritikarik ohartarazi duten bezala, tratamendu psikiatriko hertsatzaileak eta zigor mugagabeak ekarri ditu errehabilitazioak berekin; izan ere, presoak ezin da aske geratu «errehabilitatu» arte. Zigorraren gaineko diskurtso modernoek mugak «disuasioa, zigorra eta errehabilitazioa» triunbiratu kontzeptualaren arabera ezarri direnez, ardatz hirukoitz horren arabera taxutu da jendeak zigorrarekiko daukan jarrera ere.

Tradizio intelektuala aldarrikatzen hasi zelarik kartzelak izan behar zuela zigor-molde nagusia, gizabanakoa erreformatzeko esparru bat balitz bezala ikusten zen kartzela. Gorputz-zigorraren indarkeria eta krudelkeria errefusatzeko zuten erreformistek, berriz, kriminalak moralki birmoldatzeko baldintzen pean giltzapetzea proposatzeko zuten. Foucaultek zioenez, kartzela sortzearekin, zigorraren *locusa* gorputzetik arimara edo psikera aldatu zen, eta, hala, diziplinarako *par excellence* aparatua bilakatu zen kartzela, garai historiko hartarako aproposena, garabidean zen ekonomia industrial kapitalistak langile-klase diziplinatua behar baitzuen. Alde horretatik, hezkuntza-instituzioen eta instituzio militarren helburu bera zeukan kartzela-instituzioak. Benthamek zioen jendea zelaturik eduki nahi zuen edozein instituziotan aplikatu zitekeela bere panoptikoa: kartzela, lan-etxe, pobre-etxe, erietxe psikiatriko, berrogeialdiarako toki, lantegi, ospitale eta eskoletan. Foucaultek esanzen lukeen gisan, ez da harritzekoa kartzelak eskolak, lantegiak, barrakoi militarrek eta ospitaleak ekartzea gogora, zeren eta, alderantziz ere, horiek guztiek kartzela baitakarte gogora.

Askotariko arrazoiengatik –besteak beste, berrerortzea eta kartzelak krimena gutxitzen dutela egiaztatzeko etengabeko frogarik eza–, Ingalaterrako, Frantziako eta AEBko kartzela-proiektu historiko handiak porrot handitza hartu izan dituzte bai haien aldekoek, bai kritikoek. Foucaultek nabarmendu zuen kartzelaren porrota ez zela izan haren arrakastaren ondoriozkoa; aitzitik, kartzelaren historiaren hasiera-hasieratik salatu zen haren porrot erraldoia. Areago, azaldu zuen kanpaina erreformistek

lotura hertsia zutela kartzela kriminalitatearen aurkako estrategia eraginkor bakartzat hartzeko suposizio ideologikoekin, hau da, kartzela behin eta berriz bere porroterako konponbidea dela proposatzearekin. Hala, kartzelak, kriminalitatea eragozteari dagokionez –eta, jakina, kriminalak errehabilitatzeari dagokionez– porrot egiten badu ere, bere burua betikotzen du.

Errehabilitaziorako proiektua bera ere aldatu egin zen, hastapeneko kartzelen eredu erlijiosotik XX. mendeko eredu medikora, nahiz kartzelaren eraginkortasunari dagokionez hobekuntza esanguratsurik izan ez. Kartzelaren xedeari buruzko eztabaida filosofikoa dilema batean kukutua egon da: kartzelaren porrota eta, horrekin batera, kartzelako esparru diskurtsibo eta materialaz harago doazen estrategia penalak kontzeptualizatzeke ezintasuna. Herritarren jarrerak ikusita, gainera, garbi dago barneratuta dagoela ezen, kartzelek toki basak badirudite ere, ordena publikoa haien existentziaren mende egonen dela beti, nahiz errehabilitaziorako, disuasiorako edo zigorrerako esparru gisa irudikatu.

1970eko hamarkadara bitartean, errehabilitazioaren aldeko argudioak nagusitu ziren, segur aski eredu medikoaren lilura zela medio. Izan ere, kriminalak «gaixotzat» hartzen ziren, hots, sendabidea behar zuten. Dena den, droga-trafikoa ugaltu eta globalizatu ahala –zenbait ikertzaile eta kazetarik gobernuaren inplikazio edo onespenezekin lotu dute hori– eta, horrekin batera, drogen eta krimenaren aurkako «gerrak» areagotu ahala, presoen populazioak aurrekaririk gabeko kopuruetara iritsi ziren. «Gerra» horietan arma nagusi baina eraginkortasunik gabea izanik, kartzelak bere porrotak betikotzen ditu orain ere, hau da, bere burua betikotzen du.

D. Kartzela-populazioen ugaritzea

John Irwinen eta James Austinen hitzetan, Ameriketako Estatu Batuek eta beste herrialde industrializatu batzuek kartzela-betekada galanta izan dute. 1980tik 1995era bitartean, % 235 handitu ziren AEBko kartzela federaletako eta estatukoetako populazioak (329.821etik 1.104.074ra). Haien arabera, 1995ean, 13 estatutako eta AEBko hiri nagusi askotako populazioaren berdina edo handiagoa zen AEBko presoen populazioa. Espetxeratu-indizerik handienak AEBn, Hegoafrikan, Txinan eta Errusian badaude ere, Herbehereetako indizea 100.000ko 20tik 40ra igo

da 1975etik 1988ra bitartean –nahiz hango sistema penal giza-tiarrak eta espetxeratuen kopurua gutxitzeko estrategiek ospe ona izan nazioartean–. Herbehereetako kriminologo Willem de Haanek ohartarazi duenez, kartzela gehiago eraikitzeko joerari eutsiz gero, etenda geratuko da azken 125 urteetako joera, hots, espetxeratuen kopuruak gutxitu edo etengabe murriztekoa.

Ameriketako Estatu Batuetan, erresistentzia handia egon da drogen kontsumoa despenalizatzeari dagokionez; Herbehereetan, aldiz, justizia penalararen politikaren alderdi garrantzitsua izan da drogaren despenalizazioa urte askoan. Horrez gain, AEBko estatu anitzetan inplementatu dira «hiru kolpe eta kanpora» zigor-politikak, hots, hiru delitu larri eginda zigor luzeak ezartzea aurreikusten da; Herbehereetako zigor-politikan, aldiz, askoz zigor laburragoak eskatzen dituzte, eta nabarmentzen dute presoek eskubidea dutela kartzela «erdiireki» eta «ireki» deiturikoetara aldatzeko, behin beren zigorren ehuneko jakin bat beteta. (Beste herrialde batzuetan, baita Kuban ere, antzeko errehabilitazio-estrategiak baliatzen dira, presoak «mundu askera» itzul daitezzen.) Orokorrean, AEBko justizia penalararen politikek ia guztiz alboratu dute kartzela-errehabilitazioaren helburu tradizionala, eta azpimarratzen dute apaingarririk gabeko zigorra ezartzea dela kartzelaren xedea. Herbehereetan, aldiz, gizabanakoa errehabilitatzea eta birgizarteratzea da oraindik ere sistema penalararen helburua.

AEBren eta Herbehereen arteko desberdintasun handi horiek gorabehera –eta kontuan hartuta espetxeratuen indizea 100.000tik 50ekoa dela Herbehereetan eta kopuru hori halako 10 baino handiagoa AEBn–, bi herrialdeetan ekin diote kartzela-egitura bat eraikitzeko bideari, eta ez dirudi amaierarik daukanik. Gainera, Herbehereetan ikuspegi aurrerakoiak dituzten arren, bi herrialdeetan neurritz gainerakoa da drogarekin loturiko delituez akusatuta espetxeraturikoen kopurua, eta, bai Herbehereetan, bai AEBn, koloreko pertsonak gailentzen dira kartzela-populazioetan.

IV. Kartzela-industria konplexua

Mike Davis historialari sozialak Kaliforniako sistema penalarari erreferentzia eginez erabili zuen lehenbizikoz «kartzela-industria konplexua» terminoa. Haren arabera, 1990eko

hamarkadarako martxan jarria zen konplexua, nekazaritza-industriarekin eta landa-garapenarekin norgehiagoka, indar ekonomiko eta politiko nagusia izateko lehian. AEBk dauka munduko kartzela-konplexu handiena. 1995ean Justizia Estatistikaren Bulegoaren babespean eginiko Estatu Kartzelen eta Kartzela Federa-ralen Erroldan ageri denez, 1990etik 1995era bitartean 280.000 ohe baino gehiago gehitu zituzten 213 kartzelatan, hau da, % 41 handitu zen kartzelen edukiera. 1995erako, baziren 1.500 estatu-kartzela (1990ean, 1.287) eta 125 kartzela federal (1990ean, 80). Erroldan ageri denez, 327.320 enplegatuk lan egiten zuten kartzela horietan 1995ean; 1990ean, aldiz, 264.201ek. Enplegatuen bi herenek zaintza- edo segurtasun-lanpostuak zeuzkaten. AEBko sistema penala desberdina da beste herrialde batzuetakoen aldean; izan ere, konderrietako atxiloketa-zentroak, zeinak ez baitaude Justizia Estatistikaren Bulegoaren erroldan, epaiketaren zain dauden akusatuak atxilotzeko erabiltzen dira, baita delitu arinak egin eta urtebete baino gutxiagoko zigorra bete behar dutenak atxikitzeko ere. 1994an, 9,8 milioi lagun baino gehiago sartu zuten konderrietako atxiloketa-zentroetan (3.300 baino gehiago zeuden). Irwinek eta Austinek kalkulatua dute 25 heldutik ia 1 sartzan dutela atxiloketa-zentro batean urtero AEBn.

Zigorra industria erraldoi bilakatua da gaur egun, eta gero eta hedadura handiagoa du AEBko ekonomian. Ez gara ari kartzela federalez, estatu-kartzelez eta konderrietako atxiloketa-zentroez soilik, halakoez gain bai baita populazio handi samar bat kartzela-autoritateen zuzeneko ikuskaritzapean dagoena, hala nola zaintzapeko edo baldintzapeko askatasuna zaintzen duten funtzionarioen ikuskaritzapean. Kopuru horiek ere gehitzen badizkiogu kartzela eta atxiloketa-zentroetako populazioari (1,5 milioitik gora), 1994an 5 milioi heldu baino gehiago zeuden AEBko justizia penalaren sistemaren zuzeneko zaintza eta ikuskaritzapean. Bestela esanda, 37 heldutik 1 sailkatzen zen «kriminalen» multzoan. 1980an, berriz, 91 heldutik 1 zegoen egoera horretan. (Azaldu dezagun estatistika horietan ez direla agertzen nerabe eta haur espetxeratuen kopuru gero eta handiagoak.) Erresuma Batuan ere antzeko joera hautesman da; 1994tik 1995era, 49.300 lagun zeuden Ingalaterrako eta Galesko kartzeletan, aurreko bi urteetan baino 6.000 gehia-

go. 1997rako, 56.900era igo zen kopurua, hilabetean mila preso gehiagoko erritmoan.

Atal honetara ekarri ditugun estatistikek, baina, ez dute erakusten AEBko kartzela-industria konplexuaren sorreraren argazki osoa. Bere horretan harrigarriak gerta badaitezke ere, ez dute islatzen zein neurriz gain igo den emakume presoen populazioa eta nola ari den ezohiko modu batean emendatzen kartzela-sistemen zuzeneko zaintzapean dauden gizon beltzen kopurua. AEBko emakumeak –beste edozein herrialdetakoak bezala– presoen gutxiengo nahiko txikia diren arren, XX. mendearen azken bi hamarkadetan % 386 igo da estatu-kartzeletan eta kartzela federaletan dauden emakume presoen kopurua; gizonena, berriz, % 214. XX. mendeko emakumeentzako kartzela-instalazioen historiari erreparatuz gero, 1930etik 1950era bitartean bizpahiru kartzela besterik ez zen eraiki edo ezarri hamarkada bakoitzeko. 1960ko hamarkadan, beste 7 sortu ziren, 1970ekoan beste 17 eta 1980koan beste 34.

1990ean, AEBn kartzelan, atxiloketa-zentro batean, zaintzapean aske edo baldintzapean aske dauden pertsonen gaineko azterketa bat argitaratu zuen Washingtingo The Sentencing Project erakundeak, eta ondorioztatu zuen 20 urtetik 29ra arteko lau gizon beltzetik bat zegoela egoera horietakoren batean. Handik bost urtera, beste azterketa batek iragarri zuen hirutik batera altxatua zela kopurua (% 32,2). Gainera, adin-tarte bereko hamar gizon latinotik bat baino gehixeago zegoen atxiloketa-zentro batean edo kartzelan, edo baldintzapean edo zaintzapean aske. Bigarren azterketa horrek orobat jakinarazi zuen emakume beltzen taldea ari zela igotzen gehien; zehazki, % 78ko igoera izan zuen. Justizia Estatistikaren Bulegoaren arabera, afro-amerikarrak dira gaur egun estatu-presoa eta preso federal gehienak: 735.200 preso beltz dago guztira, zuriak baino 10.000 gehiago. Kartzela-industria konplexuaren kontzeptua, lehenbizikoz Mike Davisek erabilia –edo zentzategi-industria konplexua, Irwinek eta Austinek zioten bezala–, kartzela eta atxiloketa-zentroen zabalkunde izugarria eta justizia penalaren sistemaren zaintza edo ikuskaritzapean dauden koloreko pertsonen kopuruen gorakada alimalekoa izendatzeko erabiltzeaz gainera, orobat erabiltzen da enpresa-egituraren eta kartzela-industriaren arteko harreman gero eta sinbiotikoagoa, kartzelen eta komunitate anitzen

bizitasun ekonomikoaren arteko harremana, eta kartzela-komunitatearen eragin politiko gero eta nabarmenagoa izendatzeko.

A. Kartzelak eta industria pribatua

XIX. mendeko esklabotzaren ondotik, Hegoaldeko estatuetako banako zein enpresek errentan hartzen zituzten presoak –gehienak beltzak–, eta, ildo berean, gaur egungo eredu pribatizatuari esker, kartzelak etekin-iturri bihurtu dira enpresentzat. 1990eko hamarkada bukatzerako, AEBko kartzela pribatueta baziren 50.000 ohe inguru. Garai hartan, Corrections Corporation of America (CCA) zen kartzela pribatuen enpresarik handiena: AEBko, Australiako eta Britainia Handiko 21 kartzela kudeatzen zituen. Wachenhut kartzela pribatuen enpresak ere bazituen kontratuak Britainia Handian (AEBko bigarren handiena zen), eta gutxienez 12 kartzela pribatu sortzeko asmoa zuten.

Enpresa pribatuek, kartzelako lana aprobetxatzeko baliatzeaz gainera, beren ondasun eta zerbitzuetarako merkatuak ezartzeko ere baliatzen dituzte kartzelak. 1993an, aldizkari profesional ospetsu batean, telefono mugikorren enpresa batek proposatu zuen telefono mugikor bana emanen zitzaizela etxean atxiloturik eta eskumuturreko elektronikoko bidez zaindurik –baina etxeko telefonorik gabe– zeuden presoek, autoritateekin etengabe harremanetan egon zitezten. Gero eta lan pribatu gehiago egiten dira AEBko kartzeletan, hau da, ekonomia korporatiboaren eta presoaren arteko loturak gero eta estuagoak dira, testuinguru horretan presoak lan-indar merke erakargarria diren heinean. Egitura aldetik, kartzelako lanak esplotaziorako arriskua du, hirugarren munduko lan-indarrak duen bezalaxe. Kartzelako lana aukera erakargarria da gaur egun egoitza AEBn duten enpresa transnazionalentzat, aukera ematen baitie herrialdeko sindikatuen eskakizunen presioa gainetik kentzeko. AEBko langile-mugimenduak protesta indartsuak egin ditu Txinan kartzelako lana erabiltzearen aurka, eta ahotsa altxatu du orobat AEBko enpresa pribatuek kartzelako lana erabiltzearen aurka, baina oro har ez da ahalegindu kartzelako lana sindikatzen.

Britainia Handian, pribatizazioaren defendatzaileek adierazi dute kudeaketa pribatuko kartzelek aldaketak ekarri ditzutela pixkanaka eta aldaketa horiek sektore publikoan txertatu direla; esate baterako, bisita-politika bihozberagoak ezarri dira.

Horrez gain, aldarrikatzen dute instituzioen pribatizazioak ez duela etekinik ekarri arlo penalerara; aitzitik, dagoeneko tinko ainguratuta dauden enpresa pribatuen hedapen bat besterik ez da, kartzelak ondasunez eta zerbitzuz hornitzen dituen aspalditik. Sir Leon Radzinowicz kriminologoa, adibidez, pribatizazioaren aurka agertu da, eta, arestiko argudioa kolokan jarritz, argudiatu du ezen interes komertziala lehenesten duten enpresa pribatuek ondasunak eta zerbitzuak emateak ez duela inondik ere esan nahi enpresa horiek ahala dutenik gizakiak hertsatzeko.

V. Kartzela-aktibismoa eta estrategia abolizionistak

Kartzela-industria konplexuaren kontzeptua bereganatua dute kriminalizazioaren eta zigorraren arloan lanean diharduten estatubatuar intelektual eta aktibistek. 1990eko hamarkadan, asko zabaldu zen terminoa haien artean, partez industria militarren konplexuaren kontzeptuaren oihartzun historikoa zekarrelako. Industria militarren konplexuaren kontzeptua Dwight Eisenhower-ek erabili zuen lehenbizikoz, 1960ko hamarkadan, eta aktibista eta ikertzaile erradikalek baliatu zuten gero, Vietnamgo gerraren garaiko zabalkunde militarren eta haren ondorioz sektore korporatibo, akademiko eta militarren artean sortuak ziren loturen aurka. Kartzela-aktibismo erradikala ere garai hartantxe sortu zen, baina onartu beharra dago kartzela-instituzioa bera bezain zaharra dela kartzela-aktibismoaren tradizioa. Gaur egungo jardun aktibistaren eta aurrekoen arteko desberdintasuna zera da, ez dela kartzelaren baldintza gizagabeen aurka soilik protesta egiten, baizik eta zalantzan jartzen dela kartzelak izatea nahitaez gizarte-arazoei heltzeko modu nagusia (esate baterako, pobrezia, droga-kontsumoa eta arrazamenderakuntza).

1960ko eta 1970eko hamarkadetan, arrazakeriaren, gerraren eta kolonialismoaren aurkako mugimenduekin loturiko preso politikoaren inguruan eratu ziren mugimendu aktibistak; esate baterako, Ipar Irlandako eskubide zibilen aldeko kanpainak eta Hegoafrikako apartheidaren aurkakoak. Ameriketako Estatu Batuetan, gobernuak gogor zapaldu zituen eskubide zibilen aldeko liderrak, ikasle-antolakundeak, aktibista amerikar natiboak eta indar beltzaren aldekoak; ondorioz, kanpainak antolatu ziren hainbat preso politiko askatzeko, tartean Huey, Leonard Peltier,

Erica Huggins eta ni neu. Kartzelaren izaera politikoaren gainean kontzientzia hartu ahala areagotu zen kartzela-egituren aurkako jarrera orokorrago bat.

1971ko irailean, New Yorkeko Guardia Nazionalak militar-ki zapaldu zuen Atticako kartzelako presoen matxinada, orduko gobernadore Nelson Rockefeller-en agindupean. 43 lagun hil ziren kartzelako patioa kontrolpean hartzeko saioan, haien artean 11 guardia. Gertaturikoa ikertu ondoren, azaleratu zen preso bakar batek ere ez zuela inor hil. Presoek, zenbait zibil bahiturik, kontrolpean hartu zuten instituzioa, eskakizun sorta bat aurkeztu ondoren; kartzelako baldintza hobeak eskatzeaz gain, irakurtzeko eta askatasun erlijiosorako eskubideak baliatu ahal izatea galdegin zuten. Eskakizun horien abiapuntu gisa, «herri-tar kontzientziatuei» dei egin zieten kartzelak eta «Ameriketako Estatu Batuetako jendea esklabo bihurtzen eta esplotatzen duten» instituzioak abolitzen lagundu zezaten.

Garai hartan AEBko eta Europako karteletan gertaturiko antzeko hainbat eta hainbat gertakariaren artean, Atticako matxinadak izan zuen sonarik handiena –baita errepresiorik latzena ere–. Frantziako karteletan 1970eko hamarkadan izan ziren altxamenduekin loturik, kartzelei buruzko informazio-gune bat ezartzen lagundu zuen Michel Foucaultek, eta prozesu horretan oinarrituta idatzi zuen *Surveiller et Punir: Naissance de la prison* lana. Aurrerago, Thomas Mathiesen izan zen kartzela-abolizionismoaren gaineko teorialari nagusia, Norvegiako KROM presio-taldeko kidea izana 1960ko hamarkadan. Ameriketako Estatu Batuetan, zenbait presok beren teoriak garatu zituzten kartzelari buruz. George Jacksonek, adibidez, estrategia eraldatzaile batekin lotu zuen kriminalitateaz egin zuen analisia; estrategia haren bitartez, mentalitate kriminalak abolitzea eta kontzientzia eta erresistentzia erradikala bultzatzea izanen litzateke presoek heziketa politikoaren helburua. Assata Shakurrek kartzelaren genero-izaerari buruzko ikuspegi garrantzitsuak azaleratu zituen bere autobiografian. Puerto Ricoko zenbait preso politikok –Alexandrina Torres, Ida Luz Rodríguez eta Dylcia Pagan, adibidez– landua dute arrazaren, nazioaren, generoaren eta kartzelaren auzia. Mumia Abu-Jamal kazetari beltza, zeinak 1997an 15 urte egin baititu Pennsylvanniako heriotza-korridorean, heriotza-zigorren aurkari nagusietako bat bilakatua da, eta nazioartean

haren kasuaren inguruan antolatu den kanpaina zabalari esker ezagutu ditugu heriotza-zigorrari egiten dizkion kritikak.

A. Nazioarteko kartzela-aktibismoa

Askotan, erreforma penaltaren aldeko mugimendu transnasionalekin lotu izan dira preso politikoak babesteko nazioz haraindiko kanpainak. Amnistia Internazionalak (AI), presoen aldeko erakunde transnazionalik garrantzitsuena izanik, kontzientzia-presoa askatzea du helburu, hots, indarkeriarik erabili edo defendatu ez eta beren sinesmen, arraza, jatorri etniko, hizkuntza eta/edo erlijioaren kariaz espetxeratuak izan direnak. Alk kritika ugari jaso izan ditu historian zehar –esate baterako, Nelson Mandelaren kasuari ez heltzeagatik–, eta, orain, epaieketa justu eta lasterrak eskatzen ditu preso politiko guztientzat. Horrez gain, heriotza-zigorraren, torturaren eta presoen aurkako tratu krudel eta umiliagarrien aurka ere badihardu. AIren lanaren oinarrian dauden antolaketa-printzipioak Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik hartuak dira.

Beste erakunde transnazional batzuk NBERen politika espezi-fikoagoen inguruan antolatu dira. Nazioarteko Erreforma Penala gobernu kanpoko erakundeak, adibidez, NBERen Presoen Traturako Gutxieneko Arau Estandarretan (SMR) oinarrituriko kanpaina bat abiarazi du. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 1957an onartu zituen SMRak, kartzelaren eta presoen traturako baldintzen gaineko printzipio sorta zabal bat. Nozio hau dute oinarri SMRek: presoei, askatasuna ukatu arren, ezin zaizkie beren giza eskubideak kendu. Printzipiorik funtsezkoena hau da: krimenengatik kondenaturiko gizabanakoak kartzelara bidaltzen dira *zigor bat betetzeko*, eta ez *zigortuak izateko*. Alegia, askatasuna galtzean datza zigorra, eta ez instituzioak ematen duen tratuan. SMRen arabera, epaitegi batek gaizkile bati kartzela-zigorra ezartzen dionean, zigorra bera samingarria da berez, eta kartzelako kondizioek ez lukete berezko samin hori nahita areagotu behar. Alegia, kartzelak ezin ditu arriskuan jarri ez inoren bizitza, ez osasuna, ez segurtasun pertsonala.

Zehatzago, SMRek galdatzen dute kartzelak ahal duen guztian lagundu behar diela presoei kartzela-zigorra betetzen dutenean birgizarteratzen. Horregatik, kartzela-arau eta -erregimenek ez lituzkete areago mugatu behar presoen askatasunak, kanpoko harreman sozialak eta garapen pertsonalerako aukerak.

SMRek gomendatzen dute kartzela-erregimenek albait gehien murriztu behar dituztela kartzelako munduaren eta mundu askearen arteko desberdintasunak; izan ere, presoak mendeko izatea eta gizaki gisa duintasuna galtzea dakarte desberdintasun horiek. Orokorrean, kartzela-praktika onek ez lituzkete presoak areago bakartu behar komunitatetik; aitzitik, lagundu egin behar liekete komunitatearekin loturak izaten segi dezaten. Herrialde batzuek beren praktika penalen oinarritzat hartzen dituzte printzipio horiek –esate baterako, Herbehereek–; beste batzuek, aldiz, etengabe urratzen dituzte Gutxieneko Arau Estandarrak –besteak beste, AEBk–.

B. Kartzela-abolizionismoa

1982tik 1997ra bitartean, zortzi aldiz bildu ziren kartzelak abolitzearen aldeko kanpainetan parte hartzen duten nazioarteko zenbait aktibista eta akademiko. Hasieran, Kartzela Abolizioari Buruzko Nazioarteko Konferentzia izenpean elkartu ziren; 1987tik aurrera, ordea, beren defentsa abolizio penalaren auzira ere hedaturik, Abolizio Penalari Buruzko Nazioarteko Konferentzia (ICOPA) izena hartu zuen ekimenak. ICOPAk ez du soilik kartzelen aurka egiten; orobat proposatzen du zigor- eta erretribuzio-praktiken ordeztar daitezela bakegintza, adiskidetzea eta biktimen, gaizkileen eta komunitateen errehabilitazioa sustatzen dituzten justizia penaleko sistemak. Antzeko testuinguruetan aztertu dira orobat gizarte bakezaleetan krimenari heltzeko estrategia gandhi-tarrak eta eredu indigenak, ikasbideren bat ekar dezaketelakoan. ICOPA konferentziak Kanadan, Herbehereetan, Polonian, Costa Rican, AEBn eta Zeelanda Berrian antolatu dira, eta Herman Bianchi, Harold Pepinsky, Nils Christie, Louk Hulsman, Thomas Mathiesen eta Willem de Haan kriminologoak daude teorialari nagusien artean. Abolizio penalaren teoriak eta praktikak sustatzeaz gainera, sistema penalekin zerikusia duten gaien inguruko ekimen teoriko eta aktibistak ere bultzatzen dituzte. Zortzigarren Konferentziaren ondorioetan (Auckland, Zeelanda Berria, 1997), kartzelaren eta atxiloketaren pribatizazioari uko egin, eta kartzelatan eta kartzelen bitartez gertatzen diren hilketak bertan behera gera zitezela eskatu zuten.

C. Heriotza-zigorraren abolizionismoa

Kartzela-abolizionismoa diskurtso eta mugimendu xumea da oraindik ere; heriotza-zigorraren abolizionismoak,

aldiz, jarraitzaile ugari izan ditu XIX. mendean heriotza-zigorren aurkako kanpaina antolatu zenetik. Heriotza-zigorren aurkako kide historikoen artean, aipagarria da Cesare Becaria, mugimendu abolizionistaren sortzailea, baita Jeremy Bentham eta Victor Hugo ere. 1965erako, soilik 12 herrialdek abolitua zuten heriotza-zigorra; 1997rako, aldiz, 57k guztiz abolitua zuten, eta beste 15ek partez, salbu ezohiko delituetan (esate baterako, gerra-garaiko krimenetan). Heriotza-zigorri eutsi zioten 20 herrialdetan, dena den, ez da exekuziorik izan 10 urtean edo gehiagoan. Nolanahi ere, 1996an, Amnistia Internazionalaren dokumentazioaren arabera, gutxienez 5.300 preso exekutatu zituzten, 39 herrialdetan; gehienak Txinan (4.173 exekuzio), eta, haren atzetik, Ukrainan (167) eta Errusian (140). AEBn, 45 exekuzio izan ziren denbora-tarte horretan. Hegoafrikak 1995ean abolitu zuen heriotza-zigorra –apartheida amaitu aurretik, munduko exekuzio-tasa handienak zeuzkan–; Ameriketako Estatu Batuetan, aldiz, maiz ematen da heriotza-zigorraz akusaturikoak hiltzeko agindua. 1997an, 3.000 preso baino gehiago zeuden heriotza-korridorean, haietarik % 40 beltzak.

Luzaroan, heriotza-zigorra aplikatzean erabiltzen diren molde arrazistak izan dira heriotza-zigorren aurkako borrokaren elementu nagusia Ameriketako Estatu Batuetan. Heriotza-zigorren aurkariak aipatu izan dute 1930. urteaz geroztik koloreko pertsonen aurkakoak izan zirela exekuzio guztien % 54 eta beltzak zirela bortxaketatik exekutatutako pertsona guztien % 89, bortxaketa delitu larritzat hartzen zenean. 1972an, Furmanek Georgiaren aurka hasitako kasuan (408 U.S. 238), zeinean gizon beltz bat akusatu baitzuten lapurreta batean pertsona bat hiltzeagatik, AEBko Auzitegi Gorenak ebatzi zuen «diskriminatzailea» zela epaimahaiek erabakitzea zer akusatuk jaso behar zuten heriotza-zigorra. Furman kasuari esker, preso guztiak atera zituzten heriotza-korridoretik. Alta, gehiengoaren erabakiarekin bat egin zuten epaile gehienak Konstituzioko Hamalaugarren Zuzenketako prozedura justuarien printzipioan oinarritu zirenez –gutxiengo batek aldarrikatu zuen heriotza-zigorra krudela eta ezohikoa zela berez–, estatuak berehala hasi ziren printzipio ez-diskrezionalak eta ustez ez-diskriminatzaileak garatzen heriotza-zigorra aplikatzeko. 1972az

geroztik, heriotza-zigorrari buruzko lege berriak promulgatu ziren 31 estatutan.

Nahiz eta XX. mendearen amaieran heriotza-zigorraren defentsak atzera egin duen nazioartean eta Mendebaldeko herrialde industrializatu gehien-gehienetan abolitu duten, iritzi publikoa jasotzeko eginiko inkestetan ikusi da Ameriketako Estatu Batuetako jende gehiena heriotza-zigorraren alde dagoela oraindik ere, eta arrazoi horixe heltzen zaio hari eusten jarraitzeko. Dena den, era horretako inkestetako galderen egiturari erreparatuz gero, susmagarri gertatzen da haien fidagarritasuna. Hala, beste inkesta batzuetan ñabardura gehiagoko galderak egin direnean, adibidez, heriotza-zigorraren defendatzaile gehienek erantzun dute hiltzaileei biziarteko zigorra ezartzearen alde leudekeela baldin eta presoek beren kartzelaldian irabazitako dirua biktimen familientzat izanen balitz.

Bai nazioartean, bai AEBn, heriotza-zigorraren abolizionistak askoz antolatuago daude haren aldekoak baino. AEBn, kasu espezifikoek inguruan antolatzen da heriotza-zigorraren defentsa: hilketen biktimen familietako kideak jartzen dira heriotza-zigorraren aldeko kanpainen erdigunean, Washingtongo Lege Fundazioaren (WLF) eta halako prozeduren laguntzaz. Bestalde, hainbat erakundek ibilbide luzea eginga dute praktika abolizionistan; haien artean daude, besteak beste, Askatasun Zibilen Amerikako Batasuna, Koloreko Pertsonen Aurrerapenerako Elkarte Nazionalaren (NAACP) Lege Defentsaren eta Hezkuntzaren Funtsa, eta Heriotza Zigorra Abolitzeko Koalizio Nazionala.

VI. Ondorioa

Paradoxikoa bada ere, krimena gutxitzeko diseinaturiko zigor-moldeek berek –eta bereziki haien agerraldi biolentoak– indarkeria sustatzen eta betikotzen dute. Heriotza-zigorra estatuak onartzen duen indarkeriaren adibiderik muturrekoena besterik ez da; zigor-neurri arin anitz –konfinamendu bakartua, adibidez– ere indarkeria politikoa dira, eta gutxitan begiratzen zaie kritikotasunez, zeren ezkutatuta geratzen baitira kartzelaren mundua eta mundu askea banatzen dituzten muga fisiko eta ideologikoen azpian. AEBn, estatuko segurtasun goreneko kartzelen eta kartzela federalen helburua sistema

penaleko diziplina-arazoei heltzea izanik, kartzela-ordenarako arriskutsutzat jotako presoek konfinamendu bakartu jarraitua eta debeku sentsoriala –bisita- eta telefono-pribilegio izugarri murriztuak barne– ezartzearen inguruan egituratzen da haien eraikuntza eta zabalkundea. Gaur egun, beste herrialde batzuetara ere zabaltzen ari da AEBko «segurtasun goreneko kartzela» deiturikoen eredua. Bestalde, kartzelen pribatizazioaren fenomenoak gora egin ahala, enpresa pribatuek gero eta zigor gehiago ezartzen dizkiete presoek –epaiez harago–, eta erakunde publikoek baino are erantzukizun publiko txikiagoa hartzen dute. Alegia, zuzen-zuzenean urratzen dute NBERen Presoen Traturako Gutxienerako Arau Estandarren printzipio gidaria, hots, gizabanakoak *zigor bat* betetzeko bidaltzen direla kartzelara, eta ez *zigortuak* izateko.

Arlo penalean gobernu- eta korporazio-indarkeria desagerrarazteko lanean ari diren ikertzaile eta aktibistek kanpaina emankorrak antolatu dituzte kartzela-erreformaren eta -abolizioaren harira. Kartzela-erreformaren eta abolizioaren aldeko kanpainen arrakasta mugatua izan dute zenbait herrialdetan; izan ere, baliteke krimenaren ideologiak estali izana munduko hainbat eta hainbat lagun kartzela eta atxiloteta-zentroetara eramaten dituzten errealtate sozialak. Kartzelaren zabalkundea kritikatzear, ez litzateke alde batera utzi behar badirela indarkeriazko krimen lazgarriak egiteagatik kartzelaredo heriotza-zigorra jaso duten pertsonak, eta segurtasunaren garrantziari ere ez litzaioke muzin egin behar. Alta, arazo horiek ezin dira konpondu indarkeriazko ekintza ankerren egileak ideologikoki parekatuz krimen txikiagoak egiteagatik espetxeratuak edo kartzelan nagusi diren komunitateetako kide izateagatik kriminalizatuak diren herritarrekin. Gainera, barnerratzen badugu klase- eta/edo arraza-ezaugarrien arabera «kriminalak» etsaiak eta zigor –askotan– biolentzia merezi duten xede-taldea direla –eta fenomeno horrek jende errugabea espetxeratzea ekar dezake–, arreta desbideratzen da beste arazo sozial batzuetatik, hala nola pobrezia, etxebizitza-gabezia, hezkuntzaren eta osasun-sistemaren gainbehera eta droga-kontsumoa, eta, horrenbestez, arazo horiek konpontzeko beharrezkoa den energia kolektiboa galtzen da.

ZAZPI

KARTZELA PUBLIKOA ETA INDARKERIA PRIBATUA: ZENBAIT GOGOETA EMAKUMEEN AURKAKO ZIGOR EZKUTUAZ¹⁸⁷

Azken hogeita bost urtean, sexu-abusuari eta etxeko indarkeriari buruzko ikerketa eta aktibismo feministari esker, hainbat kanpaina eta zerbitzu abiatu dira –tokian-tokian, nazio mailan zein nazioarte mailan–, eta erresistentziaren kultura gero eta zabalago bat sortu da herritarren artean. Horri esker, agerian geratu da emakumeen aurkako indarkeriaren pandemia globala. Aldi berean, baina, askoz gutxiago garatu da kartzelan dauden emakumeen gaineko ikerketa eta aktibismoa. Nolanahi ere, beste auzi garrantzitsu batzuekin gurutzatuta egin da lan bi esparruotan, eta horren adibide dugu beren senar edo bikotekide erasotzaileak hiltzeagatik preso harturiko emakumeen aldeko amnistia-kanpaina. Bestalde, gaur egun, kartzelako emakumeei buruzko literaturaren gai nabarmenenetako bat da nolako garrantzia duten abusu fisikoek estatu-zigorraren subjektu diren emakumeen bizitzetan. Hala eta guztiz ere, elkarrengandik oso urruti daude etxeko indarkeriaren aurkako mugimendua eta kartzelako emakumeen aldekoa.

Kontuan hartuta AEBko kartzela-industria konplexuaren aroan izugarri ugaritu dela emakume presoen kopurua, beharrezkoa dugu aztertzea zer aukera dauden indarkeriaren aurkako mugimenduaren eta emakume presoen aldekoaren artean aliantza sakonagoak eta zabalagoak finkatzeko. Hortaz, artikulua honetan, etxeko indarkeriaren eta kartzelaren arteko lotura historiko eta filosofikoetako batzuk arakatuko ditut, biak

187 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *New England Journal on Criminal and Civil Confinement*, 24. lib., 2. zk. (1998ko uda), 339-351.

ere generoaren araberako zigorrak diren heinean: bata esparru pribatuan kokatzen da, eta bestea, esparru publikoan. Nire analisisian, beraz, proposatuko dut emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako mugimenduak oro har aitortzen zaion baino askoz lotura handiagoa duela emakume presoen aldeko mugimenduarekin.

Kartzela-erreformaren historiak paradoxa ugari ditu. Gaur egun, zigor publiko mota nagusia da, eta giza eskubideen urraketa larriekin lotzen da, baina, garai batean, eraberritze moral aurrerakoi baterako promestzat hartzen zen, eta, beraz, gorputz-oinazea helburu zuten zigorrak baino askoz hobeagotzat. Zigorraden, pikoten eta zepoen denboran, erreformistek argudiatu zuten kartzela alternatiba gizatiarragoa zela gorputz-zigor krudelak baino. Dena den, XIX. mendean, Europan eta AEBn gero eta ohikoagoa bazen ere legea urratzeagatik kondenaturiko gizonak (gehienbat zuriak) kartzelan sartzea eta ez torturatzea eta mutilatzea, emakumeen (emakume zurien) aurkako zigorra etxe barruko esparruko gorputz-indarkeriarekin hertsiki lotua zegoen oraindik ere. Indarkeriaren egitura patriarkal horiek hainbat modutan eragin zieten emakume beltzei ere, batik bat esklabotza-sistemaren bitartez. Gaur egun, erraza da ikustea nola XIX. mendeko zigor-erreformaren diskursoaren genero-eta arraza-mugen ondorioz guztiz baztertuta geratu zen etxe barruko tortura eta tortura publikoa elkarrekin lotzeko aukera, eta, horrenbestez, baita emakumeen gorputzen gaineko genero-indarkeriaren aurkako kanpaina bat abiatzekoa ere.

Batzuetan, dena den, zigor pribatuaren eta publikoaren arteko mugak lausoak ziren. Mugimendu erreformista sortu eta kartzela zigor nagusi gisa finkatu baino askoz lehenago, Herbehereetan bazen emakumeen kartzela bat: dokumentatua dagoen lehen kartzela da, izatez.¹⁸⁸ 1645ean ireki zuten Amsterdamgo Spinhuis espetxea, «beren guraso edo senarrek beren betebeharretan atxikitzea»¹⁸⁹ lortzen ez zuten emakumeentzat. Britainia Handian, XVII. mendean, maskarak –emakume hitzontzien bridak ere deituak– erabiltzen zituzten autoritate patriarkala errespeta-

188 Ikus Lucia Zedner, «Wayward Sisters: The Prison for Women», in *The Oxford History of the Prison*, arg. Norval Morris eta David J. Rothman (New York eta Oxford: Oxford University Press, 1998), 295.

189 Zedner, «Wayward Sisters».

tzen ez zuten emakumeak zigortzeko,¹⁹⁰ eta horrek ere erakusten du zein ahulak ziren esparru publikoaren eta pribatuaren arteko mugak:

Maskara burdinazko kaiola bat zen, buru gainean jartzen zena, eta gehienek ezten bat edo gurpil puntazorrotz bat izaten zuten, zigortuaren ahoan sartzen zena, «mihia eutsi eta kalapitari zaratsuenak isilarazteko». Kaiola ezteandun xedea bazter-nahasletzat hartzen ziren edo beren senarren kontrolpean ez zeuden emakumeak zigortzea zen. Zigorra aplikatzeko modurik ohikoa maskara emakumeari lotu eta era horretan herrian barrena desfilaraztea zen; batzuetan, desfilearen ondotik, zutabe bati kateatuta uzten zituzten denbora-tarte baterako. Halakoak zigor publikoak izan arren, guztiz lotuta zeuden etxe barruko menderakuntzarekin. Herri batzuetan, maskarak etxe barruan ere erabiltzeko akordioak egiten ziren... [G]izonek, askotan, mehatxu egiteko erabiltzen zuten maskara, beren emazteak isilarazten saiatzeko: «Ez badion mihia atsedean ematen, [herriko kartzelazainari] deituko zionat... eta hi lotzeko esanen zionat». Alegia, menderakuntza patriarkala eta estatuaren menderakuntza hertsiki estekaturik zeuden.¹⁹¹

Lehen erreformistak –John Howard edo Jeremy Bentham– ustez gorputzaren aurkako indarkeria gutxituko zuten zigor-sistemak aldarrikatzen hasi zirelarik, oinarritzat hartzen zenez emakumea esparru publikotik baztertu behar zela, ez zen sortu emakumeen aurkako indarkeria orokorraren aurka ere egiten zuen mugimendu erreformista bat. XX. mendearen amaierara arte ez zen garatu halako mugimendurik. Paradoxikoa bada ere, emakumeen aurkako eraso fisiko eta sexual «pribatuak» gero eta gehiago «krimintzat» hartzen diren arren eta horrenbestez zigor «publikoak» ezartzen diren arren, emakumeen aurkako kartzela-zigor «publikoa» ezkutu dago oraindik ere, beti bezala. Era berean, emakume askok eta askok –berezi ki koloreko emakumeek– kartzela-zigor publikoa ez ezik beren harreman intimoetako eta familia-harremanetako indarkeria sufritzen dute. Alta, bi zigor-moduak elkarrengandik bereiz ageri dira herritarren zein ikertzaileen diskurtsoan, duela mende bat baino gehiago bezalaxe.

Gaur egun, egiturazko arrazakeria gero eta errotuago eta aldi berean gero eta ezkutuago dagoen heinean, bi zigor-modu

190 Ikus Russell P. Dobash *et al.*, *The Imprisonment of Women* (Oxford: Basil Blackwell, 1986), 19-20.

191 Dobash *et al.*, *Imprisonment of Women*.

horiek elkarrekin estaltzen dute arrazakeriak koloreko emakume pobreengan duen eragina. Etxeko indarkeria gutxitan ikusten da estatuen zigor-moduekin hertsiki loturiko zigor gisa. Azkenaldiko hainbat ikerketatan, aitortzen da kartzelan dauden emakume preso anitzek familia-indarkeria bizi izan dutela. Joanne Belknapek *The Invisible Woman: Gender, Crime, and Justice* lanean aztertu zuen nolako eragina duen justizia penalaren sistemak emakumeengan, oso modu argigarrian analizatuz hala kartzela nola tratu txarrak.¹⁹² Bera kriminologoa izaki, baina, «emakume gaizkileak» eta «emakume biktimak» kategoriak bereizi zituen, nahiz kategorio horiek gutxitan hartzen diren kontuan diskurtso kriminologiko eta juridikoetan.¹⁹³ Emakumeen espetxeratzea aztertu zuelarik, emakume presoak «emakume gaizkiletzat» hartu zituen; emakumeen aurkako indarkeria matxista aztertzean, berri, krimenen «biktimatzat».¹⁹⁴ Lehen kategoriaren arabera, emakumeak erasotzaileak dira; bigarrenaren arabera, biktimak. Belknapek kritika feminista esanguratsuak egin zituen kriminologiako teoria tradizionalari, bai eta argi azaldu ere emakumeek gehiago sufritzen dutela kartzela-praktiken ondorioz gizonen baino. Horrez gain, ohar interesgarriak ekarri zituen gizonen indarkeriaren erabateko ikusezintasunaz, are gai horri buruzko kanpainak, zerbitzuak eta teorizazio feministak hedatzen ari ziren garaian. Haatik, Belknapek bere artikuluan iradoki zuen sakonago pentsatu beharko genukeela botere patriarkalaren zirkuituez, hasi estatutik eta etxeraino, elkarrengandik guztiz bereiz baitaude «publikoaren» eta «pribatuaren» arteko banaketa ideologikoaren eraginez, eta, ondorioz, emakumeen aurkako zigorraren konplexutasunak ikusezin bihurtuak dira.

1983an, emakumeen aurkako zigor publikoaren eta pribatuaren osagarritasunean ezarri zuen azpimarra Pat Carlenek, *Women's Imprisonment: A Study in Social Control* lanean.¹⁹⁵ Eskoziako Cornton Vale emakume-kartzelari buruzko kasu-azterketa horretan, Carlenek aldarrikatu zuen ezen, etxeko bizimodua eraitzeko, kartzela-praktiken sorrera bezain garrantzitsuak direla

192 Ikus Joanne Belknap, *The Invisible Woman: Gender, Crime, and Justice* (Belmont, CA: Wadsworth Publishing, 1996).

193 Ikus Belknap, *Invisible Woman*.

194 Ikus, oro har, Belknap, *Invisible Woman*.

195 Pat Carlen, *Women's Imprisonment: A Study in Social Control* (Londres: Routledge eta Kegan Paul, 1983).

–eta maiz haien antzekoak eta haiekin sinbiotikoki lotuak– etxe barruko diziiplina informal biolentoa zein ez-biolentoa, eta paraleloki garatu direla bata nola bestea:¹⁹⁶ «Oro har, emakume desbideratuen erregulazio penalaz arduratzen zirenen goiburua “diziplinatu, medikalizatu eta feminizatu!” izan da. Emakumeen espetxeratzearen ezaugarriak, bai Britainia Handian, bai AEBn, ikusezintasuna, etxekotasuna eta infantilizazioa izan dira beti».¹⁹⁷ Eskoziako Cornton Valeko preso gehienak langile-klaseko emakume zuriak dira, eta, Carlenek dioenez, neurri handi batean klaseak baldintzatzen du menderakuntzaren ardatz publikoaren eta pribatuaren arteko gurutzaketa. Nahiz eta Carlenek arrazaren eraginari berebiziko garrantzirik ez eman bere ikerketan –ez du esan nahi arrazak garrantzi txikiagoa duenik emakume zurien espetxeratzea ulertzeko, koloreko emakumeen espetxeratzea ulertzeko baino–, gogorarazi beharko genuke Europako eta AEBko hiriguneetako emakume preso gehien-gehienak arrazialki marjinaturiko komunitateetakoak direla. Carlenek «familia-diziplinaren esparru pribatua eta publikoa emakume desbideratuen erregulazio penalarekin uztartzearen aitortza nominala»¹⁹⁸ izendatzen duen hori askoz konplexuagoa da arraza kontuan hartuz gero.

Beth Richie soziologoa ere saiatu da emakumeen aurkako zigor pribatua eta publikoa uztartzen, berak «genero-tranpa» deritzona aztertuz. Haren ustez, emakume beltzak, askotan, «krimenak egitera behartuta» daude, eta, ondoren, beren harreman pertsonalen barreneko indarkeriaren mendekotasun-baldintza berberetan espetxeratzen dituzte. Honelako emakumeak ditu mintzagai Richiek:¹⁹⁹

Errenta baxuko komunitateetako emakume afro-amerikarrak tratatu txar fisikoak, sexu-erasoak eta tratatu txar psikologikoak jasaten dituzte, eta legez kanpoko ekintzak egiten dituzte. Haien istorioek argi eta garbi gezurtatzen dute gizartean aski zabaldua dagoen uste bat –gizarte-zientzietako aditu, gizarte-zerbitzuen hornitzaile, politika publikoaren analista eta legegile nagusiek

196 Ikus Carlen, *Women's Imprisonment*, 18.

197 Carlen, *Women's Imprisonment*.

198 Carlen, *Women's Imprisonment*, 86.

199 Beth E. Richie, *Compelled to Crime: The Gender Entrapment of Battered Black Women* (New York: Routledge, 1996), 2.

hauspotua-: emakumeen gabezia psikologiko, moral eta sozialerako zor zaiela emakumeen aurkako indarkeria, pobrezia, adikzioa eta emakume delitugileen kopurua areagotzea.²⁰⁰

[K]artzela erreformatzearen eta haren funtzionamendua kontrolatzaren aldeko mugimendua ez da fenomeno berria. Ez dirudi, gainera, porrot bat onartzearen ondorioz sortu denik. Kartzela-«erreforma» kartzelaren beraren garai berekoa da: nolabait esateko, haren programaren parte da. Hasieratik, mekanismo jakin batzuetan harrapatuta geratu zen kartzela, nahiz eta mekanismo horien xedea kartzela hobetzea izan itxura batean; baina, berez, kartzelaren beraren funtzionamenduaren parte ziren, eta, kartzelaren historia luzean, lotura estua izan dute harekin.²⁰¹

Bestela esanda, kartzela-erreformaren aldeko kanpainen, fokua gizon zein emakumeentzako instituzioetan jarritz, kartzelak hobetzeko eskea egin izan da, baina gutxitan jarri da auzitan kartzelak zigor-modu nagusia izatea. Hala, erreformak finkatu ahala, kartzelak gero eta sendoagoak izan dira estrukturaliki eta ideologikoki. Gaur egun, AEBn zigorra bere horretan industria bilakatua delarik eta gobernuaren eta enpresa transnazionalen arteko loturak sendotu direlarik industria militarren konplexuaren ispilu bilakatuz eta hura indartuz, zaila da zalan-tzan jartzea ea beharrezkoak diren halako tamainako kartzelak eta ea orobat beharrezkoa den halako makineria militar eskerga.

XIX. mendean, Ingalaterran eta AEBn emakumeentzako kartzela beregainak eskatzeko mugimendu erreformista sortu zelarik, Elizabeth Fry, Josephine Shaw eta beste erreformista batzuk emakume kriminalak errehabilitazio moralaren irismenetik kanpo zeudelako ideia nagusiaren aurka agertu ziren. Haien ustez, posible zen generoaren arabera banaturiko kartzela-erregimenen bitartez emakume presoak ere aldatzea eta izaki moral bilakatzea, gizon presoak bezalaxe, zeinak antza denez kartzela-erregimen zorrotzetan «zentza» baitzitezkeen. Erreformistek proposaturiko erreforma-programan, arkitektura-aldaketak, erregimen domestikoak eta kartzelazain guztiak emakumeak izatea eskatu zuten,²⁰² eta, azkenean, emakumeen kartzelak

200 Richie, *Compelled to Crime*.

201 Foucault, *Discipline and Punish*.

202 Ikus Estelle B. Freedman, «Feminist of Feminine? The Establishment of Separate Women's Prisons, 1870-1900» eta «The Women's Prison Environment», in *Their Sisters' Keepers: Women's Prison Reform in America, 1830-1930*, 3. eta 4. kapituluak (Ann Arbor: University of Michigan Press, 1981): 46-88.

gizonenak bezain tinko ainguratuta geratu ziren paisaia sozialean. Haien nolabaiteko ikusezintasuna, batetik, etxe-esparrua emakumeen aurkako zigor publikoaren bidez errepikatzearen isla zen, eta, bestetik, baita instituzio berriotan espetxeraturiko emakumeen kopuru erlatiboki txikiarena ere.

Ingalaterran eta AEBn, zigor publikoaren feminizazioa emakume zuriak erreformatzeko diseinatu zuten esplizituki. 1853an sortua da Ingalaterrako lehen erreformatorioa, Londresen, eta handik hogeita bat urtera zabaldu zuten emakumeentzako lehen erreformatorioa AEBn, Indianan.²⁰³ Richiek honela azaltzen du:

[H]elburua presoak etxekotasunaren emakume-rol «garrantzitsuan» trebatzea zen. Hala, emakumeen kartzeletako mugimendu erreformistaren alderdi nagusietako bat izan zen genero-rol «egokiak» sustatzea eta txertatzea, hala nola kozinatzea, jostea eta garbiketak egitea. Xede horietarako, sukaldia, egongela eta, are, preso haurrentzako haurtzaindegia izaten zituzten erreformatorioetako etxolek.²⁰⁴

Zigor publiko feminizatu hark, dena den, ez zuen eragin bera izan emakume guztiengan. Erreformatorioetan espetxeratzten zituzten emakume beltzak emakume zuriengandik bereiz kokatzen zituzten maiz. Gainera, neurriz gaineko kondenak jaso eta gizonen kartzeletara eraman ohi zituzten. Gerra Zibilaren ondotik, Hegoaldeko estatueta emakume beltzek preso enrentamendu-sistemaren krudelkeriak sufritu zituzten, eta zigorraren feminizazioak ez zuen lagundu krudelkeria horiek leuntzen; haien zigorrak eta lan behartuak bere horretan mantendu ziren, genero-arrazoiak gorabehera. XX. mendean AEBko kartzela-sistema garatu ahala, zigor-molde feminizatuak –etxola-sistema, etxeko lanetarako trebakuntza, etab.– emakume zuriak ideologikoki erreformatzeko diseinatu ziren; koloreko emakumeak, aldiz, zigor publikoaren eremura baztertu zituzten neurri handi batean, haiei inongo feminitate eskaintzeko asmorik batere gabe.

Bestalde, Lucia Zednerrek ohartarazi duen bezala, beren zigorrak erreformatorioen sisteman bete behar zituztenez, emakumeek gizonen baino egonaldi luzeagoak egin behar izaten zituzten maiz antzeko delituengatik: «Desberdintasun hori

203 Ikus Belknap, *Invisible Woman*, 95.

204 Richie, *Compelled to Crime*.

azaltzeko, oinarritzat hartu zuten emakumeak ez zituztela erreformatorioetara bidaltzen beren delituen larritasunaren neurriko zigorra jaso zezaten, baizik eta erreformatuak eta birtrebatuak izan zitezen, eta horrelako prozesu batek, esaten zutenez, denbora eskatzen zuen».²⁰⁵ Era berean, dio Zednerrek, emakumeak gizonak baino epe luzeagoetarako espetxeratzeko joera areagotu egin zen mugimendu eugenesisikoaren eraginez: ««[G]enetikoki beherago» zeuden emakumeak gizartearen zirkulaziotik kanpo utzi nahi zituzten haurrak izateko adinean, ahalik eta denbora luzeenean».²⁰⁶ Nicole Rafter-en arabera, baliteke arrazakeria ez izatea XIX. mendeko kriminologia eugenesisikoa azaltzeko faktore nagusia,²⁰⁷ baina, hala eta guztiz ere, zuriaren normaltasuna eta zuriaren desbideratzea –urritasun intelektuala, kriminalitatea, desgaitasun fisikoa, etab.– elkarren aurka jarrita definitzen zituzten diskurtso eugenesisikoak arrazakeriaren bazterkeriaren logika berberean oinarritzen ziren, eta, horrenbestez, aise birmoldatu eta erabil zitezkeen xede arrazistetarako.

XX. mendearen azken urteetan, emakumeen kartzelek gizonezkoenen antz gero eta handiagoa hartu dute, batik bat kartzela-industria konplexuaren garaian eraikitakoek. Zigorren arloan ere enpresak sartu ahala –ekoizpen militarren arloan bezala–, errehabilitazioa baztertu eta desgaitzerako helburu penalak lehenetsi dira. Gaur egun, kartzela eta atxiloteta-zentroetako populazioa bi milioira hurbiltzen ari delarik, emakume presoek kopurua fiteago ari da emendatzen gizonena baino. Elliot Currie kriminologoak honela dio:

Bigarren Mundu Gerraren ondoko garaia zati gehienean, emakume espetxeratuak indizea 100.000tik 8koa zen gutxi gorabehera; ez zen bi digituko kopuruetara iritsi 1977ra arte. Gaur egun, 100.000tik 51koa da... Gaur egungo abiaduran igotzen jarraituz gero, 2010ean emakume gehiago egonen da AEBko kartzeleetan 1970ean bi sexuetako presoak batuta baino. Arrazaren eta generoaren eragina elkartzen direlarik, are nabarmenagoa da nondik datozen preso-populazioan gertatzen diren aldaketak. Gaur egun, emakume beltz presoek kopurua gorago dago 1980ko –duela gutxi–ko gizon zuriena baino.²⁰⁸

205 Zedner, «Wayward Sisters», 318.

206 Zedner, «Wayward Sisters».

207 Ikus Nicole Hahn Rafter, *Creating Born Criminals* (Urbana: University of Illinois Press, 1998), 50.

208 Elliott Currie, *Crime and Punishment in America* (New York: Metropolitan Books, 1998), 14.

Duela mende laurden bat, Atticako matxinadaren eta George Jacksonen San Quentineko hilketaren garaian, kartzela-sistemaren aurkako mugimendu erradikalak garatu ziren, estatu-indarkeriaren eta -errepresioaren gune nagusia zelakoan. Partez emakume presoek mugimendu hartan izan zuten ikusezintasunaren aurkako erreakzio gisa, partez emakumeen askapenaren aldeko mugimenduaren gorakadaren ondorio gisa, emakume presoek eskubideak defendatzeko kanpaina espezifikoa sortu ziren. Kanpaina haietako askok kritika erradikalak egin zitzioten—eta egiten dizkiote oraindik ere—estatu-errepresio eta -indarkeriari; espresuki presoek komunitatean garaturikoek, berriz, genero-berdintasunaren gaineko ikuspegi liberalen eragin handia izan dute.

XIX. mendeko mugimendu erreformista ez bezala—hura genero-desberdintasunaren ideologian oinarritzen baitzen—, XX. mendearen bukaerako «erreformak» «bereiz baina berdin» ereduari lotu zaizkio. Ikuspegi hori, askotan, kritikotasunik gabe aplikatu da; are, paradoxikoa bada ere, erdua berregokitu eta baldintza errepresiboagoak eskatu dira, emakumeentzako instalazioak gizonen «berdinak» izan daitezten. Adibidez, Tekla Dennison Miller-en aburuz—Michigango Huron Valleyko Emakume Kartzelako buru ohia izan zen—, berak 1980ko hamarkadan berdintasunaren alde eginiko borroka arras feminista izan zen, baina aise igartzen zaio bere ikuspegiaren planteamendu problematikoa segurtasunaz diharduenean:

Huron Valleyko Emakume Kartzelan askoz langile gutxiago zegoen gizonenean baino. Inauguratu zenean... [E]makumeenean ez zegoen patio-zaindaririk, eta are gutxiago patio-sarjenturik, presoek mugimenduak eta patioak jarduerak zaintzeko. Patioak presoek arteko erasoetarako gune kutunak dira. Kartzelazain-laguntzaile bakarra zegoen; gizonenean, berriz, bi zeuden, bata segurtasunerako eta bestea logeletarako. Gizonen bulego nagusiaren kudeatzaileek zera zioten: «Emakume presoak ez dira inongo mehatxua segurtasunerako. Gogaikarriak dira, eta azazkalak margotzea eta ondasun pertsonalak lortzen tematzea besterik ez dute buruan. Logelarako kartzelazaina behar dute, ez segurtasunerako.²⁰⁹

209 Tekla Dennison Miller, *The Warden Wore Pink* (Brunswick, ME: Biddle Publishing, 1996), 97.

Genero-berdintasunaren aldeko bere kanpainan, Miller-ek arma-banaketa desorekatua ere kritikatu zuen segurtasunaren alorrean:

Gizonen kartzeletako armategiak gela zabal-zabalak dira, eta apalak mukuru beteak dituzte eskopetaz, pistolaz, munizioz, gas-botilaz eta istiluen aurkako materialez... Huron Valleyko Emakume Kartzelako armategia txikia zen, metro eta erdi luzerako eta metro erdi zabalerako armairu bat, eta, armairu barruan, bi errifle, zortzi eskopeta, bi zezenadar, bost pistola, lau gas-botila eta hogeit hamar sorta zeuden.²¹⁰

Behin, preso bat ihes egiten saiatu eta txarrantxatik gora igo zen; beste aldera salto egin zuelarik harrapatu zuten, eta albistegi lokaleko kazetari batek –«ustekabeko aliatu bat parekidetasunaren aldeko borrokan», Miller-ek esan zuenez– zalantzan jarri zuen emakume iheslarien aurka ohartarazpen gisa tiro ez egiteko politika.²¹¹ Azalpen hau eman zuen Miller-ek:

[Segurtasun] goren edo ertaineko kartzeletako emakume preso iheslariak gizonak bezalaxe tratatzen dira. Tiro bat botatzen da abisu gisa. Presoa geratzen ez bada eta hesiaren beste aldera salto egiten badu, ofizialak baimena du tiro egin eta presoa zauritzeke. Ofizialaren bizitzaren arriskuan badago, hiltzeko ere egin dezake tiro.²¹²

Paradoxikoki, gizonen kartezelekiko berdintasuna eskatzeak ez du ekarri emakume presoek hezkuntza-, lan- eta osasun-aukera gehiago izatea; aitzitik, askotan, neurri errepresiboagoak hartu dira haien aurka. Hori ez da gertatu soilik berdintasun-nozio liberalak –hots, formalistak– hedatzearen ondorioz; are, askoz arriskutsuagoa da gizonen kartezelek zigorraren arau gisa funtzionatzea. Miller-ek kontatu zuen nola saiatu zen eragozten preso batek –zigor luzea betetzen ari zen «hiltzaile» batek, haren hitzetan– Michigango Unibertsitateko graduazio-ekitaldian parte har zezan.²¹³ (Jakina, ez zuen azaldu zer hilketa-kargu leporatzen zizkieten emakume hari; hots, ea, adibidez, tratatu txarrak ematen zizkion bikotekidea hiltzeagatik espetxeratu ote zuten, hilketaz akusaturiko beste emakume anitz bezalaxe.) Miller-ek ez zuen lortu emakume preso hark gradua-

²¹⁰ Miller, *Warden Wore Pink*, 97-98.

²¹¹ Miller, *Warden Wore Pink*, 100.

²¹² Miller, *Warden Wore Pink*, 100.

²¹³ Ikus Miller, *Warden Wore Pink*, 121.

zio-ekitaldian ez parte hartzea, baina, nolanahi ere, togarekin eta birretarekin batera zangoetako kateak eta eskuburdinak ere eraman behar izan zituen.²¹⁴

Bada parafernalia errepresiboaren erabileraren beste adibide are zabalduago bat, zerikusia duena gizon presoek historikoki emandako tratua emakume presoek «berdintasuna» lortzeko erabiltzearekin: 1996an, Alabamako Kartzela Ordezkaritzak erabaki zuen emakumeak katez lotzea.²¹⁵ 1995ean, Alabama lehen estatua izan zen preso kateatuen sistema berreskuratzen, eta, hala, Alabamako Estatu Kartzelen ordezkarik Ron Jonesek jakinarazi zuen hurrengo urtean Julia Tutwiler Emakumeen Estatu Kartzelako emakumeak katez lotuko zituztela belarra moztan, zaborra biltzen eta baratzea lantzen zuten bitartean. Neurri batean, gizon presoek eskaerei erantzunez saiatu ziren emakume preso kateatuen sistema ezartzen, zeinek salatu baitzuten gizon preso kateatuen sistemak beren generoarengatik diskriminatzen zituela gizonak. Jakinarazpena egin orduko, baina, Jones kargu-gabetu zuen Fob James gobernadoreak; zalantzarik gabe, Jones horretara behartu izanen zuten, Alabama AEBko estatu bakarra izan ez zedin preso kateatuen sistema parekide bat izatearen ohore zalantzagarrria bizkar gainean zeukana.

Alabamako emakume preso kateatuen saialdi lotsagarritik lau hilabetera, Arizonako Maricopa konderriko sheriffak, Joe Arpaio –«Amerikako sheriff gogorrena» zen, hedabideen arabera–, prentsaurreko batean adierazi zuen «aukera-berdintasunaren kartzelazaina» izan nahi zuela eta horrenbestez emakume preso kateatuen lehen sistema ezarriko zuela konderrian.²¹⁶ Plana inplementatu zenean, Phoenixeko karrikak garbitzen ari ziren emakume kateatuen talde baten argazkia zabaldu zuten herrialdeko egunkarietan. Publizitate-trikimailu bat kritikatzeko antzera kritikatu izan da Arpaio sheriffak emakume presoek aplikaturiko politika, baina kontua da emakume presoek aurkako errepresioaren gorakada orokortu baten testuinguruan etorri dela emakume preso kateatuen sistema –kontuan izan se-

214 Ikus Miller, *Warden Wore Pink*.

215 Ikus Curtis Wilkie, «Weak Links Threaten Chain Gangs: Revised Prison Work Program Facing Voter Disapproval, Inmates' Legal Action», *Boston Globe*, 1996ko maiatzaren 18a.

216 Ikus *48 Hours*, «Arizona Sheriff Initiates Equal Opportunity by Starting First Chain Gang for Women» (CBS telebistako programa, 1996ko irailaren 19a).

gurtasun goreneko kartezelekin batera segurtasun-unitateak ere ugaritu direla– eta horrek alarma piztu beharko lukeela. Gaur egungo emakume preso gehienak koloreko emakumeak direnez, emakume kateatuen irudiak ikusten ditugularik ez genituzke begi-bistatik galdu behar esklabotzaren, kolonizazioaren eta genozidioaren oihartzun historikoak.

Emakumeen kartezeletako errepresioak gora eta, paradoxikoki, etxeko kartzela-erregimenen eraginak behera egin heinean, sexu-abusua –emakumeen aurkako zigor pribatizatua–ren beste alderdi bat, etxe barruko indarkeria bezala– kartzelako hormen atzeko zigorraren osagai instituzionalizatu bat da gaur egun. Kartzelazainek presoen aurka sexu-abusuak egiten dituztela bere horretan onartzen ez bada ere, funtzionario delitugileek barkaberatasun erabatekoa izaten dute; alegia, susma daiteke gizartean orokortua dagoen sexu-indarkeriaren mehatxua ohiko ezaugarria dela eta onartuta dagoela kartzelako hormen atzeko zigorraren paisaia.

Giza Eskubideen Behatokiak zera adierazi du duela gutxi AEBko emakumeen kartezeletako sexu-abusuez aurkezturiko txosten batean:

Gure ondorioen arabera, esperientzia ikaragarria izan daiteke AEBko estatu-kartezeletako emakume presoak izatea. Sexu-erasoren bat egiten badiete, ezin dute beren erasotzailearengandik ihes egin. Kexa- edo ikerketa-prozedurak, halakorik badago, eragingabeak izan ohi dira, eta kartzelako enplegatuek erasoak egiten jarraitzen dute, bai baitakite ez dietela ardura administratibo edo penalik eskatuko. Kartzelako hormetatik kanpo, gutxiak dakite zer gertatzen den, eta, baldin badakite, ez zaie axola. Are gutxiago dira arazoari heltzeko zerbaite egiten dutenak.²¹⁷

All Too Familiar: Sexual Abuse of Women in US. State Prisons txostenaren laburpeneko pasarte honetan ikusten da zenbateraino sartu den sexu-indarkeria emakumeen kartezeletan eta nola erreproduzitzen den emakume anitzen bizitza pribatuko familia-indarkeria:

Jakin dugu kartezeletako gizonezko enplegatuek baginatik, ipurditik eta ahotik bortxatzen dituztela emakume presoak eta sexu-erasoak eta -abusuak egiten dizkietela. Jakin dugu ezen, jokabide makur horiek egi-

217 Giza Eskubideen Behatokia, *All Too Familiar: Sexual Abuse of Women in U.S. State Prisons* (New York: Human Rights Watch, 1996), 1998ko maiatzaren 31n ikusia.

ten dituztelarik, indar fisikoa erabili edo horren mehatxua egiteaz gainera beren autoritate ia erabatekoa baliatzen dutela funtzionario gizonetzkoek emakume presoiei ondasunak eta pribilegioak emateko edo ukatzeko, sexu-harremanak izatera behartzeko edo, bestela, sexu-harremanak izatea saritzeko. Beste batzuetan, funtzionario gizonetzkoek, beren betebeharrak oinarritzekoena urratuz, mehatxurik edo indarrak erabili gabe edo inongo truke materialik eskaini gabe ere sexu-harremanak izaten dituzte emakume presoekin. Emakume presoekin sexu-harremanak izateaz gain, arauzko gorputz- edo ziega-miaketak aprobetxatzen dituzte emakumeei bularrak, ipurdia eta alu ingurua ukitzeko, edo ziegan edo bainugelan biluzarazi eta lizunki begiratzeko. Kartzeletako funtzionario eta enplegatu gizonetzkoek, bestalde, ahozko irainak eta jazarpenak egiten dituzte emakume presoen aurka; alegia, emakumeentzako estatu-kartzeletako zaintza-giroa nabarmen sexualizatua eta sobera etsaikorra da maiz.²¹⁸

Giza Eskubideen Behatokiaren txostenaren arabera, emakumeen kartzeletako sexu-abusuek AEBko Konstituzioa eta giza eskubideen arloko nazioarteko legedia urratzen dituzte.²¹⁹ 1998ko udan, emakumeen kartzelak berriz bisitatu zituen NBEko emakumeen aurkako indarkeriaren errelatore bereziak, eta horrek garbi uzten du zein garrantzitsua den emakume espetxeratuen baldintzak indarkeriaren aurkako mugimenduaren testuinguruan kokatzea eta are giza eskubideen esparru zabalagoan ere txertatzea. Linda Burnhamek dio:

Giza eskubideen paradigmaren xedeak hauek dira: emakumeen auziak giza eskubideen diskurtsoaren erdigunean kokatzea; emakumeen auziak kontu pribatutzat hartzeko joera ezeztatzea; eraginkortasuna eta erantzukizun-egitura bat eskaintzea emakumeen aurkako zapalkuntzaren auzian, estatua kontuan hartuta baina soilik estatua mugatu gabe; eta esparru politiko orokor bat eskaintzea emakumeen auzi guztiak eta haien identitate eta zirkunstantzia sozial askotarikoak elkarren artean lotzeko.²²⁰

AEBn, gaur egun, kartzelako emakumeen aurkako sexu-abusua da giza eskubideen arloan estatuak onarturiko urraketen artean ankerrenetako bat. Gure gizartean, emakume presoak dira beren eskubideez modu nabarmenenean gabetu eta ikusezinen bihurturiko herritar helduak. Estatuak haien gainean daukan botere eta kontrol absolutua mende askoan emakumeen menderakuntza soziala ekarri duten egitura patriarkal eta arra-

218 Giza Eskubideen Behatokia, *All Too Familiar*, 2.

219 Ikus Giza Eskubideen Behatokia, *All Too Familiar*.

220 Linda Burnham, «Beijing and Beyond», *CrossRoads*, 1996ko martxoa, 16.

zistetatik eratorria da, eta, hala, egitura horiek betikotzen dira. Kartzela-industria konplexuak estatu-zigorraren jomuga bilakarazi nahi ditu komunitate batzuk oso-osorik, eta, mehatxu horri aurre egiteko, emakume espetxeratuen ehunekoa –erlatiboki txikia, baina arrapaladan hazten ari dena– ezin da aitzakia gisa erabili emakumeen aurkako zigorraren sare konplexuari ez ikusiarena egiteko. Abagune egokia izan liteke giza eskubideen aldeko nazioarteko mugimenduekin aliantzak egiteko eta loturak sortzeko.

4. ZATIA

**KARTZELA
BIRPENTSATZEA:
KARTZELA-INDUSTRIA
KONPLEXUA
IDENTIFIKATZEA**

ZORTZI

ARRAZAKERIA ESTALIA: KARTZELA-INDUSTRIA KONPLEXUARI BURUZKO GOGOETAK²²¹

Kartzela da, gaur egun, pobrezian harrapaturiko jendearen arazo sozial itogarri gehiegiei ematen zaien erantzun nagusia. Arazo horiek, maiz, ezkutuan geratzen dira, «krimen» kategoriaren aterkipean komenentziaz bildu eta jokabide kriminalak automatikoki koloreko pertsoneri egozten zaizkielako. Besteak beste, etxegabezia, langabezia, droga-mendekotasuna, gaixotasun mentalak eta analfabetismoa guztion begi-bistatik desagertzen dira arazo horiei aurre egin behar dieten pertsonak kaiolatan sartzen dituztenean.

Kartzelek, beraz, magia egiten dute. Are gehiago, etengabe kartzela berriak eraikitzeke bonuak²²² erosi eta isilbidez kartzela eta atxiloketa-zentroen sare oparoa onesten duen jendea engainatu dute kartzelaren magia sinets dezan. Kartzelek ez dituzte, ordea, arazoak desagerrarazten, baizik eta pertsonak. Eta komunitate pobre, migratzaile eta arrazialki marjinatuetako pertsonak trumilka desagerrarazteko praktika negozio handi bilakatua da gaur egun, bere horretan.

Magiaren itxurazko xalotasunaren azpian, isilpean eginiko lan eskerga ezkututzen da. Kartzelek pertsonak desagerraraz ditzaten –arazo sozialak konpontzen ari direla itxuratu nahian betiere–, azpiegitura penalak sortu behar dira, hartara biziki hazten ari den herritar kaiolatuen populazioari leku egiteko.

221 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *Colorlines*, 1. lib., 2. zk. (1998ko udazkena).

222 Kartzela-bonuak (*prison bonds*) kartzelak eraikitzeke finantza-produktuak dira, kredituen gisakoak. Kartzela bat eraiki nahi dutenean, bonuak ateratzen dituzte, jendeak eros ditzan, eta era horretan finantzatzeko kartzela berria. Gero, bonuak ordaindu dituztenen artean banatzen dira kartzelaren irabazi-etekinak, baldin eta halakorik badago. (Itzultzailearen oharra).

Ondasunak eta zerbitzuak eskaini behar dira kartzeletako populazioak bizirik mantentzeko. Batzuetan, lanpeturik atxiki behar dira populazio horiek, eta, beste batzuetan –bereziki segurtasun goreneko kartzela errepresiboetan eta INSren atxiloketa-zentroetan–, jarduera garrantzitsu ia guztiak ukatu behar zaizkie. Makina bat preso eskuburdinez eta katez loturik lekualdatzen dituzte estatu-mugez harago, estatu-kartzela edo kartzela federal batetik beste batera aldatzen dituztenean.

Lan hori guztia gobernuaren esku egoten zen lehen; orain, aldiz, enpresa pribatuak sartu dira tartean, eta eufemistikoki «zentzategi» deritzenen esparruan gobernuarekin dituzten loturak industria militarren konplexuaren oihartzun arriskutsua dakar. Zigorren industrian inbertituz metatzen diren dibidenduek, armen ekoizpenean inbertituz metatzen direnek bezalaxe, gizartea suntsitzen jarraitzea besterik ez dakarte. Kontuan hartuta zer antzekotasun estruktural dauden eta zein errentagarria den enpresak eta gobernuak elkar hartuta aritzea ekoizpen militarren eta zigor publikoaren arloetan, sistema penalaren zabalkundea «kartzela-industria konplexu» izenda liteke gaur egun.

Ia bi milioi lagun daude gaur egun AEBko kartzela eta atxiloketa-zentroen sare erraldoian giltzapetuta. Kartzelako populazioaren % 70 baino gehiago koloreko pertsonak dira. Gutxitan aipatzen da gehien hazten ari den preso-taldea emakume beltzena dela eta *per capita* talde ugariena, berriz, amerikar nati-boena. Bost milioi lagun inguru daude zuzen-zuzenean justizia penalaren sistemaren zaintzapean, baldintzapeko edo zaintzapeko askatasuna lortu dutenak ere barne hartuta.

Duela hiru hamarkada, gaur egungoaren zortziren bat zen gutxi gorabehera kartzelako populazioa. Emakumeek burdin barren atzean daudenen ehuneko nahiko txikia osatzen dute oraindik, baina Kaliforniako emakume presoek kopurua, adibidez, AEBko 1970eko emakume presoek populazio osoa halako bi da kasik gaur egun. Elliot Curriek zera dio: «Kartzela nonahiko presentzia bat da gaur egun gure gizartean, gure historian –eta orobat beste demokrazia industrialetan– sekula ez bezala. Gerra handiak kontuan hartu gabe, espetxeratze masiboa izan da arre-ta handiena eskaini zaion gobernu-programa soziala».

Xedea zigor errentagarriak lortzeko gorputzak eskuratzea izanik, kriminalitate-suposizio arrazialetan oinarritzen da kartzeletako ekonomia politikoa –esate baterako, gizarte-laguntza jasotzen duten ama beltzek haur kriminalak ekartzen dituztela–, eta praktika arrazistak nagusitzen dira herritarrak atxilotzeko, kondenatzeko eta epaitzeko ereduetan. Koloreko gorputzak giza lehengai nagusia dira gure garaiko arazo sozial behinenak desagertzeko esperimentu zabal honetan. Behin kartzelaren irtenbideari magiaren aura kenduta, arrazakeria, klase-aurreiritziak eta etekin kapitalistaren sedukzio bizkarroia azaleratzen dira. Kartzela-industria konplexuak herritarrak pobretzen ditu, bai materialki, bai moralki, eta gero eta preso gehiago egotea dakarten arazoei aurre egiteko beharrezko gizarte-aberastasuna irensten.

Kartzelek gizarte-paisaia gero eta toki zabalagoa bete ahala, behinola premia sozialetara bideratzen ziren gobernu-programa batzuk –esate baterako, familia behartsuen-tzako behin-behineko laguntza– desagertzen ari dira. Hezkuntza publikoaren gainbehera, are komunitate pobreetako eskola publikoetan diziplina eta segurtasuna lehenestea ikastearen gainetik, zuzenki erlacionatuta dago kartzelaren «konponbidearekin».

AEBko gizartean kartzelak ugaritu heinean, kapital pribatua txertatu da zigorraren industrian. Eta, hain zuzen ere etekinak lortzeko duten potentzialaren kausaz, gero eta garrantzi handiagoa dute AEBko ekonomian. Zigorra etekin miragarrien iturri potentzial bat izatea nozio asaldagarria da berez, eta are kezkarriagoa da zigor masiboa onargarria eta errentagarria izan dadin beharrezkoa izatea hura egitura eta ideologia arrazisten mende egotea estrategikoki.

Kapitalak gaur egun kartzela-industriarantz egin duen mugimendu nabarmenena kartzelak pribatizatzea da. Gobernuak kudeatzen dituen kartzelek larriki urratzen dituzte giza eskubideen nazioarteko arauak; baina kartzela pribatuek are eta ardura txikiagoa dute gai horretan. Aurtengo martxoan, AEBko kartzela pribatuen enpresa handienak, Correction Corporation of Americak (CCA), AEBko, Puerto Ricoko, Erresuma Batuko eta Australiako 68 instalaziotan 54.944 ohe kontratupean edo ustiatze bidez kudeatzeko lehiaketa irabazi du. Gero eta emakume gehiagori zigor publikoa ezartzeko joera orokorrearekin bat

eginez, emakumeentzako kartzela bat zabaldu berri du CCAk Melbournearen kanpoaldean. Kalifornia «muga berri» izendatu du enpresak berriki.

AEBko bigarren kartzela-enpresa handienak, Wackenhut Corrections Corporationek (WCC), Ipar Amerikan, Erresuma Batuan eta Australian 46 instalazio kudeatzeko kontratuak eta esleipenak lortu ditu. Guztira, 30.424 ohe ditu, baita presoan osasun-garraiorako eta segurtasun-kudeaketarako kontratuak ere. Gaur egun, CCAREN eta WCCren akzioak bapo dabilta. 1996tik 1997ra bitartean, % 58 handitu ziren CCAREN diru-sarrerak, 293 milioi dolarretik 462 milioira, eta haren etekin garbia 30,9 milioitik 53,9 milioira igo zen. WCCk ere 138 milioi zituen 1996an, eta 210 milioi, berriaz, 1997an. Kartzela-instalazio publikoetan ez bezala, antolatu gabeko langileen bizkar lortzen dituzte instalazio pribatuak halako etekin eskergak.

Nolanahi ere, kartzela-enpresa pribatuak zigorraren korporatibizazio gero eta handiagoaren aurpegi ikusgarriena besterik ez dira. Kartzelak eraikitzeke kontratu publikoek erai-kuntza-industria indartu dute. Arkitekturaren sektorean, merkatu-nitxo garrantzitsua da gaur egun kartzelen diseinua. Zenbait enpresa –Westinghouse, esaterako– hasiak dira armadarako garatzen duten teknologia legearen eta zigorraren arloan ere erabiltzen.

Gainera, itxuraz zigorraren negozioarekin lotura handirik ez duten enpresa batzuek zerikusi handia dute kartzela-industria konplexuaren zabalkundean. Kartzelak eraikitzeke bonuak inbertsio errentagarrien iturri dira finantzari garrantzitsu anitzentzat; esate baterako, Merrill Lynchentzat. MCik prezio eskandalagarriak kobratzen dizkie presoei eta haien familiei telefono-deien truke, eta, maiz, presoek mundu askearekin harremana izateko bide bakarra izaten dira dei horiek.

Eguneroko kontsumorako produktuak ekoizten dituzten enpresa askok ederki ikasi dute AEBn kokaturiko nazioz haraindiko enpresek hirugarren munduan esplotatzen duten lan-indarra bezain errentagarria izan daitekeela kartzelako lan-indarra ere. Biek ere langabeziara baztertzen dituzte sindikatutan antolatutako langileak, eta haietariko asko kartzelara ere igortzen dituzte. Kartzelako lana erabiltzen duten enpresetako batzuk dira IBM, Motorola, Compaq, Texas Instruments, Honeywell,

Microsoft eta Boeing. Dena den, kartzelako lanaren etekinak ez dituzte goi-teknologiako industrietan jasotzen soilik. Nordstrom saltokietan, «Prison Blues» izenarekin merkaturatutako galtzak saltzen dituzte, baita Oregongo kartzeleetan egindako kamisetak eta jakak ere. Honela dio arropa horien iragarkiak: «Barnean eginak kanpoan ibiltzeko». Marylandeko presoek ikuskatzen dituzte Revlonek eta Pierre Cardinek darabiltzaten beirazko botilak eta ontziak, eta mundu guztiko eskolek erosten dituzte Hego Karolinako presoek eginiko graduazio-togak eta birretak.

Eve Goldbergekin eta Linda Evansek –Kaliforniako Dublingo Zentzategi Federaleko preso politikoa da Evans– honela diote:

Negozio pribatuarentzat, urrezko eltze bat da kartzelako lana. Grebarik ez. Sindikaturik ez. Osasun-zerbitzurik, langabezia-saririk edo langileen kalte-ordainik ez. Hizkuntza-oztoporik ez, atzerriko herrialdeetan gertatu ohi denez. Leviatan kartzela berriak eraikitzen ari dira horma arteko milaka kilometro lantegi lazgarrietan. Presoek datuak sartzen dituzte Chevronentzat, telefono-erreserbak egiten dituzte TWArentzat, txerriak hazten dituzte, ongarria zabaltzen dute, zirkuitu-plakak egiten dituzte, limusinak, ur-oheak eta Victoria Secret-entzako lentzeria, den-dena «lan askearen» kostuaren zatiki baten truke.

Kartzelako lana, zeina gutxieneko soldataren azpitik ordaintzen baita azken batean, izugarri errentagarria zaie hartaz baliatzen diren enpresa pribatuei, baina, hala eta guztiz ere, sistema penalak bere horretan ez du aberastasunik ekoizten. Gizarte-aberastasuna erabili ordez etxegabeen etxebizitzak ordaintzeko, komunitate pobre eta arrazialki marjinatuetan hezkuntza publikoa hobetzeko, droga-mendekotasunetik irten nahi dutenentzako doako errehabilitazio-programak abian jartzeko, herrialde mailako osasun-laguntzarako sistema bat sortzeko, GIBaren aurkako programak hedatzeko, etxe barruko abusuak deuseztatzeko eta, bide batez, langabeentzako enplegu ongi ordainduak sortzeko, sistema penalak berak irensten du aberastasan hori.

1984az geroztik, hoguei kartzela baino gehiago zabaldu dituzte Kalifornian; campus bakarra gehitu zaio, oster, Kaliforniako Estatuko Unibertsitatearen sistemari, eta bakar bat ere ez Kaliforniako Unibertsitatearen sistemari. 1996an eta 1997an, Estatu Funts Orokorraren % 8,7 bideratu zen soilik goi mailako heziketara; zentzategiek, aldiz, % 9,6 jaso zuten. Diskrimina-

zio positiboa legez kanpokotzat jo da Kalifornian, hots, garbi dago hezkuntza pertsona jakin batzuentzat eta kartzelak beste batzuentzat direla gero eta gehiago. Gaur egun, institutuetan dagoen gizon beltzen kopurua halako bost dago kartzelan. Segregazio berri horrek ondorio arriskutsuak dakartzio herrialdeari.

Kriminaltzat harturiko pertsonak segregatuz, AEBko ekonomiaaren egiturazko arrazakeria indartzen eta orobat estaltzen du kartzelak. Langabezia-tasak baxuak direla esateak –are komunitate beltzetan ere– ez du zentzurik, non eta ez dugun onartzen kartzelan dauden hainbat eta hainbat herritar desagertu egin direla egiaz eta horrenbestez ez dutela lanpostu baterako eskubide legitimorik. Gaur egun, gizonen lan-indarraren % 2 osatzen dute kartzelan dauden gizon beltz eta latinoek. David Downes kriminologoaren iritziz, «[k]artzela langabezia ezkututzat hartzen badugu, heren bat igotzen da gizonen langabezia-tasa, % 8 baino. Lan-indar beltzari dagokionez, are handiagoa da ehunekoa, % 11tik % 19ra jasotzen baita gizon [beltz]en langabezia-tasa».

Espetxeratze masiboa ez da langabeziarentzako konponbide bat, ezta kartzela eta atxiloketa-zentroen sare gero eta zabalagoan ezkututzen diren arazo sozial andanarentzako konponbide bat ere. Hala eta guztiz ere, jende gehienari ziria sartu diote kartzela eraginkorra dela sinetsarazita, nahiz historiak argi eta garbi erakusten duen kartezelek ez dutela funtzionatzen. Arrazakeriak eragotzi digu herritarroi diskurtso kritiko bat eratzeke gai izatea kartzela segurtasun publikoaren giltza dela aldarrikatzen duen iruzur ideologikoaren aurka. Estatuko politikaren ikuspegia arrapaladan ari da aldatzen laguntza sozialetik kontrol sozialera.

Gazte beltzak, latinoak, amerikar natiboak eta asiarrak indarkeriaren hornitzaile, droga-trafikatzaile eta edukitzeko eskubiderik ez duten ondasunen bekaizti balira bezala irudikatzen dira. Emakume gazte beltz eta latinoez zabaldu den irudia da sexualki promiskuoak direla eta bidegabeki barreiatzen dituztela hala haurrak nola pobrezia. Kriminalitatea eta desbideratzea arrazializatuta daude. Horregatik, koloreko komunitateetan, imigranteengan, langabeengan, hezkuntza urriko pertsonengan, etxegabeengan eta, oro har, gero eta gizarte-baliabide gutxiago eskuratu ditzaketenengan ardazten da zelataritza. Gero eta gizarte-baliabide gutxiago eskuratzen dituzte, neurri handi batean

legeek eta neurri juridikoek gero eta gehiago suntsitzen dituztelako baliabide horiek. Kartzela-industria konplexuak, beraz, zigorraren gupil zoro bat sortu du, hain justu kartzelak ustez «konpontzen» dituen pobreak are gehiago pobretuz.

Horrenbestez, gobernu-politikak laguntza soziala baztertu eta delinkuentzia kontrolatu ahala, arrazakeria gero eta sakonago sustraitzen da AEBko gizartearen egitura ekonomiko eta ideologikoetan. Bien bitartean, arrazakeria amaitua dela aldarrikatzen dute diskriminazio positiboaren eta hezkuntza elebidunaren aurkako militante kontserbadoreek; haien aurkariak, aldiz, iradokitzen dute arrazakeriaren hondarrak elkarriketaren bidez desagertu daitezkeela. «Arraza-harremanak» hizpide dituzten elkarriketek, baina, nekez deuseztatuko dute kartzela-industria konplexu bat gure gizartearen egitura sakonetako arrazakeria ezkutua areagotzen eta elikatzen duena.

AEBn kontserbadurismo-giro gero eta latzago batean kartzela-industria konplexu bat agertu izanak une historiko berri bat ekarri du, aurrekaririk gabeko arriskuz betea. Eta halaber aurrekaririk gabeak dira haren aukerak. Kontuan harturik behetikako proiektu andana bat ekinean ari dela zigorraren industriaren zabalkundearen aurka, posible izan behar litzateke esfortzuok batzea eta mugimendu erradikalak eta nazio mailan ikusgarriak direnak sortzea, kartzela-industria konplexuaren gaineko kritika antikapitalistak legitimatzeko. Posible izan behar litzateke presoen giza eskubideen aldeko mugimenduak eraikitzea eta orobat sortzea beste mugimendu batzuk modu konbentzigarrian aldarrikatuko dutenak kartzela gehiagorik ez baizik eta osasun-arreta, etxebizitza, droga-programak, enplegua eta hezkuntza behar ditugula. Etorkizun demokratiko bat ziurtatzeko, posible eta beharrezko da kartzela-industria konplexuaren aurkako erresistentziaren hari gero eta ugariagoak elkarrekin ehuntzea eta eraldaketa sozialerako mugimendu indartsu bat jostea.

BEDERATZI

ARRAZA, GENEROA ETA KARTZELA-INDUSTRIA KONPLEXUA: KALIFORNIA ETA BESTE BATZUK

(ANGELA DAVIS ETA CASSANDRA SHAYLOR)²²³

Emakumeen eskubideak giza eskubide

Nazio Batuek 1995ean Pekinen eginiko Emakumeei Buruzko Laugarren Mundu Konferentziaren funtsezko lorpenetako bat izan zen emakumeen eskubideak berariaz aintzat hartzea giza eskubide gisa. Emakumeen aurkako indarkeria –bizitza publikoan zein pribatuan– emakumeen giza eskubideen aurkako erasotzat hartuz, emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko kontzientzia mundu zabalean sakontzen lagundu zuen Pekingo Konferentziak. Alta, gaia gero eta arreta handiagoz zaintzen bada ere, emakumeen kartzelekin loturiko indarkeria itzalpean dago oraindik ere, kartzelak gizartean duen ikusezintasunaren eraginez. Kartzelako indarkeria, izan ere, hainbat modutan azaleratzen da: axolagabekeria medikoa, sexu-abusua, ugalke-ta-kontrolik eza, guraso-eskubideen galera, lege-eskubide eta -baliabideen ukazioa, bakartzearen ondorio latzak eta, jakina, diziplina arbitrarioa.

Giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeen azkenaldiko txostenetan, hasiak dira emakume presoek ikusezintasunari heltzen eta haien aurkako indarkeria latza agerian jartzen. Esate baterako, Giza Eskubideen Behatokiak eta Amnistia Internazionalak berariaz landu dute AEBko kartzeletako sexu-abusuaren arazo orokortua. 1998an, AEBko zortzi emakume-kartzela bisitatu zituen NBEko emakumeen aurkako indarkeriaren errelatore bereziak, eta, gero, txosten batean argitaratu zituen ondorioak,

223 Hemendik hartua: Arrazakeriaren, Arraza-diskriminazioaren, Xenofobiaren eta Haiekin Loturiko Intolerantziaren Aurkako NBEren Mundu Konferentzia (Durban, Hegoafrika) (lehenbizikoz hemen argitaratua: *Meridians*, 2. lib., 1. zk., 2001, 1-25).

denak ere kartzela-aktibistek aurreikusi baino puskaz kezka-garriagoak. Orokorrean, giza eskubideen gaineko nazioarteko arauak gutxitan aplikatzen diren arren AEBren testuinguruan –legearen esparruan bereziki–, NBERen dokumentuak –hala nola Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta Presoen Tratutako Gutxieneko Arau Estandarrak– emankortasunez baliatu dituzte aktibistek, emakumeen kartzeletan giza eskubideak larriki urratzen direla azaleratzeko.

Kartzela-industria konplexua

AEBko kartzela-populazioak ziztuan igo ahala, askok zailtasun jarri dute ohiko suposizio bat, hots, krimen kopuru gero eta handiagoari zor zaiola kartzela-populazioaren gorakada. Zigorren prozesua –eta batik bat arrazakeriaren eragina– nabardura gehiagorekin aztertzen ahalegindu diren aktibista eta ikertzaileek «kartzela-industria konplexua» kontzeptua baliatuz azaldu dute kartzelen eta presoen ugartzea argi eta garbi lotuago dagoela egitura ekonomiko eta politiko zabalagoekin, gizabanakoen jokabide kriminalekin eta «kriminalitatea» gerarazteko esfortzuekin baino. Izan ere, merkatu globaletan jarduten duten enpresa asko eta askorentzat etekin-iturri oparoa dira kartzelak, eta, hortaz, ezkutuko interesak dituzte kartzela-sistemak hedatzen jarrai dezan. AEBko preso gehien-gehienak arrazialki marjinaturiko komunitateetakoak izanik, enpresek zigor-aparatua gero eta zabalago bat eraikitzeke dituzten interesek egitura arrazista berriak zein zaharrak dituzte oinarri eta xede.

Halako joerek emakumeei eragin diete gehienbat. Nahiz eta emakume presoen ehunekoa nahiko txikia izan preso-populazio osoaren barnean, gehien hazten ari den preso-segmentua da. Orain, emakume preso gehiago dago Kaliforniako estatuan, 1970ean AEB guztian zegoen baino.²²⁴ Eta, arraza faktore garrantzitsua denez kartzelara nor joanen den eta nor ez erabakitzeke orduan, lasterren hazten ari diren taldeak emakume beltz, latino, asiarrak eta indigenenak dira.

Kapitalismoaren globalizazioak ongizate-estatuaren gainbehera areagotu du herrialde industrializatuetan –esate baterako, AEBn eta Britainia Handian–; Hegoaldeko herrialde-

224 Elliott Currie, *Crime and Punishment in America* (New York: Metropolitan Books, 1998).

tan, berriz, egiturazko egokitzapenak egin behar izan dituzte. Murrizketa gogorrek egin dituzte AEBko gizarte-programetan – mendekotasuna duten haurren familientzako laguntza (AFDC), adibidez–, eta, aldi berean, espetxea da gaur egun arazo sozial anitzi ematen zaien erantzun agerikoena, hots, espetxeak ordezkatu du garai batean AFDCk eta halako erakundeek egiten zuten lana. Bestela esanda, historikoki komunitate pobreei laguntzeko baliatu izan diren gizarte-programak suntsitzen, diskriminazio positiboko ekimenak desagertzen eta hezkuntzarako eta osasunerako baliabideak urritzen ari diren garai honetan, kartzela da konponbide nagusia. Bereziki koloreko emakumeei dagokionez –haiei eragiten baitie gehien gizarte-baliabideak deuseztatu eta haien ordezkariak espetxea ezartzeak–, konpondu nahi dituzten arazoak berak errepikatzen eta, jakina, larriagotzen dituzte era horretako estrategia drakoniarrek –askotan gero eta kartzela-zigor luzeagoak ezartzen baitira hutsaren hurrengo diren delituengatik–.

Badago antzekotasun paradoxiko baina adierazgarri bat kartzela-industria konplexuaren eta industria militarren konplexuaren eragin ekonomikoaren artean, eta bi-biek dituzte egiturazko ezaugarri garrantzitsu berberak. Bi sistemek sortzen dituzte etekin izugarri handiak eta gizarte-suntsipena aldi berean. Enpresentzat, politikarientzat eta sistema horietan parte hartzen duten estatu-erakundeentzat onuragarri denak zoritarra eta heriotza dakartza mundu guztiko komunitate pobre eta arrazialki marjinatueta. Kartzela-industria konplexuari dagokionez, koloreko gorputz presoak merkantzia eskerga baten kontsumitzaile eta/edo ekoizle bihurtzean, funts publikoak etekin bihurtzen dira, hots, gizarte-laguntza eskas geratzen da pobrezia eta arrazakeriaren hesiak gainditu nahi dituzten emakume eta gizonen esfortzuei bultzada bat emateko. Adibidez, urte anitz kartzelan eman ondoren aske geratzen diren emakumeei ez zaie eskaintzen ez lanik, ez etxebizitzarik, ez osasun-arretarik, ez heziketarik, baizik eta diru-poltsa txiki bat, ozta-ozta autobus-bidaia bat eta hotel merke batean bi gau ordaintzeko beste. «Mundu aske» deritzon horretan, bizkar gainean daramate emakumeok kartzelaren estigma, eta hagit zaila da «gaizkile» batek lana topatzea. Ondorioz, kartzela-sistemara itzultzen dira, ezinbestean; izan ere, kartzela-industria

konplexuaren aro honetan, desagertua da errehabilitazio-usaina duen oro.

Kartzela-industria konplexua sortu izanak esan nahi du kartzelak balio izan zuela noizbait errehabilitaziorako (horixe iradokitzen du oraindik ere «zentzategi» termino bitxia erabiltzen segitzeak) baina gaur egungo kartzela-ekonomiak zigorraren errentagarritasuna lehenesten duela giza heziketaren eta eraldaketaren gainetik. Estatu-aurrekontuetan, gero eta kostu handiagoa dute kartzelen eraikuntzak eta mantentze-lanek; komunitateak sostengatzeko eta hobetzeko sosak, aldiz, errotik mozten dira. Zigorraren arloko diru-inbertsio desegokien adibide argigarri bat aipatzearren, estatuak gero eta dirulaguntza murritzagoa ematen du hezkuntza publikorako: Kalifornian, 1995ean, handiagoa izan zen kartzeletarako aurrekontua, goi mailako heziketaren arlokoa baino.

Enpresek lotura estua dute kartzela-sistemekin, bai sektore publikoan, bai pribatuan. Pribatizazioranzko joera enpresek zigor-prozesuan duten inplikazio gero eta handiagoaren seinale bat besterik ez da. Kanpaina aktibistetan begirada soilik kartzela pribatuetara desbideratzeak kartzela publikoak legitimatzea ekar dezake berekin; hortaz, bilakaera kartzela-industria konplexu arras garrantzitsu baten testuinguruan kokatzen badugu, hobeki ulertuko dugu zigorraren gaur egungo industria. Ameriketako Estatu Batuetan, gaur egun, irabazi-asmoko 26 kartzela-enpresak kudeatzen dituzte 28 estatutako 150 instalazio inguru.²²⁵ Enpresa horien artean, Corrections Corporations of America (CCA) eta Wackenhut dira handienak: munduko kartzela pribatuen merkatuaren % 76,4 kontrolatzen dute. CCAk Nashvillen (Tennessee) du egoitza nagusia, baina Parisen kokaturiko multinazional bat da haren akziodun nagusia, Sodexho Marriott, AEBko unibertsitete anitzetan catering-zerbitzuak ematen dituen enpresa bat. Gaur egun, urtean 1,5 milioi dolarretik 2 bilioi dollarrera bitarteko diru-irabaziak dituzte CCAk, Wackenhutek eta beste kartzela-enpresa pribatu txikiago batzuek.²²⁶

Kartzela pribatuek AEBko kartzela guztien artean proportzio nahiko txikia ordezkutzen duten arren, pribatiza-

225 Joel Dyer, *The Perpetual Prisoner Machine: How America Profits from Crime* (Boulder, CO: Westview Press, 2000).

226 Dyer, *Perpetual Prisoner Machine*.

zioaren eredua herrialde askotan ari da nagusitzen zigorraren antolamenduaren arloan.²²⁷ Era berean, emakume presoen populazioaren hazkundera ederki baliatu dute enpresa horiek, bai AEBn, bai mundu guztian: 1996an, CCAk Melbournen (Australia) kokatu zuen emakumeentzako lehen kartzela pribatua. Victoria-ko gobernuak «AEBko pribatizazio-eredua bereganatu zuen, hots, kartzelaren finantzaketa, eraikuntza eta jabetza kontratista barker bati esleitu, eta gobernuak hogeit urtean zehar ordainduko dio kartzela eraiki dezan. Alegia, ia ezinezkoa da kontratista ordezkatzeari, kartzelaren jabea denez gero».²²⁸

Dena den, kartzela-industria konplexuaren garrantzia ulertzeko, ez da aski kartzela pribatuaren negozioaren botere noranahikoa gogora ekartzea. Jakina, definizioz, enpresa horiek estatua limurtzen dute, AEBn zein AEBtik kanpo, kartzela-kontratuak lortzeko. Alegia, modu mehatxagarri batean lotzen dituzte zigorra eta etekina. Nolanahi ere, kartzela-industria konplexuaren alderdirik ikusgarriena besterik ez da hori; ez genduke ahanntzi behar korporatibizazioa zabalagoa dela eta horixe dela gaur egungo zigor-sistemaren ezaugarrietako bat. Beste garai historiko batzuekin alderatuta, gaur egungo kartzela-ekonomia ez da merkatu multzo txiki, identifikagarri eta kontrolagarri bat. «Mundu askeko» kontsumitzaileei zinez ezagunak zaizkien enpresa askok zabalkunderako aukera berriak aurkitu dituzte kartzela-instalazioei produktuak salduz.

1990eko hamarkadan, zinez zorabagarria da zenbat enpresa ari diren dirua egiten kartzelen kontura: Dial xaboia zein Famous Amos gailetak, AT&T zein osasun-arretaren hornitzaileak... 1995ean, Dial xaboiak 100.000 dolarren produktuak saldu zizkion soilik New York hiriko atxiloteta-zentroen sistemari... Montrealgo (Kanada) VitaPro elikagai-enpresak Texas-ko estatuko presoek sojak eginiko haragi-ordezkoa banatzeko kontratua eskuratu zuen: 34 milioi dolar urtean.²²⁹

Kontua zera da: kartzela pribatuen enpresak debekatuko balira ere –nahiz aukera ez oso probablea izan–, bere horretan

227 Julia Sudbury, «Transatlantic Visions: Resisting the Globalization of Mass Incarceration», *Social Justice* 27, 3. zk. (2000): 133-149. Ingalaterrako kartzelen pribatizazio gero eta handiagoari buruzko analisisa dakar Julia Sudburyk.

228 Amanda George, «The New Prison Culture: Making Millions from Misery», in *Harsh Punishment: International Experiences of Women's Imprisonment*, arg. Sandy Cook eta Susanne Davies (Boston: Northeastern University Press, 1999), 190.

229 Dyer, *Perpetual Prisoner Machine*, 14.

mantenduko lirateke bai kartzela-industria konplexua, bai haren bitartez etekinak lortzeko estrategia ugariak.

Gainera, kartzela pribatuak –CCA eta Wackenhut, bereziki– ez dira kapital globalaren zirkuituetan erreproduzitzen diren bakarrak, ez eta ere mundu guztian barrena jende pobrearen bizitzetan sartzen diren bakarrak. AEBn bezalaxe, mundu guztian ari dira sortzen enpresen eta kartzela publikoen arteko loturak, AEBk luze eta zabal sustatzen duen ideiarekin bat eginez, hots, kartzela panazea sozialtzat hartuz. Ideia eta praktika horiek emakumeengan dituzten eraginik nabarmenenak mundu guztian barna droga-delituengatik atxilotu eta espetxeratutako emakumeen alimaleko kopuruetan ikus daitezke. «Drogaren aurkako gerra» delakoak, AEBk bultzaturik, emakume biktima anitz utzi ditu AEBn, neurriz gainera kopuruak, baita Europan, Hego Amerikan, Kariben, Asian eta Afrikan ere.²³⁰ Anbulantzia-ehiztarien²³¹ baliokide juridikoak balira bezala, emakumeentzako kartzelak sortzen laguntzen dihardute mundu guztiko arkitektura- eta eraikuntza-enpresek eta beste batzuek.

Arraza, generoa eta kartzela-industria konplexua

Kartzela-industria konplexuaren aurkako aktibistek azpimarratzen dute kontuan hartu beharra dagoela nola laguntzen duten egitura eta iritzi arrazistek kartzela-sistema ikaragarri errentagarri bat hedatzen eta, aldi berean, gizarte-estratifikazio arrazista indartzen. Arrazakeria generoarekin lotua dago beti, eta «neutraltzat» jo ohi diren kartzela-praktikak –epaiketak, zigor-erregimenak eta osasun-arreta– aldatu egiten dira arraza, generoa eta sexualitatea gurutzatzen direnean.²³²

AEBko kartzeletan dauden emakume gehienak beltzak, latinoak, asiar-amerikarrak eta amerikar natiboak dira. 1998an, justizia penalaren sistemaren kontrolpean zegoen AEBko 109 emakumetik bat.²³³ Emakumeoi sistemaren barnean ema-

230 Vivien Stern, *A Sin Against the Future: Imprisonment in the World* (Boston: Northeastern University Press, 1998).

231 Anbulantzia-ehiztariak (*ambulance chasing*): istripu-auzietan jarduten duten abokatuak dira; zehazki, istripuetan zauritutako jendea bilatu, eta istripuen errudunei kalte-ordain neurrigabeak eskatzera bultzatzen dituzte. (Itzultzailearen oharra).

232 Analisi intersektionalari buruz, ikus Kimberlé Crenshaw, «Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence Against Women of Color».

233 Lawrence A. Greenfield eta Tracy L. Snell, *Women Offenders*, Justizia Estatistikaren

ten zaien tokia, baina, aldatu egiten da haien arrazaren arabera: baldintzapean aske dauden emakumeen bi herenak zuriak dira; kartzelan dauden bi herenak, aldiz, koloreko emakumeak. Emakume afro-amerikar batek zortzi aldiz aukera gehiago du kartzelara joateko emakume zuri batek baino; emakume latino batek, lau aldiz gehiago. Afro-amerikarrak dira estatu-kartzeletan dauden emakume gehienak (% 48), baita atxiloteta-zentro federaletan ere (% 35), nahiz berez populazio osoaren % 13 besterik ez diren.²³⁴ AEBko emakume latinoen populazioa igo ahala, orobat igotzen da emakume latino presoek kopurua. Kalifornian, adibidez, populazio osoaren % 13 dira emakume latinoak, eta, hala ere, kartzelan dauden emakumeen % 25 inguru dira.²³⁵ Ez dago emakume amerikar natibo presoek kopuruari buruzko datu ofizialik, baina azterketa anitzek frogatu dute zuriak baino askoz amerikar natibo gehiago atxilotzen dituztela eta diskriminazioz tratatzen dituztela justizia penaltaren sistemaren barnean.²³⁶

AEBko gobernuaren estatistiketan bereizten diren arraza-kategoria bakarrak «zuria», «beltza» eta «hispanoa» direnez beren burua amerikar natibotzat, vietnamdartzat, filipinartzat, polinesiartzat edo arrazialki marjinaturiko beste komunitateren bateko herritartzat dutenak «beste batzuk» kategorian sartzen dira, zaila da zehazki esatea talde horietako zenbat emakume dagoen kartzelan.²³⁷ Nolanahi ere, emakume presoek defenda-tzaileek diote emakumeen kartzeletan gero eta emakume asiar gehiago dagoela, vietnamdarrak, filipinarrak eta polinesiarrak barne.²³⁸

AEBko kartzeletan dauden koloreko emakumeen gorakada handia guztiz lotua dago «drogaren aurkako gerra» delakoarekin. Bill Clinton presidenteak, karguan egon zen azken egunetan, in-

Bulegoaren txosten berezia (Washington, DC: AEBko Justizia Departamentua, 1999).

234 Greenfield eta Snell, *Women Offenders*.

235 Presondegien Departamentuko Zerbitzuen Atala, Kriminalei Buruzko Informazio Zerbitzua, *Characteristics of Population in California State Prisons by Institution*, 2000ko ekainaren 30a, Estimazio eta Analisi Estatistikoaren Atala, Datu Analisisien Unitatea, Sacramento, CA.

236 Luana Ross, *Inventing the Savage: The Social Construction of Native American Criminality* (Austin: University of Texas Press, 1998).

237 Greenfield and Snell, *Women Offenders*.

238 Cynthia Chander zuzendarikideari eginiko elkarrizketa, Justice Now, 2001eko maiatzaren 25a; Heidi Strupp abokatu-laguntzaileari eginiko elkarrizketa, Legal Services for Prisoners with Children, 2001eko ekainaren 1a.

dultua eman zien droga-delitu zalantzarriengatik zigor federal luzea betetzen ari ziren bi emakume afro-amerikarri: Kemba Smith eta Dorothy Gaines. Smithi hogeita lau urte eta erdiko zigorra ezarria zioten, eta Gainesi, berriz, hemeretzi urte eta zazpi hilabetekoa, baina bi-biek droga-trafikoarekin zuten lotura bakarra zen trafikatzaille izateaz akusaturiko gizonekin harremanak izatea.²³⁹

Soilik sistema federala kontuan hartuta, 1990etik 1996ra bitartean, emakume preso guztien (2.057) gorakadaren % 84k zerikusia zuen droga-auziekin. AEBko kartzela guztiei erreparatuta, drogarekin loturiko zigorrei zor zaie neurri handi batean emakume beltz presoen kopurua gizon beltzena halako bi eta emakume zuriena halako hiru izatea.²⁴⁰ Lege penal gogorren bidez –hala nola droga-auzien eta «hiru kolpeen legeen» ondorioz derrigorrez bete beharreko gutxieneko zigorrak, zeinek droga-delitu arin batengatik biziarteko kartzela-zigorra jasotzea ere ekar baitezakete–, tranpa-zulo bat sortu dute, eta koloreko emakume gehiegi erori da populazio baztergarrien artera.

Kartzelan dauden emakumeen aurkako indarkeria

Zortea alde izan zuten Dorothy Gainesek eta Kemba Smithek, baina, nolanahi ere, kasu bakarrak izan ziren Clintonen aroan espetxeratutako emakume guztien artean, inoiz baino emakume gehiagori ezarri baitzieten kartzela-zigorra garai hartan. Zer gertatzen da hormez bestaldeko emakume kopuru eskergarekin? Lehenik, nazioarteko giza eskubideen arauak diotenaren kontra, askatasuna galtzea baino askoz gauza gehiago dakar kartzelak. Emakumeen kartzelak indarkeriazko continuum batean kokatuta daude, estatuaren praktika ofizialetatik hasi eta harreman intimoen esparruraino. Indarkeria horren agerraldi publiko eta pribatuak gizartearen begietatik ezkutaturik daude neurri handi batean. Alta, etxe barruko indarkeriak bizitza publikoan gero eta kezka handiagoa pizten badu ere, kartzelako indarkeria gutxitan ateratzen da hizpidera. Kartzelan, egunerokotasunean ohituraz eta etenik gabe gertatzen

239 Melba Newsome, «Hard Time», *Essence Magazine* 31, 5. zk. (2000): 146–50, 210–214.

240 Stephanie R. Bush-Baskette, «The "War on Drugs": A War Against Women?» in *Harsh Punishment: International Experiences of Women's Imprisonment*, arg. Sandy Cook eta Susanne Davies (Boston: Northeastern University Press, 1999) 211–229.

da indarkeria: haren mende dago kartzelaren funtzionamendua. Noranahikoa eta iragarri ezina da kartzelako hierarkiei darian indarkeria-mehatxua, eta, horren harira, emakume batzuek adierazi dute deigarria dela nolako antzekotasun estrukturalak dauden kartzela-esperientzien eta tratu txarretan oinarrituriko harremanen artean.²⁴¹

Egia da emakume preso askok indarkeria sufritu dutela beren bizitza intimoan, baina «emakume presoaren» profilak berekin ekarri ohi du «mundu askean» sufritzen duten biktimizazio hori izatea emakumeok kartzelan sartzeko arrazoia. Halako kausa-erlazio sinplista batek, oster, ez ditu kontuan hartzen emakumeen aurkako indarkeriaren legitimazio sozial eta politikoarekin loturiko hainbat eta hainbat faktore; alegia, *etxe barruko* indarkerian jartzen da azpimarra, *estatu-indarkeria* alboratuta, bai «mundu askean», bai kartzelako munduan.

Kartzela barruko indarkeriak psikeari zein gorputzari erasotzen die. Ameriketako Estatu Batuetan, gero eta gehiago baliatzen da kartzela herritar pobreen gaixotasun mentalei erantzun bat emateko. Historikoki, gaixotasun mentalak dituzten herritarren instituzionalizazioa askoz maizago erabili da emakumeen aurka, gizonen aurka baino. Dena den, gauza ziurra da arazo mentalik gabe espetxeratzen dituzten emakumeek ere arazo mentalak izanen dituztela azkenean, espetxealdi luzeek eraginda. Penal Reform International erakundeak honela dio: «Zigor luzeak betetzen dituzten presoek nahasmendu mental eta psikikoak garatu ditzakete, kartzelaren beraren eraginagatik zein beren familiengandik bananduta egoteagatik. Kartzela handietan ere, arazo mentalak sortu eta kroniko bihur daitezke; izan ere, presoak pilatuta daude, jarduera gutxi egiten dituzte, eta denbora asko ematen dute egunez beren ziegan sartuta».²⁴² Erakunde horren aburuz, Presoen Traturako Gutxieneko Arau Estandarrek (SMR), gaixotasun mentalak dituzten pertsonak espetxeratzea debekatzeaz gainera, berariaz exijitzen dute kartzelaren ondorioz arazo mental eta emozionalak sufritzen

241 Bell Chevigny, *Doing Time: Twenty-Five Years of Prison Writing* (New York: Arcade Publishing, 1999).

242 *Making Standards Work: An International Handbook on Good Prison Practice* (Haga: Penal Reform International, 1995), 95-96.

dituzten presoek mediku, psikologo eta zaintzaileen arreta errukitsua jaso behar dutela.

Emakume preso gehienek bizi izaten dute, gehiago edo gutxiago, depresioa edo trauma osteko estresaren nahasmendua. Maiz aski, ez dute jasotzen ez diagnostikorik, ez tratamendurik, eta hori kaltegarria da haien osasun mentalerako, bai kartzelan, bai kartzelatik kanpo. Emakume anitzek adierazi dute ezen, laguntza eskatzen dutenean, botika psikotropikoak eskaintzen dizkietela. Lege-inpugnazioak gorabehera, kartzela-erregimenak droga psikotropikoen tratamenduak behar dituzten «gaixotzat» jotzen ditu instituzionalizazioaren ondorioak sufritzen dituzten presoak.²⁴³ Historikoki, batez ere emakumeen aurka erabili izan da «eredu medikalizatu» hori.²⁴⁴

Kartzela-teknologiak gero eta errepresiboagoak eta ba-kartze-praktikak gero eta ohikoagoak diren heinean, gaixotasun mentalak dituzten emakumeei konfinamendu bakartua ezartzen zaie maiz, eta horrek haien egoera okerragotu besterik ez du egiten. Horrez gain, askotan, gaixotasun mental larriak dituzten emakume presoek ez dute tratamendurik eskatzen prozedura gogorren beldur direlako (adibidez, «biluzte-ziega» batean giltzapetzea suizidio-zantzurik agertzen badute) eta/edo uste dutelako droga psikotropikoekin gainmedikatuko dituztela. Beraz, osasun mentaleko arazoak dituzten emakumeek tratatu txarra jasaten dute; arazo fisiko larriak dituztenak, aldiz, gaixo mentaltzat jotzen dituzte maiz, haien kexak saihesteko, eta horrek ondorio larriak dakartza batzuetan.²⁴⁵

Arduragabekeria medikoa

Duela gutxi Kaliforniako emakumeen kartzeletan egin ziren entzunaldi juridiko historikoetan,²⁴⁶ Gloria Broxton presoak

243 Terry Kupers, *Prison Madness: The Mental Health Crisis Behind Bars and What We Must Do About It* (San Frantzisko: Jossey-Bass, 2000).

244 Russell P. Dobash, R. Emerson Dobash eta Sue Gutteridge, *The Imprisonment of Women* (Oxford: Basil Blackwell, 1986).

245 Adibidez, Jody Fitzgerald 2000ko azaroan hil zen, Kalifornia Erdialdeko Emakume Zentroan. Seme-alabak dituzten presoentzako zerbitzu juridikoko langileekin eginiko elkarriketa batzuetan, zenbait emakume presok adierazi zuten kartzelako enplegatuek ez zietela jaramonik egin Fitzgeralden sintoma fisiko larriei eta «dena haren buruan» zegoela esaten zutela; gero, psikiatria-unitate batera igorri, eta han hil zen.

246 2000ko urriaren 11n eta 12an antolatu ziren entzunaldi juridikoak, Valleyko Emakume Kartzelan eta Kaliforniako Emakume Institutioan, hurrenez hurren. Hogei emakumek

zera deklaratu zuen: «Ez dute eskubiderik niri bizitza lapurtzeko deus balio ez dudala uste dutelako. Ez naiz hona etorri nire heriotza-zigorra betetzera. Ergelkeria bat egin nuen, baina ez dut nire bizitza osoan pagatu behar».²⁴⁷ ²⁴⁸ Broxtonen hitzek adierazten duten bezala, segur aski ez zatekeen endometrioko minbiziak jota hilko tratamendua garaiz eman izan baliote. Kartzela-erregimenek indarkeria bultzatzen dute, eta, are, indarkeriari aurka egiteko ahalmena ere ukatzen diete presoek. Ohiko indarkeria horren adibiderik ohargarriena osasun-arreta duin baterako sarbiderik eza da; ondorioz, kartzelan, arduragabekeria medikoak heriotza ekar dezake. Interpretazio aldetik guztiz onartuak diren NBERen dokumentu batzuetan –Torturaren eta Beste Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Umiliagarri Batzuen Aurkako Konbentzioa eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (6.1. eta 7. artikulua), eta Presoen Traturako Gutxieneko Arau Estandarrak–, bereziki azpimarratzen da zein garrantzitsua den kartzelan osasun-arreta eskaintzea. «Kartzelako osasun-arretak eta medikazioak kanpoko komunitatekoaren baliokideak izan behar dute gutxienez. Izan ere, askatasuna ukatua zaien pertsonak gobernuaren ardurapean daude, eta, horrenbestez, estatu-aginpidearen mende daude guztiz».²⁴⁹

Kaliforniako kartzeletako emakumeek aho batez adierazi dute informazio eta tratamendu medikoa jasotzeko aukerarik ez izatea dela beren kezka nagusia. Kaliforniako emakume-kartzeletako baldintzei buruzko entzunaldietan, lekukoek kontatu zuten askotan hainbat hilabete itxaron behar dutela medikua-rengana joateko eta hainbat aste errezeta medikoak berritzeko.

beren lekukotasuna eman zuten zenbait auziri buruz: arduragabekeria medikoa, sexu-abusua eta -jazarpena, seme-alabengandik eta komunitateetatik banantzea, eta tratu txarrak sufritu dituzten emakumeen kriminalizazioa.

247 *Truth to Power: Women Testify at Legislative Hearings*, Valleyko Emakume Kartzelako entzunaldi juridikoetako pasarteak (2000ko urriaren 11) eta Kaliforniako Emakume Instituzioak (2000ko urriaren 12a), Women in Prison Emergency Networkek ekoitzia, 2000. Bideokasetea, 40 min.

248 Askotariko iturriak erabili dituzte emakume presoek ekarpenak jasotzeko: entzunaldi juridikoetako lekukotza publikoak, Justice Now-ko eta seme-alabak dituzten presoentzako zerbitzu juridikoetako abokatuekiko elkarrizketak, eta Cynthia Chandler eta Caron Kingery aktibista komunitarioek grabaturiko ahozko kontakizunak. Lekukotza publikoetan parte hartu duten emakume presoek izenak argitaratu dituzte soilik, edo horretarako baimen esplizitua eman dutenak. Bestela, izengoitiak erabili dituzte, haien pribatutasuna zaintzearen.

249 *Making Standards Work*, 71.

Kardiopatia, diabetesa, asma, minbizia, konbultsioak eta GIBa/HIESa duten emakumeei arazo mediko larriak ekar diezazkietekete halako atzerapenek, are heriotza goiztiarra ere. Adibidez, Kaliforniako Emakume Institutioan espetxeraturiko emakume afro-amerikar batek, Sherrie Chapmanek, bere lekukotasuna eman zuen tratamenduen atzerapen gehiegi eta haien ondoriozko gaixotasun terminalei buruz: 10 urte eman zituen bularretan atera zitzaizkion koskorrei buruz diagnostiko bat eskatzen, eta arreta medikoa ukatu zioten. Tratamendua jaso zuenerako, mastektomia bikoitza behar izan zuen, eta, handik hamar hilabetera, histerektomia oso bat egin zioten. Minbizia metastasiz burura eta lepora hedatu zitzaion arren, behin eta berriro ukatu zioten minaren aurkako tratamendu egoki bat jasotzea. Berak honela kontatu zuen: «Ezin naiz medikuarengana joan edo ezin dut laguntzarik eskatu manipulatzailerik bat edo droga-bilatzaile bat banintz bezala begiratu izan gabe edo besteek nitaz hori pentsatu gabe».²⁵⁰ Errukizko askatasuna eskatu du, ama hil arte berarekin bizi ahal izateko, baina ukatu egin diote, eta, segur aski, kartzelan hilko da.

Tragikoa bada ere, kartzelako arduragabekeria medikoak heriotza goiztiarra dakar, maizegi ekarri ere. Hona hemen Beverly Henry preso-hezitzailearen hitzak:

Hainbat emakume ikusi ditut nire patioan hiltzen, oso gertukoak nituen emakumeak eta ezagunak nituenak. Neronek ikusi banizkien begi-zuringo horituak, erne egoteko moduko zeinuak, nolatan ez zizkien beste inork ikusi? Ikusi nuen nola hazi zitzaion emakume bati gerria 70 zentimetro ingurutik 170era gibleko zirrosiaren ondorioz [gutxiegitasun hepatikoaren adierazle bat]. Ezin zituen oinetakoak jantzi; irudi zuen bederatzi hilabeteko haurdun zegoela, eta egunero galdetzen zidan: «Hemen hilko naiz? Hemen hilko naiz? Hori gertatuko al zait?». Eta hil egin zen. Eta ezin izan genuen deus egin. Eta badakit egin zitekeela zerbait.²⁵¹

2000. urtearen bukaeran, 8 asteko epean 9 emakume hil ziren Kalifornia Erdialdeko Emakume Zentroan (CCWF), Chowchillan (Kalifornia). Hainbat gaitzek jota hil ziren, baina kartzelaren axolagabekeria medikoari egotz dakizkioke heriotza guztiok.²⁵² Pamela Coffey izan zen emakume haietako bat,

²⁵⁰ *Truth to Power*.

²⁵¹ *Truth to Power*.

²⁵² Emakume presoei eginiko elkarrizketa luzeetan, historia medikoetan eta kanpoko

46 urteko emakume afro-amerikar bat; hainbat hilabeteen saihetsaldeko koskor batez eta sabel handituaz kexatu arren, tratamendu medikoa ukatu zioten. Hil zen gauean, kexu zen sabeleko min handia zuelako, aurpegia eta ahoa haziak zitzaizkiolako eta zangoak sorgortuak zituelako. Haren ziegakideek laguntza medikoa eskatu bazuten ere, handik hiru ordura arte ez zen inor etorri. Kordea galdu zuen bere ziegako komunean, eta, azkenean mediku-laguntzaile tekniko bat iritsi zelarik –prestakuntza mediko urriko kartzelazain bat–, ez zuen hura aztertu eta ez zuen laguntza medikorik eskatu. Ziegatik alde egin zuen, eta Coffeyren egoerak okerrera egin zuen. Haren ziegakideek laguntza eskatu zuten berri, baina, 30 minuturen buruan mediku-laguntzailea agertu zenerako, hila zen Coffey. Kartzelako enplegatuek, orduan, haren gorpua ziegan utzi zuten ordubetez, haren ziegakideak are izutuago utzirik. Pamela Coffeyren heriotza emakume preso askok aurre egin behar dioten arduragabekeria medikoaren adibide bat da, baita arduragabekeria medikoa nagusitua den testuinguru batean emakume guztiek jasotzen duten zigorrarena ere. Emakume anitz behartuta daude beste emakume batzuen hondamena eta, batzuetan, heriotza bertatik bertara ikustera, eta, horren ondorioz, izututa bizi dira, hurrengoak berak izanzen ote diren, edo berek maite duten norbait.

Heriotza haien ondotik, kartzelako funtzionarioek emakume hilak are gehiago kriminalizatzeari ekin zioten, kartzelan legez kanpoko drogak hartzen zituztela eta horregatik hil zirela argudiatuz, nahiz hori esateko inongo frogarik ez izan. Kartzelaren kudeatzaileek, orduan, aise erabili zituzten «drogaren aurkako gerra» delakoaren bultzadaz emakume presoak drogazaleak zirela zabalduriko estereotipoak, arduragabekeria medikoaren ondorioz hilak ziren emakume haiek deabruzeko. Kartzelako enplegatuek, gainera, praktika berri bat ezarri zuten, hots, ohiko ordutegiaz kanpo laguntza medikoa eskatzen zuten emakumeen ziegak «krimenaren eszena» izendatzea, eta horrek bazekarren ondorioz: emakume guztiak miatzea, ziega hankaz gora jartzea eta ondasunak kentzea. Horrenbestez, emakumeek

medikuen txostenetan oinarriturik, Justice Now eta Legal Services for Prisoners with Children erakundeetako abokatuak ondorioztatu zuten axolagabekeria medikoari egotzi behar zitzaizkiola CCWFko emakume haien heriotza guztiak, modu batera edo bestera.

beldurra diote laguntza eskatzeari, bai baitakite bai berak bai beren ziegakideak zigortuak izanen direla. Hala, CCWFn hil ziren emakume guztiek heriotza «naturala» izan zutela zabaldu zuten. Posible zatekeen, ordea, heriotza goiztiar haiek saihestea, eta, beraz, ezin hartu dira «naturaltzat». Bestalde, emakume presoek sistematikoki ukatzen zaie osasun-arreta egokia jasotzea, eta, horrenbestez, gaixotasun larriak izaten dituzte eta behar baino lehenago hiltzen dira; alegia, tamalez, arduragabekeria medikoa eta heriotza «naturalegiak» dira gaur egun kartzelan.

Emakume presoek etengabe leporatzen zaie itxurak egiten aritzea, eta enplegatu medikoak beldurraz baliatzen dira, maiz, tratamendurik eska ez dezaten. Emakume batek arreta mediko desgokiagatik kexatu nahi badu, lehenbizi erreklamazio bat aurkeztu behar du, idatziz, arazoa sortu dion enplegatuaren aurrean. Bestela esanda, kexa jasotzen duena izanen da, antza, emakume horrek behar duen arreta eman diezaiokeen pertsona bakarra. Kartzela-patio bakoitzean mediku bakarra egoten denez, emakume presoek kanpoko defendatzaileei azaldu izan diete gutxitan kexatzen direla, errepresaliarik ez izateko eta orobat tratamendua uka ez diezaieten. Prozesu horrek argi eta garbi urratzen du SMRen 36. arauaren funtsa, hots, kartzelako autoritateek kexak egiteko bide konfidentzialak jarri behar dituztela presoek eskura.²⁵³

Emakume presoen aurkako arduragabekeria medikoaren izurria hedatzeaz gain, kartzelek osasun-krisi publikoak sortzen eta larriagotzen dituzte; esate baterako, C hepatitisaren birusa eta GIBa. Tratamendurik eza eta emakumeen bizitzaren gaineko axolagabekeria bihozgabea are beldurgarriagoa da gaixotasun infekziosoen epidemia masiboen testuinguruan. Presoen GIB indizeak kartzelatik kanpoko herritarrenak halako hamar dira gutxienez, eta indizea handiagoa da emakume presoen artean gizon presoen artean baino.²⁵⁴ C hepatitisaren izurri izatera iritsia da Kaliforniako kartzeletan; Kaliforniako Zentzategien Departamentuaren estimazioen arabera, kartzela-populazioaren % 40

253 Ikus presoen kexen inguruko mekanismoen gaineko eztabaida hemen: *Making Standards Work*, 37-40.

254 De Groot, A., T. Hammett eta K. Scheib, «Barriers to Care of HIV-Infected Inmates: A Public Health Concern», in *The AIDS Reader* (1996ko maiatza/ekaina).

dago kutsatuta.²⁵⁵ Dena den, kontuan hartuta Zentzategien Departamentuak huts egin ohi duela emakumeen GIB testak egi-tean edo prebentzioari buruzko informazioa ematean, emakume presoen defendatzaileek uste dute kopuruak puskaz handia-goak izanen direla. Gabeziak daude, tratamenduetan ez ezik, baita prebentzioari buruzko informazioan ere. Emakumeek sa-latu dute ezen, gaixotasun kutsakorren probak egiteko eskatzen dutenean, askotan ez dutela emaitzarik jasotzen, nahiz emaitza positiboa izan. Arduragabekeria medikoaren erakusgarri, kar-tzelak era horretako gaixotasunak barreiatzen laguntzen du, bai karteletan, bai kanpoan ere, emakumeak aske geratzean harre-ra egiten dieten komunitateetan.

Kartzelako arduragabekeria medikoak agerian jartzen du –eta are areagotzen– zein balio eskasa ematen zaion gizartean koloreko emakume pobreek kartzelatik kanpo prebentziozko arreta eta tratamendua jasotzeari. Emakumeen –bereziki kolo-reko emakumeen– osasun-arreta desagokiaren historia luzea laburbiltzen du, beraz, emakume presoei arduragabekeria me-dikoaren bitartez ematen zaien tratu txarrak, zeina ideologia sexista eta arrazista zaharkituetan oinarritua izaten baita maiz.

Ugalketa-eskubideak

Kartzelako ugalketa-osasunaren arretan ere badute eragi-na ideologia horiek, eta, askotan, txarra baino txarragoa izaten da arreta mota hori. Erditu aurreko arreta mugatua jasotzen dute emakume haurdunek, eta, are, AEBko zenbait jurisdikziotan, emakumeak katez lotzen dituzte erditzen ari diren bitartean.²⁵⁶ Emakume presoei hilabeteetan eta, batzuetan, urteetan egon behar dute osasun-arazo larrien aurka babesteko ohiko azterketa ginekologikoen esperoan.²⁵⁷ Horrelako atzerapenak, kartzelako

255 Susann Steinberg, Osasun Arretako Zerbitzuen Atalaren zuzendariordea, Kaliforniako Presondegien Departamentua, presoen defendatzaileekin eginiko bilera (Sacramento: Kaliforniako Presondegien Departamentua, 2000ko urriaren 10a).

256 Amnistia Internazionale, «Not Part of My Sentence»: Violations of the Human Rights of Women in Custody (New York: Amnistia Internazionale, 1999).

257 Justice Now eta Legal Services for Prisoners with Children erakundeetako abokatuek Valleyko Emakume Kartzelako, Kalifornia Erdialdeko Emakume Zentroko eta Kaliforniako Emakume Zentroko ehunka emakumeri egindako elkarrizketetan, agerian geratu zen kartzelako emakumeen ugalketa-osasunaren muturreko arduragabekeriaren erudia eta praktika.

langile medikoek tratamendua behar duten gaixotasunei garaiz ez hiltzearekin batera, ugalketa-osasuneko arazo larriak ekarri ohi dituzte. Theresa Lopez, 20 urte inguruko emakume latino gazte bat, umetoki-lepoko minbiziak jota hil zen –nahiz berez garaiz trata daitekeen gaixotasun bat izan–, kartzelako langile medikoek ez ziotelako oinarrizko tratamendu medikorik eman.²⁵⁸

Emakume presoan ahozko kontakizunak grabatu zituzten aktibista komunitario batzuei eginiko elkarrizketa batean, kartzelako ugalketa-osasunaren politika deskribatu zuen Davara Campbellek:

1970eko hamarkadan, hilerokoaren min larriak izaten nituen, eta umetokia okertua nuen. Justizia penaltaren sisteman biziarteko kartzela-zigorra betetzen ari zen emakume gazte bat nintzenetz eta, are konplexuago, emakumeen «nahasmendu» medikoak neuzkanez eta dudazko eta profesionaltasun eta etika urriko enplegatu medikoen diagnostikoak jaso nituenetz, histerektomia bat egitea gomendatu zidaten. 20 urte inguru nituen. Banuen genozidioari buruzko informazioa, eta arriskuan ikusi nuen seme-alabak izateko aukera; hortaz, kartzelatik ihes egin nuen haur bat izateko. Seme bat izan nuen. Orain, 28 urte ditu, eta lau biloba ere baditut. Nire eskubideei uko egin izan banie, ez nuen hala-korik izanzen. Ugalketa-eskubideen aurkako inposizioa familia-unitateen ongizatearen aurkako bidegabekeria bat da, hots, emakumeen, seme-alaben eta biloben eskubideen eta orobat etorkizun baten promesaren aurkakoa.²⁵⁹

Txosten horretan azaltzen denez, kartzelan, kasurik one-nean desagokiak dira ginekologiako eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak, eta, kasurik okerrenean, arriskutsuak eta hilgarriak. Kartzelan, behar baino arreta ginekologiko kaskarragoa jasotzen dute emakumeek, eta, askotan, ugalkortasuna galdu edo behar baino lehenago hiltzen dira. Sarritan, arreta desagokiak esterilizazio-praktikak ekarri ohi ditu, Campbellen analisisian agertzen den bezala. Esterilizazioa emakumeen arazo ginekologikoak «konpontzeko» erabiltzeak AEBko koloreko emakumeen aurka historian zehar baliatu izan diren praktika arrazistak dakartza gogora.

258 Justice Now-ren bezeroa zen Theresa Lopez, eta errukizko askatasuna emana zioten hil baino egun batzuk lehenago.

259 Davara Campbelli egindako elkarrizketa argitaragabea, Justice Now-ren artxiboak (Kalifornia Erdialdeko Emakume Zentroa, 1999ko uztailaren 16a).

Gaur egun, gizarte-laguntzaren abolizioa justifikatzeko ahaleginetan, familia gurasobakarretako ama afro-amerikar eta latinoei etengabe leporatzen zaie neurritz gain ugaltzea, eta horrek ugalketa-eskubideetan bereizketak egitea zilegiztatzen du. Kartzelaz kanpoko ideologia arrazistek, orduan, kartzela barruko emakumeen ugalketa-gaitasunaren aurkako erasoak sustatzen dituzte, beste garai historiko batzuetan bezala; gogoan izan, adibidez, emakume puertorricarren eta amerikar natiboen esterilizazio behartua, edo emakume beltz esklaboek ugalketa behartua. Alegia, kartzelan, emakumeek «mundu aske» delakoan ustez ziurtatuak dituzten ugalketa-eskubideak sistematikoki baztertuta geratzen dira askotan, bereziki koloreko emakumeei dagokienez.

Ginekologia da, hain zuzen, kartzelako osasun-arretaren atalik gatazkatsuenetakoa bat. Praktika ginekologiko arrazisteki-ko lotura historikoez bere horretan diraute kartzela-esparruan. Modu orokorrago batean, kartzelak emakumeen osasunari kalte egiten diola esatea emakumeen kartzeletako osasun-arreta kritikatzea da; ildo horretan, legezko eskubideen eta giza eskubideen aldeko erakundeek luze eta zabal dokumentatu dituzte emakumeen kartzeletako baldintzak. Baina, era berean, beharrezkoa da galderak egiten segitzea osasun-arretaren baldintzetan aldaketa esanguratsu bat egotea eragozten duen inertziaz, are onartzen delarik ere aldaketa hori beharrezkoa dela. Adibidez, zergatik entzuten dira oraindik ere sexu-abusuen salaketak emakumeen kartzeletako erregimen medikoetan? Zergatik kexatu dira emakumeak hainbat hamarkadatan langile mediko kualifikatuak izateko zailtasunaz? Galdera horiei erantzuteko, kontuan hartu behar da kartzela praktika zaharkituen gune bat dela, toki bat non zenbait praktikak bigarren bizitza bat izaten baitute, are gizartearen gehiengoak alboratuak dituenean ere.

«Mundu askeko» haur eta familia batzuegan, eragin samingarria du emakumeen espetxeratzeak, zalantzarik gabe. Kartzelan dauden emakumeen % 80k bazituzten haurrak kartzelan sartu aurretik, eta haien zaintzaile nagusiak ziren.²⁶⁰ Koloreko emakumeen kopuru handi bat ezabatzean, eta, era berean, ko-

260 Joanne Belknap, *The Invisible Woman: Gender, Crime, and Justice* (Belmont, CA: Wadsworth Publishing, 1996).

loreko gizon espetxeratuen kopuru asalagarriarekin batera, komunitate pobreetan asko igartzen da familiak sostengatzeko ahalmena higitzen dela, familia mota gorabehera.²⁶¹ Amak atxilotzen dituztenean, behin-behineko harrera-zerbitzuen esku geratzen dira haien seme-alabak, eta, lege berrien eraginez –adibidez, Adopzioaren eta Familia Seguruen Legea, 1997koa–, adopzioan uzten dira haïetarik asko. Sistematikoki eteten da amarekiko eta oro har familiarekiko lotura oro. Askotan, prozesu horren ondorioz, gazteentzako atxiloketa-zentroetara eramaten dituzte haurrak, eta, handik, helduen kartzeletara. Gizarte-laguntza erreformatuaren arau berrien ondorioz, aske geratu ondoren beren seme-alabekin elkartzeko diren emakumeek are zailtasun gehiago dute, preso ohiek ezin baitute jaso dirulaguntza publikorik, ezta etxebizitzarako laguntzarik ere. Emakume preso ohiei gizarte-zerbitzuetarako eskubideak ukatuta –eta neurri horrek lotura du estatu askotan aplikatzen den neurri batekin, hots, preso ohiak beren eskubide politikoez gabetzearekin–, berez, emakume horiek kartzela-sistemara itzularazten dira berriz. Horra kartzela-industria konplexua erreproduzitzeko moduetako bat.

Sexu-jazarpena eta -abusua

Kartzela-kudeatzaileek bultzaturiko kanpaina ustez «feministak» kaltegarriak izan dira kartzelan dauden emakumeentzat. Genero-berdintasun formalak ezinbestean emakumeentzako baldintza hobekak dakartzala dioten suposizioak talka egiten du azkenaldian emakumeen kartzeletako arkitektura, erregimenak eta enpleguak egokitzeko zabaltzen ari den ereduarekin, zeinak gizonenari jarraitzen baitio. Gaur egun, adibidez, armadorreak ipintzen dira emakumeentzako segurtasun goreneko unitateetan, gizonen unitateen berdinak izan daitezten. Kartze-

261 Gaur egun, bi milioi lagun inguru daude estatu-kartzelatan, kartzela federaletan eta konderrietako presondegietan. Justizia Estatistikaren Bulegoaren arabera, gutxi gorabehera haien erdiak beltzak dira. 1990ean, kartzelan, zaintzapean aske edo baldintzapean aske zeuden estatubatuarren gaineko azterketa bat argitaratu zuen Washingtongo The Sentencing Project erakundeak, eta hartan ondorioztatu zuen multzo horietakoren batean zeudela hogeï urtetik hogeïta bederatzira arteko lau gizon beltzetik bat. Handik bost urtera, bigarren azterketa batek argitaratu ekarri zuen hirutik ia batera altxatua zela ehuneko hori (% 32,2). Gainera, adin-tarte bereko hamar gizon latinotik bat baino gehiago zeuden kartzelan, zaintzapean aske edo baldintzapean aske.

lazain gizonak kontratatzen dira, eta kartzelazain horiek une oro ikus ditzakete emakumeen ziegak eta dutsak, baita arropaz aldatzen ari direnean ere. Horrek guztiak sexu-abusuetarako giroa sortzen du. AEBko emakume-kartzeletan, emakume preso bakoitzeko bi enplegatu gizon daude, eta, batzuetan, baita hiru ere. Desberdintasun horrek, bere horretan, ez du zertan abusurik ekarri; baina, nolanahi ere, kartzelaren kudeaketak eta kulturak sexu-abusurako ingurune aparta sortzen dute.

Partez eredu gero eta errepresiboagoengatik, partez emakumeen kartzelak babesten eta sostengatzen dituzten ideologia sexista eta arrazista gero eta hedatuagoengatik, sexu-abusua eta -jazarpena ohikoak izateak terrorezko giroa sortzen du. Emakume presoek hainbat eta hainbat abusu identifikatu dituzte; besteak beste, honako hauek: miaketa desagokiak (gizon kartzelazainek emakumeak miatzea eta ukituak egitea), emakume biluzien miaketa ilegalak (gizon kartzelazainak emakumeei begira egotea biluzik miatzen dituzten bitartean), komentario eta keinu lizun etengabeak, pribatutasun-eskubidearen urraketak (gizon kartzelazainak emakumeei begira egotea dutsan eta komunean dauden bitartean), eta, batzuetan, sexu-erasoak eta bortxaketak.²⁶²

Giza eskubideen nazioarteko arauen arabera, atxilotuta dagoen emakume bat bortxatzea torturazko ekintza bat da. Horrez gain, pribatutasunerako eta giza duintasunerako eskubideen urraketa jasota dago Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean. Giza eskubideen aldeko erakundeek azkenaldian eginitako zenbait azterketatan egiaztatu da AEBko kartzeletan ohikoa dela nazioarteko arauok urratzea. Giza Eskubideen Behatokiak, esate baterako, argitara ekarri zuen sexu-abusuak presoen ustezko sexu-orientazioarekin lotuta egoten direla maiz.²⁶³ Praktika medikoekin ere izaten du zerikusia sexu-abusuak askotan. Kaliforniako kartzeletako emakume anitzek adierazi dute behar-beharrezko tratamendu medikoak saihesten dituztela, gizon medikuek azterketa pelbiko desagokiak egitera behartuko dituz-

262 NBEko emakumeen aurkako indarkeriaren errelatore berezia, *Report of the Mission to the United States of American on the Issue of Violence against Women in State and Federal Prisons* (New York: NBEren Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, 1999), 12-14.

263 Giza Eskubideen Behatokia, *All Too Familiar: Sexual Abuse of Women in U.S. State Prisons* (New York: Giza Eskubideen Behatokia, 1996).

ten beldur, beren sintomak gorabehera.²⁶⁴ Nolanahi ere, sexualki jazarritako emakume oso gutxi salatzen dizkiete halako gora-beherak kartzelako autoritateei, ez bakarrik enplegatu jazarleak gutxitan zigortzen dituztelako, baizik eta baita errepresaliak jasotzearen beldur direlako ere.

Sexu-jazarpena eta -abusua kartzela-teknologia berriekin ere lot liteke. Esate baterako, «segurtasun goreneko unitate» gero eta ugariagoetan, emakume presoak beren ziegan bakartuta atxikitzen dituzte egunean 23 edo 24 orduz, eta horrek are ahulago uzten ditu sexu-eraso eta -jazarpenak gertatzen direnean. Elkarritzeta juridiko batean, Regina Johnsonek –36 urteko emakume afro-amerikarra, Valleyko Emakume Kartzelako segurtasun-unitatean giltzapetua, Chowchillan, Kalifornian– salatu zuen bularrak erakutsi behar izan zizkiola gizon kartzelazain bati, beharrezkoak zituen higiene-produktuak eskuratzeko.²⁶⁵

«Segurtasun goreneko» egituretan, ohikoak dira «ziega-ateraldiak»: presoak ziegatik atera aurretik, hura lotu –normalki–, eta biluzik miatzen dute. Ziega-ateraldietan gizon kartzelazainek parte hartu ohi dutenez –nahiz emakume kartzelazainak ere egoten diren–, sexu-abusuak gertatzeko aukera benetan ohargarria da.

Arizonako estatuan, Maricopa konderriko sheriffak bideo-kamerak ipini ditu konderriko emakumeen atxiloteta-zentroko atxikitze- eta miatze-ziegetan, eta Interneten zabaltzen ditu ziega horietan dauden emakumeen irudiak, zuzenean.²⁶⁶ Onartezina da era horretako monitorizazio likitsak egitea atxilotze-guneetan, baina bereziki kezagarria da halakoak atxiloteta-zentroetan erabiltzea; izan ere, emakume horietako asko epaiketaren zain dauden atxilotuak dira, hau da, ez dira inongo krimenen erruduntzat joak izan, eta, horrenbestez, ez dute inongo zigorrik jaso behar.

Sexualitatearen gaineko kontrola

Emakumeen aurkako sexu-jazarpen mota hau, «kriminalari gogor» egiteko mozorroaren pean, kartzeletan emakumeak

264 Nightline, *Crime & Punishment: Women in Prison: Medical Care*, 1999ko azaroaren 2a.

265 Regina Johnsoni eginiko elkarritzeta juridikoa, 1998ko martxoaren 3a, Valleyko Emakume Kartzela.

266 Kartzelako zuzeneko kamera, 2001eko maiatzaren 23a, www.crime.com.

eta haien sexualitatea sexu-indarkeriaren bidez kontrolatzen saiatzeko ezin konta ahal moduen adibide bat da. Kartzelako ingurune sexualizatuan, kartzelazainek eta kartzelako enplegatuek aise galtzen dute emakumeei sexu-abusuak egiteagatik zigortuak izateko beldurra. Era berean, emakumeen sexualitatea kontrolatzen eta zigortzen da, bai kartzelan, bai kartzelatik kanpo. Emakume kopuru adierazgarri bat sartzen da kartela-sisteman sexu-praktiken kriminalizazioaren ondorioz. AEBko jurisdikzio gehienetan, milaka emakume pobre atxilotzen eta zigortzen dituzte sexu-lanaren aurkako legeen karietara. Mai-zenik atxilotzen dituzten langileek kalean egiten dute lan, eta ez gune antolatuetan (burdelak, prostituzio-etxeak edo konpainia-zerbitzuak). Kaleko langileak dira atxiloketa-zentro batean bukatzeko aukera gehien dutenak –gehien-gehienak koloreko emakumeak–. Zenbait estatutan, «prostituzio-delituak» egozten zaie GIB-seropositiboak direla badakiten sexu-langileei, eta lau urteko zigorra jasotzen dute gutxienik. Sexu-lanaren kriminalizazioak kartzela-ziklo bat eratzen du: emakumeak atxilotu, kartzela-zigorra ezarri, eta, sarritan, isun eta epaiketa-tasa handiak ordaindu behar dituzte, eta, gero, kalera halabeharrez itzuli, eta berriz atxilotzen dituzte.

Emakumeen sexualitatearen kriminalizazioa adin goiztiarretan hasten da; hala, neskatoak dira gazteen justizia-sisteman gehien hazten ari den populazioa. Gehienetan, «estatus-delituak» leporatuta atxilotzen dituzte neskatoak; esate baterako, eskolara huts egitea, adingabeek alkohola edatea, etxeratze-agindua ez betetzea, ihes egitea eta prostituitzea. Mutikoek aukera gutxiago dute era horretako jokabideengatik atxilotuak izateko; alegia, genero-arrakala agerikoa da, baina, nolanahi ere, arrazaren arabera erabakitzen da zer neskato eramanen dituzten gazteentzako zentro batera. Kartzela-sisteman bezalaxe, koloreko komunitateek neurriz gaineko tokia hartzen dute gazteen justizia-sisteman. Ameriketako Estatu Batuetako gazteen atxiloketa-zentroetako neskatoen ia erdiak afro-amerikarrak dira, eta % 13, berriz, latinoak. Neskato zuriek parte hartzen duten hamar kasutik zazpi artxibatuta geratzen dira; neskato afro-amerikarrei dagokienez, aldiz, hamar kasutik hiru soilik

gaitzesten dira.²⁶⁷ Gazteen krimen-indizeak –bereziki krimen biolentoarenak– behera egin duen arren 1994az geroztik, gero eta neskato gehiago sartzen dituzte kartzelan.²⁶⁸ Koloreko neska-toak atxiki eta gazteen atxiloketa-zentroetara eramán eta gero, emakumeen kartzeletan giltzapetzen dituzte; alegia, kartzelan dauden emakume gehien-gehienak kartzela-sisteman egonak dira neskatotán. Kartzelatik kanpo emakumeen sexualitatearen gainean dagoen tema, zeinak emakumeen kriminalizazioa baitakar maiz, larriagotu eta nabarmenagotu egiten da kartzela barruan. Kartzelazainek eta kartzelako enplegatuek emakumeen aurkako sexu-abusuen bitartez sexualizatzen dute kartzela-es-parrua, eta, halaxe, emakume presoak kriminal gisa sailkatu, eta, gainera, sexualki eskuragarri ere paratzen dituzte.

1966an Rose Giallombardoren *Society of Women: A Study of a Women's Prison* argitaratu zenetik gutxienez, emakumeen kartze-len ezaugarri nabarmenena zera da, emakumeen arteko harreman intimo eta sexuala. Alta, mundu askean baino sistematikotasun handiagoz kontrolatzen da heterosexualitate-presuntzio ideolo-gikoa. Emakumeen kartzeletan badira «homosekzioaren» aurkako arauak –sexu bereko presoen artean sexu-praktikak izateari erreferentzia egiteko erabiltzen da termino hori kartzele-tan–. Kartzela-erregimenekin loturiko arrazakeria eta sexismoa elkarrekin gurutzatzen dira koloreko emakumeak izaki hiperdes-bideratuak balira bezala eraikitzeke orduan, eta heterosexismoa eransteak esan nahi du koloreko lesbianek arrisku hirukoitz bati aurre egin behar diotela. Valleyko Emakume Kartzelako lesbiana-bikote latino batek elkarrizketa batean salatu zuen maskulinitzat hartzen diren presoak hitzez jazartzen dituztela gizon kartzelazainek eta, batzuetan, baita fisikoki eraso egin ere; femeninitzat hartzen direnei, berriz, sexualki jazartzen zaiz-kie kartzelazain horiek berak.²⁶⁹ Generoaren araberrako jazarpén mota horrek agerian uzten du genero-identitatea zorrotz kontro-latzen dela kartzeletan.

267 American Bar Association eta National Bar Association, *Justice by Gender: The Lack of Appropriate Prevention, Diversion and Treatment Alternatives for Girls in the Juvenile Justice System* (Washington, DC: ABA eta NBA, 2001).

268 American Bar Association eta National Bar Association, *Justice by Gender*.

269 Maria Garciari eta Gina Mendozari eginiko elkarrizketa juridikoa, 1998ko urriaren 20a, Valleyko Emakume Kartzela.

Emakumeen kartzelak eta immigrazioaren aurkako kanpainak

Ameriketako Estatu Batuetako emakume immigranteak ezin konta ahal moduetara kontrolatuak eta zigortuak dira. Immigranteen komunitateen aurkako kanpaina arrazista eta xenofoboek –bereziki Mexikoko eta Erdialdeko Amerikako eta, gero eta gehiago, Asiako herrialdeetako jendearen aurkakoek– immigranteak kriminalizatzea, AEBren eta Mexikoren arteko muga militarizatzea eta Immigrazio eta Naturalizazio Zerbitzua (INS) gero eta gehiago kartzela-sistemaren adar bat izatea hauspotu dute.

INSk tokiz aldatua du fokua, Ameriketako Estatu Batuetan aterpea eskatzen duten immigranteei zerbitzuak emateari utzi eta gizabanakoak «atzerritar ilegal» gisa sailkatzen eta atxilotzen hasi baita, eta, hala, kartzela-industria konplexuaren osagai esanguratsua da gaur egun. Askotan, immigranteek Ameriketako Estatu Batuetara jotzen dute enpresa globalek beren herrialdeetan eragindako ezegonkortasun ekonomikotik ihesi. Enpresa horiek, gainera, Ameriketako Estatu Batuetan izan ohi dute maiz beren egoitza nagusia. INSren atxiloketa-zentroen etekin potentzialak agerian uzten du zer potentzial duten estatu-kartzelek eta kartzela federalek enpresentzat eta estatu-erakundeentzat. Esate baterako, INSk espazioa errentan ematen du kartzela publiko eta pribatuak kokatzeko, baita konderrietako atxiloketa-zentroak ere, eta, askotan, estatu-gobernuak ohe berberen truke ordainduko lukeena halako bi ordainduta.²⁷⁰

Immigranteen eskubideen eta giza eskubideen aldeko erakundeek oinarritzko giza eskubideen urraketak dokumentatuak dituzte INSren atxiloketa-zentroetan: immigranteak atxiloturik atxikitzea denbora ikaragarri luzean –batzuetan, baita urteetan ere–, oinarritzko tratamendu medikoa ukatzea eta ziegako lurzorua gainean lo egitera behartzea.²⁷¹ Bestalde, INSk estatu-sistemetan erosten ditu atxilotuentzako espazioak, eta horrek esan nahi du beren baldintzak direla-eta auzitan diren estatu-kartzeletan eta atxiloketa-zentroetan kokatzen direla askotan atxilotuak. New Orleanseko Distrituko Kartzelan (Louisiana), esate baterako,

270 Michael Welch, «The Role of Immigration and Naturalization Service in the Prison-Industrial Complex», *Social Justice* 27, 3. zk. (2000): 73-88.

271 American Civil Liberties Union Immigrant Rights Project, *Justice Detained: Conditions at the Varick Street Immigration Detention Center* (New York: ACLU, 1993); Giza Eskubideen Behatokia, *Letter to INS Commissioner Doris Meisner* (New York: Giza Eskubideen Behatokia, 2000).

emakume presoen aurkako sexu-abusuengatik auzitan den atxiloteta-zentro batean sartzen dituzte emakume atxilotuak.²⁷²

INSrako immigranteak jasotzeaz gainera, AEBko estatu-kartzelek eta kartzela federalek zeregin garrantzitsua betetzen dute beste herrialde batzuetako emakumeen kriminalizazioan eta zigorrean. Kartzela federaletan, adibidez, atzerritarrak dira presoen % 30,²⁷³ eta haietariko asko, gainera, zigor luzeak betetzen ari dira, «drogaren aurkako gerraren» ondorioz. Bestalde, emakume preso horietako asko deportatu egiten dituzte kartzela-zigorra amaitzean. Populazio immigrante handiena duten estatuetan, xenofobia eta kriminalizazioa gurutzatzean sortzen diren dilemei aurre egin behar diete maiz estatu-sistemako presoek. Kalifornian, kasu baterako, Sylvia Rodríguez hiltzorian zen kartzelan, metastasi-minbizi baten kausaz; baina, haren defendatzaile juridikoek lortu izan balute hari errukizko askatasuna ematea, deportazioari aurre egin beharko zion.²⁷⁴ 67 urte zituen, eta 9 zituela etorria zen Ameriketako Estatu Batuetara, Filipinetatik. Bere jatorrizko herrialdean ez zuen inor ezagutzen, eta gaixotasun terminal batek jota zegoen; INSk, ordea, ez zion ziurtatzen etxera itzultzen utziko ziotenik, bere familiarekin, hil aurretik. Bere askatasunaren alde borrokatu bitartean hil zen, estatuaren zaintzapean.

Emakume presoen erronka juridikoak

Azken 30 urteetan, presoek bertatik bertara ikusi dute nola higatu diren zigor-sistemaren gehiegikerien aurka ustez babesa ematen dieten legeak. Ameriketako Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak sistematikoki suntsitu ditu presoek eskubide zibilen babesak, eta presoentzat kasik ezinezkoa da frogatzea beren aurkako tratu txarrekin AEBko Konstituzioko Zortzigarren Zuzenketaren urratzen dutenik, nahiz xedapen horrek berez «zigor krudel eta ezohikoen aurka» babesten dituen. Presoek justiziarako duten sarbideari kalte egiten dieten auzitegi-erabakiez gainera, AEBko Kongresuak ere nabarmen murriztu ditu presoek babes juridikoak. 1996an, Kartzela Auziak Erreformatzeko Legea

272 Welch, «Role of Immigration».

273 Kartzela Bulego Federala, «Quick Facts: April 2001», <https://www.bop.gov/fact0598.html#Citizenship>, 2001eko ekainaren 1ean kontsultatua.

274 Justice Now-ren bezeroa zen Rodríguez.

(PLRA) onartu zuen biltzar lege-gileak, ia aurkakotasunik gabe, eta, haren ondorioz, presoek eta haien defendatzaileek oztopo ia gaindiezinak aurkitzen dituzte epaitegietara konponbide bila jotzen dutenean.

PLRAren xedapen zailenetako baten arabera, presoek «eskura dituzten konponbide administratiboak agortu» behar dituzte epaitegien laguntza eskatu aurretik. Eskakizun horrek ez du kontuan hartzen kartzelak presoei sistematikoki ukatzen dizkiela agentzia eta oinarritzko giza eskubideak. Beraz, eskakizun hori bete behar duten emakumeei lotura bikoitza ezartzen zaie. PLRAk xedatzen du ezen, tartean prozeduraren bat baldin badago, presoek frogatu behar dutela betetzen dituztela prozedura horren eskakizunak, nahiz prozedura akastuna izan. Kalifornian, adibidez, emakume batek salaketa bat egin nahi badu norbaiten kontra, lehenbizi erreklamazio-orri bat bete behar du pertsona horrekin batera (izan daiteke sexu-eraso bat egin dion kartzelazain bat edo tratamendua ematen dion mediku bat, adibidez), eta, gero, salaketaren atzetik ibili, hainbat berrikuspen fasetan. Emakume anitzek adierazi dute lehen fasean aurkeztu eta gero ez dutela sekula gehiago izan salaketaren berri; beste batzuek, kartzelazainek beren aurrean puskatu izan dituztela beren salaketak. Nolanahi ere, prozesua alferrikakoa izan arren eta gehienetan gaizki atera arren, kontua da emakume batek ezin duela salaketarik aurkeztu epaitegietan prozedura osoa bete gabe.

Prozesuak kartzelan dauden emakumeenganako abusua ezkututzen eta betikotzen du. Kartzela-esparrua gero eta errepre-siboagoa izanik, kartzela-auzien «erreforma» delakoa baliatzen da kartzelako giza eskubideen eta eskubide juridikoen urraketa larriak ukatzeko, kartzelan dauden emakumeen sufrimendua areagotzeko eta kartzela-industria konplexuaren hedapena bultzatzeko. Ondorioz, Ameriketako Estatu Batuetako –mundu «aske» horretako– emakume espetxeratuak ez dira askeak eta ezin dute eskatu nazioarteko arauen arabera oinarritzko eta ezin-besteko giza eskubidetzat hartzen den konponbide juridikorik.

Aldaketarako antolatzea

Beren itxialdiaren baldintzak zalantzan jartzean izaten dituzten oztopo handiak oztopo, emakume presoek bide ugari aurkitzen dituzte eraginkortasunez antolatzeko eta espetxeara

ren bidegabekerien aurka jotzeko, batik bat metodo juridiko tradizionalen bidez. Estatu askotan, emakume presoek sare formal zein informalak antolatzen dituzte askotariko gaiei buruz informazioa eta sostengua emateko, hala nola osasun-prebentzioa eta -tratamenduak, haurren zaintza, lan-baldintzak eta lege-eskubideak. New Yorken, Bedford Hills kartzelako emakumeek HIESari buruzko aholkularitza- eta heziketa-programa bat (ACE) antolatu zuten, kartzelan dauden emakumeei GIBaren eta HIESaren prebentzioari eta tratamenduari buruzko heziketa eta sostengua emateko. Kalifornian, GIBaren eta C hepatitisaren kartzelako hedapenaren aurka antolatu dira berdin arteko hezitzaileak, eta osasun-arretari buruzko informazioa eskaini dute hainbat osasun-arazori buruz. Horrez gain, emakume presoek auzi indibidual zein kolektiboak abiarazi dituzte beren lege-eskubideak eta giza eskubideak babestu ditzatela eskatuz. Washingtonen, Massachusettsen eta Michiganen, adibidez, zenbait emakumek demandak jarri zituzten estatu-kartzeletako sexu-abusu sistemikoen kontra, bai eta irabazi ere. 2000ko urriko entzunaldi juridikoek mugarri bat ezarri zuten, Kaliforniaren historian lehenbizikoz lortu baitzuten epaiketak kartzelan bertan egitea eta presoak lekuko nagusiak izatea epaiketa horietan. 20 emakume inguruk beren lekukotasuna eman zuten bi instituziotan, gai hauei buruz: arduragabekeria medikoa, sexu-erasoak, emakumeen aurkako tratu txarrak eta emakumeak beren seme-alaba eta familiengandik banantzea. Lekukotasun haiei esker, bi lege-proposamen aurkeztu ziren Kaliforniako biltzar legegilean, eta baliteke eragin handia izatea Kaliforniako kartzeletako osasun-arretan.

Emakume presoen defendatzaileek kartzela-industria konplexuari aurre egiteko esparru zabalago baten barrenean kokatzen dituzte beren gatibutza-baldintzak hobetzeko ahaleginak. Giza eskubideen tresnak baliatzen dituzte giza eskubideen ukazio sistematikoa –zigorraren gaur egungo korporatibizazioak larriagotua– agerian jartzeko. Dena den, lan horren helburu estrategikoa ez da kartzela hobeak sortzea, baizik eta kartzelak abolitzea; izan ere, beste instituzio batzuek heldu behar lieketen arazo sozial andanaren konponbide nagusiak balira bezala funtzionatzen dute kartzelek. Testuinguru horretantxe ari dira sortzen kartzelaren hedapenak sustatzen duen arrazakeriari

aurre egiteko erronka garrantzitsuenak. Kalifornian, esate baterako, zenbait talde lankidetzan ari dira, kartzelako emakumeekin eta emakumeentzat lan egiteko ikuspegi erradikalagoak garatu nahian. Justice Now erakundeak aktiboki dihardu kartzelako emakumeenganako indarkeriaren eta indarkeria horrek kartzela-industria konplexuarekin dituen loturen aurka; horretarako, ikasleak, ahaideak eta komunitateko kideak trebatzen dituzte Kaliforniako emakume presoek zuzeneko zerbitzuak emateko, eta, horrez gain, hezkuntza-, hedabide- eta politika-kanpainak antolatzen dituzte komunitatea oinarri harturik. California Coalition for Women Prisoners taldeak kanpaina aktibistak antolatzen ditu emakume presoekin eta emakume presoentzat, baldintza gizagabeen gaineko kontzientzia astintzeko eta aldaketak positiboen alde egiteko. Legal Services for Prisoners with Children taldeak zerbitzu juridiko zibilak ematen dizkie emakume presoek, sostengua presoen ahaideek, eta presoen jatorrizko komunitateak antolatzen laguntzen du. California Prison Focus-ek Kaliforniako kartzeletako giza eskubideen urraketak ikertzen eta agerian jartzen ditu, bereziki segurtasun-unitateetan eta segurtasun goreneko kartzeletan. Erresistentzia Kritikoak (CR) nazio mailako kanpainak antolatzen ditu, kartzela-industria konplexuaren analisiaren esparruan kokatuta, azpimarra arrazaren, generoaren eta klasearen gurutzaketan jarrita. Kanpaina horietan, jendea bestelako gizarte-paisaiak irudikatzeraz gonbidatzen du CRk, estatu-zigor nonahikoaren ordezkuntza askea, osasun-arreta, droga-errehabilitazioa eta etxebizitza eta lanpostu duinak ikustera.

Kanpaina nazionalak abiada handian garatuz doaz Ameriketako Estatu Batuetan, beraz. Horrez gain, NBERen Arrazakeriaren, Arraza Diskriminazioaren, Xenofobiaren eta orobat Intolerantziaren Mundu Konferentziak aukera bikaina eskaintzen du munduko beste toki batzuetako erakundeekin esperientziak partekatzeko eta haiengandik ikasteko. Garrantzi handiagoa eman behar genioke kartzela-industria konplexuak eta haren ondoriozko genero-arrazakeriaren ugaritze azkarak mundu zabalean duen hedadurari. Bereziki inportantea da ikustea garatzen ari den ekonomia politiko globalaren osagai esanguratsu bat dela zigor-industria. Ekintzarako gomendio orokor gisa, beraz, nazioarteko sareak sortu behar dira kartzela-

laren eta arrazakeriaren arteko lotura aitortzen duten eta orobat emakume presoek zerbitzu ematearen lan garrantzitsua esparru antikorporatibo eta antirrazista sendo batean kokatzen duten erakundeen artean.

Ekintzarako beste gomendio batzuen artean, droga-konsumoa despenalizatu eta droga-errehabilitaziorako doako programak ezarri behar dira, justizia penaleko agentzia eta prozeduretatik at. Hori beteko balitz, nabarmen jaitsiko litzateke kartzelan dauden emakumeen kopurua. Kartzela-zigorrak gutxitzeko estrategiekin batera, beharrezkoa da kartzela publiko eta pribatu gehiago eraikitzea saihesteko kanpaina lokal zein transnazionalak antolatzea. Estatu-gobernuak, gobernu federalak eta baita gizabanakoak ere emakume presoen aurkako sexu-abusu eta -jazarpenen errudun egiteko legeak behar dira. Giza eskubideen arauekin bat eginez, emakumeen ugalketa- eta familia-eskubideak segurtatu behar dira. Horretarako, legea be-tearazteko boterea duten batzorde zibilak sortu behar lirateke, emakume presoen kexak jaso eta aztertzeke, bereziki axolagabekeria medikoarekin, diziplina bidegabearekin eta sexu-abusuekin loturikoak. Oro har, zabalkunde handiagoko kanpainak behar dira, bai hezkuntzan, bai hedabideetan, emakumeen kartzelek mundu guztian misoginia, pobrezia eta arrazakeria betikotzeko jotatzen duten rol nagusiaren gaineko kontzientzia hedatzeko eta sakontzeko.

5. ZATIA

**EMAKUME
ESPETXERATUAK:
HERBEHEREAK,
AMERIKETAKO ESTATU
BATUAK ETA KUBA**

HAMAR

KARTZELAKO EMAKUMEAK: ARRAZARI BURUZKO IKERKETA BAT HIRU HERRIALDETAN (ANGELA DAVIS ETA KUM-KUM BHAVNANI)²⁷⁵

Kartzelako emakumeen populazioa izugarri handia, ikusezina eta isilarazia da. Kapitulu honetan, Ameriketako Estatu Batuetako, Herbehereetako eta Kubako ehundik gora emakume presori eginiko elkarriketen gaineko ikerketa baten berri ematen dugu. Lankidetza-ikerketa honetan, emakumeen aurkako askotariko bazterkeriak arbuiatu ditugu, bereziki arrazakeria, emakumeak ikusezin egiten eta isilarazten dituen heinean. Era berean, ez dakusagu guztiz garbi ea presoek –batez ere koloreko emakume presoek– ikerketaren xede betierekoa izan behar ote duten. Gure ikerketan, auzi berriak planteatzeko erabili ditugu emakume presoek beren espetxeratze-baldintzez dituzten ikuspegiak, eta ikuspegi horien arabera zehaztu dugu, azkenean, gure lanaren norabidea.²⁷⁶

Jakin nahi dugu ea nola esplikatzen duten emakume presoek eta emakume preso ohiek gero eta emakume gehiago egotea zigor publikoen mende, kontuan izanik batik bat esparru pribatuan zigortu izan dituztela emakumeak historikoki. Orobat jakin nahi dugu zenbateraino eragiten dieten arrazakeriaren aurkako gizarte-mugimenduen kontradiskurtsoek emakume presoek arrazakeriak kartzela-praktiketan duen eraginaz esplizituki teorizatzeke orduan. Koloreko emakume ikertzaileak gara biok –bata hego-asiarra eta bestea afro-amerikarra–, eta urte as-

275 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *Racing Research, Researching Race: Methodological Dilemmas in Critical Race Studies*, arg. France Winddance Twine eta Jonathan W. Warren (New York University Press, 2000), 227-245.

276 Ikus Kum-Kum Bhavnani, *Talking Politics: A Psychological Framing for Views from Youth in Britain* (Cambridge: Cambridge University Press, 1991). Ikus, bereziki, 3. kapitulua.

koan parte hartu dugu Britainia Handiko eta Ameriketako Estatu Batuetako mugimendu antirrazistetan. Hori hala izanik, gure herrialdeetako aktibismoan bizi izan ditugun esperientzietan oinarritu ditugu gure ikuspegiak, baita gure ikerketa akademikoa aldaketa sozial erradikal baterako estrategiekin uztartzeko aukerak konpromisoan ere. Gure ikerketaren abiapuntua zera da, kartzela neurritz gain erabili dela arazo sozial jakin batzuei heltzeko eta horrek krisi handi bat ekarri duela, eta horrenbestez egokiagoa litzatekeela arazok zigorra helburu ez duten instituzioen bidez konpontzea. Alegia, gure lanak bat egiten du politika publikoa eraldatzeko esfortzuekin eta kartzelaren aurkako erresistentzia-diskurtso publiko berri batean emakume presoak txertatzeari garrantzia ematen dioten estrategia aktibistekin, eta ez hainbeste talde gutxietsi bati *buruz* ezagutza sortzeko ohiko ikerketa-plangintzekin.

Emakumeak espetxeratzeari buruzko ikerketa hau eta ikertzaileak garen aldetik aukerak eginkizuna kontzeptualizatzeko, kontuan hartu ditugu gure jatorri arrazializatuak, baita gure ibilbide aktibista definitzen duen testuinguru politikoa ere. Gure kezketako bat zen –eta hala da oraindik ere– ea ba ote den aukerarik arraza-mugez gaindi aliantza feministak eraikitzeko. Kum-Kum Bhavnanik Britainia Handiko langile-mugimenduan, mugimendu feministan eta kartzelaren aurkako aktibismoan parte hartu zuen 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, «beltz» kategoria politikoki Afrikako, Asiako eta Ekialde Hurbileko jatorriko herritarrak biltzeko definitzen zen garaian; Angela Y. Davis, aldiz, «koloreko emakume» kategoriaren inguruan ardazturiko hainbat kanpainatan ibili zen garai bertsuan, emakume amerikar natibo, latino, afro-amerikar eta asiatar-amerikarrei eragiten zieten auzi politikoen arloan (ez nahitaez arrazarekin loturiko auzietan). Elkarrizketatuko genituen emakume presoen taldeak irudikatzean, ez genituen arraza-talde jakin batzuk ezarri jopuntuan; aitzitik, kartzela-praktiken arrazializazioa hartu genuen kontuan, orokorrean, betiere jakinik praktika horiek alimaleko eragina dutela koloreko emakumeengan eta emakume zuri po-breengan. Askoz gehiago interesatzen zitzaigun aztertzea zer ikuspegi kritiko dituzten emakumeek kartzela-sistema arrazializatu eta sexisten gainean eta nola lagundu dezaketen estatuaren rola desmitifikatzen, *banakoak* eta banako horiek identifikatzen

diren arraza-taldeekin zer lotura dituzten ikertzea baino. Gure proiektua esparru demokratiko batean kokatzen saiatu gara, ikerketaren eta aktibismoaren arteko mugak malgutzeko egiten ari garen ahaleginaren erakusgarri.

Arrazoi jakin batzuentatik aukeratu genuen gure elkarriketak hiru herrialdetan egitea. Lehenik, AEBko sistema penala da hobekien ezagutzen duguna, eta kezkarria iruditzen zaigu generoak berebiziko garrantzia izatea kartzela-industria konplexuaren sorreran: gero eta emakume-kartzela gehiago dago, eta, horrenbestez, kartzelako errepresioa areagotu egin da. Ameriketako Estatu Batuetan, beste edozein herrialde kapitalistatan baino puskaz handiagoa da presoek *per capita* kopurua.²⁷⁷ Bigarrenik, Herbehereetan, kontuan izanda presoek kopurua nabarmen gora doala historian lehenbizikoz, *per capita* espetxeratze-indize baxuenetako bat daukate gaur egun, eta, historian zehar, erreforma penal aurrerakoiak ezarri izan dituzte.²⁷⁸ Mendebaldeko beste herrialde kapitalisten aldean, espektoaren beste muturrean daude, beraz, Herbehereak. Azkenik, Kuba hautatu genuen herrialde kapitalistetako emakumeentzako erregimen penalen eta erregimen penal sozialisten arteko desberdintasunak identifikatzeko asmoz, baldin eta halakorik badago. AEBko emakume presoek buruzko ikerketa premisa honetatik abiatu genuen: hein handi batean, arrazaren arabera erabakitzen da nor joanen den kartzelara eta zenbat denbora emanen duen burdin barren atzean. Bestalde, arrazak beste bi herrialdeetan zenbateko garrantzia duen ere aztertu dugu.

Esan dezagun, bestalde, gure ikerketarako oztopo eta aldi berean lagungarri izan dela Angela Y. Davis preso politikoa izatea 1970eko hamarkadaren hasieran eta aktibista politiko ezaguna izatea nazioartean. Izan ere, gure ustez, Angela preso ohia eta kartzelaren aurkako aktibista ezaguna zelako ez ziguten utzi Kaliforniako Emakume Institutziara (CIW) sartzen. Aurrerago azalduko dugun bezala, San Frantzisko Konderriko Kartzelara aldatu genuen elkarriketak egiteko tokia, CIWko kartzelaburuak

277 Elliott Currie, *Crime and Punishment in America* (New York: Metropolitan Books, 1998), 16.

278 Willem de Haan, *The Politics of Redress, Crime, Punishment and Penal Abolition* (Londres: Unwin Hyman, 1990), 37. Ikus orobat Willem de Haan, «Abolitionism and the Politics of "Bad Conscience"», in *Abolitionism: Toward a Non-Repressive Approach to Crime*, arg. Herman Bianchi eta Rene van Swaaningen (Amsterdam: Free University Press, 1986), 158.

sekula ez zigulako eman kartzelara sartzeko baimenik. Beste alde batetik, baina, Herbehereetako emakume-kartzelako zuzendaria kartzela-aktibista zen, eta bazekien Angela preso politiko ohia zela eta presoan eskubideen alde jarduten zuela. Horrek nabarmen erraztu zigun gure ikerketa haren ikuskaritzapean zegoen kartzelan egitea. Kubako emakume-kartzelan, berriz, Angelak Kubako Emakumeen Elkartearekin zeuzkan harreman historikoei esker sartu ginen, preso egon zelarik parte-hartze esanguratsua izan baitzuen elkarte horrek haren askatasunaren aldeko kanpainan.

Angelak preso politiko ohi gisa izandako bizipenak eta historia lagungarri izan zitzaizkigun Herbehereetako eta Kubako kartzeletara sartzeko; baina, aldi berean, Angela ikertzaile nagusitzat hartzen zuten batzuetan kartzelako enplegatuek, eta hori ez zettorren bat gure ikerketa-harreman parekideari. Argi utzi genuen ikertzaile-kide estatus berbera genuela biok gure lankidetza-proiektuan. Bestalde, kontu handiz gogorarazten genien arren, Kum-Kumen izena gaizki idazten zuten askotan, eta dokumentu ofizialetan Angelaren atzetik agertzen zen beti, nahiz guk gure izenak ordena alfabetikoan jarri. Elkarriketatu genituen presoek, berriz, finago jokatu zuten beren zaindaries bano. Askok Angela ezaguna bazuten ere -haietariko baten umeak haren izena zuen-, beti tratatu gintuzten parekidetasunez, eta sekula ez ziguten adierazi nahiago zutenik gutariko batek eta ez besteak elkarriketatuak izatea. Lankidetza-ikerketetan, baina, ez dago konplexutasunik gabeko harremanik. Guri dagokigunez, kartzela-administrazioek ezarritako harreman hierarkikoa onartzeak eragin txarra izanen zuen gure ikerketa-harremanean, baina argi eta garbi mintzatu ginen jokabide hark gure lanean izan zezakeen eraginaz, eta gure lankidetza-espirituari eutsi genion.

Emakume espetxeratuei buruzko literaturaren urritasuna esplikatzeke, maiz aipatzen da gizon presoan aldean ehuneko aski txikia dela emakume presoena. Egia da herrialde gehienetan presoan populazioaren % 5etik % 10era bitartean izaten direla emakumeak:

Batez beste, hogeitaz presotik bat bakarrik izan ohi da emakumea. Herrialde guztietan, populazio osoaren % 50 inguru dira emakumeak, eta,

hala ere, presoen % 5 bakarrik dira emakumeak... Hori ez da gertatzen herrialde edo eskualde jakin batzuetan soilik, baizik eta mundu guztian zehar. Baina bada alderik. Espainian, presoen % 10 dira emakumeak; AEBn, % 6; Frantzia, % 4; Errusian, % 3; eta, Marokon, % 2. Emakumeak, dena den, inongo herrialdeetan ez dira hamar presotik bat baino gehiago.²⁷⁹

Haatik, gutxitan hartzen da kontuan arrazak eta generoak baldintzatzen dituztela zigor-moldeak. Ildo horretan, bada-go continuum historiko bat emakumeen espetxeratzea lotzen duena emakumeak zentro psikiatrikoetan giltzapetzearekin eta haien aurkako zigor pribatuarekin –esate baterako, etxeko indarkeriarekin–.²⁸⁰ Mundu guztian garatzen ari den kartzela-industria konplexu baten testuinguruan, emakume presoen ehuneko aski apalak gora doaz gaur egun. Ameriketako Estatu Batuetan, gizon presoen igoera-indizea baino gorago dago emakume presoena.²⁸¹ Emakumeen eskubideen aldeko nazioarteko mugimenduek egitura eta ideologia patriarkalei aurre egin ahala, emakumeen esparru «pribatuko» eskubideen gainerako kontzientzia berri bat hasia da indarkeria misoginoa onartzen duten jarrera zaharrak iraultzen. Dena den, emakumeen aurkako zigor pribatua gutxiago ezkututzen eta gehiago aitortzen den arren, estatuak emakumeei ezartzen dien zigorra aski ikusezina da oraindik ere. Ameriketako Estatu Batuetan eta European, baita herritarren gehiengoa europar jatorrikoa duten herrialdeetan ere, koloreko emakumeak dira, alde handiz, zigor publikoaren gaur egungo jomuga nagusia. Alegia, emakumeen kartzelen ikusezintasun gaitza gaur egungo joera zabalago baten isla da: diskurtso publikoaren arabera, ezinbestekoak ez diren populazio eta arazoak kokatzeko eta ezkutatzeko tokiak dira kartzelak eta kartzela-instituzioetako arrazakeria-egiturak.

Mary Helen Washingtonen aburuz, «herrialde honetako kartzeletako klase-, genero- eta arraza-politikak gutariko gehienok kartzelaren mundutik kanpo gaudela sentiarazteko konspirazio bat dira, eta ez horretarako bakarrik, baizik eta baita

279 Vivien Stern, *A Sin Against the Future: Imprisonment in the World* (Boston: Northeastern University Press, 1998), 138.

280 Ikus Angela Y. Davis, «Public Imprisonment and Private Violence: Reflections on the Hidden Punishment of Women», *New England Journal on Criminal and Civil Confinement* 24, 2. zk. (1998ko uda): 339-349.

281 1980tik, % 275 igo da emakume presoen populazioa; gizonena, berriz, % 160. Marc Mauer eta Tracy Huling, *Young Black Men and the Criminal Justice System: Five Years Later* (Washington, DC: The Sentencing Project, 1995).

harekiko axolarik, eraginik eta kezkarik ez dugula sentiarazteko ere».²⁸² Emakume pobreak eta koloreko gizonak kriminalizatzeko errepresentazio-praktikek arrazan oinarrituriko eredu sozioekonomikoak estaltzen dituzte; hala, emakume eta gizon horien espetxeratzea justifikatuz, ezkutuan uzten dituzte enplegurako sarbidea, osasun-arreta, hezkuntza eta etxebizitza zeharkatzen dituzten egitura arrazistak. Ez da kasualitatea Kalifornian egotea –hots, diskriminazio positiboa abolitu duen lehen estatuan– herrialdeko kartzela-populazio handiena. Hortaz, garrantzitsua da ikustea arrazakeriari buruzko ikerketarako gune oparoak direla kartzelak eta aukera bikaina ematen dutela «arrazakeriaren amaierari» buruzko baieztapen kontserbadoreak zalantzan jartzeko.

Ameriketako Estatu Batuetan, gizarte-ongizateko estatu izatetik kontrol soziala lehenesten duen estatu izatera aldatzeak²⁸³ kartzela-industria konplexu bat sortzen lagundu du, eta, ondorioz, gizonena baino modu harrigarriagoan igo da emakume presoen kopurua.²⁸⁴ Kanadako, Europako toki anitzetako eta Afrikako eta Latinoamerikako herrialde batzuetako gobernu-politikek ere, antzera, beren sistema penalak handitu dituzte, eta, ondorioz, kartzela-praktikek koloreko herritarrei eragiten diete gehienbat, gaindika, ez bakarrik Ameriketako Estatu Batuetan, baizik eta baita orobat nazioartean ere.²⁸⁵ Herbehereetan, adibidez, herrialdearen historian lehen aldiz, kartzela-populazioa nabarmen hazten hasia da, neurri handi batean ikaragarri handitu delako kartzelan dauden gizon beltz eta immigranteen kopurua. AEBko, Herbehereetako eta Kubako emakume presoek

282 Mary Helen Washington, «Prison Studies as Part of American Studies», *American Studies Newsletter* 22, 1. zk. (1999ko martxoa): 1.

283 Ikus Katherine Beckett, *Making Crime Pay: Law and Order in Contemporary American Politics* (New York: Oxford University Press, 1997).

284 Mauer eta Huling, *Young Black Men*.

285 «Mundu guztian barna ikus daiteke eredu bera. Arrazakeria eta diskriminazioa pairatzen dituzten taldeetako pertsona askoz gehiago dago kartzeletan, espero zitekeen baino gehiago. Nolatan gertatzen da neurrigabekeria hori? Badira hainbat arrazoi; askotan, gizartearen luze-zabalean nagusi den diskriminazio ahalkegabearekin lotuta dago, baita segurtasun-indarren arrazakeria gordinarekin ere. Beste batzuetan, gutxiengoak eremu pobreetan pilatzen eta haien aukerak murrizten dituzten politikek eragiten dute neurrigabekeria hori. Maiz, justizia penaleko prozesuek joera dute gutxiengoak diskriminatzeko, nahiz batzuetan nabaritu ere ez den egiten... Diskriminazio horien guztien pilaketaren ondorioa da mundu guztiko kartzeletan gutxiengoaren kopuru neurrigabeak egotea» (Stern, *Sin Against the Future*, 117).

buruz eta haiekin batera egin dugun ikerketan, emakumeok kartzelaren alternatibez zer pentsatzen duten aztertu dugu nagusiki, baina, hala ere, orobat azpimarratu nahi izan dugu zer eragin daukan generoak kartzela-praktiketako arrazakerian. Oro har, saiatu gara klasea, arraza, generoa eta sexualitatea nola gurutzatzen diren lantzen, betiere kontuan hartuta nola hautematen eta teorizatzen dituzten gurutzaketa horiek gurekin mintzatu diren emakumeek eta guk geuk ere nola teorizatzen ditugun. Ildo horretatik, ohiko ikerketa-plangintzetatik eta ohiko estrategia aktibistetatik harago doazen auziei heldu nahi izan diegu gure proiektuaren bidez, zeren halakoetan jakintzaren xede edo besterik gabe mugimendu askatzaileen onuradun balira bezala tratatzen baitira maiz presoak –bereziki, emakume presoak–.

Lankidetzeta eta kartzelarako sarbidea

Aurretik, lan politiko eta intelektuala tarteko ezagutu genuen elkar, eta, hala, 1990eko hamarkadaren hasieran, epe luzeko lankidetzeta-ikerketa bat abiatzeko aukera aztertzeari ekin genion, biok humanitateetan eta gizarte-zientzietan geneukan prestakuntza baliatuz. 1993an, ikerketa-beka bat eman ziguten Kaliforniako Unibertsitateko Humanitate Ikerketen Institutuan (UCHRI), Gutxiengoen Diskurtsoen Ekimenaren harira. Urte hartan, gizarte-zientzietan politika publikoen gainean normalizatzen ari ziren diskurtso jakin batzuei buruz kritikoki pentsatzeko eskatu ziguten bekadunoi, eta testuinguru hartan erabaki genuen Kaliforniako emakume presoak elkarrizketatzea. UCHRIren egoitza Irvineko campusean zegoenez –Hego Kalifornian–, elkarrizketak Kaliforniako Emakumeen Institutuan egitea pentsatu genuen, Fronteran, Irvinetik hurbil aski.

Aktibistak garenaz gero, bagenekien zein zaila izanen zen kartzeletara sartzea. Haatik, iruditzen zitzaigun Kaliforniako Zentzategien Departamentuak (CDC) onartuko zigula ikerketa akademiko legitimo eta sinesgarri bat egitea. Nolanahi ere, gure sen akademikoa gorabehera, ez zen argi geratu aktibista politiko sofistikatuak ginenik; eta, nahiz eskaera garaiz aurkeztu, CDCK sekula ez zigun baimenik eman kartzelara sartzeko. Aurkeztu beharreko dokumentu guztiak eskura eman genizkien CDCKo autoritateei, ikerketa-proposamenak ontzat eman zitzaizkien; gero, sinetsi behar izan genuen formalitate hutsa besterik ez zela CIW-

ko kartzelaburuak gure proiektua onartzea. Irvinera joateko eta CIWa bisitatzeko azken prestalanekin ari ginelarik, oraindik ere ez genuen kartzelaburuaren erantzunik. Gero, CDCKo ikerketa-departamentuarekin harremanetan jarri, eta pazientzia izateko esan ziguten, motela zela departamentuko burokrazia. Nolanahi ere, Irvinera iritsi ginelarik, artean ere CIWaren berririk ez genuela, garbi ikusi genuen moteltasun burokratikoaz haragokoa zela kontua. Hainbat mezu utzi genizkion kartzelaburuari, eta, azkenean, Humanitate Ikerketen Institutuko zuzendariak egin zituen bitartekari-lanak, ustez eta haren mezuei ez zietela ez ikusiarena hain erraz eginen. Sekula ez zioten utzi kartzelaburuarekin hitz egiten, baina funtzionario anonimo batek zera esan zion estraofizialki: «Angela Davisi sekula ez diote utziko CIWn sartzen». Funtzionario hark esan zuenez, kartzelaburuak dena kontrolpean eduki nahi zuen kartzelan, eta ez zuen onartuko Angela Y. Davis sartu eta «txalupa kolokan» jartzerik. Ikerketa egiteko proposaturiko epea hasita zegoela jaso genuen gure eskaeraren ezezko ofiziala.

Orduan, garbi geneukanez emakume espetxeratuen proiektuari heldu nahi geniola, elkarriketak beste nonbait egiteko aukera aztertu genuen. Angela irakasle aritua zen San Frantzisko Konderriko Kartzelan, eta, hortaz, gure proiektuaren proposamena bidali genion Michael Morcum konderriko kartzela-sistemako programen zentroko zuzendariari, zeinak San Quentinen bete baitzuen bere zigorra eta aktiboki parte hartu baitzuen Kaliforniako Presoen Batasunaren sorreran, 1970eko hamarkadan. Egun gutxiren buruan jaso genuen kartzelara sartzeko baimena, eta horrek sakon pentsarazi zigun nolako eragina duten kudeatzaile indibidualek kartzela-sisteman. Paradoxikoa bada ere, Irvinen eskatu genuen UCHRIren beka CIWa hurbil genuelako eta Irvinera elkarriketak egitera joateko asmoz; orain, ordean, Hego Kaliforniako egonaldian zehar ikerketa-bidaia ugari egin beharko genuen San Frantziskoko badiara. Hasierako zailtasunak gorabehera, berehala ohartu ginen ezen, San Frantziskoko Programen Zentroak kartzelako arrazakeria gutxitzeko eginiko esfortzu aitzindariak esker –aurrerago mintzatuko gara horretaz–, zinez emankorrak izanen zirela elkarriketak.

San Frantzisko Konderriko Kartzelako Programen Zentroko ehun emakume ingurutik hogeita hamasei elkarriketatatu

genituen. San Brunon zegoen zentroa, Kalifornian, eta gizon eta emakume presoek «programetan» parte hartzen zuten: heziketa-eskolak, kultura-programak, Alkoholiko Anonimoen eta Narkotiko Anonimoen saioak, eta lorezaintza organikoko eskolak. Gizonek lau logelatan lo egiten zuten, eta emakumeek beste bitan. Gure elkarriketatuek beren borondatez parte hartu zuten elkarriketetan, gure proiektuaren berri emateko antolatu genuen saio batean egon eta gero. Hasierako saio hartan, gure ibilbide aktibista eta akademikoa deskribatu genien, bai eta azaldu ere «teoria funtsatuko»²⁸⁶ ikuspegi bat eta ikerketa-metodo demokratikoak erabili nahi genituela, eta espero genuela gure lanak lagunduko zuela emakume presoen gaineko diskurtso eta politika publikoak aldatzen. Azaldu genien ez genuela interesik beren kasu judizialean eta horrenbestez ez geniela galdetuko zergatik zeuden kartzelan. Aitzitik, emakume presoez eta kartzelaren alternatibez zer ikuspegi zeukaten kontatzea nahi genuen.

Gure ikerketaren beste bi kokaguneetan bezalaxe, lehenbizi, eztabaida-taldeetan parte hartzeko boluntarioak eskatu genituen, galdera mota emankorrenak zein izan zitezkeen erabakitzen lagunduko zigulakoan. Espero genuen baino askoz emakume gehiago agertu zen parte hartzeko prest; segur aski, gure asmoa ez zelako emakumeok ikerketarako subjektutzat hartzea eta haien aurrekari penalak ikertzea. Beste bi kokaguneetan bezala, hasieran boluntario agertu ez ziren zenbait emakumek aurrerago bat egin nahi izan zuten proiektuarekin, elkarriketen berri han-hemen barreiatu ahala. Onartu genituen haietariko batzuk, baina ez genuen lortu emakume boluntario guzti-guztiekin hitz egitea. San Frantziskon, afro-amerikarrak ziren gure elkarriketatu gehienak, halaxe baita kartzela-populazio gehiena, baina baita latinoak eta zuriak ere, eta orobat asiar-amerikar bat. Elkarriketetan, baina, ez genuen galdera desberdinik egin emakumeon ustezko arraza-identitateen arabera.

Beraz, arazo ugari izan genituen AEBko kartzeletan sartzeko; Herbehereetako Amerswiel emakume-kartzelan, aldiz, nahiko erraz sartu ginen. Hango zuzendaria, Bernadette van Dam, emakume presoen eskubideen defendatzaile ezaguna zen,

286 Teoria funtsatua (*grounded theory*): gizarte-zientzietan erabiltzen den ikerketa-metodologia sistematikoa. Funtsean, datuak bildu eta aztertu ondoren teoriak eta hipotesiak formulatzean datza. (Itzultzailearen oharra).

eta, CIWko kartzelaburuak ez bezala, onez hartu zuen emakume presoen bizitzak aldatzeko ikerketa akademiko bat egitea. Angela aurreko urtean egona zen Amerswieler kartzelan, zuzendaria eta zenbait preso elkarriketatzen. Herbehereetako Justizia Ministeriora eskaera formala bidali genuelarik Amerswieler elkarriketak egiteko, kartzelako zuzendariak eta Justizia Ministerioak berehala onartu ziguten proposamena. 1996an, beraz, Herbehereetan ibili ginen, Amerswieler gehienbat, baina beste bi emakume-kartzela ezagutzeko aukera ere izan genuen, Breda eta Sevenum hirietan, baita gizon-kartzela bat ere, Bredan bertan.

Amerswieler kartzela Heerhugowaard hirian dago, Amsterdamdik berrogeita hamar kilometrora. Elkarriketak egin genituen garaian, lau bizi-unitate zeuzkan –epe laburreko unitatea, epe luzeko unitatea, bakarkako orientabiderako unitatea eta droga-errehabilitaziorako unitatea–, eta 79 emakume zeuden guztira. Bat ez beste elkarriketatu guztiak epe laburreko eta epe luzeko unitateetan zeuden; 27 eta 26 emakume, hurrenez hurren. Amerswieleko emakume presoek erdiak –gutxi gorabehera– koloreko emakumeak ziren: surinamdarrek, hegoamerikarrek eta asiarrak. Gure elkarriketatuen taldean ere –boluntarioak denak ere–, koloreko emakumeen ehuneko bera zegoen.

Elkarriketatu genituen emakume batzuek erreparatu zioten gure arraza- eta nazio-jatorriari, baina gure ikertzaile eta kartzela-aktibista izatea interesatu zitzaizkien gehien gure ikerketa-proiektuaz galdetu zigutenei. Ia emakume guztiak jakinaren gainean zeuden nolako lana eginga zuen kartzelako zuzendariak nazioartean emakume presoek alde, bereziki ama presoek esku-bidean arloan. Ildo horretan, emakume batzuek Bernadette van Dam kritikatu zuten denbora gehiago ematen zuelako emakume presoek aldeko kanpaina publikoetan, zaintzapean zeuzkan emakumeekin baino. Aipatu zuten gehiago ikusten zutela telebistan bertatik bertara baino. Orokorrean, dena den, emakume gehienek estimu ona adierazi zioten haren defentsa-lan publikoari. Hala, zuzendariak kartzela-aktibista gisa egiten zuen lana ezaguna zutenek, gure lana ere antzeko testuinguru politiko batean kokatzeko joera agertu zuten presoek. Boluntarioak aukeratu aurretik bi talderi gure lana aurkeztu genielarik, ez genien ezkutatu kartzela-abolizionismoaren alde geundenik. Argi eta

garbi azaldu genien kartzela-erregimenaren arrazializazioa interesatzen zitzaigula oro har, baita presoek arrazakeriaren gainean zeukaten kontzientzia ere, baina ez genuen galdera espezifikorik egin arraza-talde zehatzei buruz. Elkarriketa-estrategiak erabakitzean, «arraza-konkordantzia»²⁸⁷ sekula ez zen izan kontuan hartu beharreko faktore bat.

Hala, preso beltzak, asiarrak, hegoamerikarrak eta herbeheretar zuriak elkarriketatuta genituen. Ia denek ingelesez aise hitz egiten zuten, ingelesez egin genituen elkarriketa gehienak, salbu Kolonbiako emakumeenak. Haiekin, itzultzaile baten laguntzaz mintzatu ginen.

Gure ikerketa Kuban antolatzea askoz zailagoa izan zen; ez AEBk Kubari ezarritako bahimenduaren ondoriozko komunikazio-zailtasunengatik bakarrik, baizik eta baita ikerketa-baimen bat eskatu behar izan genuelako AEBko Estatu Departamentuan, Kubara legalki bidaiatzeko. Emakume Kubatarren Elkarteak lagundu zigun herrialdeko emakume-kartzelara sartzeko baimena lortzen.

Hasieran, biok joatekoak ginen Kubara, baina, bidaia prestatua genuela, Kum-Kumi deitu zioten: haur bat adoptatu nahian zebilen, eta jakinarazi zioten aukera izan zezakeela haur bat hartzeko. Alegia, emakume askok (eta zenbait gizonek) aurre egin behar izaten dioten dilema bat sortu zitzaion: familiarekin loturiko desirak eta ikerketarako grina orekatu beharra. Azkenean, erabaki zuen ez zuela haurrarendandik urruti egon nahi haren garapenaren aldi erabakigarri hartan, eta uko egin zion Kubako bidaiari. Erabaki genuen Angelak ikasle baten laguntzaz egingen zuela aurrera: Isabel Vélez zuen izena, eta, elebiduna zenez, itzultzaile-lana egin zezakeen. Aurretik, Herbehereetako kartzelan ere behar izan genuen itzultzaile bat, Hego Amerikako emakumeekin solastatzeko; hortaz, pentsatu genuen ongi etorriko zitzaigula oraingoan ere itzultzaile baten laguntza izatea.

Isabelek eta biok 45 elkarriketa egin genituen Kubako hiru probintziatako hiru emakume-kartzelatan: Pinar del Río,

287 Arraza-konkordantzia (*racial matching* edo *racial concordance*): psikoterapiari erabiltzen da batik bat, eta aditzera ematen du medikua eta haren pazienteak arraza berekoak izateak haien arteko komunikazioa hobetzen laguntzen duela. Hezkuntza-arloan ere erabiltzen da, irakasle eta ikasleen arteko komunikazioari erreferentzia egiteko; kasu honetan, elkarriketatzaile eta elkarriketatuen arteko komunikazioaz ari da. (Itzultzailearen oharra).

Habana eta Camagüey. Elkarriketak egin genituenean, 70 emakume zeuden Pinar del Río ko kartzelan, 600 Habanan eta 163 Camagüeyn. Gure proiektuaren ildo orokorrekin bat eginez, ez zitzaigun hainbeste axola gure elkarriketatuen arraza-identitatea, baizik eta nola hautematen eta esplikatzen zituzten haiek kartzela-erregimenetako arraza-dinamikak. Nolanahi ere, saihetsezina izan zen arraza-identifikazioari buruzko galderak agertzea, batez ere arraza-kategoriak AEBn baino malguagoak direlako Kuban. Batzuek kontatu ziguten beren nortasun-agiri ofizialean «zuria» sailkapena zeukatela baina beren burua *mulatta* edo *jabaotzat* jotzen zutela. Izan ere, Kubako arauen arabera «zuritzat» jotzen diren emakume asko «koloreko emakumeak» dira AEBn. Hori dela eta, galdetzen genuelarik koloreko zenbat emakume zeuden kartzelan eta ea arrazaren arabera tratu desberdinik ematen ote zitzairen, ez zen erraza erantzun bat ematea, eta, horren ondorioz, gure proiektuan Kubako atala izan zen –alde handiz– auzirik zailena arrazaz denaz bezainbatean.

Dilema etikoak

Hiru elkarriketa-sortetan, emakume anitzek esker ona adierazi zuten beste toki batzuetan baino baldintza hobeak ziztutelako beren kartzelan. Ohartzen ziren, noski, ikasteko eta lan egiteko aukera ugari izanda ere kartzelan zeudela eta beren ondasun preziatuena kendua zietela: askatasuna. Emakume ugari iruzkin positiboak egin zituzten, hala ere, beren kartzelaldiari buruz, baita kritikak proposatu ere, eta horrek zerikusia dauka, partez, lan egiteko moduarekin. Kasu guztietan, zuzenean jarri ginen harremanetan kartzelaz arduratzen ziren autoritateekin, eta, Kuban, alde aurretik harremanetan jarri ginen bitartekari-tza-lana egiten zuten erakundeekin. Betiere errespetua adierazi genuen toki bakoitzeko metodo penal erlatiboki aurrerakoiei dagokienez, nahiz gu kartzela-politika abolizionistaren alde egon oroz gain, eta inongo momentutan ez ginen saiatu autoritateei gure joera politikoak ezkututzen. Ondorioz, gure ikerketarako adostu genuen esparrua kontraesanez betea egon zen. Izan ere, emakume presoek behin eta berriz gogorarazten ziguten –Herbehereetan, adibidez– ezen, erosotasunak erosotasun, berek kartzelan zeudela, edo, kartzelako politika antirrazista eta antihomofoboak gorabehera –Kalifornian–, berek kartzelan

zeudela, edo, berriz gizarteratzeko aukerak izanik ere –Kuban–, berek kartzelan zeudela, eta, egoera hartan, guk etengabe oroitarazten genion geure buruari zein zen gure ikerketaren helburua: argi uztea juridikoki «delitutzat» hartzen diren jokabideetako asko trata daitezkeela kartzelara jo gabe nahitaez.

Gure ikerketaz gogoeta egitean, gure dilema nagusia –bai metodologikoki, bai etikoki– izan da nola orekatu, batetik, gure ikuspegi abolizionista, eta, bestetik, ikertzaile eta pertsona gisa onartu beharra lanean ari ginen karteletako baldintzak aski bizigarriak zirela han bizi ziren emakumeentzat. Landa-lana egin genuelarik, luze eta zabal eztabaidatu genuen nola profitatu al-bait hobekien aztergai genituen esparru eta erregimen penalen alderdi aurrerakoiak eta, aldi berean, nola uztartu gure xede politikoak eta kartzelako emakume eta gizonek baldintza duinak izatearen garrantzia. Behin eta berriz atera genuen hizpidera nola eratu ote genezakeen ikerketa- eta aktibismo-plangintza emankor bat jakinik ere berez kontraesankorra dela kartzela abolitzeko xedea izatea eta erreforma penala beharrezkoa dela onartzea; izan ere, mundu asketik bazterturik geratu diren milioika lagunak eguneroko bizitza hobetzen lagunduko luke erreforma batek, besterik ez bada ere. Historikoki, mugimendu erreformistek joera izan dute kartzela-instituzioak eta -diskurtsoak sendotzeko,²⁸⁸ eta, hortaz, bereziki kezkatzen gintuen nola kokatu gure lana kartzela-industria konplexuaren aurkako eta kartzelen ugaritzea geldiarazteko epe luzeko proiektu politiko zabalago baten barnean.

Ikerketa-prozesuak eta ikertzen ari ginen kartzela-sistemek berekin zekartzaten botere-zirkuituez jabeturik, presoekiko elkarriketetan lankidetzazko harremanak ehuntzen saiatu ginen. Batetik, ez genuen ezkutatu gure arrazoi eta xede politikoei buruzko informaziorik, eta, bestetik, ez genuen emakumeengana jo haiengandik eta haiei buruz bakarkako ezagutzak atera eta ondoren ikerketaren bidez kolektibizatzeke asmoz, eta, hala, erakutsi nahi genuen posible dela ikerketan ikuspuntu demokratikoagoak baliatzea. Ez genuen, beraz, haiengana jo nahi

288 Ruth Wilson Gilmore, «Globalization and U.S. Prison Growth: From Military Keynesianism to Post-Keynesian Militarism», *Race and Class* 40, 2/3 zk. (1998-1999): 171-188. Ikus, baita ere, Michel Foucault, *Discipline and Punish: The Birth of the Prison*, itz. Alan Sheridan (New York: Vintage, 1979).

beren arraza-taldeen ordezkariak balira bezala, eta, era berean, ez genuen haiekin jardun nahi proiektu politiko emantzipatzaile baten onuradunak izan zitezen proiektuaren eragile izan gabe. Gure elkarrizketatuek adierazi zigutelarik zaila zitzaizela irudikatzea kartzelarik gabeko paisaia sozialik, ez genuen jakintzat eman guri errazagoa zitzaigunik, nahiz abolizionismoaren alde egon. Muga ideologiko azpiratzaile berberen aurka borrokatu ginen ikertzaileok zein presoak.

Arestikoarekin loturiko beste dilema bat izan zen ea aztergai genituen karteletako administrazio-langileak eta kartzelazainak elkarrizketatu behar ote genituen. Ez genuen nahi gure elkarrizketatu nagusiek pentsatzerik administrari eta poliziengandik jasotako aurreiritzi eta aurreusteen arabera jokatu genuela, eta, hori dela eta, kartzelako langileak elkarrizketatzea baztertu genuen, hasieran behintzat. Ez genuen xaloki espero presoengandik jasoko genituen ideiak «aratzak» eta bitartekari-tzarik gabeak izaterik, baina, hala eta guztiz ere, modurik onena iruditu zitzaigun emakume presoak zigor-sistemen eraldaketa erradikalari buruzko elkarrizketa zabalago batean parte hartzera bultzatzeko. Edonola ere, elkarrizketa-prozesuaren hasiera-hasieran ohartu ginen soilik administrariak eta poliziek eman ziezazkiguketela zenbait informazio. Hortaz, erabaki genuen presoekiko elkarrizketak bukatu eta gero hitz eginen genuela kartzelako funtzionarioekin.

Erabaki metodologiko hura ez genuen, ordea, hartu gure zalantzen konponbidetzat; besterik gabe, onartu genuen erabaki praktikoei batzuetan agerian uzten dutela ikerketa-esparru teorikoen artifizialtasuna eta abstraktutasuna. Arian-arian harturiko erabakiek, itxuraz kontraesankorrak izan arren, ikerketarako bide berriak ireki ditzakete. Gainera, erabaki hark ikusarazi zituen ezen, emakume elkarrizketatuak beren arraza-jatorriaren eta beren preso-estatusaren arabera esentzializatzeari uko egin genion era berean, kartzelako enplegatu zibil eta uniformedunak ere estatuaren ordezkari hutsak baino zerbait gehiago zirela. Paradoxikoa bada ere, emaitza interesgarriak ekarri zituen kartzelako enplegatuak elkarrizketatzeko erabakiak, batik bat San Frantzisko Konderriko Kartzelako Programen Zentroko presoek sinatu beharreko kontratu ofizialaren auziari dagokionez (kontratu horren bitartez, presoek konpromisoa hartzen zuten

kartzelaren politika antirrazista, antisexista eta antihomofoboekin bat egiteko).

Arrazakeriari buruzko ikerketa

Mundu guztian barrena, kartzelak dira, pentsatzekoa denez, arraza- eta kultura-aniztasun handieneko tokiak, sistematikoki,²⁸⁹ alegia, ikerketa negatiborako²⁹⁰ toki garrantzitsuak ez ezik, esparru emankorrak dira kultura-eta arraza-aniztasunean oinarrituriko aliantza positiboak sortzeko ere. Jakina, arrazaren auzia ulertzeko modua asko aldatzen da herrialde batetik bestera. Herrialdeko gizarte-mugimendu antirrazisten historia luzea oinarri harturik, herritar beltz, latino, amerikar natibo eta asiatar-amerikarren aurkako diskriminazio instituzional eta indibidualtzat hartu izan da arrazakeria AEBn. Europan, sinonimoak balira bezala erabiltzen dira *arrazakeria* eta *xenofobia*. Hala, Herbehereetan, sarritan beren burua Europako herrialderik gutxien arrazistatzat jotzen duten arren –ez beti arrazoiarekin–, arrazakeriari buruz galdetzen genienean, atzeritarrenganako jarrerak ekartzen zituzten hizpidera, eta ez zuten aipatzen herbeheretar zuriek herbeheretar ez-zurien aurka sustatutako arrazakeriarik.

San Frantzisko Konderriko Kartzelako Programen Zentroan, hango arduradunek ahalegin espezifikoak eginak zituzten kartzelako funtzionamenduan arrazakeria, sexismoa eta homofobia gutxitzeko. Ildo horretan, zuzendariaren arabera, preso guztiek nahitaez sinatu behar zuten honelako kontratu bat Programen Zentroan sartu aurretik, jokabide arrazista, sexista edo homofoborik ez izateko konpromisoa hartuz: «Ulertzen dut errespetuz eta duintasunez jokatu behar dudala besteekin eta neure buruarekin. Ulertzen dut arrazakeriak, sexismoak, gay eta lesbianen aurkako iruzkinek, droga-zaletasunaren edo jokabide kriminalen goraipamenek eta beste edozein jokabide antisozialek zera dakartela, pribilegioak galtzea, lan gehigarriak egin behar izatea edo programatik kanpo geratzea».²⁹¹

289 Australian, adibidez, aborigenek, populazio osoaren % 1-2 soilik izan arren, kartzelako populazioaren % 30 osatzen dute. Stern, *Sin Against the Future*.

290 Ikerketa negatiboa (*negative inquiry*): kritikei aurre egiteko teknika bat da. Kritika bat jaso ondoren akatsak onartzeaz harago (baieztapen negatiboa edo *negative assertion*), kritiketan sakontzean datza, asertibitatea lortzeko. (Itzultzailearen oharra).

291 San Frantziskoko Sheriffaren Departamentuak idatzitako kontratuko pasartea.

Kontratuko klausula horri esker, arrazakeriari buruzko eztabaida konplexuago bat saihestu zuten kartzelako enplegatuek; izan ere, kartzelako arauak berariaz debekatzen zuten presoek jokabide arrazistak izatea. Antirrazismoa kartzelazainek eta kudeatzaileek bultzaturiko kartzela-arau bat zenez, botere- eta zelatatze-erregimenekin lotuta zegoen, eta presoek zegoen zerbait zen, haiek baitziren kartzela-autoritatearen subjektuak. Beren burua aurrerakoitzat jotzen zuten kartzela-enplegatuekin izan genituen eztabaidetan, ikusi genuen harro zeudela aitzindari izateaz eta arau antirrazista, antisexista eta antihomofoboaren balizko urraketa hautemateko ardura beren gain hartzeaz. Nola bait ere, gaur egungo joera zabalago baten isla mikrokosmiko bat izan zen eredu hura; izan ere, AEBn, arrazakeria murrizteko prozesua esparru juridikoaren esku uzten da maiz, subjektua gizabanako arrazional asketzat hartuta, eta debeku juridikoak erabiltzen dira arrazakeriak gizarte zibilean behera egin duela frogatzeko.²⁹²

Nolanahi ere, elkarriketatu genituen presoetako askok –koloreko emakumeak zein emakume zuriak– aldea sumatzen zuten politika ofizialaren eta berek jasotzen zuten tratua artean, eta, hala, analisi politiko zuhurrak proposatu zituzten esplikatze zergatik irauten zuen bere horretan arrazakeriak testuinguru ustez antirrazista batean. Emakume batek kontatu zuen kartzelazain batzuek arraza-jatorriaren arabera modu batera edo bestera tratatzen zituztela presoak. Horrek argi eta garbi gezurtatzen zuen jokabide arrazisten auzia soilik presoek zegoen zerbait zenik.²⁹³ Xeheki kontatu zigun nola berak eta beste emakume beltz batek izugarri mugatua zuten telefonoa erabiltzeko denbora eta nola preso zuri bati baimena eman zioten ordainpeko telefonoa erabiltzeko hainbat orduz. Haren arabera, berak eta beraren lagun beltz batzuek bertatik bertara egiaztatu zuten kartzelazain batzuek telefonoan askoz denbora gehiago pasatzen uzten zirela preso zuriei koloreko presoek baino. Ho-

292 Ikus Kimberlé Crenshaw, Neil Gotanda, Gary Peller eta Kendall Thomas, arg. *Critical Race Theory: The Key Writings That Formed the Movement* (New York: New Press, 1995).

293 San Frantzisko Konderriko Kartzelako Programaren Zentroko elkarriketa, 1993ko azaroa.

rra kartzelan arrazakeriari eusteko erabiltzen diren eguneroko estrategien adibide ezin argiago bat.

Gorago aipatu ditudan arrazakeria-definizio askotarikoak gogoan, ez zitzaigun guztiz harrigarria gertatu emakume presoek ez beti eta ez toki guztietan ongi jaso izana kartzelako arrazakeriaren muntaz egin genizkien galderak. Izan ere, AEBko herritar eta akademikoek arrazari buruz mamituriko diskurtsoetan oinarrituak ziren gure galderak, eta, horrenbestez, San Frantziskoko kartzelako preso, kartzelazain eta kudeatzaileek beste bi herrialdeetakoek baino askoz errazago ulertu zituzten, bai eta askoz modu zuzenagoan erantzun ere. Herbehereetako elkarriketatuetako batek adierazi zuen oso gutxi hitz egiten zela kartzelako arrazakeriaz eta auzi hori kartzelako autoritateei helarazteko asmoa zuela epe laburrean.²⁹⁴ Herbehereetako elkarriketatuetako askok emandako erantzunak lagungarri izan zitzaizkigun Hego Amerikako presoenganako jarrera eta jokabide xenofobo inplizituak ulertzeko. Hona Kolonbiako emakume batek kontatua: «Arrazakeria handia dago hemen. Kolonbiarra, beltza edo beste herrialderen batekoa bazara, ez dizute deus ematen... Kartzelan ez dago deus [holandarrentzat]... Eta are gutxiago kolonbiarren-tzat.²⁹⁵ Beste emakume hegoamerikar batek ere kritikatu zituen kartzelazainen jarrera xenofoboak, azaleko legenaren aurkako tratamendurik ematen ez ziotela eta: «Ez da normala nik azala horrela izatea eta legena izatea. Duela hogeai egun eskatu nuen hitzordua medikuarekin. Holandarra banintz, medikua berehala azalduko zen.²⁹⁶

Emakume holandar zuri bat kritiko agertu zen holandarrek beren burua parekidetzat agertzeko duten joera orokorrarekin:

Beti erakarri izan naute beste kulturek. Baina ez da jaiotzetik dator-
kidan zerbait, zeren nire ama eta aita zuri-zuriak baitira, eta zera ziren,
oso... tira, nik uste dut nire aita arrazista zela, ez zuen ozenki esaten,
baina, bere barrenean, holandar askorengan ikusi dudana bezala, esaten
zuen, «ni ez naiz arrazista», baina, haien jokabidea ikusita, ikusten duzu
haien jokabideak badituela elementu arrazistak.²⁹⁷

294 Amerswiel emakume-kartzelako elkarriketa, 1996ko apirila, *op. cit.*

295 Amerswiel emakume-kartzelako elkarriketa, 1996ko apirila, *op. cit.*

296 Amerswiel emakume-kartzelako elkarriketa, 1996ko apirila, *op. cit.*

297 Sevenumeko kartzelako elkarriketa, 1996ko apirila, *op. cit.*

Kartzelazainek eta kartzela-kudeatzaileek Hego Amerikako presoak infantilizatzeko zeukaten joera ere aipatu zuen emakume hark: «Hau da, espainiar emakumeekin ari badira, pertsona helduak ez balira bezala tratatzen dituzte. Haurrekin ariko balira bezala, ezta? Eta ni amorratu egiten naiz portara horrekin. Gorroto dut. Benetan gorroto dut».²⁹⁸ Horrez gain, adierazi zuen bazutela joera nederlanderaz hitz egiten ez zuten presoak mespretxatzeko, bereziki beren kultura- eta hizkuntza-praktiketan eskuakin keinuak egiten zituzten emakumeak. Herbehereetako kartzelako elkarriketetan, bestalde, ikusi genuen ez zirela koloreko emakumeak arrazakeriaren funtzionamenduaz gogoeta egina zuten bakarrak. Emakume herbeheretar zuri batek, Hego Amerikako emakumeengana elkartasuna adieraziz, esan zigun espainiera ikasten saiatzen ari zela, beste presoekin komunikatzeko.²⁹⁹

Kuban, dirudienez, presoek arrazari buruz eztabaidatzeko izan ohi duten errezeloa beste kontu batekin dago lotua: herritarrek arrazari eta arrazakeriari buruz garatu dituzten diskurtsoetan, batetik, berebiziko eragina izan du Ameriketako Estatu Batuetako arrazakeriaren historiak, eta, bestetik, garrantzitsua izan da kubatarrek elkartasuna agertu izana beti beltzen, puertorricarren eta amerikar natiboen aldeko mugimenduetako aktibista antirrazistengana. Aise mintzo ziren Martin Luther King, Malcolm X eta halako pertsonen buruz, eta, preso gehienak gazteegiak izaki, ez zuten bertatik bertara bizi izan Kuban 1970eko hamarkadaren hasieran Angelaren kasuaren harira antolaturiko elkartasun-kanpaina, baina, hala ere, haietariko askok ederki ezagutzen zuten haren historia. Arrazari eta arrazakeriari buruz egiten genizkien galderak AEBren testuinguruan ulertzeak zirenez, elkarriketatu guztiek behin eta berriz azpimarratu zuten arrazakeria ez zela arazo bat, ez kartzelan, ez oro har gizartean. Emakume bati galdetu geniolarik ea beraren ustez ba ote zen arrazari buruz hitz egiteko modu argigarririk diskriminaziorik agertu gabe, zera erantzun zuen: «Bai, hitz egin dezakezu arrazari buruz, elkartzeko, eta ez banatzeko edo diskriminatze-ko. Jendea zenbat eta elkartuago, zuriak eta beltzak, orduan eta

298 Sevenumeko kartzelako elkarriketa, 1996ko apirila.

299 Sevenumeko kartzelako elkarriketa, 1996ko apirila.

hobea izanen da mundua, elkartuago egonen da.³⁰⁰ Horrez gain, haren ustez, AEBko herritarrek Kubaren irakaspen garrantzi-tsuak jaso behar lituzkete arraza-berdintasunaren bilaketan.

Arrazak kartzela-testuinguruan duen garrantziari buruz kartzela-kudeatzaileek esanak presoek esana islatzen zuen, eta, aldi berean, urruti zeuden elkarrengandik. Kuban, adibidez, bai kartzela-zuzendariak eta kartzelazainak, bai presoek berek joera zuten arrazari buruzko galderak arraza-diskriminazioari buruzkoak balira bezala ulertzeko. San Frantziskon, arrazari eta arrazakeriari buruzko galderen kariatara, presoek programen zentroan sartzeko sinatu beharreko kontratuaren berri eman ziguten kartzela-kudeatzaileek. Nolanahi ere, San Frantziskoko sheriffak –konderriko kartzela-sistemaren arduraduna bera– eztabaida bat abiatu zuen bere karteletan zeuden preso beltz eta marroien kopuru eskergei buruz, eta adierazi zuen sheriffa zen aldetik sentiberatasun berezia izan behar zuela koloreko presoekin, berari baitzegokion presoentzako gizarte-programak ezartzea.

San Frantziskoko Programen Zentroko kudeatzaileek arrazakeriari buruzko galderak presoen arteko arraza-harremane-i buruzko galderak balira bezala ulertzen zituzten era berean, Herbehereetan ere, Amerswiel kartzelako zuzendaria presoen arteko harremanez mintzatu zitzaigun arrazakeriari buruzko galderak egin genizkiolarik, batik bat emakume zuri holandarren eta emakume hegoamerikarren arteko harremanez. Berebat, haren komentarioek iradoki ziguten kartzelako berdintasun behartu hori –zeinean denei ukatzen baitzaizkie eskubide eta askatasun jakin batzuk, arraza gorabehera– arrazakeriari buruzko pentsamolde liberalaren muga frogatzen dela.

Ondorioa

Aurrez aurre izan ditugun kontraesanetako asko –presoak ikerketaren xede nonahikotzat hartzea, politika ofizialaren eta eguneroko praktikaren arteko desadostasunak, kartzelan sartzeko debekuak berandu iristea, berdintasun-bermeak ugaritzea, eta berdintasuna irudikatzea zera balitz bezala, gizabanako askeek besteenganako ekintza moral zuzenak egitea sekula subjektu

300 Sevenumeko kartzelako elkarriketa, 1996ko apirila.

gisa analizatuko ez den estatu baten indarraren laguntzaz—lotuta daude sistema liberalaren ezaugarriekin eta gure ikerketa-metodologiaren mugekin, gure metodologiak ez baitzuen balio bere testuinguru hegemonikoari ere heltzeko. Beste presoekin komunikatzeko espainiera ikasten ari zen Herbehereetako presoak adibide aparta da ikusteko nola sor litekeen gizarte justu bat; ez Kaliforniako estatua bezalakoa, non diskriminazio positiboa eta hezkuntza elebiduna abolitu, eta, bien bitartean, kartzela gehiago eraikitzen ari baitira sistemak hain gaizki ulertzen dituen populazioentzat. Hortaz, gure ikerketaren «emaitzek» presoek buruz irudikatu litezkeen ikerketa-plangintza gehienek esparrua gainditzen dute, baita ikerketarik esanguratsuenena ere, hala nola kartzelako osasun-arretari, familia-harremanei, gizarte-ongizateari eta are arrazakeriari buruzko informazioa biltzea xede dutenena.

Kartzelak izan dira gure ikerketarako tokirik hoberena, ez hango baldintzak kaskarrak direlako, baizik eta kartzela-sistemaren segmentazioa urruti dagoelako gure kontzientziazatik eta horri esker antolatzen duelako estatu liberalak bere populazioa. Arrazakeriaren arazoa konpontzea hura gehien sufritzen dutenak kontuan hartu gabe planteamendu analitiko baten aurka egitea izanen litzateke. Alta, prozesu honetan bildu dugun informazioak hasieran aurreikusitako helburuak gainditu ditu; izan ere, norbaitekin komunitatea eraiki nahi badugu eta haren hizkuntza ikasten badugu, haren kartzelako baldintzak hobetzeaz gainera, haren kanpoko mundu askeko baldintzak ere hobetuko ditugu.

HAMAIKA

EMAKUME ESPETXERATUAK: ERALDAKETARAKO ESTRATEGIAK

(ANGELA DAVIS ETA KUM-KUM BHAVNANI)³⁰¹

Gizarte kapitalistan, kartzela funtsezkoa da gizabanakoak kontrolatzeko. Hori dela eta, instituzio horretan generoa eta arraza klase-esplotazioaren gainean geruzatuz erreproduzitzen diren zapalkuntza-moduek toki garrantzitsua behar lukete izan psikologo marxisten agendan. AEBko eta Britainia Handiko azken 150 urteetako emakume-kartzelen bilakaera emakumeengana-ko jarrera sozialek eta haiekin loturiko zigor-praktika sexista eta arrazializatuak elikatua da, eta, horrenbestez, jarrera eta zigor horiexek berak elikatzen dituzte. Gizonen zein emakumeen kartzelak diziplina fisikoan eta zelatatzean oinarritu dira beti, baita kontrolatzeko eta autozelatatzeako estrategia psikologikoetan ere.³⁰² Autoestimua eta etxekotzea lantzeko estrategia psikologikoak bereziki garrantzitsuak dira emakume espetxeratuentzako errehabilitazio-programen kontzeptualizazioan.

Emakume espetxeratuei buruzko literatura gehiena autolaguntzarako eta aholkularitzarako diskurtsoz josia dago. Nolanahi ere, kontrolerako eta errehabilitaziorako teknika psikologikoak erruz zabaldutako diren arren –kontuan harturik maiz

301 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *Psychology and Society: Radical Theory and Practice*, arg. Ian Parker eta Russell Spears (Londres: Pluto Books, 1996), 173-183. Egileok Dana Collins eta Stefanie Kellyren laguntza jaso genuen kapitulu hori idazteko zenbait fasetan. Testuaren oinarrian dagoen ikerketa egiteko, Irvineko campusean egonaldi bat egiteko beka bat eman zigun Kaliforniako Unibertsitateko Humanitate Ikerketen Institutuak. Eskerrak eman nahi dizkiegu institutuko zuzendari Mark Roseri eta lagundu ziguten gainerako kideei (Sauni Hayes, Deborah Massey, Chris Aschan eta Mia Larson), ahal zuten guztia egin baitzuten gure egonaldia albait emankorrena eta atseginena izan zedin.

302 Kathleen McDermott eta Roy King, «Mind Games: Where the Action Is in Prisons», *British Journal of Criminology* 28, 3. zk. (1988): 357-377.

kontraesankorrak direla-, psikologo feminista eta marxistek ez dute emakume espetxeratuen gaia askorik landu. Hortaz, espero dugu kapitulu honek, nahiz oraindik behin-behinekoa izan, eztabaida piztea psikologo feministen artean. Lankidetzan egin genuen hona dakargun ikerketa, kartzelak eta atxiloketa-zentroak abolitzeari buruzko ikuspegiez eztabaida publiko bat pizteko asmoz; izan ere, emakumeen aurkako zigor arrunt bila-katuak dira gaur egun kartzelak eta atxiloketa-zentroak.

Ideologikoki, «kriminalak kaleetatik kanpo egozteko» eta, hortaz, krimenaren gainean sozialki eraiki den beldurra leuntzeko modurik seguruenak balitz bezala aurkezten da kartzela, eta, hala eta guztiz ere, gero eta jende gehiago espetxeratzeak sekula ez du ekarri gero eta preso potentzial gutxiago egotea. Alderantziz, kartzela krimenaren aurkako konponbide gisa aldarrikatzeko ahaleginen ondorioz, kartzela-instituzioak eta -populazioak hedatu egin dira. Gizabanako presoek kopuruak tai gabe gora doaz Ameriketako Estatu Batuetan: 1980tik 1992ra bitartean, % 160 igo zen gizon presoek populazioa, eta % 275 emakume presoena. Nahiz eta emakumeak preso guztien artean gutxiengoa izan (1991n, 87.000 emakume zeuden estatu-kartzeletan eta kartzela federaletan),³⁰³ emakumeen gorakada-indizea gizonena baino handiagoa da. Bada, kartzela-populazioak handitzeko joera kezkagarri hori Ameriketako Estatu Batuen barne-krisi larritzat hartu beharrean, politikariek –bai demokratek, bai errepublikanoek– «kriminala», «ongizate-ama»³⁰⁴ eta «immigrantea» kontzeptuak desitxuratu dituzte, beldur sozial sakonak errotzeko. «Kriminala», berekin dakartzan arraza-ondorio guztiekin, nazioak bere identitatea zerbaiten aurka irudikatzeke darabilen figura nagusietako bat da. Bien bitartean, Ameriketako Estatu Batuetako gizon eta emakume presoek –gehienak ere koloreko pertsonak– erabili eta botatzeko populazioa osatzen dute, preso anitzek esan ohi duten bezala, eta zigor gogorragoak eskatzen dira, attergabe, herrialde guztian barna. Kaliforniako estatuan, adibidez, «hiru kolpe eta kanpora»

303 Barbara Bloom eta David Steinhart, *Why Punish the Children?* (San Frantzisko: Krimenaren eta Delinkuentziaren Batzorde Nazionala, 1993).

304 Ongizate-ama (*welfare mother*) edo ongizate-erregina (*welfare queen*): AEBn ongizate-sistemaz abusatzea egozten zaien pertsonak izendatzeko erabiltzen diren termino gutxiesgarriak. (Itzultzailearen oharra).

araudia sakonki errotu da 184. Proposamenari esker; duela gutxi onartu zuten, «hiru kolpeen legea» juridikoki oztopatzea saihas-teko. Lege horrek biziarteko kartzela-zigorra ezartzen du hiru delitu egindako gizabanako guztientzat.

Kriminologian eta harekin loturiko beste arlo batzuetan bibliografia ugari sortu den arren kartzela errehabilitaziorako es-parru gisa erabiltzearen porrotari buruz, lan gutxitan aztertu dira kartzelako emakumeen gaineko ikerketaren ondorio politikoak. Badira salbuespen aipagarriak,³⁰⁵ baina, orokorrean, onartzen da emakumeak baztertuta egon direla kartzela-politiketan.³⁰⁶ Esate baterako, kartezei, presoei eta presoek mugimenduei buruzko azkenaldiko ikerketa batzuk³⁰⁷ soilik gizonak aintzat hartuta egin dira. Salbu William L. Selkeren *Prisons in Crisis* lanean, gainera-ko autoreen lanetan ez da onartzen generoak beren analisisetan duen garrantzia.

Bat gatzoz Jeffrey Reimanek *The Rich Get Richer and the Poor Get Prison* lanean dakartzan argudioekin, hots, legeak egiteko politikek, poliziaren eta fiskalen lana arautzen duten politikek eta zigor-politikek sortzen dutela krimena; nolanahi ere, klaseari buruz egiten duen analisi sinplista eta mekanikoan ez ditu kon-tuan hartzen krimenaren gako ezinbesteko batzuk.³⁰⁸ Zehazki, ez du kontuan hartzen generoa, arraza eta sexualitatea eragin transbertsalak direla justizia penalaren politiken eraikuntzan. Lan honetako bi ikertzaileok marxistatzat daukagu geure bu-rua, eta biok sentitzen dugu analisi marxistak ez liratekeela klasera mugatu behar eta, aitzitik, kapitalismoaren zapalkuntza

305 Kathryn Burkhart, *Women in Prison* (New York: Doubleday, 1973); Pat Carlen, arg., *Criminal Women* (Cambridge: Polity Press, 1985); Pat Carlen, *Women, Crime and Poverty* (Philadelphia: Open University Press, 1988); Pat Carlen, *Alternatives to Women's Imprisonment* (Milton Keynes: Open University Press, 1990); Russell P. Dobash, R. Emerson Dobash eta Sue Gutteridge, *The Imprisonment of Women* (Oxford: Basil Blackwell, 1986); eta Mary Eaton, *Women After Prison* (Buckingham: Open University Press, 1993).

306 Linda Hancock, «Economic Pragmatism and the Ideology of Sexism: Prison Policy and Women», *Women's Studies International Forum* 9, 1. zk. (1986): 101-107.

307 Ronald Berkman, *Opening the Gates: The Rise of the Prisoner's Movement* (Toronto: D.C. Heath, 1979); William Wilbanks, *The Myth of a Racist Criminal Justice System* (Monterey, CA: Brooks Cole, 1987); John Braithwaite, *Crime, Shame and Reintegration* (Cambridge: Cambridge University Press, 1989); William L. Selke, *Prisons in Crisis* (Bloomington: Indiana University Press, 1993).

308 Jeffrey Reiman, *The Rich Get Richer and the Poor Get Prison: Ideology, Crime and Criminal Justice*, 3. argitalpena (New York: Macmillan, 1990).

sistematikoaren askotariko moldeak indartzen dituzten praktikak ulertzen eta aldatzen lagundu behar luketela.

Emakume presoekin edo haiei buruz egin diren lanetan,³⁰⁹ haien pasibotasuna azpimarratu ohi da. Emakume presoak sistematikoki infantilizatzen diren arren, horrek ez du esan nahi inongo agentziarik ez dutenik. (Salbuespen gisa, ikus Judy Clark eta Kathy Boudin egileen «Community of Women Organize Themselves to Cope with the AIDS Crisis» lana, zeinean emakume presoek ikertzaile, teorialari, hezitzaile eta osasun-profesional gisa aurkezten baitute beren burua.) Alde horretatik, badira antzekotasunak kartzelaren eta AEBko esklabotza-sistema historikoaren artean. Esklaboek irauteko –eta, aldi berean, beren iraupen-ekintzak ezkutatze- moduak aurkitu zituzten bezalaxe, emakume presoek ere sormen handiz bilatzen dituzte maiz kartzela-sistemaren gizagabetzeari aurre egiteko moduak.³¹⁰ Alta, gehienetan, diskurtso inplizitu eta aldi berean esplizitu sail baten eraginez, beren egoera ulertzeko eta are kontrolatzeko ezigaitzat jotzen dira emakume presoak.³¹¹

Duela gutxi, *Women Prisoners: A Forgotten Population* ikerketa-bilduma argitaratu dute beren burua ikertzaile sozial multietniko gisa definitzen duten zenbait egileren artean (Beverly Fletcher et al.), berrerortzeari eta emakume presoek trebakuntzari buruz Oklahoman egindako proiektu baten harira. Oklahoma aukeratu zuten, hain zuzen, Ameriketako Estatu Batuetako emakume presoek indizerik handiena duelako: 1.000tik 3,8. Beren ikerketan, 142 galderako galdetegi bat egin zieten Oklahomako atxiloketa-zentroetan espetxeraturiko emakume guztien % 80ri baino gehiagori, 1991ko martxoan; guztira, 557 emakumek

309 Rose Giallombardo, *Society of Women: A Study of a Women's Prison* (New York: John Wiley, 1966).

310 Judy Clark eta Kathy Boudin, «Community of Women Organize Themselves to Cope with the AIDS Crisis: A Case Study from Bedford Hills Correctional Facility», *Social Justice* 17, 2. zk. (1990): 90–109.

311 Ikus, adibidez, Thomas W. Foster, «Make-Believe Families: A Response of Women and Girls to the Deprivations of Imprisonment», *International Journal of Criminology and Penology* 3, 1. zk. (1975): 71-78; Harriet Cookson, «A Survey of Self-Injury in a Closed Prison for Women», *British Journal of Criminology* 17, 4. zk. (1977): 332-347; Candace Kruttschnitt, «Race Relations and the Female Inmate», *Crime and Delinquency* 29, 4. zk. (1983ko urria): 588-589; Christina Jose Kampfner, «Coming to Terms with Existential Death: An Analysis of Women's Adaptation to Life in Prison», *Social Justice* 17, 2. zk. (1990): 11-125; eta Beverly R. Fletcher, Linda Dixon Shaver eta Drema G. Moon, *Women Prisoners: A Forgotten Population* (Westport, CT: Praeger, 1993).

parte hartu zuten. Horrez gain, kartzela mistoetako 163 funtzionarioen % 60k ere erantzun zuten galdetegia. Proiektuaren helburu nagusia emakume presoen berrerortze-indizeak aztertzea zen. Zinez estimatzen dugu ikertzaileok emakume presoekin agerturiko konpromisoa, arrazaren auziari eta arrazaren, generoaren eta klasearen arteko gurutzaketari heltzeko borondatea, eta emakume presoentzako estrategia askatzaileak bilatzeko ahalegin akademikoa. Dena den, «berrerortzea» nagusiki bizitza-istorio indibidualetatik eratorritako arazo bat balitz bezala planteatuz gero, begirada analitikoa desbideratu egiten da indar instituzional eta estrukturaletatik, eta kontuan hartu behar da indar horiek iman gisa jokatzeko dutela eta preso ohiak ezinbestean sistemara itzultzea eragiten dutela. Gainera, nahiz eta Oklahomako ikertzaileen helburu nagusia ikerketa sakon eta zehatz bat egitea izan eta arrazari generoari bezainbesteko garrantzia aitortu Oklahomako emakume presoek populazioaz teorizatzean, azkenean, batik bat biktima sozialak balira bezala aurkeztu zituzten emakume presoak. Ikuspegi horri buruz sortu zaigun beste zalantza bat aipatzearren, ikertzaileek «A National Profile of the Woman Prisoner» hartu zuten oinarritzat, AEBko Zentzategien Elkartek 1990ean egina, eta, lan horrek dakarren deskribapen normatiboan, emakume espetxeratuak koloreko emakume ezkongabeak dira, hogeitaka urtekoak, abusu fisikoak sufrituak, institutua bertan behera utziak, seme-alabak izanak eta gutxienez bi aldiz atxilotuak hamabost urteak bete baino lehen.³¹² Xehetasunetan sartu gabe, era horretako deskribapenek emakume presoek gainera nozio estereotipatuak sortzen dituzte; ez diete heltzen emakume kriminalizatuen gainean batezbesteko estatistikoetan oinarriturik sortzen diren diskurtsoei, eta, hortaz, agentzia oro ukatzen diete emakumeei.

Dena den, badira era horretako ondorio estuetara iristen ez diren lanak ere. Russel P. Dobashek eta bestek, adibidez, emakume espetxeratuak gizaki pasibo gisa edo beren baldintza sozialen biktima huts gisa agertzea saihesten dute.³¹³ Horren ordez, Foucaulten ikuspegia planteatzen dute, nahiz ez begi onez ikusi hark uko egin izana generoa desberdintasun-kategoriatzat

312 Fletcher *et al.*, *Women Prisoners*.

313 Dobash *et al.*, *Imprisonment of Women*.

hartzeari. Foucaulten lana, kapitalismoko krimenaren eta zigorraren gaineko diskurtso marxistekin batera, baliagarria da, baina, aldi berean, beharrezkoa da hura kritikatzeari.³¹⁴ Dobashek eta bestek, emakumeen kriminalitateari eta espetxeratze-ari buruzko diskurtso ofizialak aztertu, eta galdetzen dute nola eramaten diren diskurtso ofizial horiek iraganeko zein oraingo gobernu-praktiketara. Horrez gain, lau hilabete eman zituzten Eskoziako emakumeen kartzela bat sakonki behatzen, 1980ko hamarkadaren erdialdean, eta 59 emakume preso elkarrizketatu zituzten.

Eskoziako kartzela hura, Cornton Vale, emakumeentzat eraiki zuten berariaz, eta, ofizialki, komunitate terapeutiko gisa deskribatzen da.³¹⁵ Emakume presoak gizon presoak baino «zailagoak» direlako ustea XIX. mendetik dator, eta ia bere horretan dirau gaur egungo diskurtsoan. Bestalde, Dobashek eta bestek erakutsi dute amatasuna ere kontzeptu ideologiko kontrolatzaile bat dela eta emakume espetxeratuei buruz juzguak egiteko erabiltzen dela. Hona hemen juzgu-egile gorenen ohiko jarrera bat: «Emakume bat ama ona bada, ez dut hura kartzelan sartuko; eta, ama ona ez bada, ez du axola».³¹⁶

Agerikoa denez, haien ikerketa oso lagungarria egin zitzaigun emakume espetxeratuekin egiten ari ginen lanerako. Nolanahi ere, haiek ez dituzte «arraza» eta arrazakeria auziak eztabaidara ekartzen emakume presoek aritzean, hau da, emakumeak espetxeratzearen dinamika arrazializatuak ezkutuan geratzen dira, eta, horren ondorioz, analizatu gabe uzten dute emakumeak espetxera sartzearen auzian giltzarri den prozesu bat. Aldi berean, uste dugu garrantzitsua dela Dobashen ikerketa aintzat hartzea; izatez, gainera, eragin berebizikoa izan du beste esparru batzuetan ere, hala nola Eskoziaren kartzela-politika ofizialean. Dena den, egileen azalpenak kartzela-erreformari buruzko ideietara mugatzen dira, eta gutxitan aipatzen dute kartzela-abolizioaren aukera. Kontuan hartuta guri kartzelaz besteko instituzio eta estrategien aukerez eztabaida piztea interesatzen zaigula, adierazgarria iruditzen zaigu horren inguruko isiltasuna.

314 Michel Foucault, *Discipline and Punish: The Birth of the Prison*, itz. Alan Sheridan (New York: Vintage, 1979).

315 Dobash et al., *Imprisonment of Women*.

316 Dobash et al., *Imprisonment of Women*, 195.

Pat Carlenen *Alternatives to Women's Imprisonment* (1990)³¹⁷ dugu eredu horretatik urruntzen den lan bat. Carlenek argitarara dakar zein zaila den kontzeptualizatzea sistema penal bat non kartzela ez den nahitaez hartzen azken muturreko zigortzat. Horrez gain, eraginkortasunez aldarrikatzen du aitor dadila emakume presoak gizaki autonomoak direla, eta ez soilik biktimak sozialak. Berezi hunkitu gaitu Britainia Handiko bost urteko fase esperimentalaren proposamen harrigarriak: epe horretan, ziega gutxi batzuk utziko lirateke soilik, epaileek kartzela-zigorra ezarri nahi dieten emakumeentzat. Alegia, kartzelak errehabilitazio sozialerako azken tokiak direla onartu beharrean, bere analisisa testuinguruan kokatu eta erreforma bat aldarrikatzen du Carlenek, betiere atxiloteta-zentroak eta kartzelak gutxitzeko eta abolitzeko estrategia nagusi baten barrenean. Berriro ere, hagitz baliagarriak iruditzen zaizkigu haren azalpenak, baina zailantzarria deritzogu arraza eta arrazakeria auziez txintik ere ez esateari.

Gure lana, beraz, isiltasunaren argitan kontzeptualizatu da: emakume presoen isiltasuna, emakume presoek buruzko isiltasuna, eta arrazak eta arrazakeriak emakume presoen auzian duten eraginari buruzkoa. Bestalde, gaur egungo lan akademiakoetan emakume presoak biktimatzat eta kartzelak erreformatu –ez abolitu– beharreko instituziotzat hartzeko joera orokorretik urruntzea ere bada gure lanaren helburua. Labur-labur deskribatuko dugu kartzela batean egin dugun lana, halako auziak praktikan nola agertu ohi diren ikusteko eta zapalkuntza-egituren multzo konplexu batetik zenbait hari ateratzeko, egitura horiek ez baitira klase bakar batera edo beste kategoriaren batera mugatzen.

Kartzela

San Frantzisko Konderriko #7 Kartzelan (San Bruno), delitu arinak egin eta urtebetetik beherako zigorra betetzen ari diren presoak biltzen dira, edo epaiketaren zain daudenak eta/edo beste estatu-kartzela batzuetara aldatzekotan direnak. Hango ikerketa egin genuen garaian, generoaren eta estatusaren arabera banatuta zeuden kartzelako logelak, eta 200 gizon

317 Carlen, *Alternatives to Women's Imprisonment*.

eta 100 emakume zeuden, gutxi gorabehera. San Frantzisko-kartzela «programen zentro» bat da, hau da, preso guztiek hezkuntza-programetan parte hartu behar dute nahitaez. Alde horretatik, kartzela tradizionalen alternatibak dira. Hainbat arrazatako kartzelazainak kontratatzen dituzte, eta denek ere argi izan behar dute kartzelak ez duela soilik esan nahi kontrola eta zigorra, aitzitik hezkuntza multikulturalerako askotariko aukerak eskaini behar dituela.

Programen zentroak «belaunaldi berriko kartzelak» dira, eta, kartezei buruzko teorizazioetan, kartzelen antolaketaren aurrerapen handitzat hartzen da. #7 Kartzelak, beraz, kartzela-arkitekturako eta presoek kudeaketako berrikuntzarik berrienak biltzen ditu, denak ere kartezelek porrot egin dutela erakutsi nahi duten suposizio teorikoetan oinarrituak. Belaunaldi berriko kartzeletan, ez dago korridoreetan antolaturiko ziega-eredurik edo burdin barrarik; horren ordez, arkitektura irekia da, eta kartzelazainek zuzeneko ikuskapenak egiten dituzte. Horrenbestez, zelatze-sistema osoagoa da.

#7 Kartzelak sei logela ditu, bi emakumeentzat eta lau gizonentzat, eta 60 preso sartzen dira haietako bakoitzean. Logelak zirkuluan daude antolaturik, plexiglasezko kontrol-dorre altu baten inguruan; dorre horretatik, logeletako zoko guzti-guztiak zelatatu daitezke. Horrez gain, logela guztietan badira bideo-kamerak, presoak urrutitik zelatatzeke, eta grabaturiko irudiak kontrol-dorreko pantaila batzuetara igortzen dira. Eguneke 24 orduetan egoten dira kartzelazainak kontrol-dorrean, eta, nahi izanez gero, logela guztietako kamerak mugi ditzakete, zoko guztiak ikusteko. Alegia, Jeremy Benthamen panoptikoaren XX. mendeko aldaera bat da #7 Kartzela.

Logelek ziri-forma dute; alderik zabalenean, pasabide txiki batek eraikinaren atzealdeko patio txiki batera ematen du, eta alderik estuenean, berriz, logelara sartzeko sarrera nagusia dago. Sabaiek 12 metroko altuera dute gutxienez. Literak atzealdeko hormetan daude, lerroan jarrita, eta, literen aurreko aldean, elkarren ondoan jarritako ohe batzuk. Logelen aurrean, kartzelazainaren mahaia dago, eta, ondoan, kartzelako arauak jasotzen dituzten iragarki-taulak, lau telefono, eta arbel bat, logeletako eguneroko lanak eginen dituzten emakumeen izenak idazteko (janaria zerbitzatu edo logelak garbitu, adibidez). Kartzelazaina-

ren mahaiaren ondoan badira metalezko bost mahai luze eta, haietako bakoitzaren inguruan, hamabi taburete. Logelako altzariak lurrera josita daude. Logelaren zoko batean, ariketa fisikoa egiteko aparatu batzuk daude, eta, logelaren beste aldean, komun irekiak eta dutxa-kabinak, gortina gardenekin. Emakume askok «biltegi» esaten zieten logelei.

Gatibuak era horretan zaintzeko, beharrezkoa da logelan kartzelazain-laguntzaile bategotea eguneko 24 orduetan. Kontrol-estrategia arras desberdina da lau edo zortzi emakumeentzako ziega itxien aldean, zeinetan kartzelazainek noizbehinka begiratzten baitute burdin barren beste aldera, emakumeek «portaera txarrik» ez dutela ziurtatzeko. Alegia, belaunaldi berriko kartzela guztiak antolatzeko funtsezko printzipioa erabateko zelatatzea da. Prozesu horretan «aurrerakoitzat» jotzen dena zera da, bertan behera uzten direla presoek eta kartzelazainen arteko molde zaharreko harremanak, zeinak burdin barren eta armen bidezkoak baitziren nagusiki. Antolaketa berrian, giro hezitzailea sustatu nahi da, ez hainbeste zigorrera bideratua. Ildo horretan, emakumeen bi geletan bazen Malcolm X-ren aipu bat, ingelesez eta espainieraz, poster handi batean: «Presoak ongi erabil dezake bere denbora. Nire ustez, kartzela, unibertsitatearen atzetik, tokirik onena da emakumeek gogoeta egin dezaten. Emakumeoi grina pizten bazaie kartzelan, beren bizitza aldatzeko grina ere piztuko zaie».

Bi logeletako emakume gehienak kolorekoak eta afro-amerikarrak ziren. Kartzelan dauden emakume latinoen kopuruek azken hamarkadan gora egin badute ere, nahiko emakume latino gutxi zegoen. «Asiar-amerikar» identifika zitezkeen emakume gutxi-gutxi zeuden; dena den, San Frantziskoko 850 Bryant Streeteko hiri-kartzelan, 1993ko urriaren bukaeran seigarren solairuan bisitatu genituen 40 emakumeetatik 6 gutxienez asiarrak ziren. Elkarriketatu genuen emakume batek esan zigun amerikar indigena zela jatorriz. Emakume zurien kopurua ere txikia zen.

Emakumeen uniformeari dagokionez, kamiseta bat, kirolgaltza pare bat eta kirol-jertse bat janzten zituzten. Hiru jantziek kolore berekoak izan behar zuten beti: urdina, horia edo laranja. Urdinez zihoazenak «kanporako baimena» jaso zezaketenak ziren; bestela esanda, «ihes egiteko arriskurik» ez zutenak. Talde horretako emakumeek kartzelako lorezaintza-lanak egin zitza-

keten, baita informatika-eskolak jaso ere, aldameneko eraikin txiki batean (emakumeen kartzela zaharra). Horiz zihoazenak zigorra jasotako emakumeak ziren; laranja, berriz, oraindik zigorrik jaso ez zutenak. Azken talde horretakoek, azaldu zigutenez, aldi bakanetan izaten zuten kanpora ateratzeko baimenik, ihes egiteko gainerako presoek baino aukera handiagoa zutenez gero. Alta, batzuetan ez zen izaten kolore guztietako jantzirik, eta emakume anitzek jantzi horiak eta laranja konbinatzen zituzten. Bitxia da nola emakume batzuek arraza-hierarkiaren sinbolotzat hartzen zuten arroparen kolorea.

Bazen beste modu bat emakume bakoitzari zer sailkapen zegokion identifikatzeko. Emakume bakoitzak eskumuturreko batean eraman behar zuen bere kartzela-zenbakia: zigorra jasotako emakumeek eskumuturreko zuriak eramaten zituzten; zigorrik jaso ez zutenek, laranja; eta zigorra jaso eta kanporako baimena zutenek, urdina. Horra, beraz, emakumeei kartzela-sisteman zer sailkapen dagokien identifikatzeko modu ikusgarri eta zehatz bat. Oraingoan ere, iruzkin interesgarriak egin zituzten emakume askok sailkapen instituzionalean oinarrituriko identitate-eraikuntzaz.

Emakumeen gorputzak: kontrola, zelatatzea eta erresistentzia

Gurekin mintzatu ziren emakume anitzek inplizituki onartu zuten gauza konplexua eta kontraesankorra zela kartzela, bereziki gizabanakoak aldi berean zigortzeko eta errehabilitatzeko asmoa, zeren gizabanakoak «kriminaltzat» hartzea baitakar berekin. Harrigarria bada ere, emakume gatibu anitzek ohar argigarriak egin zituzten arrazakeriaren eraginari buruz, are esplizituki hura ezabatzea helburu duen instituzio baten testuinguruan. Bereziiki interesatzen zitzaigun nola hitz egiten zuten #7 Kartzelako emakumeek kontrolaz eta zelatatzeaz, eta ea ikusten ote zuten kartzelaren botereari aurre egiteko modurik.

Emakume anitz ongi ohartuak ziren pasibotasun- eta otzantasun-ezaugarriak estrukturalki hanpatzen zirela, bakanen errehabilitazioaren frogak balira bezala. Emakumeen zentzategietako filosofiaren xedea, izan ere, emakume «kriminalak» ama eta emazte otzan –pasibo eta esaneko– bilakatzea izan da, argi eta garbi. Kartzelek emakume apurtzaileak eraldatu nahi dituzte, hau da, emakumeak eraldatu, pasibotasun- eta

otzantasun-ohiturak bereganatu ditzaten.³¹⁸ Kontuan izanik emakume beltzak guztiz oldarkorrek balira bezala deskribatzen direla diskurtsiboki, prozesu horrek badu ondorioz arraza-kontuetan ere. Carol Smartek *Women, Crime and Criminology* lanean dioen bezala, jokabide kriminalak jokabide maskulinoetat hartzen dira, eta, horrenbestez, emakumeak espetxeratzearen helburuetako bat emakumeei pasibotasuna eta otzantasuna txertatzea da, hartara «femeninoagoak» izan daitezen.³¹⁹ Dena den, kriminologo feministek zehaztu dutenez, pasibotasuna eta otzantasuna ez dira lagungarriak emakumeentzat –bereziki koloreko emakumeentzat, gehituko genuke guk– behin aske geratu eta gero kanpoko munduan bizitza autonomo eta emankorra izateko.

Emakumeen gorputz eta burmuinak ikuskapen-sistema zuzeneko presondegiek berezkoak dituzten errutina jakin batzuen bitartez kontrolatzen dira. Emakumeek, hala ere, aurre egiten diete errutina horiei, eta, batzuetan, arrakasta handiz: barre egitea erresistentziarako arma garrantzitsua da, edo, bestela, baliabide kolektiboak asmatzen dituzte emakumeak kartzelazainen erasoetatik babesteko, bai eta elkartasunezko beste adierazpen eta ekintza batzuk ere. Maiz, emakumeen pribatutasun-nahia errespetatzeko estrategia indibidualak erresistentziarako aukera garrantzitsuak dira, bereziki gorputzak, pentsamenduak eta emozioak ezinbestean publikoak eta aldi oroz zelatatuak diren mundu batean.

Nahiz eta iritzi akademiko eta politiko nagusien arabera zaintza eta haziera izan emakumeen kartzelak antolatzeke bi printzipio gailenak,³²⁰ elkarriketatutako genituen emakume presoek bestelako iritziak agertu zituzten: aldi bakanetan deskribatu edo aipatu zituzten haziera-printzipioak praktika instituzionalak balira bezala. Areago, kontraesanek betea dago hazieraren kontzeptua, batik bat emakume presoek denaz bezainbatean. Izan ere, emakume askok azaldu digute ingurune «sasi-amatiar» bat

318 Barbara Brenzel, *Daughters of the State: A Social Portrait of The First Reform School for Girls in North America* (Cambridge, MA: MIT Press, 1983).

319 Carol Smart, *Women, Crime and Criminology: A Feminist Critique* (Londres: Routledge eta Kegan Paul, 1976).

320 Adrian Howe, «Prologue to a History of Women's Imprisonment: In Search for a Feminist Perspective», *Social Justice* 17, 2. zk. (1990): 4-22.

sortzeko diseinatuak direla emakumeen kartzelak³²¹ eta emakume presoak haurrak balira bezala tratatzen dituztela maiz.

Sexualitatea

Sexualitatea munta handiko gaia izan da beti emakumeen ideologia apurtzaileetan. Kartzeletako programen zentroak instituzio aurrerakoi gisa aurkezten dira jendaurrean, eta, are, esplizituki ahalegintzen dira kontzientzia antirrazista, antisexista eta antihomofobia sustatzen. Emakume guztiek jarraibideen eskuliburu bat jasotzen dute kartzelan sartu orduko, zera dioena: «Arrazakeria, sexismoa, gay eta lesbianen aurkako komentarioak, edo gizakien aurkako era guztietako errespetu faltak edo gutxiespenak onartezinak dira zentro honetan».³²² Zigorrak gogorrak izan daitezke; emakume batek kontatu zigun zentro makurrago batera igorri zutela irakasleen eta kartzelako langileen aurka komentario homofoboak egin omen zituelako. Hezkuntza- eta aholkularitza-programan, hainbat modutara aipatzen da sexualitatea, bai ikerketarako gai gisa, bai tratamendurako esparru gisa. Adibidez, badira sexu-indarkeria, HIESa eta bizimodu ez-heterosexualak lantzeko tailerrak. Aldi berean, kartzeletako autoritateek zorrotz zelatatzen dituzte sexualitate-adierazpen eta -jokabideak.

Esate baterako, kontaktu heterosexuala debekatua dago. Duela gutxi arte, baratzezaintzako ikastaro mistoak antolatu izan dira; orain, aldiz, generoaren arabera banatzen dira ikastaro gehienak, eta arau zorrotzak daude emakumeek gizon presoen logeletara begiratu –eta are gutxiago haiekin hitz egin– ez dezaten kartzelako korridoreetan batzuk besteekin gurutzatzen direnean. Bestela esanda, emakume eta gizonen arteko harremanak sexu-harremantzat hartuak dira definizioz. Emakumeek, gainera, debekatua dute bisitariei ahoan musu ematea, autoritateen arabera droga-trafikoa saihestearren. Zentzategiko Zuzendariaren Araudiak zera xedatzen du: «Presoek ezin dute legez kanpoko sexu-egintzetan parte hartu. Presoak salbuetsita daude helduen arteko harreman onartuei buruzko murrizketak deuseztatzen dituzten legeetatik. Presoek berariaz saihestu

321 Kim Jackson, «Patriarchal Justice and the Control of Women», *New Studies on the Left* (Spring 1989): 153-171.

322 *Orientation Manual*, 1.

behar dituzte legez kanpoko egintzak dakartzaten portaerak eta egoerak.³²³

Batzuetan, emakumeak droga-errehabilitaziorako programetara igortzen dituzte, kartzela-zigorak ezarri ordez, eta, nahiz eta programa horiek Zentzategien Departamentuaren eskumenekoak ez izan, parte-hartzaileei eskatzen zaie behin programan sartuta ez dezatela sexu-jarduerarik izan epe luzean.

Emakume askok adierazi zuten homosexualitatea zilegiztatua dagoela ideologikoki –esate baterako, lesbiana edo gay aitortuak dira kartzelazain eta irakasle asko– eta aldi berean presoek guztiz debekatua dutela beren burua homosexual agertzeari edo, kartzelako hizkeran esaten den bezala, «homosekzioa» praktikatzeari. Emakumeon ustez, homosexualekin zorrotzago jokatzaren dute presondegiatako autoritateek. Argi dago zelatatzearen mehatxu etengabea arma psikologiko eraginkorra dela sexu-jokabidetzat har daitekeen guztia debekatzen duten arauak betearazteko. Emakume eta gizonen arteko kontaktu fisikoa debekatzeari haien arteko harremanak sexualizatzea dakar, eta homosexualitatearen aurkako arauak antzeko ondorioak dituzte emakumeen arteko harremanetan. «Bisitak» debekatuta daude oheen eremuan, nahiz oheak berez elkarrengandik metro erdira baino gutxiagora egon eta ohe bakoitza beste hiru ohez inguratua egon. Bi preso ezin dira aldi berean ohe berean eserita egon.

Soil-soilik hormigoizko lurrera josita dauden metalezko taburetetan eser daitezke, logelen aurrealdeko metalezko mahaien inguruan. Kartzelazain-laguntzaileek den-dena entzuteko moduan egoten dira mahai horiek, hau da, emakumeek ezin dute inongo kontaktu fisiko arruntik izan logelaren barrenean, ez baitago horretarako zoko bakar bat ere. Emakumeek beren espazioan egon behar dute, baita logeletako espazioa murriztuz murrizta bada ere. Alegia, logela meharrotan, espazioa bera sexualizatua dago, eta sexualitatea, horrenbestez, kriminalizatua.

Ondorioa

Gure lanaren lehen zirriborro honetan, zenbait kartzela-egitura kartografiatzen hasi gara. Era berean, emakumeen

323 15. izenburua, «Krimenen prebentzioa eta zentzategiak», i artikulua, 3007 atala («Sexu-jokabidea»).

espetxeratzearen inguruan emakumeek dituzten kezken eta eztabaida ofizial/publikoen arteko talkak eta bidegurutzeak ere identifikatu ditugu. Kapitulu honetan ez ditugu kontuan hartu Britainia Handiko eta Ameriketako Estatu Batuetako emakume presoen auzian berebiziko garrantzia duten zenbait kontu; esate baterako, nola erabiltzen diren komunitate terapeutikoak zigorraren mentalitatea betikotzeko, nahiz sortzez erradikalak izan. Jende anitzek kartzelarik gabeko gizarte bat imajinatzeko duen zailtasun errotuan ere ez dugu sakondu; kriminalitatearen gainean oso bestelako nozioak eratzeaz ari gara, arraza- eta klase-lerroetatik harago, gizarte bat hezkuntzari garrantzi estrategikoa emanen liokeena kartzelaren alternatiba gisa. Amsterdamen 1645ean ireki zuten lehen emakume-kartzelako atearen gaineko idazki batek honela zioen: «Ez izan beldurrik! Ez dut nahi mendekurik gaizkiaren truke, baina onak izatera behartzen zaituztet. Latza dut eskua, baina leuna bihotza».³²⁴

Baliteke emakumeen espetxeratzea arrazoitzeko modu hori hertsagarria gertatzea gaur egungo sentsibiltateentzat. Nolanahi ere, harrigarria bada ere, kartzelei eta kartzelatzeari buruzko diskurtsoa deus gutxi aldatu da XIX. mendeaz geroztik, eta, gure ustez, soil-soilik zigorraren aurkako eta abolizioaren aldeko ikuspegiek balio dezakete gaur egungo «giltzapetu itzazue eta bota giltza» joera ideologikoari aurre egiteko. Psikologo marxistek arretaz erreparatu beharko liekete kartzela-sistema arautzeko egiturei. Kartzela-mundua ulertzeko eta aldatzeko, beharrezkoa da marxistek ongi ulertzea zein diren zapalkuntza-ren aldaera guztiak eta nola kontrolatzen diren klase-gizartean.

324 Hemen aipatua: Dobash *et al.*, *Imprisonment of Women*, 24.

HAMABI

EMAKUMEEN ETORKIZUNAREN ALDE BORROKAN: ZENBAIT GOGOETA HERBEHEREETAKO GIZA ESKUBIDEEZ ETA EMAKUME-KARTZELEZ

(ANGELA DAVIS ETA KUM-KUM BHAVNANI)³²⁵

Ongizatea, immigrazioa eta kriminalitatea ohiko gaiak dira AEBko gaur egungo diskurtso politikoan. 1996ko hauteskunde-kanpainetan, ongizate-amaren, immigrantearen eta «kriminalaren» diskurtso sinbiotikoetara jo dute bai demokratek, bai errepublikanoek, eta halaxe eraiki dute arraza-politika atzerakoi bat, guztiz mehatxagarria etorkizuneko aukera demokratikoentzat.³²⁶ Salbuespen aipagarri batzuk kenduta, hautagai gehienek identifikatu dute –beren afiliazio politikoa gorabehera– ustezko olatu kriminal bat «segurtasun nazionala» mehatxatzen duena, eta, hala, epe luzeko kartzela-zigorak eta dagoeneko erraldoia den kartzela-sistema are gehiago handitzeko eskatu dute, kriminalitatearen aurkako erantzun bakarra balitz bezala. Krimentzat hartzen denaren aurkako oposizio politikoa –kartzela-zigor luzeagoak, errepresio gehiago eta (inplizituki «kriminal» arrazializatuentzako) kartzela-esparru zabalagoak eskatzearekin batera– ongizatearen eta Hirugarren Munduko herrialdeetako immigrazioaren aurkako oposizioarekin loturik joan ohi da normalki. Testuinguru horretan, kartzelak ugaritu dira, eta, ideologikoki zuritzen denez ugaritze horren ondorioz kartzela-populazioa abiada bizian handitu izana, no-

325 Lehenbizikoz hemen argitaratua: *Social Identities*, 3. lib., 1. zk. (1997), 7-32. Eskerrak eman nahi dizkiegu Amerswiel kartzelako emakume presoiei (haien benetako izenik ez dugu emanen argitalpen honetan), Bernadette van Darn Herbehereetako justizia-ministro eta kartzelako zuzendariari, eta baita Ria Wolleswinkeli ere, bere ikerketa gurekin partekatzeagatik. Bestalde, eskerrik asko Hoelje Lowenthal itzultzaileari ere, espainieratik ingeleserako itzulpenengatik, eta orobat Stefanie Kellyri eta Mary Jo Pooleri, transkripzioekin laguntzeagatik.

326 Ikus *New York Times*, 1996ko irailaren 17a.

labaiteko arrazakeria kamuflatu baterako zimenduak altxatu dira, eta, hala, estatuaren botere errepresiboa areagotu da. Horregatik, paradoxikoa eta biziki kezagarria da hain erakunde aurrerakoi gutxi agertzea esplizituki halako abiadan garatzen ari den kartzela-industria konplexu guztiz arrazializatuaren aurka.

Herbehereetan generoaz, zigorraz eta giza eskubideez egin dugun ikerketaren sarrera gisa, proposatzen dugu beharrezkoa dela «krimenaren» izuaren aurka egiteko estrategia politikoa, kartzela ez dadin giltzarri izan arrazakerian eta pobrezian erroturiko arazo sozialei (ez) heltzeko eta, azkenean, hura aboli dezagun. Kartzelek sekula ez dute bete gizartea «krimenetik» askatzeko helburua, nahiz hori iragarri.³²⁷ Era berean, ez dute lagundu komunitate pobreetako eta koloreko komunitateetako kideak justizia penalaren sistemaren esku utzarazten dituzten baldintza ekonomikoak aldatzen ere.³²⁸ Arrazoi horiengatik guztiengatik, beharrezkoa da arrazakeriaren aurkako teoriak eta praktikek gero eta gehiago hedatzen ari diren uste batzuen aurka jotzea: kartzelak gure artean geratuko direla betiko, ez dugula indarrrik haien ondorioz xahutzen diren gizarte-baliabideak erreklamatzeko, zeinak hobe bailitzateke hezkuntzara, osasunera, etxebizitzara eta pobreziaren aurkako ekimenetara bideratzea.

Gure ustez, kartzela estrategikoki murriztea eta orobat abolitzea da koloreko pobre-jendea justizia penalaren sistemara daramaten arazo sozialen aurkako erantzun nagusia gaur egun,³²⁹ hala eta guztiz ere, onartzen dugu kartzela-sistema guztiek ez dutela inplikazio bera pobearen beren arrazagatik kriminalizatzeko prozesuan. Hau da, gure politika abolizionistaren eginkizuna ere bada ongi aztertzea zer sistemak ez duten parte hartzen etengabe hedatzen ari diren kartzela eta atxiloketa-zentroen gaur egungo eredueta, zeinek kartzelaren bidez ustez konpondu nahi diren arazo horiek berak erreproduzitzen baiti-

327 Foucaultek Frantziako XIX. mendeko kartzela-sistemaz esandakoa esan liteke gaur egungo Ameriketako Estatu Batuez: «Kartzelek ez dute krimen-indizea apaltzen: krimena areagotu, ugaritu edo eraldatu dezakete, eta krimen eta kriminal kopuruak egonkortu edo, are okerrago, handitu». Michel Foucault, *Discipline and Punish: The Birth of the Prison*, itz. Alan Sheridan (New York: Vintage 1979), 265.

328 Jeffrey Reiman, *The Rich Get Richer and the Poor Get Prison: Ideology, Crime and Criminal Justice*, 3. arg. (New York: Macmillan, 1990).

329 Ikus Pat Carlenek prozesu horri buruz dakartzan ideiak, Britainia Handiko emakume-kartzelez ari dela: Pat Carlen, *Alternatives to Women's Imprisonment* (Milton Keynes: Open University Press, 1990).

tuzte. Esan dezagun Herbehereetan dagoela sistema horietako bat. Ez ditugu noski alboratu nahi herbeheretar egileek proposaturiko analisi kritikoak, haien ustez nabarmen hondatu baita kartzela-sistema azken hamarkadan, bereziki Europako beste herrialde batzuekin alderatuta.^{330 331} Gainera, Europako beste herrialde batzuen aldean, emakume langileen kopuru txikienetako bat dute Herbehereek, eta emakume gutxiak parte hartzen dute politikaren arloan.³³² Edonola ere, Herbehereetako emakume-kartzelak AEBko emakumeen atxiloteta-zentroen eta kartzelen sare gero eta zabalagoarekin alderatuz gero, garbi dago egoerak okertzera egin arren giza eskubideen urratze askoz gutxiago egiten direla Herbehereetako sisteman.

Emakumeen espetxeratzea testuinguru transnazional batean aztertzeke egin dugun lanaren ardatza kartzela-politiketan arraza eta generoa nola gurutzatzen diren ikusaraztea da, ez baita maiz aitortzen den gauza bat. Ameriketako Estatu Batuek dute gaur egun, arrandiaz, munduko kartzelatze-tasarik handiena.³³³ Dena den, askotan inork ez du kontuan hartzen –ezta koloreko jendearen komunitateetako hainbat eta hainbat gazte atxiloteta-zentro eta karteletan giltzapetzearen arriskuak onartzen dituztenek ere– emakume presoek populazioa abiada bizian ari dela handitzen, gizon presoek populazioa baino puskaz biziagoan. Estatu-zigorraren genero-alderdiari ez ikusiarena egiten zaio maiz, konparazioan txikia delako burdin barren atzean dauden emakumeen ehunekoa. AEBn espetxeratuta dauden 87.000 emakumeak –gutxi gorabehera– herrialdeko atxiloteta-zentro eta karteletako populazio osoaren % 7,4 besterik ez dira. Ohartuak gara garrantzitsua dela gaur egun emakume presoek buruzko lan teoriko eta praktikoak egitea; izan ere, 1980. urteaz geroztik, % 275 emendatu da emakume presoek populazioa, eta

330 Esate baterako, 1992tik 1994ra bitartean, % 40 igo ziren emakumeen aurkako kartzela-zigorrak.

331 Rene Van Swaaningen eta Gerard de Jonge, «The Dutch Prison System and Penal Policy in the 1990s: From Humanitarian Paternalism to Penal Business Management», in *Western European Penal Systems: A Critical Anatomy*, arg. Vincenzo Ruggiero, Mick Ryan eta Joe Sim (Londres: Sage Publications, 1995); Ria Wolleswinkel aurrez aurreko komunikazioa, 1996.

332 Eskerrik asko Jan Nederveen Pieterseri, datu hori azpimarratzeagatik.

333 Alexander C. Lichtenstein eta Michael A. Kroll, «The Fortress Economy: The Economic Role of the US Prison System», in *Criminal Injustice: Confronting the Prison Crisis*, arg. Elihu Rosenblatt, (Boston: South End Press, 1996), 16.

gizonena, berriz, % 160.³³⁴ Gainera, 1980ko hamarkadan, hogeita hamalau emakume-kartzela eraiki edo sortu ziren; 1970ekoan, aldiz, hamazazpi, eta, 1960koan, zazpi.³³⁵

Nagusiki kartzelan oinarritzen diren zigor-sistemen berezko kontraesanik adierazgarrienetako bat zera da, zenbateraino sustatzen duten mendekotasuna eta zenbateraino hauspotzen instituzionalizazioa; izan ere, bi faktore horiek ziurtatzen dute ezen, presoa aske geratzen denean ere, seguruenik kartzelara itzuliko dela atzera ere. Kartzelak AEBko gizartean duen eginkizunari buruzko gaur egungo eztabaida publikoaren testuinguruan, hedabideek krimena erakusten dutelarik nonahi, zaku berean sartzen dituzte «kriminal biolentoak» eta delitu ez-biolentoengatik (droga-delituengatik, maiz) zigorturikoak. Eztabaida publikoan, gutxitan lotzen da «berrerortzea» kartzela-sistemak bere burua erreproduzitzeko eta prozesu horretan krimenerako baldintzak sustatzeko duen joerarekin. Egia esan, diskurtso kriminologikoan, komunitate kriminalizatupei esleituriko patologien bidez azaldu ohi da «berrerortzea». «Hiru kolpeen legeak» herrialde eta estatu mailan zabaltu izanak agerian uzten du nolako abiadan kutsatu duten arraza- eta klase-patologiaren ideologiek prozesu legeilea.³³⁶

Kartzelaren filosofiaren oinarrian dauden mendekotasuna eta instituzionalizazioa –hots, agentziaren ukazioa– bereziki kaltegarriak dira emakumeentzat, gizarte-sistema patriarkaletan agentzia ukatzen baitzaie, emakumeen beharrak gizon eta haurrenen menean utziz. Historikoki, emakumeen kartzelek –baita aurrerakoiene ere–, emakume presoen agentzia ukatzeaz gainera, emakumeok infantilizatu egin dituzte.³³⁷ Infantilizazio-eredu errotu horrek generoaren arabera giza eskubideak urratzeko oinarri bat dakar. Emakumeak otzantzeko ahaleginean, kartzelek gogor oztopatu dute emakumeek beren burua ahalduzkoekin eginiko esfortzu oro, baita orobat ere aske geratu

334 Marc Mauer eta Tracy Huling, *Young Black Men and the Criminal Justice System: Five Years Later* (Washington DC: The Sentencing Project, 1995).

335 Joanne Belknap, *The Invisible Woman: Gender, Crime, and Justice* (Belmont, CA: Wadsworth Publishing, 1996), 98.

336 Christopher Davis, Richard Estes eta Vincent Schiraldi, «Three Strikes: The New Apartheid» (San Frantzisko: Gazte Justiziaren eta Justizia Penalaren Zentroa, 1996).

337 Russell P. Dobash, R. Emerson Dobash eta Sue Gutteridge, *The Imprisonment of Women* (Oxford: Basil Blackwell, 1986).

ondoren emakumeak berriz justizia penalaren sistemara itzularazten dituzten ate birakariak saihestekoa.

Artikulu honetan, berariaz erreparatuko diegu 1996ko udaberrian Heerhugowaardeko (Herbehereak) Amerswiel emakume-kartzelan 39 emakumeri eginiko elkarriketei (ingelesean egin genituen elkarriketak, espainierazko itzultzaile baten laguntzaz). Aurretik, elkarriketatutako genituen San Frantzisko Konderriko Kartzelako emakume presoak, eta horregatik aukeratu genuen Herbehereetako emakumeak elkarriketatzea, testuinguru konparatibo transnazional baten barrenean AEBko emakume-kartzelezkritikoki hausnartzeko. Kalifornian bezala, ohartu ginen Herbehereetako emakume-kartzeletan ere koloreko emakumeen kopuru izugarri handiak daudela (surinamdarrek, hegoamerikarrak eta asiarrak); gutxi gorabehera, Herbehereetako emakume presoen erdiak dira koloreko emakumeak. Gainera, Herbehereetako paisaia diskurtsiboa ere kriminalitateari buruzko antzeko arrazanozioen ganean eraikia dago. Nolanahi ere, emakume presoak eta Amerswieleko zuzendaria eta Justizia Ministerioaren ordezkariak elkarriketatu ondoren, ondorioztatu genuen Herbehereetako kartzela-praktikak AEBkoak baino puskaz hobeak direla alderdi garrantzitsu askotan. Ez dugu esan nahi Herbehereetako kartzela-sistemaren erdua imitatu behar denik AEBn eta beste herrialde batzuetan; gure ustez, Herbehereetako sistema AEBkoaren gainetik paratzen duten alderdi horietan heldu behar genuke espetxeratzearen mugetatik beretatik –batzuetan ongi aterako da, beste batzuetan ez–. Kartzelan dauden pertsonen giza eskubideekiko errespetua dago, nabarmenki, erronka horren oinarrian.

Kartzela Herbehereetan

Herbehereetako justizia penalaren sistemaren ezaugarri behinena kartzelak gizartean duen izaera eta tokia aldatzeko ahalegina da; alegia, giza eskubideen gutxieneko nozio batzuk eranstea preso guztiei. Esate baterako: drogen kontsumoa eta prostituzioa despenalizatzea; zigorraldiak nolabait laburtzea (nahiz azken hamarkadan nabarmen luzatu diren, batik bat drogak edukitzearen ondoriozko delituetan) eta zigorraren herena kentzea preso guztiei; Herbehereetan bizitokia duten presoak aske egotea espetxean tokia izan arte (eta une horretan beren kasa joatea kartzelara, zigorra betetzera); eta kartzela itxi, er-

diireki eta irekien sistema mailakatu bat ezartzea zigor luzeak bete behar dituzten presoentzat. Horrez gain, eguneko atxilotze-sistemari esker, presoek aukera dute egunez kartzelara joateko –normalki, gizarte-trebetasunen eta asertibitatearen arloko pres-takuntza jasotzera– eta gauean etxean geratzeko. 1995az geroztik, zelatatze-sistema elektroniko bat jarri dute martxan, baina, guk dakigula, emakumerik ez dute sartu sistema horretan. Alegia, badira kartzelaren alternatibak instituzionalizatzeko joera argiak. Interesgarria da nola Herbehereetako sistemetan, kartezelek hedatzeari utzi ez badiote ere, aukerak zabaldu diren sozialki krimintzat hartzen diren jokabideei heltzeko beste modu batzuk imajinatzeko. Herbehereetan arrazakeriaren eta justizia penalaren sistemaren arteko lotura estrukturalaren gaineko kontzientzia oraindik ere hasi-masietan badago ere, baliteke eskala handiko zigor-industria bat saihesteko harturiko neurriei esker eragotzi izana AEBko kartzela-industria konplexuan tinko ainguratua dagoen arrazakeria bahitu mota hori.³³⁸

Kartzela-sistemez ari garelarik, Herbehereetakoa eta Ameriketako Estatu Batuetakoa zeharo desberdinak dira. Deigarriena, beharbada, zera da, Herbehereetako sistemak zehatz-mehatz bete nahi dituela Nazio Batuen Presoen Traturako Gutxieneko Arau Estandarrak.³³⁹ Duela gutxi, Herbehereetako Justizia Ministerioak *Making Standards Work: an International Handbook on Good Prison Practice* eskuliburuua ontzen lagundu dio Penal Reform International erakundeari. Eskuliburuaren ikuspegiaren arabera, presoen eskubideak giza eskubide unibertsaletatik eratortzen dira, Nazio Batuen hitzarmen, itun, akordio eta arauetan adie-

338 Mike Davis, «A Prison-Industrial Complex: Hell Factories in the Field», *The Nation* 260, 7. zk. (1995): 229-233.

339 Hona hemen NBERen Gutxieneko Arau Estandarren adibide batzuk:

- Kartzelak komunitate ongi ordenatuak izanzen dira; esate baterako, bizitza, osasuna eta pertsonen segurtasuna ezin dira arriskuan egon.
- Presoen tratuan ezin da inongo diskriminaziorik egon kartzelaren esparruan.
- Epaitegi batek kartzela-zigorra ezartzen dionean delitugile bati, zigorra izugarri samingarria da berez. Kartzelako baldintzek ezin dute berezko samin hori larriagotu.
- Kartzelako jardueren xedea, ahal den neurrian, presoek kartzela-zigorra betetakoan komunitatean birgizarteratzen laguntzea da. Horregatik, kartzelako arau eta erregimenek ez lituzkete behar baino gehiago mugatu behar presoen askatasunak, kartzelatik kanpoko harreman sozialak eta garapen pertsonalerako aukerak. Kartzelako arau eta erregimenek komunitate-bizitza arruntan egokitzen eta integratzen lagundu behar lukete.

Making Standards Work: An International Handbook on Good Prison Practice. (Haga: Penal Reform International, 1995), 19.

razitakoari segituz. Kontuan harturik AEBko politikariek gaur egun argudiatzen dutela presoek eskubide gehiegi dituztela –eta bertan behera geratzen ari direla kartzela eta atxiloketa-zentroetako hezkuntza-programak, programa profesionalak eta aisialdirakoak–, zentzuzkoa da kartzela-erregimen zapaltzaileei aurre egiteko printzipio sinesgarriak izan daitezkeen eskubideak aintzat hartzea. Eskuliburuan zerrendatzen diren giza eskubideen artean, guri hauek interesatzen zaizkigu batik bat:³⁴⁰

bizitarako eta pertsonaren segurtasunerako eskubidea
osasunerako eskubidea
giza duintasuna errespetatzeko eskubidea
esklabotzatik aske egoteko eskubidea
orotariko diskriminazioetatik aske egoteko eskubidea
kontzientzia- eta pentsamendu-askatasunerako eskubidea
familia-bizitza errespetatzeko eskubidea
garapen pertsonalerako eskubidea

Gure xede nagusia kartzela-aboliziorako estrategiak legitimatzen laguntzea izanik, eta betiere kontuan hartuta zigorrak ez duela zertan ekarri askatasuna galtzea, ohartzen gara karteletako baldintzak aztertzen ditugularik askatasun-eskubidea uka daitekeela onartzen duten sistemez ari garela. Marko horretan, ohartarazpen zinez garrantzitsu bat egiten du eskuliburuak: «Jende anitz bada kartzelan zigorrak betetzen. Zigorturik daude kartzelan, baina ez daude han zigortuak izateko. Askatasuna galtzean datza zigorra. Ez lirateke kartzelaren zirkunstantziak baliatu behar zigor gehigarriak ezartzeko».³⁴¹ Honela dio eskuliburuak:³⁴²

[K]artzelako bizi-baldintzak dira presoen autoestimua eta duintasuna erabakitzen dituen faktore nagusietako bat. Non egiten duten lo; zer janzten duten; ea oherik, maindirerik eta mantarik ba ote duten ala lurtean lo egiten ote duten piltzar soil batzuen azpian; ea beren burua garbitzen uzten dieten eta zer maiztasunekin; ea nahi dutenean joan daitezkeen komunera ala aldiro baimena eskatu behar ote dioten kartzelazainari (batzuetan, baita erreguka ere): horrek guztiak sekulako eragina dauka presoengizate fisiko eta mentalean.

340 *Making Standards Work: An International Handbook on Good Prison Practice* (Haga: Penal Reform International, 1995), 13.

341 *Making Standards Work*, 14.

342 *Making Standards Work*, 59.

Amerswiel emakume-kartzela

Ez dago AEBko presondegi eta kartzeletako ezaugarri fisikoak arautzeko erregelamendu bakar bat, eta, hori dela eta, kartzeletako arkitektura eta baldintza materialak aldatu egiten dira konderri, estatu eta sistema federal batetik bestera, baita haietako bakoitzaren barrenean ere. Atxiloketa-zentroen eta kartzelen sarea herrialdean barreiatu ahala, pilaketari aurre egiteko eraiki diren zenbait zentrok gainezka egin dute. Ez da ezohikoa preso bakarrentzako ziegetan bi edo are hiru lagun sartzea. Erregelamendurik ez dagoenez, baldintza materialik okerrenak ere ezin dira hobetu, non eta ez den demanda bat aurkezten erakundearen aurka. Pilaketaren «konponbide» arruntena kartzela gehiago eraikitzea izaten da.

Herbehereetan, arau zorrotzak ezarri dituzte presoek baldintza gizatiarretan eta beren pribatutasuna errespetatuz espetxeratuak izateko dituzten giza eskubideak babesteko. Amerswielen, han egin baikenituen elkarriketa gehienak, emakume bakoitzak bere gela pribatua zeukan, baita komun eta dutxa pribatua ere. Erregimen itxiko kartzela da Amerswiel: Herbehereetako sisteman, behin zigorraren bi herenak bete ondoren, erregimen itxiko kartzela batetik erregimen erdiirekiko beste batera alda daitezke presoak, eta, hala, asteburuetan bisitak jaso ditzakete beren etxeetan. Aske geratu aurreko sei hilabeteetan, erregimen irekiko kartzela batera alda daitezke, hots, astegunetan inguruko komunitateetan lan egin, eta etxean igaro dezakete asteburua, beren familiekin.³⁴³

Amerswiel kartzela Heerhugowaard izeneko herri txiki batean dago, Amsterdamdik 45 minutura. Eraikin berean, emakumeenetik bereiz, gizonen kartzela bat dago. Elkarriketak egin genituenean, 79 emakume preso zeuden, lau unitatetan banaturik. Epe Laburrerako Unitatean, 26 emakume zeuden: batzuk urtebete baino gutxiagoko zigorra betetzen ari ziren, eta beste batzuk epaiketaren esperoan ziren. Herbehereetan fidantza-sistamarik ez dagoenez, unitate horretan sartzen dituzte berrerortzeko edo ihes egiteko arriskuan egotea leporatzen zaien

343 Kasuan-kasuan erabakitzen da presoak erregimen irekitik erdiirekira aldatzea. Presoek baldintza jakin batzuk bete behar dituzte; helbide bat izan behar dute Herbehereetan, ezin dute drogarik hartu, ezin dira «gizartearentzat arriskutsu» izan, eta kartzelan «portaera ona» izan dutela erakutsi behar dute.

emakumeak ere (batik bat droga-trafikoaz akusatuak eta beste herrialde batzuetakoak direnak). Epe Luzerako Unitatean, berriz, 27 emakume zeuden, eta urtebetetik gorako zigorra betetzen ari ziren denak ere. Elkarrizketak egin genituen sasoiari, 12 urtekoa zen zigorrak luzeena. Gainerako bi unitateei dagokienez, Banakako Orientabiderako Unitatea zeritzon haietariko bati, eta gaixotasun mentalen bat duten baina droga-arazorik ez duten emakumeentzako esparru berezi bat da. Bestea, berriz, Droga Errehabilitaziorako Unitatea da. Bi unitateetako bakoitzean 13 emakume zeuden, eguneroko errutinen arabera antolatuta, Epe Laburrerako eta Epe Luzerako Unitateetan baino hagitzez zorrotzago. Droga Errehabilitaziorako Unitatean, esate baterako, talde-saioak izaten zituzten –batzuetan, egunero–, kartzelatik at eta drogetatik urruti bizitzen lagunduko lieketen faktoreez eta taldean zituzten portaerez eztabaidatzeko. Unitate horren helburua, esaten zutenez, emakumeak behin kartzelatik atera ondoren beren borondatez droga-errehabilitaziorako klinika batera joatea zen.

Ameriketako Estatu Batuetako kartzela eta atxiloketa-zentro andana bat bisitatu eta gero, Amerswieleko bizi-baldintzek txundituta utzi gintuzten. Emakume guztiak 11 metro koadroko banakako ziegetan bizi ziren, eta denek bazuten kirol-zelaira edo ariketen eremura ematen zuen leiho bat (itxia). Altxariei dagokienez, ziega bakoitzean bazen ohe bat, mahai bat, komoda bat, armairu bat, aulki eta mahai txiki mugikor batzuk, iragarki-ohol bat, eta liburuak, janaria eta beste ondasun batzuk gordetze-ko apalategi bat. Gainera, ziega bakoitzaren ondoan, gela txiki batean, preso bakoitzak komun pribatua zuen: komunontzia, konketa, eta baita dutxa ere. Haur txikiak zituzten emakumeak gela handixeagoetan zeuden, eta haurrak garbitzeko eta jaten emateko esparru berezi bat ere bazuten gela barrenean.

Emakumeek, bestalde, telebista bat har zezaketen errentan –eta askok hartzen zuten– eta zentsuratu gabeko programazioa ikusi (film erotiko gogor ugari ere bai), baita hozkailu txiki bat, CD/kasete/irradi bat eta kafe-makina bat ere, astean 11,5 florin ordainduta. Ziega gehienetan, nabaria zen ziegan bizi ziren emakumeen zigilu pertsonala: argazkiak, postalak, eta koloretako ohazal, gortina eta kuxin-azalak. Emakume batzuek bazituzten

txoriak ere –kakatuak eta papagaitxoak–. Ez zegoen kartzelako uniformerik: emakume guztiek beren arropa janzten zuten.

Epe Laburrerako eta Epe Luzerako Unitateetan, korridore batzuen bi aldeetara zeuden ziegak, eta, korridore bakoitzaren erdian, bazen egongela bat presoentzako sofa, mahai eta aulkiekin. Korridore bakoitzaren amaieran, bi gela komun zeuden, eta, haietariko bakoitzean, sukaldea, bazkaltzeko mahaiak, telebista, aulki erosoak eta mahai txikiak. Bi gela horien kanpoaldean, ordainpeko bi telefono zeuden.

AEBko atxiloketa-zentro eta kartzela gehienetan ere, arkitekturaren ohiko elementuak dira eguneko gelak (presoak biltzeko guneak). Amerswieleko gela komun berezitasuna, ordea, zera da, presoan artean komunitate autonomo bat eraikitzen laguntzen dutela. AEBko emakume-kartzela gehienetan, badago ordezkotako familia-egitura klandestinoak sortzeko kultura tradizional bat,³⁴⁴ itxuraz kartzela-erregimenek ukitu gabeko munduak eraikitzeko modu bat emakumeentzat.³⁴⁵ Amerswiele, emakumeek komunitate bat sortzen zuten kozinatze eta otorduak egiteko kolektiboen bitartez. Gela komunetan, emakume guztiek erabil zitzaizkien kozinatze eta jateko tresnak, berek sorturiko egutegi baten arabera. Bestalde, kartzelako dendan ez zituzten soilik kontserbak eta elikagai lehorrak saltzen, baizik eta baita fruta freskoa, barazkiak eta haragia ere. Egia da beharrak dakarrela emakumeek kolektiboki kozinatze eta jateko harremanak izatea –kartzelan prestatzen zuten janaria «nazkagarria» edo «txakur-jana» zela ziotsu denek, salbuespenik gabe–, baina egia da orobat Amerswieleko emakumeen artean arautu gabeko loturak –lotura iraunkorrak, maiz– sortzen zituztela janari-kolektiboek.

Kontuan izanik kartzela-bizitzako erosotasunetako askok –telebista, CD- eta kasete-aparatua, hozkailua, etab.– dirua balio dutela, berehala galdetu genion geure buruari ez ote zen izanen pribilegio bat kanpotik baliabide ekonomikoak jasotzen zituzten presoentzat. Kontua da, baina, preso guztiek lan egin (edo ikasi) behar dutela: astean 27 florin irabazten dute zigorrak ez dutenek,

344 Askotan, *familiaordeak* esaten zaie. Aski egitura konplexuak izan ohi dira, amek, aitek, seme-alabek, aitona-amonek, osaba-izebek eta lehengusu-lehengusinek osatuak.

345 Esther Heffernan, *Making It in Prison: The Square, the Cool, and the Life* (New York: Wiley-Interscience, 1972).

eta 53, aldiz, zigorra dutenek. Egunekeo lanaldia lau ordukoa da; egunaren gainerako orduetan, jarduera boluntarioak egin ditzakete; esate baterako, ariketa fisikoa patioan, gimnasio handian (boleibola, futbola edo aerobika egin dezakete), gimnasio txikian (pisuak, pisu-makinak eta aerobik-makinak erabil ditzakete), eskulanak, informatika eta liburutegia. Lan ordaindua aspergarria zitzaiera esaten zuten; autoentzako tapizak eta jostailu txikiak egiten zituzten, eta garbiketa-produktuak paketatu. Ikasten ari zirenek eta atezain lan egiten zutenek soilik gozatzen zuten, itxura batean, egiten zutenarekin (atezainak nahieran ibil zitezkeen kartzelan hara eta hona).

Liburutegian gehien mailegatzen zuten liburua *Handbook for Prisoners' Rights* [Presoen eskubideen liburua] izanik (hainbat ale zeuden eskuragarri), garbi dago zenbateraino adoretzen zituzten presoak beren eskubideak aldarrikatu eta defenda ditzaten. Liburutegian, bestalde, artxibategietan biltzen zituzten hilabetez hilabete egunkarietan justiziari buruz argitaraturiko artikulua, Justizia Ministerioaren politika- eta prozedura-albistegiak eta, hirugarren artxibategi batean, Herbehereetako presoen azken salaketa eta kexa guztien eta haien ebazpenen inguruko informazioa. Horren harira, harrituta geratu ginen zenbat zekiten gure elkarriketatu gehienek presoak ziren heinean zegozkien eskubideez. Bestalde, presoen batzorde batek kexak eramaten zituen erregularki Administrazioa; horrez gain, batzorde horrek bazuen eskumena kexak horretarako izendaturiko erakunde zibil batera ere eramateko.

Kalifornian emakume presoekin egin genuen lanarekin alderatuta, txundituta utzi gintuzten emakumeok, agentzia handia baitzuten berez beren askatasuna ukatzea helburu zuten baldintza batzuetan. Bazirudien presoak izanik are kontzientzia handiagoa zutela beren «giza eskubideen» gainean. Baliteke horixe izatea haien arteko tirabira urrien arrazoa; San Frantziskoko emakume presoen artean, aldiz, etengabeak ziren tirabirak, eta maiz izaten zituzten aurrez aurreko liskarrak. Amerswielen elkarriketaturiko emakume bakar batek ere ez zuen gogoan haien arteko borrokarik. Kontrara, badirudi partekatzearen kultura oso nabarmen bat garatua zutela kartzela barnean. Droga banatzeaz akusatuta atxiloturiko emakume batek kontatu zigunez, Europako beste herrialde batekoa zen bera, eta ez zeukan ez lagunik

ez ahaidetik Herbehereetan, eta bere unitateko beste emakume batzuek janaria, zigarretak eta kontsolamendua eman zizkioten berak oinarri ekonomiko bat lortu eta bere noraez sakona gainditzen zuen bitartean.

Emakume espetxeratuak eta haien seme-alabak

Emakume preso ugariaren arazorik ohikoenek zerikusia dute beren seme-alabek ama espetxean izateagatik sufritzen dituzten ezin konta ahal egoerekin. Hain zuzen, kartzelen egoeraz arduratzen diren politikariek genero-auzi espezifikotzat hartzen duten bakarra izaten da maiz seme-alabena. Gorago aipaturiko *Making Standards Work* dokumentuak, garrantzitsua izanik ere, badu ahulgunerik, emakumetasuna eta amatasuna nahasteko joera agertzen duenez gero; izan ere, kartzela-praktika onak garatu nahi direnean, generoari erreparatzea emakume espetxeratuaren seme-alaben beharrei erreparatzearen sinonimo bilakatzen da. Hona adibide bat: «Egiazko dilema bat da (haurrak beren amekin batera) atxilotu behar ote diren. Haurren interesak funtsezkoak dira. Amarekiko loturak berebiziko garrantzia du lehen urteetan. Haur txikiak atxilotzen dituztenean beren amekin batera, haur horiek ez dira presoak berez, eta hori kontuan hartuz tratatu behar dira».³⁴⁶

Eskubideei buruzko diskurtso baten testuinguruan, haurren eskubideen erakustaldi abstraktuak potentzialki justifika lezake amaren eskubideak urratzea, eta horrek, zoritxarrez, AEBko eztabaida politikoetan gaur egun erabiltzen diren «fetuaren eskubide» delakoak dakartza gogora. Dena den, haurren interesei akritikoki lehentasuna ematearen aurka agertzeak ez du esan nahi garrantzitsua ez denik kartzelak amaren (eta aitaren) eta haurren arteko harremanak apurtzeko darabiltzan mekanismoen aurka egitea. Hain zuzen ere, gure elkarrizketetan –eta ez soilik haur txikiak zituzten emakumeen artean– argi geratu zen funtsezko auzi bat dela. Presoen giza eskubideak berez lehia-ko edo hierarkikotzat ez hartzean datza kontua, besterik gabe. Bestela esanda, familia-bizitzarekiko errespeturako eskubideak, adibidez, ez du zertan lehian egon emakumeen garapen pertsonalerako eskubidearekin, edo ez du zertan haren gainetik egon.

346 *Making Standards Work*, 130, geuk nabarmendua.

Amerswiel emakume-kartzela bakana da. Hango zuzendaria, Bernadette van Dam, ama eta ume espetxeratuen eskubideen aldeko feminista ezaguna da nazioartean. Gure elkarrizketatuetakoa askok miresmena agertu zuten kartzelako baldintzek familia-harremanetan ahalik eta kalte gutxien eragiteko egin zituen kanpaina publikoen harira. Lan handia dago oraindik egiteko, baina, nolanahi ere, Herbehereetako sistema AEBkoa baino nabarmen aurreratuago dago familia-bizitzaren arloan.³⁴⁷ Gutxien-gutxienean, emakumeek badute beren seme-alabak ikusteko eskubidea. Kartzela itxietan –Amerswielen, esate baterako–, bisita-gela formaletan, emakumeen ziegetan, ikuskaritzarik gabeko geletan (sexu-bikoteentzako ere badira gela horiek) eta Eguberrietako oporretan antolatzen diren haur-ospakizunetan egiten dira bisitak (behin, ospakizun horietako batean egon ginen, gure elkarrizketen garaian suertatu baitzen Pazko eguna). Areago, autoritateen aburuz onargarria den helbiderik izanez gero –eta emakume «atzerritarrak» kanpoan geratzen dira normalki–, hala eskatuz gero eta zuzendariaren irizpideen arabera, emakume presoak etxera joan daitezke aste-buru-pasa, bi hilean behin, beren seme-alabekin eta familiekin/lagunekin egotera, zigor luze baten azken urtean.

Kartzela erdiireki batean ere izan ginen, Sevenum hirian. Han, lau urtera arteko haurrak beren amarekin bizi daitezke. Duela gutxiko kontua da, azken hiru urteetakoa. Kartzelak haurrengan dituen ageriko ondorioak leundu nahian, hiriko haurtzaindegi batean egoten dira haurrak.³⁴⁸ Kartzelako instalazioetan, amentzako haziera-eskolaz eta jolas-parkeaz gain, haurrentzako parke bat ere bazegoen, ahuntzak eta beste animalia batzuk ere bazituena. Sevenumen gatibu zeuden emakume

347 Jan Nederveen Pietersek zera adierazi du: «[F]amilia-orientabideak kartzela-erregimenak gizatiartzen ditu, eta, horrez gain, emakumea etxeari atxikita geratzeko ere balio izan du». Alde horretatik, «familia-bizitzarako eskubidea», giza eskubide bat den neurrian, emakumeen mendekotasuna betikotzeko erabili da hainbat testuinguruan. Britainia Handian, adibidez, ikuspegi ideologiko horixe suma daiteke ongizate-estatuaren garapenean (ikus Fiona Williams, *Social Policy*). Familia-bizitzarako eskubideari buruzko gure eztabaidan, beraz, familia-erretorika patriarkal eta heterosexista gailenetik bereiz ikusten salatu gara emakume presoek beren haurrengana agertzen duten kezka.

348 Aukera hori bat dator gomendio honekin: «[H]aur jaioberria edo haur txikia kartzela-eremutik ateratzen ez bada kanpoko mundua ikustera, haren ikaskuntzaren eta emozioen garapena atzeratuko da, eta gizartera egokitzeko prozesua arriskuan jarriko» (Penal Reform International, *Making Standards Work*, 130).

gehienak ihes egiteko arrisku txikikotzat sailkatuak ziren, edo beren zigorren bi herenak beteak zituzten beste zentro batzuetan (Amerswielen, adibidez). Autoritateen aburuz onargarriak ziren helbideak izanez gero, asteburua etxean eman zezaketen lau asterik behin.

Herbehereetako hirugarren kartzela mota kartzela irekia zen, non presoek lanak egiten baitzituzten inguruko komunitatean, edo prestakuntza-programaren batean parte hartzen zuten egunean zehar. Gauean, berriz, kartzelara itzultzen ziren, eta etxean ematen zuten asteburua, kartzela irekiak itxita egoten baitziren asteburuetan. Batzuetan, kartzelan denbora luzea emana zuten emakumeak zentro irekietara eramaten zituzten, beren seme-alabekiko harremanak berreskuratzen has zitezen. Nolanahi ere, hiru kartzela motetan –itxietan, erdiirekietan eta irekietan– onartzen zitzairen presoek beren seme-alabekiko harremanak mantentzea edo berreskuratzea.

Horrek ez du esan nahi amentzako eta haien seme-alabentzako kartzela-ingurune bizigarriak sortzeko prozesua hutsik gabea denik. Fleurrek aitona-amonen zaintzapean zeukan alaba –4 urte zituen alabak, eta 70 aitona-amonek–, eta azaldu zigun «atseginak» zirela Sevenumeko instalazioak baina egunerokoa sobera zorrotza zitzairela ama-alabei: «Goizean, geure errutina berbera daukate haiek ere; alegia, ordu batean, haurrak jantzi behar dituzte, bainatu, gosaria eman, eta haurrak gora eraman (kartzelara edo komunitateko jolas taldera). Eromena da! Haiek (haurrak) ezin dira eraikinean beren kasa ibili. Batzuetan, animalietara joan daitezke, baina oso lotuta daude».

Rosaren deskribapenak ere argi uzten du errutinak ez duela hain zorrotza izan beharrik (Amerswielera etorri aurretik, Breda kartzela itxian egon zen): «Gela bikoitz batean jarri ninduten. Han, haurrak izaten du lehentasuna. Orduategi malgua ematen dizute otorduak egiteko eta ura edateko. Eguzkitara atera zaitezke haurrarekin. Ziegan dutxarik ez dagoenez (Amerswielen ez bezala), emakume bat bere burua garbitzera joaten denean, kartzelazainek zaintzen diote haurra».

Haurrak zortzi hilabete zituela, «neka-neka eginda nengoen, ezin nuen gehiago», eta, orain, haren bikotekideak zaintzen ditu umeak, Amsterdamen, jada ez baitago espetxean.

Annak ere erabaki zuen ez zuela bere haurra berarekin kartzelan eduki nahi: «Beraz, zera erabaki nuen, tira, hemen bazen emakume bat, oraindik hemen da bere haurrarekin, eta ohartu nintzen, badakizu, hainbeste ama dituzula... Horregatik esan nuen hori ez nuela nahi [nire haurrarentzat]». Hain zuzen ere, Annaren unitateko beste emakume batek talde-saio batean aipatu zuen beraren haurrak 27 ama izanen zituela eta berak ez zuela horren zaintza trinkorik nahi bere haurrarentzat. Emakume gehienek bestela ikusten zuten kontua, baina garbi dago, nolanahi ere, haurrak beren amekin kartzelan egotea konplexua dela alderdi askotatik.³⁴⁹

Gure elkarrizketatuen artean, ama ziren emakume guztiek ahalik eta maizen ikusten zituzten beren haurrak, eta/edo ahalik eta maizen mintzatzen ziren haiekin. Kontzienteki beren umeen bisitei uko egitea erabaki zutenek azaldu ziguten ez zutela nahi beren haurrek beren baldintza errepresibo berberak bizitzerik, ezta bisita batek irauten zuen denbora laburrean ere. Claudiak bere atxiloketa kontatu zigarik –Kolonbian bizi da haren familia–, kezka handia agertu zuen nolako arrastoa utzi izanen ote zion bere alabari –8 urte zituen–, eta haurraren ikuspuntutik eman zigun bere esperientziaren berri –garai hartan, berarekin zegoen–:

[A]labak oihukatu zidan: «Amatxo, amatxo, beldurra daukat». Eta esan nion: «Lasai, ez dun deus gertatzen». Eta, orduan, polizia batek pistola bat jarri zidan aurpegian, eta esan zuen: «Ixo». Baina nik alabari hitz egiten segitu nuen: «Ez, ez dun deus gertatzen». Eta, berehala, poliziak txano beltz bat jarri zidan buruan eta eskuburdirak lotu zizkidan. Eta alaba oihuka entzun nuen: «Amatxo, amatxo, ezin da izan. Zer gertatzen da?»... Alabari hitz egiten segitu nuen eta poliziak ahoan jarri zidan eskua, ni isilarazteko, eta orduan hozka egin nion eskuan.

Gero, esplikatu zigun polizia-etxean alabarekin hitz egitea ukatu ziola poliziak, baita zer zailtasun izan zituen ere bere haurrak zaintzeko norbait bilatzeko orduan (hamasei hilabeteko beste seme bat ere bazuen).³⁵⁰ Handik astebetera edo, Claudiaren ahizpa Victoria etorri zen Kolonbiatik, haren alaba zaintzera.

349 E. Lloyd, *Prisoners and Their Children* (Londres: Save the Children Fund, 1995).

350 Atxilotu eta berehala, Claudiaren amaginarreba-aitaginarreben zaintzapean geratu zen beraren hamasei urteko semea (haien biloba biologikoa zen). Ez zuten uste alaba zaharrena zaintzen utziko zietenik, aurreko harreman batekoa baitzen.

Azkenean, «nire alabak ikusi zuelarik atxilotua nengoela, traumatizaturik geratu zen», eta orduan erabaki zuen alaba Kolonbiara bidaltzea. Alaba hegazkinera igo zen egunean, Victoria ere atxilotu egin zuten.

Haurrekiko harremanek auzi etikoei loturiko konpromiso zailak dakartzate sarritan. Emakumeek beren seme-alabekiko zuten kezka agerian geratu zen ez soilik samurtasun eta maitasun handiz hitz egiten zutelako haiek hizpidera ekartzen zituztenean, baizik eta baita erabaki zailak hartu behar izaten zituztelako ere beren seme-alabenganako zintzotasunaren ize-nean. Esate baterako, emakume guztiek bazekiten, salbuespenik gabe, «haurrek... diskriminazioa, estigmatizazioa eta are zailtasun handiagoak sufritzen dituztela beren gurasoak kartzelan daudenean»,³⁵¹ eta, hala ere, haietarik gehienek ez zieten beren seme-alabei ezkututzen kartzelan zeudenik.

Dawnek, epe luzeko preso batek, nahiago zuen Amerswiel-en egon hilean bi aldiz bi orduko bisita banatan ikus zitzakeelako bere haurrak (denbora gutxi zeraman han). Atsegin zituen Egu-berrietako eta Pazko egunetako arratsaldeetako ospakizunak, baina, hala eta guztiz ere, nahiago zuen bere umeekin bere ziegan elkartu «ohiko» bisitetan:

Hemen, hona etorri eta gozoren bat presta dezakezu... Etxean ba-zeunde bezala. Eta niri horixe gustatzen zait... Garrantzitsua da. Nahi dut nire haurrak barrenera sartzea, ikus dezatela non bizi den beren ama, badakizu, non lo egiten duan, ikus dezatela nolakoa den nire gela, haien argazkiak.

Maureenek bi haur zeuzkan, bakoitza harrera-etxe batean –senarra hiltzeagatik zegoen kartzelan; hark tratatu txarrak ematen zizkion, eta indarkeria fisikoa erabiltzen zuen beraren eta aurreko harreman bateko 12 urteko semearen aurka-. Bere unitateko ordezkaria baitzen presoen batzordean (CODEGO), fermuki jarduten zuen bere kideen eskubideen alde. Honako hau esan zigun: «[Kezkatua nago] haien umeekin. Emakume batzuek ez dute gehiago borrokatu nahi beren umeen alde, errudunegi sentitzen dira, bai, bide okerrean egon dira denbora luzean, zeren hemen bada jende anitz drogaren mende egon dena kanpoan, eta, hona sartu eta drogarik hartzen ez dutenez, beren

351 Lloyd, *Prisoners and Their Children*.

bizitzaren alderdi emozionala azaleratzen zaie. Gehienetan, errudunegi sentitzen dira eta ez dira borrokatzen beren umeek bisitatu ditzaten».

Beste emakume batzuk beren seme-alabekiko loturak es-tutzero gogatzten zituen Maureenek, eta, horretaz hausnartuaz batera, bere egoera ere deskribatu zigun:

Baimen soziala esaten zaio, edo zure seme-alabak ikusteko baimena, eta ni ere horretan ari naiz saiatzen orain. Kanpora ateratzeko bi egu-netarako, egun batean alaba ikustera joateko harrera-etxera, zeren ikusi egin nahi dut non dagoen. Eta berak ere erakutsi nahi dit non bizi den. Zer eskolatan dagoen, zer egiten duen, bere logela, bere irakasleak, dena. Erakutsi egin nahi dit, eta haientzat oso garrantzitsua da ni hara joatea, lehenik eta behin, eta niretzat ere garrantzitsua da ikustea non bizi diren.

Elkarrizketetan azaleratu zen beste gai bat zera izan zen, haurrek askotan beren gain hartu behar dutela kriminalizazio-prozesuaren zama eta kriminalizazio horrek zerikusi handiagoa duela beren ama espetxeratua egotearekin haren erruduntasu-narekin edo errugabetasunarekin baino. Aminak, epaiketaren zain zegoelarik, zuhurki azaldu zigun nolako eragin kriminaliza-tzailea izan zuen beraren atxilotetak eta horrek zer eragin zien beraren haurrei:

Paper bat eman zidaten: «Kriminala». Orain, bizkar gainean daramat kriminalaren izena... Hori txarra da nire umeentzat... Niretzat, ez hain-beste. Baina haurrentzat... Kanpora itzultzen naizenean, kontatuko diet zer gertatu den... Zeren bestela beste norbaitek kontatuko die.

Aminak ez zien bere umei esan atxiloketa-zentro batean zegoela («nire umeek uste dute ospitalean nagoela, gaixo»). El-karrizketaren biharamunean, epaiketara joan ziren Amina eta haren koinata, familiako beste kide batzuekin batera, eta, Ami-naren unitateko beste emakume batzuek kontatu zigitenez, biak absolbitu zituzten.

Presoek aitortua dute torturarik eta bestelako tratu txarrik ez jasotzeko giza eskubidea, eta, horren argitan, emankorra li-tzateke metafora baino zerbait gehiagotzat hartzea emakumeek salatu izana «tortura» gisa erabiltzen dela beren seme-alaben-ganako kezka. Hona Claudiaren ahizpa Victoriaren hitzak: «Atxilotzen zaituztelarik, poliziak torturatu egiten zaitu umeen arazoarekin... Ezin izanzen dituzula zure umeak berriz ikusi. Zer

sentituko dute umEEK ama kartzelan dutela jakiten dutelarik?... Nik esan nien ez zela beren arazoa, nire arazoa zela nire alabari zer eta noiz eta nola esan nion kartzelan egon nintzela».

Rosa atxilotu zutelarik, 1994ko azaroan, lau hilabeteko haurdun zegoen, eta Bredara eramane zuten, Holandako kartzelarik zaharreneira:

Breda oso kartzela zaharra da. Zeru zati oso txiki bat besterik ez nuen ikusten. Kartzelazainak, baina, oso bihotz onekoak dira. Iritsi nintzelarik, negar asko egin nuen, eta eskatu nien hara ez eramateko. Haurdun nengoelarik, (nire ziegako) atea zabalik uzten zuten une oro. Kartzelazainak Bredako gela garbitzen lagundu zidan. Sekulako tripa neukanez, ezin nituen galtzak jantzi ere egin, eta kartzelazaina etorri eta oinak lehortu eta galtzak jantzen zizkidan.

Ondoren, kartzelan erditzearen esperientzia kontatu zigun Rosak:³⁵²

[E]rditzeko zorian nintzelarik, medikuari esan nion: «Jarri injekzio bat eta hartara agudo izanen dut haurra eta kartzelara itzuliko naiz». Goizeko bederatzieta hasi nintzen, eta hamabietarako sortua zen Angela, eta ordu batean ospitale beldurgarrian nengoen berriz. Goseturik, egarriturik, «ekarriko didazu limoi-ura?» eskatu nion kartzelazainari. Eta esan zuen: «Edan ura». Ez zidaten deus eman... Hamar egun eman nituen han. Egun batean, erotu nintzen, Angela negar batean ari zen, tripako minez zegoen eta ez zen inor etorri. Orduan, aulki bat hartu eta leihoa puskatu nuen, eta orduan denak etorri ziren. Eta esan nuen: «Ez dadila inor etorri. Eskatu auto bat eta eramane nazatela berriz kartzelara, edo bestela den-dena puskatuko dut»... Biharamunean, kartzelara itzuli nintzen. Aurretik, emakume bat etorri zitzaidan paper batzuekin, Angela adopzioan emanen zutela. Hil egin nahi nuen [emakumea]... Adopzioan eman nahi zuen haurra ni ezin izanen nintzelako berarekin kartzelan egon anitz urtez. «Egon pixka batean», esan nion. Haurra ohe gainean jarri eta loreontzi bat hartu nuen... Emakumea jo nuen eta hanka egin zuen.

Aipu luze horretan ikusten da nola arrazakeriak (Rosa kolonbiarra baita), kartzelak eta generoak bat egin zuten Angelaren jaiotzan. Leihoa eta loreontzia puskatzeak erakusten du kontuan izanik ez zuela eragin larririk izan haren zigorraren iraupenean edo espetxeratze-baldintzetan kartzela-agindu instituzionalak emakume presoan aurkakoak izanik ere emakumeek berek au-

352 Ikus Ellen Barryk AEBko karteletako emakume haurdunez eginiko analisisia hemen: «Pregnant Prisoners», *Harvard Women's Law Journal* 12 (1989).

re egin diezaieketela agindu horiei, are Herbehereetako sistema arautzen duten baldintzen pean.

Alegia, mugak muga, Herbehereetako sistemak onartzen du haur jaioberriak eta haur txikiak espetxean egotea beren amarekin. Alta, gorago azaldu dugunez, gauza ageria da dilema bat sortzen dela. Gehienetan, haurren lehentasunak funtsezkoak direla esaten da, baina espetxean dagoen ama baten eta haren haurraren lehentasunak ezin dira nolanahi bereizi.³⁵³ Emakumeak, jakina, beren haurrez kezkatzen dira; horrek ez du nahitaez esan nahi, ordea, haurrek kartzelan egon behar dutenik berekin. Ez bakarrik haur bat amaren zaintzapean egoteak ezkutatatu egiten duelako Estatua haur hori zigortzen ari dela, baizik eta baita amaren jokabidea beraren haurraren bitartez kontrolatzeko aukera zabaltzen duelako ere. Amerswielen ez genuen ikusi era horretako intimidaziorik; nolanahi ere, entzun genuen poliziek jokabide asaldagarri atxilotzen zituztela emakumeak.

Presoen giza eskubideak mundu guztian sistematikoki urratzen diren garai honetan, gauza bera da argudio sinplez esatea amen eta haurren lehentasuna elkarrekin egotea dela –nahiz kartzelan egon–, edo esatea kartzelan dauden emakumeen betebeharrak morala dela berek bizi dituzten zapalkuntza berberak biziaraztea beren umeei. Hona hemen Fleurren hitzak:

Emakumez ari garelarik, kartzelako amez eta umez, bi gauza bereizi behar dira: amaren onura eta umearen onura. Zera esan nahi dut, batzuetan... harreman bat eratzen dutela hazten dituen pertsonarekin, ezta? Alegia, amarengandik urrunduz gero... handik bederatzi hilabetera, arazo mentalak sor daitezke, oso lotua dagoelako denbora guztian ikusten duen pertsona horri. Baina, beste alde batetik, haur batek bizi egin behar du, eta ingurune murrizta badu eta ama urduri badago...

Honela jarraitzen du:

Baina izan nadin zintzoa. Hemengo emakume batzuen haurrak hobe ki daude hemen kanpoan baino. Emakume batzuek esaten dute ez dutela drogarik hartzen, baina bazen emakume bat bere haurra autoan izaten zuena bera bezero batekin zegoen bitartean... eta emakume batzuek ez dakite beren burua zaintzen. Hortaz, nola zainduko dute haur bat?

353 Penal Reform International, *Making Standards Work*, 136.

Alegia, badago beste konplexutasun maila bat askotan ezikusia egiten zaiona ama presoen haurrei buruzko lanetan.³⁵⁴ Gai horri buruzko aurreko azalpen batean, adierazi genuen emakumearen ama-rolaren gaineko ikuspegi akritiko batek ideia patriarkalak hauspotzen dituela, hala nola amen lehen egin-beharra eta ardura beren haurrak direla. Are gehiago, halako argudioek ama-haurren familia-molde biologista eta nuklearrak berresten dituzte, giza eskubideak kontuan hartzen dituzten molde feministen ordeztuak.³⁵⁵ Gure lanean, molde feminista hobesten dugu.

Giza eskubideen esparruak aukera ematen digu, bestalde, infantilizazioaren diskurtsoa definitzeko, diskurtso horixe sortu baitute generoaren arabera taxaturiko kartzela-sistemek, giza eskubideen orotariko urraketen oinarri gisa. Ceciliak honela zioen: «Hemen ezin da hitzik egin, ezin da deus egin, zeren haiek dira nagusiak, gu haurrak gara. Haurrak bagina bezala ikusten gaituzte».

Nancy ere bat zetorren: «Haur bat banintz bezala sentitzen naiz... [G]elara bidaltzen gaituzte, atea ixten dute, eskubiderik ez bagenu bezala, ezta?». Haurrak balira bezala tratatuz, agentzia oro ukatzen zaie emakumeei, eta, jakina, baita gizatasun oro ere. Egia da haurrak ez liratekeela definitu behar soilik mendekoak balira bezala eta, horrenbestez, gizakiak baino gutxiago balira bezala, baina orobat egia da helduak haurrak balira bezala tratatzeak ere kartzela-erregimenetako berezko hierarkiak indartzen dituela. Haurrak, ia beti, ekonomikoki beste norbaiten mende daude, eta gauza bera gertatzen da askotan emakume presoekin.

Kum-Kum: Zer da kartzelan gehien gorrotatzen duzuna?

Carol: Ekonomikoki nire familiaren mende egotea. Kartzelara sartu aurretik, banuen etxe bat neurea.

Emakumeak haurren gisara tratatzeak berekin dakar emakumeok eragile independentetzat ez hartzea. Dawnek zera esan zigun: «[Kartzelak] duen gauza txarra da jendea, kartzela-

354 Ikus Kum-Kum Bhavnani eta Angela Y. Davis, «Incarcerated Women: Transformative Strategies», in *Psychology and Society: Radical Theory and Practice*, arg. Ian Parker eta Russell Spears (Londres: Pluto Press, 1996), 173-183.

355 Charlotte Bunch, «Transforming Human Rights from a Feminist Perspective», in *Women's Rights, Human Rights: International Feminist Perspectives*, arg. Julie Peters eta Andrea Wolper (New York: Routledge, 1995).

zainak, justiziaz ari naiz, epaileak, hemen bakarrik gaude, beste pertsona horien mende. Ezin dugu deus egin gure kasa». Gainera, Fleurrek azaldu zigun kartzelazainak motz samarrak izaten direla, bereziki Holandako eskualde jakin batekoak baldin badira, jende baldarra izaki:

Ez dira batere irekiak. Espainiar emakumeekin daudenean, helduak ez balira bezala tratatzen dituzte. Haurrekin baleude bezala, ezta? Sutan jartzen nau jarrera horrek. Gorroto dut.

Arrazakeria mota hori agerikoa da, halaber, bizitoki ofiziala Herbehereetatik kanpo duten emakumeei eta herrialdeko emakume etxegabeei ematen zaien tratuan. Emakume horiek, familia bisitatzea joateko, autoritateek onargarritzat jotako helbide bat izan behar dute, eta horrek berekin dakar Herbehereetan helbide finkorik ez duten emakumeak –beste herrialde batzuetako emakumeak izan ohi dira maiz, nahiz ez beti– ezin direla inoiz kartzelatik atera asteburu-pasa, ezta horretarako baimena dutenak ere. Emakume bat «atzerritarra» (eta, normalki, kolorekoa) izateak eragiten duen desoreka horrek esan nahi du ezen, nahiz eta Herbehereek ospe ona izan arraza-tentsio oso txikia dagoelako eta hango gobernu-politika aurrerakoia delako, arrazakeria instituzionala kartzela-sistemaren parte dela. Bizitokia Herbehereetan ez duten emakumeak, beraz, giza eskubideen urraketen xede dira, argi eta garbi.

Emakume-kartzelek, dena den, ezin dute soilik mende-kotasuna, etxekotasuna eta obedientzia ekarri, eta ohartu ginen Amerswielen hitz egin genuen emakume ia guztiak gai zirela Kaliforniako emakume presoengandik imajinaezinak zitzaizkigun sentimendu eta nahiak adierazteko. Francesek zera kontatu zigun bere mutil-lagunarekin bisita intimo batetik itzuli berritan (mutil-laguna eraikin bereko gizon-kartzelan zegoen): «Haur bat izan nahi dut berarekin. Baina horrek urteetako frustrazioa esan nahi du, zeren nik berrogeita lau urte dauzkat jada. Haurdun geratu, haur osasuntsu bat izan, arazoak handik eta hemendik, eta, hemen egonda, urte erdi atzeratzen da dena. Eta dagoeneko berandu nabil. Eta horrek kezkatzen nau. Eta batzuetan sentitzen dut ezin dudala arnasarik hartu, ez baitaukat denbora askorik».

Harrigarria egin zitzaigun, bestalde, emakumeek halako miresmenez hitz egitea Bernadette van Dam kartzela-

zuzendariak. Esate baterako, Annak zera nabarmendu zuen, Amerswielen haurrak zituzten emakumeei ematen zitzaaien babes instituzionalaz ari ginela: «Uste dut (zuzendaria) hagitz ona dela. Emakume ona. Egia esan, gauza anitz egiten du haurren alde». Ildo berean mintzatu zen Myrna ere: «Esanen nuke borrokalari bat dela. Emakumeen eskubideen aldekoa eta bestelako kartzela baten aldekoa».

Agentzia eta ahalduntzea

Herbehereetako emakume presoak elkarriketatzean, zehazten ahalegindu ginen zenbateraino hauspotzen zituzten hango kartzela-praktikek aurrera begirako estrategia pertsonalak eta zenbateraino sentitzen ziren gure elkarriketatuak ahaldunduta beren kartzela-esperientziez kritikoki jarduteko eta kartzelan zein kartzelatik kanpo nola bizi nahi zuten aukeratzeko zegokien eskubidea baliatzeko. Gai al ziren kartzelako egonaldiaz harago bizitza esanguratsu eta sortzaileak imajinatzeko? Eta hango baldintzek uzten al zieten ezagutzak bereganatzeko eta behin aske geratu ondoren baliatuko zituzten trebetasunak garatzeko ahalegin adierazgarriak egiten? Galdera horiek planteatzean, ez genuen betiko eztabaidan murgildu nahi, hau da, zer eginkizun duen kartzelak presoen errehabilitazioan. Aitzitik, gehiago interesatzen zitzaigun nola lantzen zuten elkarriketatu genituen emakumeek beren burua agentzia zuten emakume ahaldundu gisa irudikatzeko prozesua. Alegia, Penal Reform Internationalek autogarapenerako eskubidea deritzonarekin lotu nahi genituen auzi horiek.

Emakume batzuek gogo handia zuten gaitasun profesionalak bereganatzeko. Anna –gorago aipatu dugu– CODEGO presoen batzordeko kidea zen; batzorde horretan, erreklamazioak bideratzen zituzten Administrazioa eta kartzelako enplegatu uniformedun eta uniformegabeen aurkako kexez arduratzen zen kanpo-organora. Annak adierazi zigun bere burua indartzeko baliatu zuela kartzelako denbora eta behin aske geratu ondoren ere jarraitu nahi lukeela kartzela-baldintzak hobetzearen alde lanean. Teknologia informatikoa ari zen ikasten, bai eta hizkuntza-trebetasunak lantzen ere. Herbeheretar-karibetar jatorrikoa izanik, ongi moldatzen zen nederlanderaz, ingelesez eta espainieraz. Kartzelako emakumeetako asko espainiera- eta

ingeles-hiztunak zirenez, haren hizkuntza-ezagutzak garrantzia izan zuen segur aski batzorderako hautaketan.

Annak ikasketen garrantziari buruz egin genizkion galderi emandako erantzunek are gehiago korapilatzen dute berez aski katramilatsua den gai bat: nola hausten dituen kartzelak amaren eta haurraren arteko loturak. Gorago esan dugun bezala, Herbehereetako Justizia Ministerioa aztertzen ari den kartzela-praktika berritzaileetako bat da haurrak lau urteak arte kartzelan egon ahal izatea beren amarekin. Annari aukera eman zioten Sevenumera aldatzeko, han bere haur txikienarekin egoteko; baina, jakin zuelarik Sevenumen ez zuela izanen baldintza egokirik Amerswielen bezala ikasten segitzeko, aldaketarik ez eskatzea erabaki zuen. «[B]eraz, uko egin nion joateari, hemen askoz hobeki ikas dezakegulako, irakasleek askoz hobeki laguntzen digute, eta... niretzat oso garrantzitsua da orain, ohartzen naiz. Nire umeak ederki daude, nire gurasoek zaintzen dituzte, eta niretzat garrantzitsua da neure burua garatzea, aizuz. Hartara, hemendik irteten naizenean, zerbait egin ahalko dut».

Halaxe erabaki zuen berak, nahiz eta, segur aski, kritikak jaso izanen zituen bere burua garatzeko interesak haurraren gainetik jarri eta horrenbestez ama ona ez izateagatik. Baliteke kritika horiei erantzuteko agertu izana Sevenumeko antolaketaren aurka –bere umeak «ama gehiegi» izanen zituela zioen Annak–.

Annarena bezain adibide interesgarria da Lindarena. Berak ere aukera instituzionalak kritikatu zituen: uko egin zion senarrarekin sexu-harremanak izateari kartzelak hilean behin eskaintzen zizkion bisita ikuskatu gabeetan. Kontatu zigunez, ez zuen onartzen sexua izaterik beste preso batzuk beren bikotekideekin egondako ohe berean. Heerhugowaarden badira gizon eta emakumeentzako bi gela eta bi ohe, baina, hala ere, zera zioen Lindak: «Ez zait gustatzen. Ez, ez. Denok ohe berean. Gela bakararra dago, ez lau edo bost. Bakarra. Gela bakarra».

«Sexu erreala» izan baino, Lindak nahiago zuen film erotikoak ikusi; egunero ikus zitzaketen halakoak, preso ia guztiek ziegan zituzten telebistetan. Bestalde, senarrari esan zion bilatu zitzala beste sexu-aukera batzuk, baina ziurtatu zezala beti sexu segurua izatea. Kartzelatik ateratzen denean, harekin sexu-harremanak izaten hasi aurretik, GIBaren proba giteko eskatuko dio.

Zinez txunditu gintuen nola laudatzen zuten gainerako presoek ikasketak egin nahi zituen preso baten borroka. 1996ko apirilean elkarriketak egin genituelarik, Andrea kanpoan lan egiteko lehen egunerako prestatzen ari zen. Egun batean, Amsterdamerako trenaren esperoan geundela Heerhugowaardeko tren-geltokian, trenetik jaisten eta kartzelara joateko bizikleta hartzen ikusi genuen. Kanpoan lan egiteko baimena lortzen lehenbizikoa izan zenez kartzelaren historian, haren lorpenak historikotzat hartzen zituzten bai kartzelako preso kideek, bai kartzelazainek eta administrazio-langileek. Myrnak 64 urte ditu –«bukaerara iristen ari naiz», esan zigun–, eta behin eta berriaz errepikatu zigun «aukera gehiago» egon beharko liratekeela ikasteko. Zera zioen: «Gogoratzen duzue Andrea, koloreko neska eder bat? Gaur emanen du informatikako bere lehen eskola. Oso harro nago. Izugarria da; hain denbora gutxi izanik ere, diploma lortu zuen, eta, orain, irakaslea da».

Galdetu geniolarik ea posible ote zen preso ohien aurkako diskriminazio gero eta handiagoaren aurka egitea, Jeanek erantzun zigun baietz, eskolara joan eta titulu bat eskuratu dezaketen presoek posible zutela: «Andrea, adibidez, horretan ari da».

Hogeita zazpi urte ditu Andreak; hamar senideetan gazteena da, eta ez du ezkontzeko eta haurrik izateko asmorik. Harreman urria dauka familiarekin, baina ardura handia agertu zuen ama zaintzeari dagokionez, gaixo baitzegoen. Nahiago zuen beraren senideek, bisitan etorri ordez, tren-bidaia ordaintzeko erabiliko luketen dirua berari bidaltzea. Annak bezala, uko egin zion Sevenumera aldatzeari, zeina soilik amentzat eta haien haurrentzat izateaz gain herrialdeko emakume-kartzela erdiireki bakarra baita. Gurekin hitz egin zuten emakume askok aukeratu zuten beren zigorraren azken zatia aurreratu eta Sevenumera aldatzea, baina Andreak, Annak bezala, kontzienteki uko egin zion kartzela erdiirekian sartzea eskatzeari, Sevenumen ikasteko instalazioak ez direlako Amerswielekoak bezain egonkorrak. Galdetu geniolarik ea zergatik ez zuen Sevenumera joan nahi, zera erantzun zigun: «Dena okerragoa delako han. Tokia... jendea desberdina da. Eta ikasteko instalazioak kaskarrak dira. Eta ez dut egun guztia lanean eman nahi, zortzietatik bostetara, beste deus egin gabe. Nik ikasi egin nahi dut, eta hemendik atera aurretik tituluren bat lortu. Eta, horretarako, hangoa ez da hemengoa be-

zain ona. Han ez dut izanen laguntzarik, inork ez dit lagunduko, eta hemengo irakasleek laguntza handia ematen didate».

Andreak ere oso modu errealistan ikusten zituen bere mugak, eta beldur zen Sevenumera joan eta asteburu bat etxean eman ondoren ez ote zen kartzelara itzuliko. «Hara joaten bainaiz eta zaintzapeko askatasuna ematen badidate, urruti joanen naiz. Ez naiz itzuliko. Ez dut nire zigorra bukatuko, ez. Horixe da hara ez joateko arrazoietako bat». Nolanahi ere, Amerswieleko lehenbiziko presoak izan zen kartzelatik kanpo lan egiteko baimena lortzen, eta bulego batean ari da orain, ordenagailuak nola erabili irakasten.

Andreak bere buruaz agertzen duen ideiak pertsona ezohikoa izatearen nozioa zailtzen du, eta argi geratzen da zenbateraino ohartzen den nolako oztopo ekonomiko larriak izanen dituen, dudarik gabe, zigorra bukatzean. Horrek adierazten du etorkizunera begira zituen asmoak fantasiaz haragokoak zirela. Esate baterako, ez zuen inolaz ere ukatzen berriz atxilotu zezaketetik, batez ere lanik aurkitzen ez bazuen. «Lanik ez badut, ez dut zer eginik. Berriz dantza egiten saiatuko nintzateke. Eta, horrek funtzionatzen ez badu, pentsatzen dut negoziara itzuliko naizela. Zeren nik badut etxe bat, errenta ordaindu beharra dut. Nire ama bizirik badago, lagundu egin nahi diot, baita nire anaiari ere. Etxera ekarri nahi nuke nire anaietako bat, eta hari lagundu. Alegia, dirua behar dut, bai ba».

Bost urteko zigorraren kasik hiru urte beteak zituela, zigorraldi osoan bere apartamentuaren errenta ordaintzea lortu zuen Andreak, harrigarria bada ere.

Andrearen jokabidearen karakterizaziorik indartsuena Maureenek egin zuen: «Itzela da. Bere etorkizunaren alde borrokatzen ari da». Argi eta garbi, presoaren populazioaren barrenean salbuespentzat hartzen zuten Andrea bai preso kideek, bai kartzelako enplegatuek, baina, nolanahi ere, haren lorpen aitzindariak baliagarriak izan litezke Amerswielen lan-baimenen programa iraunkor baterako bidea irekitzeko. Beren etorkizunaren alde borrokatzean, Andreak eta antzeko borrokak xede dituzten beste batzuek agerian uzten dute ezen, giza eskubideen nozioak –nork bere burua garatzeko eskubidea, bereziki– kartzelari buruzko ikusmolde zorrotzen gainetik jartzen badira, ez dagoela zertan presoak tratatu populazio baztergarrietako kideak balira bezala.

Kartzela kritikatu, zigorra berrikusi

Artikulu honetan iradoki dugun bezala, behin eta berri harrigarria egin zitzaigun zenbat modutara adierazi zuten Amerswielen elkarriketatu genituen emakumeek beren agentzia. Hain zuzen ere, Kaliforniako elkarriketetan ere gurekin lan egin zuen transkribatzaileetako batek azpimarratu zigun ezen, Kaliforniako emakumeen aldean –orokorrean irudi baitzuen depresioak jota zeudela–, Herbehereetakoak puskaz atseginagoak zirela eta konfiantza zutela beren buruarengan. Aurreko ataletan ondoriozta daitekeenez –hala espero dugu–, ohar zuhurak egin zituzten ama espetxeratuen eta haien haurren ataka zailari eta beren garapen pertsonalari buruz. Zintzoak izan ziren kartzelako bizitza kritikatzeko orduan, eta ahoan bilorik gabe proposatu zituzten kartzelaren alternatibei buruzko ideiak.

Emakumeetako asko Herbehereetako kartzelei buruzko eztabaiden jakinaren ganean zeuden, eta ezaguna zitzaien harako iritzi kontserbadorea ere, hots, kartzela berriak ia luxuzko tokiak direla eta hango erosotasunak antz handiagoa duela hotelekin edo unibertsitateko logelekin, «kriminalak» aterpetzeko kartzelekin baino. Ez dago esan beharrik ikuspegi horiek bat datozela AEBn kartzelari buruz bolo-bolo dabiltzan ideia kontserbadoreekin. *Making Standards Work* laneko printzipioetako bat gogora ekarri, gizabanakoak «kartzelara bidaltzen dira zigor bat betetzeko, eta ez zigortuak izateko. Askatasuna galtzean datza zigorra. Kartzela-baldintzak ez lirateke erabili behar zigor gehigarri gisa».³⁵⁶

Kartzela-baldintza erlatiboki erosoak gorabehera –baldin eta esan badaiteke kartzela erosoak izan daitekeela–, bat ez beste emakume guztiek adierazi zuten oso gogorra egiten zitzaieela askatasunik ez izatea. Yvonne izan zen salbuespen bakarra; haren ustez, Amerswielen egotea ez zen «egiazko zigor bat». «Kartzela honetan bizitzeko modua ez da zigor bat. Hotel bat da hau. Ni trafikatzaila naiz, aizu, eta bezero anitz ditut, berrogei bat edo, berrogeita hamar bat edo. Negua iristen delarik, zeozar lapurtuko dute, dendetan eta holakoetan, atxilotuak izan eta negua kartzelan pasatzeko... Ez da zigor bat hemen egotea. Gure jantzia presta dezakegu, badugu gure komuna, gure dutxa... Mimos zaintzen dituzte presoak».

356 *Making Standards Work*, 14.

Carolén azalpenetan, bestalde, ikusi genuen bazegoela kontzientzia bat, ez zuela axola zein ongi tratatuak ziren presoak, zigor latza zela askatasunaren galera bera. «Eta faltan dut, faltan dut haize freskotan idorturiko arropen urrina, eta gauza txiki horiek: kartzelan zaudelarik, estimatzen dituzu. Libre zarelarik, segurutzat jotzen dituzu».

Emakumeetako asko, nolanahi ere, aski harriturik geratu ziren ohartu zirelarik kartzelako bizitzak ez zuela ia zerikusirik ordura arte kaleko kulturatik jaso zuten irudi andanaren aldean. Kontuan hartu behar dugu emakume askok kartzelaz zituzten ideiak AEBn ekoizitako filmetan oinarrituak zirela hein handi batean. Nonak kontatu zigun «AEBko kartzelari buruzko film eta dokumentazio ugari» ikusia zela. Annak ez zuen berariaz aipatu AEBko filmik, baina, hala ere, atxilotu zutelarik, zera galdetu zion kartzelazainari: «Emakume lesbiana anitz bada hemen?». Segur aski, AEBko ekoizpenetako estereotipoen eraginez galdetu izanen zuen hori. Victoriak, berriz, zera azaldu zigun: «[K]artzelak ikusten dituzu pelikuletan, eta nik Ameriketako Estatu Batuetako karteletan ikusi izan dut, adibidez, jendea giltzapetzen, jipoitzen eta torturatzen. Eta nik pentsatzen nuen horrelakoa zela kartzela, baina uste dut hemen [AEBn] okerragoa dela Holandan baino; Holandakoa ez da horrelakoa. Herbehereetako karteletan ikusi nuen gauza txar bakarra zera da, atea ixten dutela [zigako ateari da]».

Kontuan hartuta zein zorrozki hartzen den gaur egun kartzelak kontratu soziala hausteaz akusatutako pertsonentzako zigor legitimo bakarra izan behar duelako ideia bera (heriotzazigorra izan liteke salbuespena), bereziki interesatzen zitzaigun jakitea ea elkarriketatutako genituen emakumeek emanen ote zuten kartzelaren beharra zalantzan jartzeko pauso zaila, eta, baiezekoan, nola emanen ote zuten. Francesi galdetu geniolarik ea kartzela zigor eraginkorra ote zen, zera erantzun zigun:

Nire ustez, ez du jendea hobeagoa egiten, okerragoa baizik, zeren mingostuta ateratzen dira hemendik, oso oldartuta, oso etsita. Ez dut sinesten... kartzelan, batik bat hemen dauden emakume askorentzat. Konforme, egin behar ez zuten zerbait egin zuten, baina zigortu beste era batera, mingostu ez daitezen, bizitza arrunt bat izatea ukatu gabe, familiarengandik banandu gabe. Horrek arazo handiagoak besterik ez dakar ateratzen zarenerako.

Ameriketako Estatu Batuetan, kartzelaren eginkizunari buruzko usteak pixkanaka aldatu dira, eta, hala, errehabilitazioari garrantzia emateari utzi, eta zigorra lehenesteari ekin diote; Herbehereetako kartzelari buruzko diskurtsoan, aldiz, errehabilitazioaren xedeari eusten diote. Presoek kartzelaren porrotez serioski pentsatzeko duten gaitasunean islatzen da errehabilitazioa dagoela Herbehereetako kartzelari buruzko diskurtsoaren erdigunean. Areago, esan genezake elkarriketatu genituen emakumeetako askok hautematen zutela nolako kontraesana dagoen berez errehabilitazioaren eta kartzelaren artean, Foucaultek teorizatu zuen gisara.³⁵⁷

Emakume anitzek aipatu zuten kartzelak mingostasun sakona eta beste disfuntzio psikologiko batzuk eragiten dituela. Bestalde, aske geratzean ezinbestean aurrez aurre izanen dituzten zailtasunez ere aritu ziren; izan ere, kartzelan egon bitartean, harreman urria izaten dute beren familia eta lagunekin. Alta, kartzelaren ondoriozko jarrera psikologiko ahulgarriez gainera, egiturazko kontraesan batzuk ere identifikatu zituzten emakume askok –Foucaultek berak bezalaxe–: berez konpondu nahi lituzkeen egoerak sortzen ditu kartzelak. Annekek honela deskribatu zuen kartzelatik atera eta sartzeko ate birakaria:

Kartzelak, batzuetan, ez du funtzionatzen. Ez du laguntzen. Bertatik bertara ikusten dut hori. Bost aldiz egon naiz, eta hemen nago berriz. Kartzelatik aterata, dena bukatzean, nola iraunen ote dugun... Ideia zoragarriak izan ditzakezu hemen barrenean... Baina, deus ez zarenean, inor ez zarenean... Dirua behar duzu... Dirua irabazten duzu kalean, eta ikusten dituzu beste neska, gizon eta emakume batzuk kontsumitzen. Eta behin esnifitzen duzu, edo beste zerbait, eta hala hasten zara, eta gero berriz. Eta, orduan, besterik ez duzu nahi, eta orduan kartzelara zoaz berriz. Erokeria hutsa da.

Hain zuzen ere, «erokeria» hutsa da pentsatzea kartzelak desagerraraziko duela kriminalitatea gizartetik, zeren kartzelak gutxitan heltzen baitie jendea justizia penalaren sistemen esku geratzea dakarten egoerei. Kanpoan haien egoera ekonomikoa

357 Foucaulten arabera, «1830ean, dagoeneko gauza jakina zen kartzelak ez zuela balio kriminalak herritar zintzo bilakarazteko eta kriminal gehiago sortzeko, eta kriminalak are kriminalago egitea besterik ez zuela lortzen». Ikus J. J. Brochier, «Prison Talk: An Interview with Michel Foucault», in *Power/Knowledge: Selected Interviews and Other Writings*, edited by Colin Gordon (New York: Pantheon, 1980), 40.

aldatzen ez denez –pobrezia eta langabezia, eta, ondorioz, sexu-eta droga-ekonomiak– eta kartzela eremu abstraktu bat denez gizarte-baldintza errealean aldean, kartzelaren eraginez areagotu egiten da preso ohi bat kartzelara itzultzeko probabilitatea.

Nahiz eta Herbehereetan droga-kontsumoa despenalizatuta egon, droga-ekonomiaren goraldiari eta –batik bat Hirugarren Munduko herrialdeetako– gero eta emakume gehiago droga-trafikoan aritzeari zor zaio emakumeei gero eta kartzela-zigor gehiago ezartzea. «Nik uste dut kartzelak hor egon behar duela. Kriminalak dira. Nire ustez, urte gutxiago ezarri beharko litzaieke emakumeei, baina ez da ona emakumeak drogan ibiltzea. Hobe da emakumeok libre uztea... Egia denean jendeak zerbait egin duela, ziur zaudenean zigortu egin behar dituzula... Baina emakume gaixo horiek –entzun dituzu beren istorioak, zer behar dituzten– hobe da libre uztea eta atzera beren herrialdeetara itzularaztea». Emakume askok –edo gehienek– bat egin zuten iritzi horrekin. Victoriak adierazi zuen kartzela zigor egokia zela hilketa kasuetan («Uste dut kartzela izan beharko litzatekeela... egintza kriminalak egiten dituztenentzat... hiltzen dutenentzat»), eta, Rosaren ustez, haurren aurkako sexu-abusuak ere badira inor espetxeratzeko arrazoi: «Pertsona batek delitu oso gogor bat egin duenean –norbait hiltzea edo haurrak bortxatzea, adibidez–, orduan, kartzelara joan behar du. Baina drogengatik... Zer dela-eta espetxerutzen dute jendea kokainagatik?... Nahikoa litzateke gauza hori lotzea orkatilan, Ameriketako Estatu Batuetan bezala. Eta, atzerritarrek, beren herrialdeetara bidali eta kito».

Denak ados zeuden kartzela-zigorra ezarri behar zela hilketa kasuetan, baina, hala ere, zenbait emakumek sentiberatasunez azaldu zuten ezen, batzuetan, epaitegiek hilketatzat jotzen dutena –batez ere emakumeak tarteko direla– nor bere defentsan egin izaten dela, bikotekide gizonaren abusuaren aurkako erantzun bat, izan arrazionala edo ez izan. Hona Teresaren hitzak: «Hilketaz akusaturikoei ezin zaie etxe barruko atxilotarik ezarri: hori ez da posible. Hala ere, hemengo emakume asko beren burua defendatzen ari ziren. Hori beste kontu bat da. Alegia, hemengo neska bati gertatu zitzaion bezala, gizon batek nire umea hartuko balu eta burua plater batean sartuko balio –danba!–, platera hautsi eta... mutikoaren aurpegia odole-tan blai... Sentitzen dut, baina neronek ere hilko nuen».

Teresak sofistikazio handiz kritikatzan zuen kartzela-zigorak ezartzea etxeko tratu txarrei erantzun bat ematea helburu duten egintzetan –egintza guztiz ulergarriak izaki–, eta orobat sofistikazioz mintzo zen kartzelaren ondorio orokorreki buruzko gizarte-zientzien ikerketaz:

Batez ere emakumeentzat, tira, ikertzaile batzuek ere hala esan dute, bi urtetik gorako zigorrak ez du deusetarako balio. Horrek gauzak okerragotu besterik ez du egiten. Eta egia da, zeren nik bi urte baino gutxiago daramat hemen, eta badut halako... Eskatuko bazenit zerbait ilegala egiteko, aukeratu beharko banu, «ezta pentsatu ere!» esanen nizuke, zeren ni neska ona nintzen hona sartu aurretik. Baina orain... segun eta zenbat diru irabazten dudana... eta zenbat egin behar dudana horretarako. Eta, ikusten badut, tira, diru nahikoa dela urte erdirako edo, urtebeterako edo, arazorik ez. Uste dut oraintxe egingen nukeela.

Maureenek elkarriketan, behin eta berriz atera zen hizpidera beharrezkoak direla alternatibak, kartzela ez delako eraginkorra errehabilitaziorako, desegokia delako eta kalte egiten dielako haurrei. Baina, horrez gain, gaur egungo kartzela-sistema aldatzeko proposamenak ere egin zituen Maureenek. Zehazki, hobekuntzak eskatu zituen hezkuntza- eta lan-arloetan, eta argudiatu zuen emakume gehiagok izan beharko lukeela hezkuntzarako aukera:

Alternatibei dagokienez, uste dut oso beharrezkoa dela eskola hobea izatea kartzelan eta kanpoan lan egiteko aukerak izatea. Zure askatasuna eraikitzen saiatzea. Aukeraren bat izatea demostratzeko kartzela ez dela ona luzera begira, oso luzera begira. Kanpoko mundura itzultzeko prestatu behar duzu, berriz lanean hasteko, zure haurrak zaintzeko. Deus egin gabe egon eta bat-batean kanpora bazoaz, arrotza zara... Nire ustez, eskola da bide bakarra. Barrenean daukazuna erakusteko. Besteei erakusteko ez zarela... ez zarela kriminal bat sekula eta betiko... Erakutsi beharra daukagu kanpora atera gaitezkeela eta ez dela bidezkoa hain zigor luzeak bete behar izatea.

Emakume gehienak bat zetozen: bestelako alternatibak behar dira normalean kartzelarekin erantzuten zaien arazoei heltzeko. Ez zen erraza izan beste era bateko zigor egokiagoei buruzko ideia zehatzetara iristea; baina, edonola ere, emakume presoek maiz aipatu zuten eskumuturreko elektronikoa eramateko aukera («etxe barruko atxiloketa», zioten batzuek) eta kartzelaz kanpoko komunitate-zerbitzuetan lan egitea.

Kristenek zioen berak nahiago izanen zuela bere zerbitzuak komunitate mailako erakunde bati eskaini, kartzelari eskaini baino:

Kanpoan zerbait garbitu. Jende gutxi dago zahar-etxeetan lan egiteko... Demagun hemendik ateratzen naizela eta adineko emakume baten etxera joaten naizela, edo zahar-etxe batera, eta zerbait berezia kozinatzen dudala eta haiek diru pixka bat ematen didatela janari horren truke eta doan egiten dudala. Ba al dakizu ze... ze pozik jarriko litzatekeen jende hori? Gero, animalia-etxeak ere badaude, txakurtegiak. Garbiketak. Animaliak maite dituen jendeak garbiketak egitea... Ez dute soldatarik ordaindu behar, eta begira. Gauza asko egin daitezke kanpoan.

Kartzela-esperientziaren ondorioz, elkarriketatu ginituen emakumeetako batzuk gogoan agertu zuten behin aske geratu ondoren emakume presoekin loturiko gaietan lan egiteko. Francesek, adibidez, gazteentzako programa batean lan egin nahi zuen, «egintza kriminalen aurka» ohartarazteko: «Halako programa batean lan egin nahi nuke, gazteak bi aldiz pentsatze-ra bultzatzeko». Beste batzuek, berriz, emakume preso ohiekin loturiko gaietan lan egin nahi zuten. Juliak Amsterdamgo Tussenfasehuis proiektuan jardun nahi zuen,³⁵⁸ zeinean lo egiteko tokia eskaintzen baitzaie kartzelatik ateratako emakumeei; elkarriketa egin genuenean, baina, sei-zortzi emakumerentzako tokia besterik ez zegoen. Lillianek, Erdialdeko Amerikakoa bera, azpimarratu zuen kartzelan egondako emakumeek oso estatus baxua dutela gizarte gehienetan –edo guztietan, hobeki esanda– («Zer gara gu? Ez gara deus»). Honela zioen: «Libre geratzen naizenean, emakumeekin lan egin nahi dut, emakume pobreekin. Lana eman nahi diet, Mexikon. Horra nire ametsa».

Maureenek antzeko ametsa agertu zuen bere etorkizunaz eta, are, kartzelaren etorkizunaz aritzean:

Ez dut uste kartzela ona denik inorentzat... Ez dio onik egiten inori, batez ere haurrak dituzten emakumei... Ez dut uste bidezkoa denik jen-

358 Honela deskribatu zuen proiektua: «Tussenfasehuisen sartzen bazara, programa batean egiten duzu lan, programa batean egin dezakezu lan, eta ez dago arau zailik. Gauza bakarra esaten dizute: "Ez dugu nahi drogazalerik". Betetzen ez baduzu, kanporatu egiten zaituzte. "Baina, borroka egin nahi baduzu, zurekin egingen dugu borroka, laguntza emanen dizugu Gizarte Segurantzaren sartzeko, dirua lortzeko, dirulaguntzak eskuratzeko, gizarte-zerbitzuen bulegora jotzeko eta hilerio diru bat eskuratzeko, eta etxe bat lortzeko, errentan". Berriz hasten laguntzen dizute».

dea bere haurrengandik luzaroan banatzea... Kalera ateratzen naizenean, zerbait eginen dut barrenean geratzen direnen alde, hori seguru... Norbaitek erakutsi beharko dio gobernuari edo presidenteari edo erreginari, edonori, ez dela bidezkoa jendea giltzapetzea eta kanpoko gizartetik at uztea luzaroan. Ez da gauza ona.

Ondorioa

Egia esan, konpondu dituen bezainbeste arazo sortu ditu emakume espetxeratuen auzia «eskubide-berdintasun» deritzon testuinguru demokratiko burges baten barrenean kokatzeko joera historikoak. Duela gutxi, gure garaiko AEBn lehenbizikoz ibili dute emakume preso bat zangoak katez loturik, Phoenix erdialdeko karriketan, Arizonan, eta honako adierazpen hauek egin ditu Joe Arpaio sheriffak kontu horren harira: «Ez dut uste nire kartzela-sisteman diskriminaziorik dagoenik».³⁵⁹ Alde horretatik, emakume presoentzat eskubide-berdintasuna eskatzeak AEBko zigor-industria indartu besterik ez luke eginen. Horregatik, giza eskubideen ikuspegitik jardutea proposatzen dugu guk, 1951n Paul Robesonek eta W. L. Pattersonnek AEBko beltzen izenean Nazio Batuei aurkezturiko Genozidioaren Aurkako Eskajeraren tradizioaren ildotik.³⁶⁰

Emakume presoek izenean kartzelaren aurkako estrategia erradikalak giza eskubideen testuinguruan garatzeko, beharrezkoa da onartzea presoek giza eskubideak defendatzeak berez ez dakarrela kartzelaren legitimazioaren aurka egitea. Penal Reform International erakundeak zera dio krimenaren arazoiari eman beharreko erantzunaz: «Ahal delarik, inori askatasuna ukatu baino lehen, komunitatean gauzatzeko zigor eta neurriak ezarri behar lirateke».³⁶¹ Kontua da presoek askatasuna galtzea eta estatuaren zaintzapean geratzea dela, hain zuzen, haien giza eskubideen plangintzaren abiapuntua: izan ere, «[a]skatasuna ukatzen denean, giza eskubideekin loturiko auziak azaleratzen dira».

Guk hainbat mailatara hedatu nahi genuke kartzela-populazioentzako estrategia erredukzionisten eta abolizionisten

359 «Arizonako sheriffak emakume preso kateatuen sistema baliatu du», *Washington Post*, 1996ko irailaren 20a.

360 Ikus William L. Patterson, arg. *We Charge Genocide: The Crime of Government Against the Negro People* (New York: International Publishers, 1971).

361 *Making Standards Work*, 14.

gaineko eztabaida: politika publikora, diziplinarteko ikerketara, behetikako erakundeetara. Gure ustez, era horretako esku-hartzeak dira AEBko kartzela-industria konplexuaren zabalkundea galgatzeko itxaropen bakarra. Ildo horretan, giza eskubideen gaineko ikuspegi erradikal bat taxutzen ahalegindu gara, kartzelan daudenen sufrimendua arintzea helburu harturik eta, horrez gain, ikuspegi hori kartzela-abolizionismoarekin lotuz.

Rose Johnstonek dioen bezala, giza eskubideen oinarrian dauden ideiak desberdinak izan daitezke testuinguru sozialen arabera, baina, hala ere, oraindik ere badira «oinarizko zenbait parametro beharrezkoak direnak gizakiak bizirik iraun dezan: osasuna, segurtasun ekonomikoa, gizarte-harremanak, eta bizitza kultural eta moral bat garatzeko aukera. Bizitzaren alderdi horiek guztiek bermatzen dute gizaki izatea».³⁶²

Ezin proposatu dugu Herbehereetako kartzela-sistema eredugarria denik –izan ere, Herbehereetako ahots kritikoen arabera, larriki narriatzen ari da, droga-ekonomiaren eraginez–, baina, edonola ere, AEBkoa baino askoz koherenteagoa bada, gatibutza-baldintzak egituratzean giza eskubideen printzipioak kontuan hartzen dituen heinean. Herbehereetako sistemaren ezaugarriak aurrerakoienak –eta bereziki kartzela-sistemaren kontraesana agerian jartzen duten ezaugarriak, kartzelak kartzelaz harago iritsi nahi baitu beti– tresna egokiak izan daitezke AEBko kartzela-industria konplexua analizatzeko. Marguerite Bouvardek Maiatzeko Plazako Amen lanaz egindako azterketa estrapolatuz, giza eskubideen aldeko borroken aukera erradikalak balia litezke kartzelari buruzko lanetan.³⁶³ Izan ere, Bouvardek azaltzen duenez, giza eskubideen alde lan egiteko eredu berri bat eratu zuten Maiatzeko Plazako Amek: balio demokratikoekin modu irekian lan egitea esplizituki autoritarioak diren esparruetan. Haren lana Argentinako Juntaren garaiazen testuinguruan kokatua badago ere, era horretako ikuspegi bat lagungarria litza-teke Ameriketako Estatu Batuetako kartzelai buruzko azterlanak erradikalizatzeko.

362 Barbara Rose Johnston, «Environmental Degradation and Human Rights Abuse», in *Who Pays the Price? The Sociocultural Context of Environmental Crisis*, arg. Barbara Rose Johnston (Washington: Island Press, 1994).

363 Marguerite Guzman Bouvard, «A New Model in the Struggle for Human Rights», in *Revolutionizing Motherhood: The Mothers of the Plaza de Mayo* (Wilmington, DE: Scholarly Resources, 1994).

